



2011

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA
evaluación diagnóstica



EMAITZEN TXOSTENA ETA
ALDAGAIEN ANALISIA
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA



ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACION
E INVESTIGACION EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION



Argitaratzailea: ISEI-IVEI

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias, 9 -3

48015 Bilbao

Tel.: 94 476 06 04

Info@isei-ivei.net

www.isei-ivei.net

2012ko maiatza

Txostena egin dutenak: M^a Dolores Damborenea, Eduardo Ubieta Muñuzuriren aholkularitza teknikoarekin eta ISEI-IVEIko zuzendaritza-taldearen berrikusketa eta onarpenarekin.

Ebaluazio diagnostikoko prozesuaren garapenean parte hartu dutenak: Alfonso Caño, koordinatzailea; Cristina Elorza, Arrate Egaña, Inmaculada Tambo, Araceli de Francisco, Esmeralda Alonso, Trini Rubio eta Jesús Grisaleña, itemak egitearen arduradunak; Berritzeguneko aholkulariak, itemen egileak; José Luis Tranche, estatistikako kalkuluak; Mikel Urkijo, informatika-aplikazioaren kontrola; Yolanda Méndez eta Araceli Angulo, proben aplikazio kontrola, Carmen Núñez eta José Ramón Ugarriza, digitalizazioa.

Azaleko irudia: Alicia Sainz. Mihisearen gaineko olio, teknika mistoa. *Y más...* I. 100x100.



AURKIBIDEA

1. SARRERA	7
a) Ebaluazio diagnostikoaren helburuak eta ezaugarriak	9
b) Txostenaren helburua	10
c) Txostenaren edukia	10
2. PROBEN ETA APLIKAZIO PROZESUAREN DESKRIBAPENA	13
a) Aplikazio-prozesua.....	15
b) Populazioaren deskribapena.....	15
c) Probako hizkuntza	21
d) Errendimendu-proben deskribapena.....	22
e) Ezarritako konpetentzia mailak	23
f) Ikaslearen galdera-sortak.....	24
3. DBHko 2. MAILAKO IKASLEEN EBALUAZIOAREN EMAITZAK	29
3.1. Ebaluatutako oinarritzko konpetentzietako emaitzen azterketa.....	31
1. <i>Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia</i>	33
a) Definizioa eta dimentsioak.....	33
b) Emaidza orokorrak.....	34
c) Errendimendu mailen deskribapena eta ikasleen banaketa	34
d) Emaidzak konpetentziako dimentsioen arabera.....	35
e) Emaidzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)	38
f) Emaidzak dimentsioen eta geruzen arabera.....	40
g) Emaidzak hizkuntza-ereduen arabera.....	41
h) Emaidzak etxeko hizkuntzaren arabera	45
i) Emaidzak Indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK).....	47
j) <i>Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren errendimenduan izandako bilakaera</i> <i>(ED09-ED10 eta ED11)</i>	50
k) <i>Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako azterketaren ondorioak</i>	55
2. <i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia</i>	59
a) Definizioa eta dimentsioak.....	59
b) Emaidza orokorrak.....	60
c) Errendimendu mailen deskribapena eta ikasleen banaketa	60
d) Emaidzak konpetentziako dimentsioetan	62
e) Emaidzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)	64
f) Emaidzak dimentsioen eta geruzen arabera.....	66
g) Emaidzak etxeko hizkuntzaren arabera	67
h) Emaidzak Indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK).....	68
i) <i>Lortutako emaitzen eta ISEK indizearen arabera espero zitezkeen emaitzen arteko</i> <i>alderaketa</i>	70
j) <i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren errendimenduan izandako bilakaera</i> <i>(ED09-ED10 eta ED11)</i>	71
k) <i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako azterketaren ondorioak</i>	75
3. <i>Matematikarako konpetentzia</i>	79
a) Definizioa eta dimentsioak.....	79
b) Emaidza orokorra	80
c) Errendimendu mailen deskribapena eta ikasleen banaketa	80
d) Emaidzak konpetentziako dimentsioen arabera.....	81
e) Emaidzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)	83
f) Emaidzak dimentsioen eta geruzen arabera.....	85
g) Emaidzak probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera	87



h)	Emaitzak Indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK).....	93
i)	Lortutako emaitzen eta ISEK indizearen arabera espero zitezkeen emaitzen arteko alderaketa	94
j)	<i>Matematikarako konpetentzia</i> errendimenduan izan den bilakaera (ED09-ED10 eta ED11).....	96
k)	<i>Matematikarako konpetentziaren</i> azterketaren ondorioak	99
4.	<i>Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia</i>	103
a)	Definizioa eta dimentsioak.....	103
b)	Emaitza orokorrak.....	104
c)	Errendimendu mailen deskribapena eta ikasleen banaketa	104
d)	Emaitzak konpetentziako dimentsioetan	105
e)	Emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)	108
f)	Emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera.....	110
g)	Emaitzak hizkuntza-ereduen arabera.....	111
h)	Emaitzak Indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK).....	111
i)	Lortutako emaitzen eta ISEK indizearen arabera espero zitezkeen emaitzen arteko alderaketa	113
j)	Emaitzak eta ingelesezko eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzea	114
k)	Ingeleseko eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzea eta ikasleek konpetentzia desberdinetan lortutako emaitzak	115
l)	Ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea eta ISEKa.....	116
m)	Ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea eta geruzak.....	116
n)	<i>Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako</i> azterketaren ondorioak	119
3.2.	Geruzen ezaugarriak ISEKen arabera	121
1.	Geruzen emaitzak eta ezaugarriak ISEKen arabera.....	123
2.	A geruza publikoa.....	127
a)	Geruzaren ezaugarriak	127
b)	Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa	129
3.	B geruza publikoa	131
a)	Geruzaren ezaugarriak	131
b)	Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa	133
4.	D geruza publikoa.....	135
a)	Geruzaren ezaugarriak	135
b)	Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoaen	137
5.	Itunpeko A geruza	139
a)	Geruzaren ezaugarriak	139
b)	Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa	141
6.	Itunpeko B geruza	143
a)	Geruzaren ezaugarriak	143
b)	Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa	145
7.	Itunpeko D geruza.....	147
a)	Geruzaren ezaugarriak	147
b)	Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa	149
4.	IKASLEEN EMAITZETAN ERAGINA DUTEN ALDAGAIEN AZTERKETA	151
1.	Ikasleen sexua.....	155
a)	Emaitza orokorrak.....	155
b)	Ikasleen banaketa errendimendu mailen arabera	156
c)	ED09-ED10 eta ED11 ebaluazioetan emaitzek sexuen arabera izan duten bilakaera	157



2.	Dagokion ikasmilan egotea	159
	a) Emaizta orokorrak.....	159
	b) Ikasleen banaketa errendimendu mailen arabera	160
	c) ED09-ED10 eta ED11 ebaluazioetako emaitzen bilakaera.....	161
3.	Etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza	163
	• <i>Matematikarako konpetentzian</i> B eta D ereduaren emaitzen bilakaera probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera.....	165
4.	Aitaren eta amaren ikasketa maila	169
	a) Aitaren ikasketa maila eta ebaluatutako konpetentzietako puntuazioa.....	169
	b) Amaren ikasketa maila eta ebaluatutako konpetentzietako puntuazioa.....	171
5.	Matematika arloko ikasgelako kalifikazioen eta Ebaluazio diagnostikoko emaitzen arteko korrelazioak.....	173
	a) Matematikako ikasgelako kalifikazioak geruzen arabera (ikastetxearen titulartasuna eta hizkuntza-eredua).....	174
	b) Ikasgelako kalifikazioen eta Ebaluazio diagnostikoko emaitzen arteko lotura.....	175
	c) Ikasleen banaketa ikasleen kalifikazioaren eta <i>Matematikarako konpetentzian</i> lortutako kalifikazioaren arabera.....	177
	d) Ikasgelako kalifikazioaren eta ikasleak eskolatuta dauden taldearen arteko lotura	178
6.	Familiaren jatorria: jatorri atzerritarra duten ikasleak.....	181
	a) Emaizta orokorrak aldagai batzuen arabera.....	182
	b) Ikasle etorkinen emaitzen bilakaera	191
	c) Ikasle etorkinei emandako hezkuntza-erantzunari buruz ikastetxeek duten pertzepzioa.....	192
7.	Ikasleen aurreikuspen akademikoak	195
	a) Ikasketa-aurreikuspenak eta ebaluazioan lortutako emaitzak.....	195
	b) ED09-ED11 arteko alderaketa, ikasketa-aurreikuspenei eta emaitzei dagokienez.....	196
8.	Laneko ohiturak ikastetxetik kanpo	199
	a) Etxerako lanak egiteari egunero eskaintako denbora eta ebaluazioan lortutako emaitzak	199
	b) Autonomia etxerako lanak egitean	201
	c) ED09 eta ED11 arteko alderaketa etxerako lanak egiteari eta lortutako emaitzei dagokienez	202
9.	Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programa egiten duten DBHko 2. mailako ikasleak	205
	a) HBSP programa egiten duten ikasleen jaiotza-urtea	206
	b) HBSP programa egiten ari diren ikasleak eta lortutako emaitzak.....	207
10.	Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen deskribapen-azterketa.....	209
	a) Hezkuntza-premia bereziko egoerak	209
	b) Prestatu diren baliabideak	210
	c) Ebaluazio diagnostikoan egokitzapen motaren bat duten ikasleen datuak.....	211
	d) Sartzeko egokitzapena edota arloko CEI duten ikasleen banaketa, geruzen eta ereduaren arabera	211
	e) Sartzeko egokitzapena edota arloko CEI duten ikasleen sexua eta jaiotza-urtea.....	212
	f) Proba egin duten ikasleak, sartzeko egokitzapena edota arloko CEI dutenak, eta konpetentzien arabera batez besteko orokorrean sartu direnak	213

5. IKASTETXEEN AZTERKETA LORTUTAKO EMAITZEN ETA ERAGINKORTASUNAREN ARABERA

a)	Emaizta altuenak eta baxuenak dituzten ikastetxeak.....	218
b)	Eraginkortasun maila handienak eta txikiak dituzten ikastetxeak.....	219
c)	Emaizten bilakaera (ED09, ED10 y ED11)	222
d)	Ikastetxeetako emaitzen azterketatik abiatutako ondorioak	225

6. EMAITZETAN IZANDAKO ALDEAK AZALTZEKO EREDUA

a)	Emaizten aldakortasunaren azterketa: ikastetxeen arteko bariantza	229
b)	Emaiztetako aldean azalpen-eredua	231



7. IKASTETXEAREN GALDERA SORTA.....	237
a) Zuzendaritza-taldeek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko arloei buruz duten pertzepzioa.....	239
b) Zuzendaritza-taldeek elkarbizitza eta ikaskuntza arlokoen gainean duten pertzepzioa	242
8. 2011ko EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN ONDORIO OROKORRAK.....	247



I. SARRERA





Hezkuntzaren 2006ko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak (LOE) eta 175/2006 Dekretuak (2010eko martxoaren 30eko 97/2010 Dekretuak aldatu zuen), Euskal Autonomia Erkidegorako Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak ezartzen duenak, honako hau xedatzen dute: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle guztiak, funts publikoen bidez lagundutako ikastetxeetan eskolatutakoek, oinarrizko konpetentzien Ebaluazio diagnostikoa egin behar dute.

Arau hori betez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila 2008-09 ikasturtean hasi zen Ebaluazio diagnostikoa lehen aldiz aplikatzen, 2009-10 ikasturtean bigarren aplikazioa egin zuen, eta 2010-11 ikasturtean hirugarrena. Sailaren hiru zerbitzuek elkarrekin garatutako ebaluazioa da: Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI), Hezkuntza Ikuskaritzak eta irakasleei laguntza emateko zerbitzuak (Berritzegune) elkarrekin garatutakoa.

Ez dago "oinarrizko konpetentzia" kontzeptuaren onarpen unibertsalik; hala ere, konpetentzia garrantzitsutzat, beharrezkotzat edo oinarrizkotzat hartu ohi dira edonorentzat eta gizartearentzat beharrezkoak eta onuragarriak direnak; beharrezko konpetentzia horiek "gizarteko kide aktibo gisa bizitza egokia eduki ahal izateko lagun guztien beharrezko ezagutzen, trebeziak eta jarrerak multzo" gisa ulertzeko adostasun komuna dago.

Ikuspegi honetatik, alor edo jarduera batean trebea izateak alor horrekin lotutako egoera eta arazo jakin batzuei aurre egin ahal izateko ezagutza garrantzitsuak aktibatzen eta erabiltzeko gai izatea esan nahi du. Hau da, ezagutze gain, hauek egiteko konpetentzia duela esan nahi du: eskuratutako ikaskuntzak modu fidagarrian aukeratzeko eta aplikatzeko, egoera zehatzetan erabiltzeko eta bere esperientzia pertsonaletik eta hezkuntza-esperientziatik hurbil dauden egoeretan eta testuinguruan arazoak ebazteko.

Ebaluazio diagnostikoaren aurtengo edizioan (ED11), ED09ko eta ED10eko edizioetan ebaluatutako oinarrizko hiru konpetentziez gain, lehen aldiz, *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia* sartu da; horrek 2009 ikasturtean egindako *Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentziaren ebaluazioa* eta 2010. urtean egindako *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia* ordezkatu du.

a) Ebaluazio diagnostikoaren helburuak eta ezaugarriak

Ebaluazioa ikastetxetik kanpokoa eta estandarizatua da, eta horren ardurua Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio.

Luzetarako ebaluazioa da eta ikasleen multzo beraren informazioa eskaintzen du derrigorrezko eskolatzeko-aldiko bi mailatan: Lehen Hezkuntzako 4. mailan, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan. Horri esker, irakasleek ikasle bakoitzak bi momentu jakinetan izandako bilakaerari buruzko datuak eskura ditzakete: Lehen Hezkuntzaren 2. zikloa amaitzean eta DBHko bigarren maila amaitzean.

Zentsuko ebaluazioa da; bertan, ikasle guztiak parte hartzen dute, funts publikoekin mantendutako Euskadiko ikastetxe guztietan aipatutako mailatan eskolatutakoek.

Helburu orokorrak

- Ikastetxeak bizitzarako zenbat prestatzen duen baloratzea eta ikasleak gizarte modernoko biztanle gisa duten betebeharra beren gain hartzeko zenbateraino prestatuta dauden baloratzea.



- Ikastetxeei hezkuntza-jarduera hobetzen laguntzea.
- Administrazioari hezkuntza-politika bideratzeko informazio baliagarria ematea.

Helburu zehatzak

- Oinarrizko konpetentzien ebaluazioaren bidez, Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen hezkuntza-helburuen lorpen maila ezagutzea eta baloratzea.
- Hezkuntza-prozesuekin lotutako faktoreak eta aldagaiak, eta oinarrizko konpetentzien lorpenean eta garapenean eragiten duten testuinguruko faktoreak aztertzea.
- Ikastetxeei balio duten informazio nahikoa eta garrantzitsua eskaintzea, beharrezko neurriak eta programak antolatzen laguntzeko, ikasleen arreta hobetzera eta egokiak diren oinarrizko konpetentziak lortzea bermatzera zuzenduta; eta, hala baldin badagokio, aurreko ikasturteetan egindako jarduerak baloratu eta birbideratzeko.
- Euskadiko hezkuntza-administrazioari beharrezko informazioa, objektiboa eta garrantzitsua eskaintzea, hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzera zuzendutako erabakiak hartu ahal izateko.
- Familiei semearen edo alabaren konpetentzien lorpen mailaren inguruko informazio garrantzitsua ematea, motibatuzko eta hobekuntza errazteko helburuarekin.
- Hezkuntza-komunitateko kide guztien eta Euskadiko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntza zerbitzuen ahaleginen lankidetzeta eta integrazioa bultzatzea, euskal ikasleen errendimendua hobetzeko.

Ikastetxeetako emaitzen informazioak hiru zehaztapan maila ditu: ikastetxearen datu orokorrak ebaluatutako bi maila horietako bakoitzean, ikasmila bakoitza osatzen duten taldeen datuak eta talde bakoitzeko ikasle guztien banakako datuak. Familia bakoitzak, ikastetxearen bidez, semearen edo alabaren inguruko banakako txostena jasoko du.

b) Txostenaren helburua

Txosten honen azken helburua, Lehen Hezkuntzako 4. maila eta DBHko 2. maila osatzen duten talde bakoitzean, ikastetxeetan lortutako emaitzei buruzko informazioa osatzea da. Ebaluazioaren emaitzen azterketa zehatzagoa jarri nahi da ikastetxeen eskura, betiere, irakasleek, hezkuntza esku-hartzean, hobekuntza-neurriak ezarri ahal izateko beste datu objektibo batzuk izan ditzaten.

c) Txostenaren edukia

Txosten honek, ebaluatutako konpetentzietan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan ikasleek lortutako emaitzen azterketa biltzen du, baita banakako edo testuinguruko zenbait aldagaik horietan duten eragina ere. Ebaluazio diagnostikoaren hirugarren edizioa denez, egonkor mantentzen diren hiru konpetentzietan emaitzen bilakaera ikusteko aukera ematen duen konparaziozko azterketa ere egin daiteke.



Informazioa atal hauetan egituratzen da:

- Ebaluatutako oinarrizko kompetentzia bakoitzaren emaitzak.
 - Konpetentzia bakoitzaren batez besteko puntuazioa.
 - Ikasleak konpetentzia mailen arabera banatzea.
 - 2009, 2010 eta 2011 urteetako ebaluazioetan emaitzek izan duten bilakaera.
- Geruzen emaitzak eta ezaugarriak ISEKen arabera.
- Emaitzetan eragin berezia duten aldagaien azterketa.
- Ikastetxeen emaitzen bilakaera.
- Emaitzetako aldean azalpen-eredua.
- Ikastetxeetako galdetegian bildutako aldagaiei buruzko informazioa.





2. PROBEN ETA APLIKAZIO PROZESUAREN DESKRIBAPENA





a) Aplikazio-prozesua

• Proben aplikazio pilotua

Probetako item horiek konpetentzia bakoitzeko adituen taldeak prestatu zituen eta ISEI-IVEI arduratu zen koordinazio-lanez. Item horiek, lehenik eta behin, behar adinako ordezkariak zuten ikasleen laginarekin probatu zituzten modu esperimentalean. Itemen aplikazio pilotua probak aplikatu ziren egunetan egin zen.

Proba pilotu horiek itemen kalitatea egiaztatu zuten, ikasleen jardueraren maila ugariak behar bezala neurtu ahal izateko; hau da, itemen zailtasun maila eta irekitako itemetako zuzenketa-irizpideen sendotasuna egiaztatu zituzten. Gidaketaren emaitzen bidez, behin betiko proban sartu ziren itemak aukeratu ahal izan ziren.

• 2011ko ebaluazioko aplikazio-prozesua

Ebaluazio diagnostikoa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 2011ko otsailaren 21etik martxoaren 11ra bitartean egin zen. Probetako item horiek konpetentzia bakoitzeko adituen talde batek prestatu zituen, eta ISEI-IVEI arduratu zen koordinazio-lanez. Ikasleen proben aplikazio-lanak ikastetxetik kanpoko langileek egin zituzten eta haien kalitate-kontrolaren ardura Hezkuntzako Ikuskaritzarena eta ISEI-IVEIrena izan zen.

Ikastetxearen eta ikasleen galdera-sortak, batez ere, *on line*, web bidez, bete zituzten (Lehen Hezkuntzako ikastetxeen % 93k eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen % 97k eman zituen erantzunak *on line*).

Ikastetxeetan probak bi egunez jarraian aplikatu zituzten. Horien iraupena, gutxi gorabehera, egunean hiru ordu eta erdikoa izan zen guztira. Egun haietako bakoitzean, ikasleek errendimenduko bi probari erantzun zieten. Konpetentzia jakin baten inguruko proba batetik bestera 20 eta 30 minutu arteko atsedendia izan zuten. *Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziari* dagozkion bi probak egun ezberdinetan egin zituzten. Ikasle batzuek aplikazioaren lehen egunean bete zuten *Ikasten ikasteko konpetentzia* berriari dagozkion proba pilotua, 35 minutuko iraupenarekin.

Ebaluatutako oinarritzko konpetentziak		Proben iraupena
<i>Hizkuntza-komunikazioa*</i>	Euskara	80 minutu
	Gaztelania	80 minutu
	Ingelesa	80 minutu
<i>Matematikarako konpetentzia</i>		55 minutu

(*) Denbora-tarte horretan, *Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* hiru alderdiei dagozkien probak egin zituzten: irakurmena eta idazmena, eta entzumena.

b) Populazioaren deskribapena

Zentsuko ebaluazioa denez, 2011ko proban, aurreko edizioetan bezala, diru publikoarekin mantendutako ikastetxeetan (publiko zein itundutako) eskolatutako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle guztiek parte hartu zuten. Hau izan da hiru edizioetako banaketa:



	DBHko 2. maila		
	ED09	ED10	ED11
Ikastetxe kopurua	335	333	330
Talde kopurua	839	858	870
Ikasle kopurua	17.550	18.021	18.279


- **Ikastetxe kopurua**

Jarraian ageri den taulan, ikastetxe kopurua ikus dezakegu ebaluazioan esku hartu zutenean zuten edo zituzten hizkuntza-ereduen arabera:

Ikastetxeak eta hizkuntza-ereduak ¹					
DBHko 2. maila					
1 eredu zuten ikastetxeak	%	2 eredu zituzten ikastetxeak	%	3 eredu zituzten ikastetxeak	%
236	% 71,5	82	% 24,8	12	% 3,6
Guztira: 330					

Ikus dezakegunez, ikastetxeen % 71,5ek (236 ikastetxe) hizkuntza-eredu bakarra du (A, B edo D); ikastetxeen % 24,8k (82 ikastetxe) bi eredutan eskaintzen du hezkuntza (BD, AD edo AB), eta ikastetxeen % 3,6k (12) eskaintzen ditu hiru hizkuntza-ereduak (A, B eta D).

1. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Ikastetxeen ehunekoa hizkuntza-ereduen arabera.



- **Ikastetxeen ehunekoaren bilakaera eskaintzen duten hizkuntza-ereduen arabera (ED09-ED10-ED11)**


Hizkuntza-eredu bakarrean irakasten duen ikastetxeen kopuruak gora egin du Ebaluazio diagnostikoa egin dugun hiru urteotan. ED09an, ikastetxeen % 69,9k eredu bakarra zuen, eta ehuneko hori % 71,5era igo da ED11n.

¹ Datuak ehunekotan azaltzen diren taula guztietan, baliteke puntuazioen batuketan ez izatea % 100ekoa. Ehunekoak kalkulatzeko hamartarrak biribildu izanaren ondorio izan daiteke.



EDIIko datuak kontuan hartuta, hizkuntza-eredu bakarra (A, B edo D) eskaintzen duten ikastetxe guztietatik, % 58,5ek irakaskuntza D ereduan eskaintzen du; % 30,9k B ereduan, eta % 16,6k A ereduan.

2. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-EDII. Ikastetxeen ehunekoaren bilakaera hizkuntza-ereduen arabera.




- **Talde kopurua**

Jarraian, DBHko 2. mailako ikastetxeetako ikastalde kopurua ageri da hizkuntza-ereduen arabera:

Hizkuntza-eredu bakoitzeko talde kopurua					
DBHko 2. maila					
A eredu	%	B eredu	%	D eredu	%
118	% 13,6	242	% 27,8	510	% 58,6
Guztira: 870					

2011ko Ebaluazio diagnostikoan, DBHko 2. mailan, 118 talde daude A ereduan (talde guztiak kontuan hartuta, % 13,6); B ereduan, aldiz, 242 talde daude (maila horretan dauden talde guztien % 27,8), eta D eredu 510 taldek osatzen du (guztizkoaren % 58,6).

3. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ikastaldearen ehunekoa hizkuntza-ereduen arabera.






- **Taldeen ehunekoaren bilakaera eskaintzen duten hizkuntza-ereduen arabera (ED09-ED10-ED11)**

Ebaluazio diagnostikoaren hiru ebaluazioetan, ikastetxe taldeen ehunekorik handiena D eredukoa dela ikus dezakegu; aldiz, A eredukoa da txikiena. EDren hiru edizioetan, A ereduko taldeen ehunekoa gutxitu egin da eta B ereduarena, aldiz, egonkor mantendu da.

4. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11. Taldeen ehunekoaren bilakaera hizkuntza-ereduen arabera.



- **Ikasleen ehunekoa geruzen arabera**

Hurrengo tauletan, DBHko 2. mailako ikasleen banaketa ikus dezakegu hezkuntza-sarearen (publikoa edo itunpekoa), hizkuntza-ereduen eta geruzen arabera.

DBHko 2. mailako ikasleen banaketa hezkuntza-sarearen arabera			
Sare publikoa		Itunpeko sarea	
Kopurua	%	Kopurua	%
8.488	% 46,4	9.791	% 53,6
Ikasleak, guztira: 18.279			


DBHko 2. mailako ikasleen banaketa hizkuntza-ereduaren arabera					
A eredia		B eredia		D eredia	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
2.622	% 14,3	5.134	% 28,1	10.523	% 57,6
Ikasleak, guztira: 18.279					

DBHko 2. mailako ikasleen banaketa geruzen arabera											
A publikoa		B publikoa		D publikoa		Itunpeko A		Itunpeko B		Itunpeko D	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
979	% 5,4	923	% 5	6.586	% 36	1.643	% 9	4.211	% 23	3.937	% 21,5
Ikasleak, guztira: 18.279											



EDI In, ikasleen ehunekorik handiena itunpeko sarean eskolatuta dago (% 53,6). Ereduetan arreta jartzen badugu, ikasleen ehunekorik handiena D ereduaren (% 57,6) topatuko dugu, eta ikasleen ehunekorik txikiena, aldiz, A ereduaren (% 14,3). D eredu publikoan ikusiko dugu ikasleen ehunekorik handiena (% 36).

5. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Geruza bakoitzeko ikasleen ehunekoa.




- **Geruza bakoitzak ED09-ED10 eta EDII Ebaluazio diagnostikoetan dituen ehunekoaren bilakaera**

Jarriaian, geruza bakoitzak orain arte egindako hiru ebaluazioetan izan duen ehunekoa aztertuko dugu. Ehuneko horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailakoak dira.

6. grafikoa bi sareetan (publikoa eta itunpekoa) D ereduako ikasleen ehunekoa igo egin dela ikus dezakegu. Itunpeko sareko A ereduaren gutxitu egin da pixkanaka; aldiz, sare publikoko A ereduaren egonkor mantendu zen ED09tik ED10era bitartean, baina EDI In igoera txikia izan zuen (% 1,1). Sare publikoko eta itunpeko sareko B ereduako ikasleen ehunekoa igo egin zen ED09tik ED10era bitartean, baina jaitsi egin da EDI In.

6. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-EDII. Geruza bakoitzak ordezkatzeko duen ehunekoaren bilakaera.





• Aplikazioan parte hartu zuten ikasleak

Jarraian, Euskadiko ikastetxe guztietako DBHko 2. mailan matrikulatuta dauden ikasleen inguruko datuak biltzen dituen taula ageri da; beste nolabait esanda, maila horietan 2011. urteko Ebaluazio diagnostikoa egiteko zentsua osatu zuten ikasleak dira.

Zutabeetan ageri diren datuak ulertu ahal izateko, alderdi hauek zehaztuko ditugu:

- Ikasleak, guztira: maila bakoitzean matrikulatutako ikasleen kopurua zehazten du. Datu horiek ikastetxeetako zuzendaritzek eman zituzten. (1. zutabea).
- Proban bilduta dauden ikasleak: printzipioz probak egiteko baldintza guztiak betetzen zituzten ikasleak dira. (2. zutabea)
- Puntuazioan bilduta ez dauden ikasleak: probak egiteko baldintza guztiak betetzen dituzten ikasleak dira, baina ikastetxeko edo taldeko datu orokorren azterketa egiteko garaian haien emaitzak kontuan hartu ez direnak. Horretarako arrazoiak hauek izan daitezke: baloratutako alderdi zehatzean CEIren bat zuten, euskara salbuetsita zuten, edo nahiz eta probara joan, maiz joaten ez direnen taldekoak ziren; urtebeteko eskolatzea baino gutxiagoko etorkinak ziren, eta gainera, ez zuten aplikazio-hizkuntza ezagutzen; eskolatzearen osagarria zen programa bat ari ziren egiten. (3. zutabea)
- Aurkeztu ez diren ikasleak: proban sartuta dauden eta ebaluazioa egin beharko zuketzen ikasleak dira, baina gorabehera ezberdinak direla eta, aplikazio-egunean ez ziren bertan izan (4. zutabea).
- Proba egin zuten ikasleak: probak egin zituzten ikasleen behin betiko kopurua da. Haien puntuazioak kontuan hartu dira emaitza orokorretan (5. eta 6. zutabeak).

DBHko 2. maila	(1) Ikasleak, guztira	(2) Ikasleak barne	(3) Puntuazio gabeko ikasleak	(4) Aurkeztu e- zirenak	(5) Proba egin eta puntuazioan sartu ziren ikasleak	(6) Proba egin zuten ikasleen %
<i>Euskarazko hizkuntza- komunikazioa</i>	18.279	16.847	1.432	848	15.999	% 87,5
<i>Gaztelaniazko hizkuntza- komunikazioa</i>		17.470	809	830	16.640	% 91
<i>Matematikarak o konpetentzia</i>		17.475	804	785	16.690	% 91,3
<i>Ingelesezko hizkuntza- komunikazioa</i>		17.514	765	855	16.659	% 91,1

DBHko 2. mailan, 2010-2010 ikasturtean matrikulatutako ikasleen guztizko kopurua 18.279koa zen, baina lehen aipatu dugun moduan, ikasle guztiak ez zeuden puntuazioetan sartuta (taulako 5. zutabea, proba egin zuten eta konpetentzia bakoitzeko puntuazioan sartutako ikasleak ageri dira).



Ebaluatutako lau konpetentzietako ikasle kopurua 15.431koa izan da; hau da, ikasle guztien % 84,4koa. Gutxienez proba batean sartuta dagoen ikasle kopurua 17.140koa izan da. Konpetentzia bakoitzeko partaidetzaren ehunekoak probak egin behar zituzten ikasleen kopuruarekin konparatzen baditugu, ikasleen % 91k egin zituen probak; hau da, aurreko Ebaluazio diagnostikoaren bi edizioetako (ED09 eta ED10) ehunekoa baino txikiagoa izan da (% 96koa izan zen).

Txosten honetan, lau konpetentzia horietako bakoitzean emaitzen azterketa egiteko dagokion konpetentziaren proba egin zuten ikasleen kopurua hartu dugu erreferentziatzat (5. zutabea). Konpetentzia horretan puntuaziorik lortu ez duten ikasleak ez dira kontuan hartu.

Indize sozioekonomiko eta kulturalaren aldagaia kalkulatzeko, ikasleen galdera-sortan kalkulatu ahal izateko dagozkion itemak bete dituzten ikasleak hartu dira erreferentziatzat.

c) Probako hizkuntza

Matematikarako konpetentziako proba euskaraz edo gaztelaniaz egin zitekeen. Ebaluazioaren aurreko edizioetan bezalaxe, erabaki hori ikastetxeen esku utzi zuten; haiek erabaki zuten proban erabili behar zuten hizkuntza etxeko hizkuntza ala irakas-hizkuntza izango zen.

Heziketa-hizkuntza aukeratu zutenean, erabaki hori eredu bereko talde guztiei aplikatu zitzairen. Aldiz, etxeko hizkuntza aukeratu zutenean, taldeko ikasle bakoitzaren egoera banaka aztertu zuten; hau da, talde beraren baitan, ikasle batzuek proba euskaraz egin zuten hura zelako etxeko hizkuntza, eta beste ikasle batzuek, aldiz, proba gaztelaniaz egin zuten arrazoi hori bera dela eta.

Euskarazko, ingelesezko eta gaztelaniazko hizkuntza-konpetentziak zegoen hizkuntzan aplikatu eta erantzun zituzten. Ikasleen galdera-sortak *Matematikarako konpetentziako* errendimendu-probetan erabilitako irizpide berberekin aplikatu zituzten.

2011ko Ebaluazio diagnostikoko probak egiteko DBHko 2. mailako hizkuntza-eredu bakoitzean ikastetxeek aukeratu zuten hizkuntza (etxekoa edo irakas-hizkuntza) ageri da hurrengo taulan.

Matematikarako konpetentzian erabilitako probako hizkuntza ereduaren arabera			
Probetarako aukeratutako hizkuntza	Hizkuntza-ereduak eta probetako hizkuntza		
	DBHko 2. maila		
	A erdua	B erdua	D erdua
Etxekoa	11	32	6
Irakaskuntzakoa	109	210	504
Guztira: 872 talde			

DBHko 2. mailan, 49 taldek (% 5,62k) konpetentzia ez-linguistikoetako probak (*Matematikarako konpetentzia*) etxeko hizkuntzan egin zituen: euskaraz edo gaztelaniaz. Hiru hizkuntza-ereduetako 823 taldetan (% 94,38), probak *Matematikarako konpetentziarekin* lotutako irakas-hizkuntzan egin ziren.



d) Errendimendu-proben deskribapena

2011. urteari dagokion Ebaluazio diagnostikoak 175/2007 Dekretuan bildutako zortzi kompetentziatik lau neurtu ditu. Urte hartako ebaluazioan lau kompetentzia hauek neurtu ziren:

- *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.*
- *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.*
- *Matematikarako kompetentzia.*
- *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.*

Lehen hiru horiek ikasturte guztietan aplikatzen dituzte; aldiz, laugarrenak beste bat ordezkatu zuen aurreko edizioetan eta Ebaluazio diagnostikoaren hurrengo edizioetan beste batek ordezkatu du. 2013an, *Ikasten ikasteko kompetentziak* ordezkatu du *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia*. Haren aplikazio pilotua ikasleen laginarekin egin zen eta, aldi berean, 2011ko ebaluazioa aplikatu zen.

Ebaluatutako lau kompetentzia horietako bakoitza neurtzeko erabili zuten itemen kopurua hau izan zen:

Kompetentziak	Dimentsioak	DBHko 2. maila Item kopurua
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.</i>	Entzumena Irakurmena eta idazmena	21 25
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia</i>	Entzumena Irakurmena eta idazmena	28 26
<i>Matematikarako kompetentzia</i>	Kantitatea	8
	Espazioa eta forma	4
	Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna	7
	Problemen ebazpena	5
<i>Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.</i>	Entzumena Irakurmena eta idazmena	20 20

Proba horietan lau motatako itemak zeuden, eskatzen zen erantzun motaren arabera:

- Erantzun itxiaren itema aukera anitzeko formatuarekin. Aukera batzuetatik bat hautatu behar da.
- Item erdi-itxiak. Bi proposamenen artean, aukera bakarra hautatu behar da.
- Ekoizpen laburreko itema. Erantzun laburra eskatzen dute, adib. marrazki bat, matematikako eragiketa bat, hutsune bat betetzea eta abar.



- Item irekiak. Erantzunen aukera zabala onartzen dute. Zuzentzeko garaian subjektibotasuna saihezi ahal izateko, horretarako irizpide argiak eta gauzatze-mailak finkatzen dira.

Konpetentzia guztietan, item gehienak aukera anitzekoak ziren. Erantzun erdi-itxiak edo ekoizpen laburrekoak urriagoak ziren eta *Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* probetan bakarrik zegoen erantzun luzeko item bat, idazlana alegia (100 hitzekoa DBHn *Gaztelaniazko eta euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, eta 60 eta 70 hitz artekoa *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*).

Lehen bi item mota horiek aplikazio informatikoaren bidez zuzendu ziren. Aplikazioak aukera zuzenari zegokion puntuazioa ematen zuen. Beste bi motetako itemak, aldiz, hartarako bereziki kontratatutako eta berariazko prestakuntza zuten langileek zuzendu zituzten. Kasu haietan, gainera, ISEI-IVEIk jarraipen-lana egin zuen zuzenketen artean egon zitezkeen desadostasun mailak saihesteko edo ahalik eta gehien murrizteko.

e) Ezarritako konpetentzia mailak

Emaitzak konpetentziarekin lotutako hiru mailatan antolatuta aurkeztu dituzte: hasierakoa, erdi-mailakoa eta aurreratukoa. Maila horietako bakoitza ikasleek proban proposatutako egoerei irtenbidea emateko behar diren ezagupenen, trebezien eta gaitasunen arabera definitu da, eta puntuazio-tarte batekin zehaztuta dago.

Hiru konpetentzia maila daude zehaztuta:

- Hasierako mailak askotariko ikasleak biltzen ditu: hezkuntza-zikloko trebeziak eta edukiak ikasten hasi direnak zein laguntza pixka batekin, erdi-mailari dagozkion eskakizunei aurre egiteko gai izan litezkeenak.
- Erdi-mailak ikasleen ehuneko handiak eskura ditzakeen trebeziak jasotzen ditu. Ebaluatutako konpetentzia bakoitzeko zailtasun ertaineko trebeziak eta edukiak jasotzen ditu.
- Maila aurreratuak, aldiz, probetan ebaluatutako trebezia eta eduki konplexuenak jasotzen ditu. Maila honetan, duela gutxi ikasketa horiek menderatzeko prozesua sendotu duten ikasleak eta erabat finkatuta dauden beste batzuk egon daitezke.

Konpetentzia bakoitzaren baitan errendimenduko mailak ezarri ahal izateko, aurretik helburu berarekin nazioarteko beste ebaluazio batzuetan erabili izan duten prozedura estandarizatua erabili da. Maila bakoitzerako *ebaketa-puntuak identifikatzeko* prozesu horretan probak prestatzen parte hartu zuten profesional guztiek parte hartu dute: ISEI-IVEIko teknikariak, Hezkuntza Ikuskaritzakoak, Berritzeguneko prestakuntza-aholkulariak eta ikasmaila ezberdinetako irakasleak. Horiez gain, prozesuan parte hartzera bereziki gonbidatutako beste irakasle batzuek ere parte hartu dute. Ebaluatutako konpetentzia edo dimentsio berariazko bi ebaketa-puntu finkatu dira. Horiei esker, hiru lorpen edo errendimendu maila identifika daitezke: hasierako maila, erdi-maila eta maila aurreratu (ikus ebaluatutako konpetentzia edota dimentsio bakoitzeko konpetentzia mailen deskribapen-taulak).



- **Konpetentziak nola neurtu**

Emaitzei buruzko datuen helburua informazio osagarria eskaintzea da, ikastetxeentzat prestakuntza-prozesuen inguruan erabakiak hartu ahal izateko eta funtzionamenduan hobekuntzak proposatzeko erabilgarria izan daitekeena. Bestela esanda, datuen azterketa bat dator ebaluazio-eredu horrekin.

Emaitzak puntuazio-eskalaren bidez neurtzen dira. Tresna horri esker, balio numeriko bat esleitu eta ikasleen konpetentzia mailak bereiz daitezke. Puntuazio-eskala horren garrantzizko ezaugarria ez da Autonomia Erkidegoaren batez bestekoari esleitu zaion balio espezifikoak, baizik eta ikasleen, taldeen eta ikastetxeen emaitzak kokatzeko (gorantz edo beherantz) erabili beharko litzatekeen marka finkatzeko aukera eskaintzen duela.

2009ko Ebaluazio diagnostikoari dagokion batez besteko puntuazioa 250 puntukoa izan zen (desbiderapen tipikoa, 50ekoa). 250 puntuko batez besteko hori etapa eta konpetentzia bakoitzerako lehen aldiz finkatu zen eta edizio honetan ere mantendu egin da lehen aldiz ebaluatu den *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziarako*. Lehen ebaluazio horretan ezarritako 250 puntuko batez bestekoa konpetentzia bakoitzeko segidako edizioetan gertatzen diren alderaketak ezartzeko eta gerta daitezkeen desbideratzeak baloratzeko erreferentziatzat hartzen da

- f) **Ikaslearen galdera-sortak**

Errendimendu-probez gain, ikasleek familiarekin lotutako informazioa biltzen zuen galdera-sorta ere bete zuten gai hauen inguruan: jabetzak, kultur ondasunak, gurasoen ikasketak, familiaren egoera eta abar. Beste galdera batzuen helburua, aldiz, etxeko hizkuntza, jatorria eta abar ezagutzea zen. Era berean, ikasleari buruzko beste datu batzuk ere biltzen zituen: eskolaz kanpoko alderdiak, ikastetxearekin lotutakoak, ikastearekiko jarrera, gustuko irakasgaiak eta abar.

Ikerketa eta azterketa ugari agerian utzi duenez, aldagai horietako askok eragina izaten du ikaslearen ikaskuntza-irakaskuntzako prozesuan. Hori dela eta, bildutako informaziotik abiatuta, eta emaitzekin elkarren arteko korrelazioak ezartzeko helburuarekin, hainbat aldagai ezarri dira txosten honetarako: ikaslearen sexua, jaiotza-urtearen arabera eskolatuta dagoen mailaren egokitasuna, etxeko hizkuntzak emaitzetan duen eragina, eskolatzearen hasiera-adina eta abar.

Lehen aipatu dugun moduan, ikastetxeko eta ikasleen galdera-sortak, batez ere, on line bete dituzte (web bidez). Horrek ikastetxeek (Lehen Hezkuntzako % 93k eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako % 97k web bidez erantzun du) eta ISEI-IVEIk egin beharreko ahalegin berezia eragin du.

- **Ikaslearen Indize sozioekonomikoa eta kulturala (ISEK)**

Indize horren eragina orain arteko ebaluazio eta ikerlan guztiek baieztatu dute. Oro har, emaitza akademikoa hobea izaten da ikasleen maila sozioekonomikoa eta kulturala igo ahala. Eta horregatik da garrantzitsua lortutako emaitzak baloratzeko eta erkatzea aldagai horren eragina kontuan izanik.



ISEK indizea kalkulatzeko informazioa ikasleek galdera-sortan emandako erantzunetatik aterata da. Indize horren barruan askotariko alderdiak sartzen dira, hala nola familiaren maila profesionala, familiaren ikasketa mailarik altuena eta alde aurretik garrantzi handikotzat jo diren ondasun materialen eta kulturalen multzo bat edukitzea (etxean dauden liburuen kopurua, egunkaria eta aldizkari espezializatuak irakurtzea, ordenagailua eta Internetera sarbidea edukitzea). Ikasle bakoitzaren datuetan oinarrituta, ikastetxe bakoitzeko ikasleen batez bestekoa kalkulatu da. Balio hori 0an zentratuta dago (Autonomia Erkidegoko batez bestekoa) eta 1eko desbideratze tipikoa du.


Populazioa lau mailatan banatu da (baxua, ertain-baxua, ertain altua eta altua), eta haietako bakoitzean populazioaren % 25 kokatu da, ISEK indizearen balioaren arabera.

Kontuan izan behar da maila horiek ez direla absolutuak, konparagarriak baizik hezkuntza- etapa bakoitzean ebaluatutako lagineko ikasleen arabera. Hori dela eta, baliteke ikastetxe bat, ebaluatutako bi ikasmilak baldin baditu, ikasmila bakoitzean ISEK maila ezberdin batean egotea, datuak ebaluatutako ikasmilako ikasleei buruzkoak baitira, ez ikastetxe osoko ikasleei buruzkoak. Beraz, ikastetxeko ISEK indizea aipatzen denean, ebaluatutako ikastaldeetako ikasleen batez besteko ISEK indizea ulertu behar da.

2011ko Ebaluazio diagnostikokoan DBHko 2. mailako ikasleen 4 ISEK mailen balioak hauek dira:

DBHko 2. mailako ikasleen ISEK indizearen balio-tarteak Ikastetxeak			
ISEK maila	Gutxieneko balioa	Gehieneko balioa	Batez besteko balioa
Baxua	-2,42	-0,43	-0,84
Ertain-baxua	-0,42	-0,08	-0,24
Ertain-altua	-0,08	0,21	0,06
Altua	0,22	1,21	0,57

7. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Indize sozioekonomiko eta kulturalaren mailen balioak (ISEK).




Hurrengo grafikoan konpara ditzakegu ISEK maila desberdinen balioak orain arte egindako hiru Ebaluazio diagnostikoen arabera. Ikus dezakegun moduan, ED11n handiagoak dira ISEKeko balio ertain-baxuak eta ertain-altuak, ED09koekin eta ED10ekoekin alderatuta. Aldiz, ISEK



baxuko balioak urriagoak dira aurreko bi edizioetakoak baino. ISEK altuko balioak mantendu egin dira ED11n ED10eko emaitzekin alderatuz gero, baina handitu egin dira ED09koekiko

8. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11. Ikasleen ISEKen bilakaera.



Taula honetan, ebaluazioan kontuan hartu diren sei geruzetako bakoitzean ikastetxeko ISEK indizearen batez besteko balioa azaltzen da².

Geruza	ISEK indizearen batez besteko balioa		Geruza bakoitzak 2011 aplikazioan duen ehunekoa	Geruza bakoitzak bere hezkuntza-sarearen baitan duen ehunekoa
A publikoa	-1,33	Baxua	% 5,36	% 11,53
B publikoa	-0,50	Baxua	% 5,05	% 10,87
D publikoa	-0,07	Ertain-altua	% 36,03	% 77,59
Itunpeko A	0,25	Altua	% 8,99	% 16,78
Itunpeko B	0,11	Ertain-altua	% 23,04	% 43,01
Itunpeko D	0,24	Altua	% 21,54	% 40,21
				Sare publikoa % 46,44
				Itunpeko sarea % 53,56

A eta B geruza publikoak ISEKeko maila baxuan daude eta haien batez besteko balioak -1,33 eta -0,5 dira hurrenez hurren. Itunpeko A eta D geruzek dute ISEKeko mailarik altuena (0,25 eta 0,24 hurrenez hurren). Hori dela eta, maila altuan daude. D geruza publikoa eta itunpeko B geruza maila ertain-altuan daude haien ISEKeko batez besteko balioaren arabera.

² Geruza bat ISEK maila jakin batean egoteak ez du esan nahi geruza horretako ikastetxe guztiak derrigorrez ISEK maila hori izan behar dutenik. Gainera, datuak behar bezala baloratzeko oso garrantzitsua da geruza bakoitzak 2011ko aplikazioan eta bere hezkuntza-sarearen barnean nolako pisua duen (ikastetxeen ehunekoa) kontuan izatea.




Geruza	ED09 ISEK indizearen batez besteko balioa		ED10 ISEK indizearen batez besteko balioa		ED11 ISEK indizearen batez besteko balioa	
A publikoa	-0,68	Baxua	-1,16	Baxua	-1,33	Baxua
B publikoa	-0,35	Ertain-baxua	-0,47	Baxua	-0,50	Baxua
D publikoa	-0,12	Ertain-altua	-0,07	Ertain-altua	-0,07	Ertain-altua
Itunpeko A	0,24	Altua	0,18	Ertain-altua	0,25	Altua
Itunpeko B	0,08	Ertain-altua	0,12	Ertain-altua	0,11	Ertain-altua
Itunpeko D	0,16	Ertain-altua	0,21	Ertain-altua	0,24	Altua

A ereduaren geruza publikoa ISEK indizearen maila baxuan kokatzen da Ebaluazio diagnostikoko hiru edizioetan. Horrez gain, D ereduaren geruza publikoak eta itunpeko Bk ISEK indizeko maila ertain-altua mantendu dute ED09n, ED10en eta ED11n. Gainerako geruzetan, gorabeherak gertatu dira ISEK indizeko mailari dagokionez Ebaluazio diagnostikoko hiru edizioetan:

- B geruza publikoa ISEK maila baxua eta ertain-baxuaren artean dabil.
- Itunpeko A eta D geruzak ISEK indizearen maila altua eta ertain-altuaren artean dabilta.

9. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11. Ikastetxeko ISEKen bilakaera geruzen arabera.




- **Geruza bakoitzeko ikasleen ehunekoa ISEK mailaren arabera**

Hurrengo grafikoan geruza bakoitzerako ISEK maila bakoitzean dauden ikasleen ehunekoa ageri da:



10. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Geruza bakoitzeko ikasleen ehunekoa ISEK mailaren arabera.



Aurreko grafikoko datuek, ebaluazioko geruza bakoitzean, ISEK mailen araberako egoeren aniztasuna eta ikasleen ehunekoen askotariko banaketa daudela erakusten dute.

A geruza publikoko ikasleen % 87k ISEK indizeko maila baxua izan du; aldiz, itunpeko D geruzan ikasleen % 3,9 bakarrik topatu dugu maila horretan. Bestalde, itunpeko A geruzako ikasleen % 59,5ek ISEK maila altua du; aldiz, A geruza publikoan, ikasleen % 2,7k bakarrik du ISEK indizeko maila hori.



3. DBHko 2. MAILAKO IKASLEEN EBALUAZIOAREN EMAITZAK





3.1. Ebaluatutako oinarrizko kompetenzietako emaitzen azterketa





1. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia

a) Definizioa eta dimentsioak

Euskaraz hizkuntza erabiltzeko gaitasuna da, hau da, kontzeptuak, pentsamenduak, sentimenduak, gertaerak eta iritziak adierazteko eta interpretatzeko gaitasuna, ahozko eta idatzizko diskurtsoen bidez, eta izan daitezkeen testuinguru sozial eta kultural guztietan hizkuntza mailan elkarreragiteko.

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia bost dimentsiotan dago egituratuta eta horietatik hurrengo hiru hauek ebaluatu dira:

- **Irakurmena euskaraz**

Era askotariko testuetan oinarriturik galderak egiten zaizkie ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko gai den, testuari koherentzia emateko bertako informazio ezberdinak lotzen dituen, eta, azkenik, testuaren xedea eta igorlearen helburua identifikatzen dituen baloratzeko.

- **Entzumena euskaraz**

Ahozko testuei buruzko galderen bidez ebaluatu da hurrengo hauetarako gaitasunak neurtuz: testuaren esanahi orokorra identifikatzeko, testuaren helburua antzemateko, behar den informazioa identifikatzeko eta hautatzeko, edo testua kritikoki interpretatzeko.

- **Idazmena euskaraz**

Euskarazko idazlan baten bidez, emandako gaiaren egokitasuna eta garapena, testuaren kohesioa eta koherentzia eta erabilitako lexikoa, gramatika eta ortografia neurtu dira.

Dimentsio hori baloratzeko, DBHko ikasleei 100 hitzetako idazlana eskatu zitzaien. 20 hitzetik gorako idazlan guztiak zuzendu dira eta honako alderdi hauek baloratu dira:

- Gaiaren egokitasuna eta garapena:
 - Testuaren xedea kontuan hartu den ala ez.
 - Egoerarekiko hizkuntza-erregistro egokia erabili den ala ez.
 - Aditz-pertsonari eutsi dion.
- Testuaren koherentzia eta kohesioa:
 - Informazioaren aurrerapenari eutsi dion (ordena azalpenean, errepikapenak, inkoherentziak...).
 - Eskatutako testuaren egitura errespetatzen den eta alderdiak ondo bereizita ageri diren.
 - Eskatutako testuaren hizkuntza-baliabideak eta hizkuntzarenak ez diren baliabideak erabiltzen dituen.
- Lexikoa, gramatika eta ortografia:



- Erabilitako lexikoa (errepikapenak, sinonimoak erabiltzea).
- Erabilitako esaldi motak.
- Ortografia-akats larriak eta puntuazio-akatsak.

Hauek dira ebaluatu ez diren dimentsioak:

- Mintzamina.
- Ahozko elkarrekintza.

b) Emaitza orokorrak

EAEko DBHko 2. mailako ikasleen batez besteko emaitza *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* 256 puntutan finkatu da Ondoko taulan konpetentzia honetan kontuan hartu diren ikasleen kopurua ageri da, lortutako gehieneko eta gutxieneko puntuazioekin batera.

	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Desb. tip.
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa</i>	15.999	102	363	256	47,73

c) Errendimendu mailen deskribapena eta ikasleen banaketa

Ondoko taulak ikasleak egiteko gai diren zereginen deskribapena azaltzen, eta *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* hiru errendimendu mailetakoko bakoitzean nola kokatuta dauden erakusten du.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<p>Maila honetan dagoen ikasleak hizkuntza-gaitasun orokor mugatua du. Komunikazio-zeregin sinpleak autonomia-maila apalarekin egiten ditu.</p> <p>Ulermenari dagokionez, askotariko erabilpen-esparruetako ahozko eta idatzizko zenbait testuren esanahi orokorra antzematen du, baldin eta testuak bere esperientziatik gertu badaude eta argiak badira.</p> <p>Testu sinpleetako ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu, baldin eta ideiak modu nabarmenean adierazten badira. Eskatzen zaion informazio zehatza identifikatzen du, esplizitua baldin bada. Gai da oinarritzko inferentziak egiteko eta oinarritzko testuetako pasarteetatik ondorioak ateratzeko. Zenbait kasutan gai da testuaren eta bere ezagupen propioen arteko erlazioak finkatzeko.</p>	<p>Ikasle honen hizkuntza eta komunikazio-gaitasunak egokiak dira, eta erdi-maila batean daude. Eskatzen zaizkion zereginak egoki eta modu autonomoan gauzatzen ditu, eta normalean ematen zaion komunikazio-xedea betetzen du.</p> <p>Entzumenari eta irakurmenari dagokionez, askotariko erabilpen-esparruetako ahozko eta idatzizko zenbait testuren esanahi orokorra antzematen du, eta bertan azaltzen diren ideiak ere. Halaber, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu. Eskatzen zaion informazio zehatza identifikatzen du, eta testuaren pasarte bati edo testu osoari buruzko inferentziak egin ditzake eta ondorioak atera. Bere ideia edo ezagupen propioetan oinarriturik, testuaren edukia hein batean interpretatu dezake. Ikasleak testuaren igorlea eta testu-mota identifikatzen ditu.</p>	<p>Maila honetako ikasleak hizkuntza-gaitasun orokorra du, komunikazio-zereginak modu autonomoan eta egokian egin ahal izateko. Ematen zaizkion zereginak gauzatzeko trebetasun handia du, autonomia da, eta eskatzen zaion komunikazio-xedea erraztasunez betetzen du.</p> <p>Entzumenari eta irakurmenari dagokionez, maila honetako ikasleak askotariko erabilpen-esparruetako eta aurreko mailetan baino konplexutasun handiagoko ahozko eta idatzizko zenbait testuren esanahi orokorra antzematen du. Testuko ideiak identifikatzen ditu, eta haien arteko hierarkia-erlazioak bereizten ditu. Informazio zehatza hautatzeko eta testutik inferentziak egiteko edo ondorioak ateratzeko gai da. Bere ideia eta ezagupen propioetan oinarriturik, testuaren edukia kritikoki interpretatu</p>



Idazmenari dagokionez, maila honetako ikasleak oso testu garatu gabeak idazten ditu, eta oinarriko adierazpen-arazoak izaten ditu, testuen ulergarritasuna oztopatzen dutenak. Normalean ez da heltzen eskatutako gutxieneko hitz-kopurura, eta ideiak antolatzeke oso egitura sintaktiko sinpleak erabiltzen ditu. Ondorioz, testuaren koherentzia eta kohesioa oso ahulak dira, eta ez du testuaren xedea betetzen. Sarritan testu idatzietarako erregistro desegokia erabiltzen du, eta ez du hizkuntza-baliabide nahikorik izaten; ondorioz, hiztegi gabeziak eta gramatika eta ortografia akatsak izaten ditu.


Idazmenari dagokionez, ikasleak eskatutako testu-motari dagozkion testuak idazten ditu, eta testuaren xedea betetzen du. Ideiak koherentzia handi samarrarekin azalduta daude, eta gehienetan lokailu eta egitura sintaktiko egokien bidez ongi kohesionatuta. Testuaren gairako hiztegi egokia erabiltzen du, eta ez du izaten gramatika edo ortografia akats ugari edo larririk.

dezake. Testuaren igoera, bere asmoa eta testu-mota identifikatzen ditu.

Idazmenari dagokionez, ikasleak eskatutako testu-motari dagozkion testuak idazten ditu, eta finkatutako xedea betetzen du. Informazio garrantzitsua aukeratzen eta aurkezten du, eta ideiak koherentziaz antolatzen ditu, askotariko lokailuak eta egitura sintaktikoen bidez kohesionaturik. Testuaren gaiari dagokion hiztegi zehatza eta aberatsa erabiltzen du, eta gramatika eta ortografia arauak errespetatzen ditu.

II. grafikoa, ikasleen banaketa ageri da ebaluazio honetan definitu diren hiru kompetentzia mailetako bakoitzean:

II. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendu maila bakoitzean.



2011ko edizio honetan, EAEko DBHko 2. mailako ikasleen % 36k hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen dituela ikus daiteke. Ikasleen % 43 inguru kompetentziako erdi-mailan dago, eta % 21 baino apur bat gehiagok kompetentziako maila aurreratuari dagozkion lan konplexuagoak gauzatzea lortzen du. Beraz, esan daiteke DBHko 2. mailako Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ikasleen ia % 64k hasierako maila gainditu duela.

d) Emaitzak kompetentziako dimentsioen arabera

Jarraian, Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian kontuan hartu diren ikasleen kopurua ageri da, baita kompetentzia honetan ebaluatutako hiru dimentsioetan lortutako gehieneko eta gutxieneko puntuazioak ere: *Entzumena*, *Irakurmena* eta *Idazmena*.



<i>Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioak</i>	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Desb. tip.
Entzumena	15.999	82	366	257	52,28
Irakurmena		81	361	255	51,31
Idazmena		139	346	250	49,97

**Idazmena* dimentsioko emaitzak ezin dira Ebaluazio diagnostikoko beste bi edizioetan lortutako emaitzekin konparatu.

Kompetentzia honetan ebaluatutako hiru dimentsioetan, DBHko 2. mailako ikasleen batez besteko emaitza 256 puntukoa da. *Idazmena* dimentsioan lortu dute ikasleek batez besteko puntuazio txikiena (250 puntu). *Entzumenak* lortu du batez besteko puntuaziorik altuena 257 punturekin, eta horrek du sakabanatzerik handiena ere gutxieneko puntuazioaren eta gehienekoaren artean.

Ondoko taulak ikaslea errendimendu maila bakoitzean zer egiteko gai den deskribatzen du kompetentzia honetako hiru dimentsioetan.

Kompetentziaren dimentsioetako mailen deskribapena <i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioan</i>		
Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
Entzumena		
Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:	Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:	Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Testuaren zentzu orokorra ulertu. ✓ Testuaren gaia inferitu. ✓ Testuaren ideia nagusiak identifikatu. ✓ Testuaren helburua identifikatu. ✓ Eskatutako informazio zehatza antzeman. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizi. ✓ Testuaren helburua eta igorlearen asmoa antzeman. ✓ Mota desberdinetako testuen generoa nabaritu. ✓ Informazioa eta iritzia bereizi. ✓ Testutik abiatuta, inferentziak egin. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Testuaren informazioa interpretatu. ✓ Beraien ideietatik eta ezagupenetatik abiatuta, inferentziak egin.
Irakurmena		
Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:	Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:	Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Testuaren zentzu orokorra ulertu. ✓ Testuaren ideia nagusiak identifikatu. ✓ Berariazko informazioa edo informazio zehatza antzeman. ✓ Testu batzuen helburua igarri. ✓ Bere adinerako lexikoaren zenbait hitz zehatzak ezagutu. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizi. ✓ Beraien ideietatik abiatuta, testuaren informazioa interpretatu, eta inferentziak egin. ✓ Testuaren egitura antzeman. ✓ Bere maila akademikoari dagokion lexikoa ezagutu. ✓ Testuko elementu esplizitu eta inplizituetatik abiatuta, igorlearen asmoa antzeman. ✓ Testuaren helburua eta generoa identifikatu. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizi eta beraien arteko erlazioak ezarri. ✓ Beraien ideietatik abiatuta, testuaren informazioa interpretatu, eta bere ideietatik abiatuta inferentziak egin. ✓ Iritzia eta informazioa bereizi.



Idazmena


Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:	Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:	Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Informazio urria eman eta era desegokian egituratuta, beraz, testuaren helburua nekez bete. ✓ Erregistroarekin arazoak erakutsi. ✓ Ideien antolamendua okerra da, eta ideiak errepikatu. ✓ Ozta-ozta egokitzen da argudiozko generoaren ezaugarri. ✓ Baliabide linguistiko gutxi edo oker erabili. ✓ Hiztegi urria erabili. ✓ Akats ortografiko eta gramatikalak egin. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Informazio pertinente adina eduki testuaren xedea lortzeko: argudiozko testua idatzi. ✓ Gehienetan erregistro egokia erabili. ✓ Ideiak eta datuak era logikoan antolatu, inkoherentzia larririk eta errepikapen askorik gabe. ✓ Baliabide linguistikoak behar den gehienetan erabili. ✓ Kasu gehienetan hiztegi egokiaz baliatu. ✓ Akats ortografiko eta gramatikal gutxi egin, ulergarritasuna eragotzi gabe. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Argudiozko testua idaztearen helburua bete, informazio pertinentearen bidez. ✓ Ideiak eta datuak era logikoan antolatu; inkoherentziarik eta errepikapenik gabe. ✓ Baliabide linguistikoak egoki erabili. ✓ Hiztegi egokia eta aberatsa erabili. ✓ Akats ortografiko edo gramatikal larririk egin gabe.

Hauek izan dira *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* dimentsioak ebaluatzeko erabili diren testuak:

- *Entzumena*: albisteak, dibulgazio-testua eta pertsonen arteko esparruko testu laburrak (oharrak, mezuak...).
- *Irakurmena*: informazio-testua, literaturakoa (prosa eta poesia), dibulgaziorako eta elkarrizketa informala.
- *Idazmena*: ikasleek argudio-testua garatu behar zuten.

12. grafikoan, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* ebaluatutako hiru dimentsioetako ikasleen banaketa ikus daiteke errendimendu mailen arabera.

12. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* errendimendu maila bakoitzean dimentsioen arabera.





Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako hiru dimentsioetako hasierako mailan dagoen ikasleen ehunekoa antzekoa da (% 37,4 eta % 38 artekoa). *Idazmena* da emaitzarik baxuenak dituen dimentsioa; izan ere, ikasle kopuru handiagoak biltzen ditu hasierako eta erdi-mailan (% 84,6), eta % 15,5ek soilik lortu ditu maila aurreratuko gaitasunak. Maila aurreratuan dauden ikasleen ehunekorik handiena *Entzumenean* (% 24,3) ikusiko dugu eta dimentsio horretan, hasierako mailan, dago ikasleen ehunekorik txikiena (% 37,4).

e) Emaitzak geruzen arabera (hezikuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)

Ondoko taulan eta grafikoan geruzetako bakoitzean lortutako puntuazioak aurkezten dira. Ondoan geruza bakoitzean puntuazioan sartu diren ikasleen kopurua ageri da.

Geruza	Kopurua	Batez bestekoa	AT ³
A publikoa	400	174	1,64
B publikoa	743	237	1,71
D publikoa	6.050	265	0,53
Itunpeko A	1.315	203	1,15
Itunpeko B	3.772	252	0,70
Itunpeko D	3.719	276	0,65
Guztira:	15.999		

Batez bestekoek (*13. grafikoa*) estatistikoki duten adierazgarritasuna aztertu ostean, honako hau esan daiteke:


- A ereduko geruzetako emaitzak B eredukoetakoak baino nabarmen baxuagoak dira, eta horiek, aldi berean, D eredukoetakoak baino baxuagoak (sare publikoan eta itunpekoan gertatzen da hori).
- Sare publikoko eta itunpeko sareko A eta B geruzak EAEko batez bestekoaren (256 puntu) azpitik daude *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*.
- D publikoko eta itunpeko D ereduaren geruzek gainerako geruzenak baino nabarmen altuagoak diren puntuazioak lortu dituzte. Gainera, itunpeko D geruzak D publikoak baino 11 puntu gehiago lortu ditu; alde hori estatistikoki esanguratsua da.
- Hizkuntza-eredua funtsezkoa da *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* garapenean.

Antzeko zerbait gertatu zen Ebaluazio diagnostikoaren aurreko bi edizioetan.

³ AT: Akats Tipikoa.



13. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak geruzen arabera.



Geruza guztien batez besteko aldeak estatistikoki adierazgarriak dira.


14. grafikoa, finkatutako hiru mailetan dauden ikasleen ehunekoak ageri dira geruza bakoitzean (hasierakoa, erdi-mailakoa eta aurreratua).

Geruzak errendimendu mailen arabera aztertzeak agerian jartzen ditu Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren hasierako maila gainditzen ez duten A geruza publikoko (% 96,3) eta itunpeko A geruzako (% 82,4) ikasleen ehuneko altuak. Horrez gain, B geruza publikoko ikasleen % 52,9k ez du gainditu hasierako maila.

D geruza publikoak (% 24,1) eta itunpeko D geruzak (% 32,9) biltzen dute maila aurretuan dauden ikasleen ehunekorik handiena.

Itunpeko D ereduko ikasleak dira emaitza onenak lortu dituztenak; izan ere, hasierako mailan ikasleen ehunekorik txikiena (% 19,1) dute eta % 81ek hasierako maila gainditu dute.

14. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendu maila bakoitzean geruzen arabera.






f) Emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera

Jarraian, *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetenziako* dimentsio bakoitzean sei geruzek lortutako batez besteko emaitzak ageri dira.

15. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetenziako dimentsioen errendimendua geruzen arabera.



Geruza guztiek dimentsio bakoitzean lortutako puntuazioetako alde guztiak dira adierazgarriak.


Honako hau ondoriozta dezakegu:

- D geruza da (publikoa eta itunpekoa) kompetentzia honetako dimentsio guztietan batez besteko puntuazio handienak lortu dituenak.
- A geruza da (publikoa eta itunpekoa) kompetentzia honetako dimentsio guztietan batez besteko puntuazio txikienak lortu dituenak.
- A geruza publikoak itunpeko A-k baino emaitza nabarmen baxuagoak lortu ditu kompetentziako dimentsio guztietan. Gauza bera gertatzen da B publikoa itunpeko B geruzarekin alderatzen badugu, edo D publikoa itunpeko D geruzarekin alderatzen badugu.

Jarraian, *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetenziako* dimentsioetako emaitzak grafikoki adierazten dira geruzen arabera:



16. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetenziako geruzen emaitzak dimentsioen arabera.




Oro har, zailtasun gehien duen dimentsioa *Idazmena* dela ikus dezakegu; izan ere, geruza guztietan, balio baxueneko puntuazioa duena da.

g) Emaitzak hizkuntza-ereduen arabera

Ondoko grafikoa emaitzak hizkuntza-ereduen arabera bereizita ageri dira. A ereduko puntuazioak B eta D ereduetakoak baino nabarmen apalagoak direla egiaztatzen da. Era berean, B ereduko puntuazioak D eredukoak baino nabarmen apalagoak dira.

17. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Euzkarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetenziako geruzen emaitzak dimentsioen arabera.




Hiru hizkuntza-ereduetako batez besteko puntuazioetako aldeak estatistikoki adierazgarriak dira.



Hizkuntza-ereduen egiturak Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzetan eragin handia duenez, konpetentzia horretako errendimendu mailen arabera ikasleen banaketaren azterketa egin dugu.

Hurrengo grafikoan, A, B eta D hizkuntza-ereduetako ikasleen banaketa bereizirik ageri da aztertutako hiru dimentsioetako errendimendu mailetan.

18. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ikasleen banaketa Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendu maila bakoitzean hizkuntza-ereduen arabera.




Hizkuntza-ereduko bakoitzeko ikasleen ehunekoaren banaketa desberdina ikus daiteke:

- A eredian, ikasleen hiru laurden baino gehiagok (% 85,7) ez du hasierako maila gainditzen eta % 2,2 soilik dago konpetentzia honetako maila aurreratuan.
- % 54,4k hasierako maila gainditzen du B eredian eta % 75,3k D eredian.
- D ereduak du ikasleen ehunekorik txikiena hasierako mailan dauden ikasleei dagokienez (% 24,7), eta handiena, aldiz, maila aurreratuan (% 27,4).

Ondoko grafikoan, errendimendu orokorraz gain, hiru hizkuntza-ereduetako errendimendua ageri da konpetentziako hiru dimentsioetako bakoitzean.



19. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak, ereduaren eta dimentsioen arabera.




Emaitza orokorren batez besteko puntuazioetan eta eredu desberdinetako dimentsioetan dauden aldeak estatistikoki adierazgarriak dira.

Aurreko grafikoan ikus dezakegunez, A ereduko puntuazioak, orokorrak eta dimentsioetako bakoitzarenak, nabarmen baxuagoak dira B eta D ereduetakoak baino. Aldiz, D ereduko puntuazio orokorrak eta ebaluatutako dimentsioenak A eta B ereduetakoak baino altuagoak dira.


Ondoko grafikoetan hiru hizkuntza-ereduetako ikasleen banaketa ikus daiteke Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ebaluatutako hiru dimentsioetan.

20. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. A ereduko ikasleen banaketa Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako dimentsioetan errendimendu mailen arabera.






21. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. B ereduko ikasleen banaketa Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako dimentsioetan errendimendu mailen arabera.



22. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. D ereduko ikasleen banaketa Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako dimentsioetan errendimendu mailen arabera.




A ereduaren hasierako mailan kokatzen da ikasleen % 81 Euskarazko hizkuntza-komunikazioaren konpetentziako hiru dimentsioetan; B ereduan, kopuru hori ia erdira jaisten da (% 42,8 eta % 45,3 artean) eta D ereduan ia laurdenera (% 26,5 inguru).

D ereduko maila aurreratuan ikasleen % 21,5 eta % 30,5 artean kokatzen da, ebaluatutako konpetentziako dimentsio guztietan; aldiz, A ereduan % 1,5 eta % 4,2 artean kokatzen da.

Informazioa osatzeko, hizkuntza-eredu bakoitzaren barneko portaera aztertu da Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ebaluatu diren dimentsioetako emaitzen orekari dagokionez.



23. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetenziaren errendimendua dimentsioen eta hizkuntza-ereduen arabera.



19. grafikoa eta 23. grafikoa ikus daitezkeen moduan, hiru dimentsioetan, B eta D ereduek lortu dituzte puntuaziorik altuenak, eta D eredukoak dira altuenak.

Bestalde, hiru hizkuntza-ereduetako ikasleek lortu dituzte puntuaziorik altuenak *Entzumenean* eta baxuenak *Irakurmenean*.

h) Emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera

Hurrengo taulan *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetenziaren* ebaluazioan kontuan hartu den DBHko 2. mailako ikasleak daude adierazita, baita horien etxeko hizkuntza ere.


Maila honetan, ikasleen % 21 ingururen etxeko hizkuntza euskara da eta % 79k baino zertxobait gehiagoren etxeko hizkuntza da gaztelania edo besteren bat.

	Euskara		Euskara ez dena	
	Kopurua	%	Kopurua	%
GUZTIRA: 15.999	3.310	% 20,68	12.689	% 79,31

Ikasleen emaitzak aztertzean, etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek kompetentzia honetan 282 puntu lortu dituztela egiaztatzen da, eta etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den besteren bat dutenek 249 puntuko errendimendua lortu dute. 33 puntuko aldea estatistikoki adierazgarria da.




24. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ikaslearen etxeko hizkuntza eta Euskarazko hizkuntza komunikaziorako konpetentzian duen errendimendua.



Jarraian etxeko hizkuntzaren arabera ikasleen ehunekoen banaketa ageri da Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendu mailetan.

25. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian errendimendu mailetan dagoen ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera.




Hasierako mailan biltzen da etxeko hizkuntza gaztelania edo besteren bat duten ikasleen ehunekorik altuena. Maila aurreratuan, ehunekorik altuena etxeko hizkuntza euskara duten ikasleei dagokie (ia % 40), eta ehuneko hori erdira murrizten da etxeko hizkuntza euskara ez duten ikasleen kasuan.

Etxeko hizkuntza euskara duten eta hasierako mailan dagoen ikasleen % 15ek emaitzak baxuak lortzen ditu gainerako konpetentzietan ere.

D ereduan gai hau modu zehatzean aztertzen da, antzeko egoera bat gertatzen dela ohartuz.



26. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. D ereduko ikasleen banaketa errendimendu mailetan etxeko hizkuntzaren arabera.



Aurreko grafikoan ikus daitekeen moduan, ehunekoen banaketari dagokionez, D ereduko hiru errendimendu mailetan desberdintasun nabaria dago ikasleen etxeko hizkuntza euskara edo gaztelania edo beste hizkuntzaren bat denean. Etxeko hizkuntza euskara ez duten ikasleen kasuan, % 15era iristen da hasierako mailan kokatzen direnen ehunekoa eta % 17 murrizten da maila aurreratuari dagokiona.


Etxeko hizkuntza euskara duten eta hasierako mailan dagoen D ereduko ikasleen % 14,5ek emaitzak baxuak lortzen ditu gainerako konpetentzietan ere.

i) Emaitzak Indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako populazio osoa ISEKeko 4 mailatan banatu da (baxua, ertain-baxua, ertain-altua eta altua) eta haietako bakoitzean populazioaren % 25 kokatu da, ISEK indizearen balioaren arabera, hau da, baxuagoa edo altuagoa den kontuan hartuta.

Ondoko grafikoan *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* lortu den batez besteko errendimendua ageri da ezarritako lau ISEK mailen arabera:

27. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendua ISEK mailaren arabera.





Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, hizkuntza-ereduen arabera aztertzen denean, lotura handia dago ISEK mailaren (baxua, ertain-baxua, ertain-altua) eta errendimenduaren artean; ISEK altuenari errendimendu handiagoa dagokio eta alde horiek adierazgarriak dira kasu guztietan. Hala ere, emaitzetan salbuespena gertatzen da maila ertain-altua (264 puntu) eta altuaren (262 puntu) artean, bien arteko aldea estatistikoki adierazgarria da. Aipatutako ISEK mailen arteko bi puntuko alde adierazgarrian ISEK maila altuan (*ikus 10. grafikoa*) biltzen den itunpeko A geruzaren ehuneko altuak eragina izan lezake. Konpetentzia honetan, horren emaitza oso baxua da (203 puntu, eta batez bestekoa 256koa da).


Emaitzak hizkuntza-ereduen arabera aztertzen direnean, banan-banan ohiko portaera dutela ikusten da, hots, ISEK maila zenbat eta altuagoa izan, puntuazioak orduan eta altuagoak izaten direla.

A eremuan maila ertain-baxua eta ertain-altua batu dira, bietan ikasle kopuru baxua osatzen delako. Bi mailen batuketa 280ra iristen da. Gainera, eredu honetan, bi mailen arteko puntuazio-aldea ez da adierazgarria.

A ereduko ikasleak ISEK mailen arabera

ISEK maila	Ikasle kopurua
Maila baxua	574
Maila ertain-baxua	120
Maila ertain-altua	160
Maila altua	861


28. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. A ereduko Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendua ISEK mailaren arabera.



ISEK maila guztien arteko puntuazioen aldeak adierazgarriak dira, ertain-baxua eta ertain-altua mailen artekoak izan ezik.




29. grafikoa: ED11-DBHko 2.maila. B ereduko Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendua ISEK mailaren arabera.



ISEK maila guztien arteko puntuazioen aldeak adierazgarriak dira.

30. grafikoa: ED11-DBHko 2.maila. D ereduko Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendua ISEK arabera.




ISEK maila guztien arteko puntuazioen aldeak adierazgarriak dira.

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako hiru errendimendu mailetan ikasleak nola dauden banatuta ageri da grafiko honetan, ISEKeko lau tarteetan arabera:



31. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendu maila bakoitzean ISEKen arabera.



31. grafikoa egoera hau nabarmentzen da:

- ISEKeko maila altuak eta ertain-altuak ikasleen % 70 inguru errendimenduko erdi-mailan eta maila aurreratuan biltzen dituzte (% 70,8 maila ertain-altuan eta % 69,5 maila altuan).
- Aldiz, ISEK maila baxuan, ikasleen erdia baino gutxiago (zehazki % 40,8) iristen da konpetentzia honetako errendimenduko erdi-mailara.
- Ondorioz, ISEK maila baxuak eta ertain-baxuak biltzen dute konpetentziaren hasierako mailako ikasle ehunekorik altuena (% 59,1 maila baxuan eta % 35,2 maila ertain-baxuan).
- Era berean, ISEK maila baxuak eta ertain-baxuak biltzen dituzte ikasle gutxien maila aurreratuan (% 9,1 maila baxuan eta % 20 maila ertain-baxuan).

j) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren errendimenduan izandako bilakaera (ED09-ED10 eta ED11)


Jarraian, Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian lortutako emaitzak alderatu dira orain arte egindako hiru ebaluazioetan.

- **Emaitza orokorren bilakaera**

Lehen aipatu dugun moduan, Ebaluazio diagnostikoaren 2009. edizioan 250 puntuko batez bestekoa ezarri zen konpetentzia guztietarako. ED10 edizioan, batez bestekoa 258 puntukoa izan zen. Aurreko edizioarekiko zortzi puntu baino gehiagoko alde hori adierazgarria da 2011ko aplikazioan, batez besteko orokorrean igoera adierazgarria izan da; izan ere, 258 puntutik 256 puntura pasatu da Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren kasuan. Aurreko edizioarekiko bi puntuko alde da, eta hori, estatistikoki begiratuta, adierazgarria da. Hala eta guztiz ere, ED11n lortutako batez bestekoa ED09n lortutakoarekin alderatzen baldin bada, batez bestekoak sei puntu egin duela gora ikus dezakegu. Alde hori ere adierazgarria da.



32*. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako batez besteko puntuazioaren bilakaera




*ED11rekiko alderaketak erakusten dira; hau da, ED09-ED11 eta ED10-ED11.

- Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera**

ED10 eta ED11ko Ebaluazio diagnostikoaren edizioetako emaitzak alderatzean, hasierako mailan kokatzen den ikasleen ehunekoan gertatu den igoera (2,5 puntu) eta erdi-mailen ehunekoan (0,3 puntu) izandakoa da ezaugarriarik adierazgarriena. Horren eraginez, maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekoak behera egin du (% -3,1).

Hala eta guztiz ere, ED09 eta ED11 arteko emaitzak alderatuz gero, ikus daiteke hasierako mailan kokatutako ikasleen ehunekoan 2,1 puntuko jaitsiera gertatu dela eta 0,9 puntuko erdi-mailan; ondorioz, maila aurreratuko ehunekoan 3,8 puntuko igoera izan da.

33. grafikoa: DBHko 2. maila. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailetan.




- Emaitzen bilakaera hizkuntza-ereduen arabera**

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian Ebaluazio diagnostikoaren hiru edizioetan (ED09, ED10 eta ED11) emaitzen bilakaera aztertzen denean, ED09tik ED10era



bitarteko hiru hizkuntza-ereduetan batez besteko puntuazioen igoera nabari da; eta, hala eta guztiz ere, hiru hizkuntza-ereduetan batez besteko beherapean gertatzen da ED10 eta ED11ko emaitzekin alderatuz gero.

34a. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen bilakaera hizkuntza-ereduen arabera.




▪ ED10-ED11

2011ko Ebaluazio diagnostikoan, batez besteko puntuazioari dagokionez, hiru hizkuntza-ereduek jaitsiera izan dute ED10ekin alderatuta: A ereduak 5 puntu egin du behera, B ereduak 6 puntu eta D ereduak 3 puntu. Beherakada estatistikoki adierazgarria da kasu guztietan.

2010eko edizioan, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, batez bestekoak nabarmen egin zuen gora eredu guztietan.

34b. grafikoa: DBHko 2. maila. ED10-ED11. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen bilakaera hizkuntza-ereduen arabera.




Orain arte egindako ikerlan eta ebaluazioetan ikusi denez, ED11n osterera ere berretsi da *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* ikaslea eskolatuta dagoen hizkuntza-ereduak eta ikaslearen etxeko hizkuntzak oso eragin handia dute emaitzetan. Jarraian bi aldagai hauek aztertuko dira.



▪ ED09-ED11

ED11ko emaitzak eta ED09an lortutakoak alderatzen baldin badira, ikusten da *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, batez bestekoan gorakada gertatu dela hiru ereduetan; hala era, igoera hori D ereduaren soilik da adierazgarria.

34c. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED11. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen bilakaera hizkuntza-ereduen arabera.



• D ereduko ikasleen banaketan izandako bilakaera, etxeko hizkuntzaren arabera

▪ Etxeko hizkuntza: euskara

2011ko Ebaluazio diagnostikoko (ED11) emaitzak ED10ean eta ED09an (35. grafikoa) lortutakoekin alderatzen baldin badira, Ebaluazio diagnostikoko hiru edizioetan, etxeko hizkuntza euskara duten D ereduko ikasleen ehunekoak nabarmen behera egin duela nabari da errendimenduko hasierako mailan. ED09 eta ED10eko emaitzak alderatuz gero, jaitziera % 3,3koa da eta ED10 eta ED11ko emaitzak alderatzen baldin baditugu, % 0,1koa.

Bestalde, ED09 eta ED10eko emaitzak alderatzean, etxeko hizkuntza euskara duten eta hasierako eta erdi-mailan kokatzen den D ereduko ikasleen ehunekoan beherakada nabari da.

ED10 eta ED11ko emaitzetan dauden aldeei dagokienez, hasierako errendimendu mailan eta errendimendu maila aurreratuan kokatuta etxeko hizkuntza euskara duten D ereduko ikasleen ehunekoak behera egin du. Hala eta guztiz ere, errendimenduko erdi-mailan kokatutako ikasleen ehunekoak gora egin du.


▪ Etxeko hizkuntza: euskara ez dena

ED09 eta ED10 edizioak alderatzen baldin baditugu, hasierako eta erdiko errendimendu mailetan kokatuta, etxeko hizkuntza euskara ez duten D ereduko ikasleen ehunekoak behera egin duela konturatu gara. Ondorioz, maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekoak gora egin du.




Bestalde, ED10 eta ED11 edizioetako emaitzak alderatuz gero, hasierako eta erdi-maitan etxeko hizkuntza euskara ez duten D ereduko ikasleen ehunekoak gora egin du. Hala eta guztiz ere, maila aurreratuan kokatutako ikasleen ehunekoak behera egin du.

35a. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian D ereduko ikasleen banaketaren bilakaera errrendimendu maila bakoitzean etxeko hizkuntzaren arabera.



35b. grafikoa D ereduko ikasleen etxeko hizkuntzaren arabera antolatutako informazio berbera ageri da, baita orain arte egindako ebaluazio bakoitzean horren banaketa ere hiru errrendimendu mailen arabera.

35b. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. D ereduko ikasleek errrendimendu mailetan duten banaketa etxeko hizkuntzaren arabera.





k) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako azterketaren ondorioak.

- **Ikasleen banaketa errendimendu mailetan**

2011ko edizio honetan, ia ikasleen % 64k konpetentzia honen hasierako maila gainditu du, eta horien artetik, % 21 baino zertxobait gehiago maila aurreratuan kokatzera iritsi da. Ikasleen % 36k hasierako mailan deskribatutako zereginak soilik menderatzen ditu.

Konpetentzia osatzen duten hiru dimentsioen azterketan ikusten da hiru dimentsioetan Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako hiru dimentsioetan hasierako mailan kokatutako ikasleen ehunekoak antzekoa dela (% 37,4 eta % 38 artean). *Idazmena* da emaitzarik baxuenak dituen dimentsioa; izan ere, ikasle kopuru handiagoak biltzen ditu hasierako eta erdi-mailan (% 84,4), eta % 15,5ek soilik lortzen ditu maila aurreratuko gaitasunak. *Entzumena* dimentsioan (% 24,3) lortzen da maila aurreratuan kokatutako ikasleen ehunekorik altuena; dimentsio horretan bertan, hasierako mailan, kokatzen da ikasleen ehunekorik baxuena.

Geruzak errendimendu mailen arabera aztertzeak agerian jartzen ditu Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren hasierako maila gainditzen ez duten A geruza publikoko (% 96,3) eta itunpeko A geruzako (% 82,4) ikasleen ehuneko altuak. Era berean, B geruza publikoko ikasleen % 52,9k ez du hasierako maila gainditzen. D geruza publikoa (% 24,1) eta itunpeko D geruza (% 32,9) dira maila aurreratuan ikasleen ehunekorik altuenak biltzen dituztenak. Itunpeko D ereduko ikasleek lortzen dituzte emaitzarik onenak; izan ere, geruza horretan dago hasierako mailako (% 19) ikasleen ehunekorik baxuena eta % 81ek maila hori gainditzen du.

- **Emaitzak geruzen arabera (hezkontza-sarea eta hizkuntza-eredua)**

Batez bestekoek estatistikoki duten adierazgarritasuna aztertu ostean, honako hau esan daiteke:

- A ereduko geruzetako emaitzak B eredukoetakoak baino nabarmen baxuagoak dira, eta horiek, aldi berean, D eredukoetakoak baino baxuagoak. Hori gertatzen da sare publikoan eta itunpeko sarean.
- Sare publikoko eta itunpeko sareko A eta B geruzak EAEko Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren batez bestekoaren azpitik kokatzen dira (256 puntu).
- Itunpeko D geruzak eta D geruza publikoak gainerako geruzenak baino nabarmen altuagoak diren puntuazioak lortu dituzte. Gainera, itunpeko D geruzaren eta D geruza publikoaren artean 11 puntu adierazgarriko aldea dago; lehenengoaren puntuazioa altuagoa da.
- Hizkuntza-eredua funtsezkoa da Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren garapenean.

- **Emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera**

Oro har, *Idazmena* da zailtasun gehien dituen dimentsioa; izan ere, geruza guztietan, balio baxueneko puntuazioa duena da.



Gainerako geruzekiko puntu-aldea nabarmenagoa da A geruza publikoan eta itunpeko A geruzan; izan ere, puntuazio baxuenak lortzen dituzte ebaluatutako hiru dimentsioetan; horietan artetik A geruza publikoak ditu emaitzarik baxuenak.

- **Emaitzak hizkuntza-ereduen arabera**

D ereduko ikasleek (269 puntu) soilik gainditzen dute *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren* batez besteko orokorra (256 puntu). B ereduan, batez bestekoa 246 puntukoa da, eta A ereduan, berriz, 196 puntukoa.

A ereduko puntuazioak B eta D eredukoak baino nabarmen baxuagoak dira. Era berean, B ereduko emaitzak D eredukoak baino nabarmen baxuagoak dira.

Beraz, berriro ere berresten da hizkuntza-eredua faktore eraginkorra dela kompetentzia honen garapenean.

- **Emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera**

Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek etxeko hizkuntza euskara ez dutenek baino 33 puntu altuagoko puntuazioa lortu dute. Alde hori estatistikoki ez da adierazgarria. Maila aurreratuan, ehunekorik altuena etxeko hizkuntza euskara duten (ia % 40) ikasleei dagokie, eta ehuneko hori erdira murrizten da etxeko hizkuntza euskara ez duten ikasleen kasuan.

- **Emaitzak ISEK en arabera**

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian, hizkuntza-ereduen arabera aztertzen denean, lotura handia dago ISEK mailaren (baxua, ertain-baxua, ertain-altua) eta errendimenduaren artean; ISEK altuenari errendimendu handiagoa dagokio, eta alde horiek adierazgarriak dira kasu guztietan. Hala ere, emaitzetan salbuespena gertatzen da maila ertain-altua (264 puntu) eta altuaren (262 puntu) artean; bien arteko aldea estatistikoki adierazgarria da. Aipatutako ISEK mailen arteko 2 puntuko alde adierazgarri horretan ISEK maila altuan biltzen den itunpeko A geruzaren ehuneko altuak eragina du. Kompetentzia honetan, horren emaitza oso baxua da (203 puntu, eta batez bestekoa 256koa da).

Emaitzak hizkuntza-ereduen arabera aztertzen direnean, banan-banan ohiko portaera dutela ikusten da, hots, ISEK maila zenbat eta altuagoa izan, puntuazioak orduan eta altuagoak izaten direla.

- **Errendimenduaren bilakaera (ED09-ED10-ED11)**

- **Emaitza orokorren bilakaera**

Dagoeneko aipatu dugun moduan, Ebaluazio diagnostikoko 2009ko edizioan 250 puntuko batez bestekoa ezarri zen kompetentzia guztietarako. 2010eko aplikazioan igoera gertatu da eta 258 puntukoa da batez bestekoa. Igoera hori estatistikoki adierazgarria da. ED11n, batez besteko orokorrak 2 puntu egin du behera. Aurreko edizioarekiko bi puntuko alde hori



estatistikoki adierazgarria da. Hala eta guztiz ere, ED11n lortutako batez bestekoa ED09n lortutakoarekin alderatzen baldin bada, batez bestekoak 6 puntu egin duela gora ikus dezakegu. Alde hori ere adierazgarria da.

▪ **Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera.**

ED10 eta ED11ko Ebaluazio diagnostikoaren edizioetako emaitzak alderatzean, hasierako mailan kokatzen den ikasleen ehunekoan gertatu den igoera (2,5 puntu) eta erdi-mailakoan ehunekoan (0,3 puntu) izandakoa da arlorik adierazgarriena. Horren eraginez, maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekoak behera egin du (% -3,1).

Hala eta guztiz ere, ED09 eta ED11 arteko emaitzak alderatuz gero, ikus daiteke hasierako mailan kokatutako ikasleen ehunekoan 2,1 puntuko jaitsiera gertatu dela eta 0,9 puntukoa erdi-mailan; ondorioz, maila aurreratuko ehunekoan 3,8 puntuko igoera izan da.

▪ **Emaitzen bilakaera hizkuntza-ereduen arabera**

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian Ebaluazio diagnostikoaren hiru edizioetan (ED09, ED10 eta ED11) emaitzen bilakaera aztertzen denean, ED09tik ED10era bitarteko hiru hizkuntza-ereduetan batez besteko puntuazioen egoera nabari da, eta, hala eta guztiz ere, hiru hizkuntza-ereduetan batez besteko beharpean gertatzen da ED10 eta ED11ko emaitzekin alderatuz gero.

▪ **D ereduko ikasleek errendimendu mailetan izan duten banaketaren bilakaera etxeko hizkuntzaren arabera**

2011ko Ebaluazio diagnostikoko (ED11) emaitzak ED10 eta ED09n lortutakoekin alderatzen baldin badira, Ebaluazio diagnostikoko hiru edizioetan, etxeko hizkuntza euskara duten D ereduko ikasleen ehunekoak nabarmen behera egin duela nabari da errendimenduko hasierako mailan. ED09 eta ED10eko emaitzak alderatuz gero, jaitsiera % 3,3koa da eta ED10 eta ED11ko emaitzak alderatzen baldin baditugu, % 0,1koa.

ED09 eta ED10 edizioak alderatzen baldin baditugu, hasierako eta erdiko errendimendu mailetan kokatuta, etxeko hizkuntza euskara ez duten D ereduko ikasleen ehunekoak behera egin duela konturatu gara. Ondorioz, maila aurreratuko ikasleen ehunekoak gora egin du. Bestalde, ED10 eta ED11 edizioetako emaitzak alderatuz gero, hasierako eta erdiko mailetan etxeko hizkuntza euskara ez duten D ereduko ikasleen ehunekoak gora egin du. Hala eta guztiz ere, maila aurreratuan kokatutako ikasleen ehunekoak behera egin du.





2. *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia*

a) **Definizioa eta dimentsioak**

Gaztelaniaz hizkuntza erabiltzeko gaitasuna da, hau da, kontzeptuak, pentsamenduak, sentimenduak, gertaerak eta iritziak adierazteko eta interpretatzeko gaitasuna, ahozko eta idatzizko diskurtsoen bidez, eta izan daitezkeen testuinguru sozial eta kultural guztietan hizkuntza mailan elkarrenergiteko.

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia bost dimentsiotan dago egituratuta (entzumena, irakurmena, mintzamena, idazmena eta ahozko elkarrekintza), eta bost horietatik honako hiru hauek ebaluatu dira:

- **Irakurmena gaztelaniaz**

Era askotariko testuetan oinarriturik ikasleei galderak egiten zaizkie ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko gai den baloratzeko, testuari koherentzia emateko bertako informazio ezberdinak lotzen dituen, eta, azkenik, testuaren xedea eta igorlearen helburua identifikatzen dituen.

- **Entzumena gaztelaniaz**

Mota desberdinetako testuen bidez ebaluatu da eta honako hauetarako gaitasuna neurtu da: testuaren esanahi orokorra identifikatzeko, testuaren helburua antzemateko, behar den informazioa identifikatzeko eta hautatzeko, edo testua kritikoki interpretatzeko gaitasuna.

- **Idazmena gaztelaniaz**

Euskarazko idazlan baten bidez, emandako gaiaren egokitasuna eta garapena, testuaren kohesioa eta koherentzia eta erabilitako lexikoa, gramatika eta ortografia neurtu dira.

Dimentsio hori baloratzeko, DBHko 2. Mailako ikasleei 100 hitzetako idazlana eskatu zitzaion. 20 hitzetik gorako idazlan guztiak zuzendu dira eta honako alderdi hauek baloratu dira:

- Gaiaren egokitasuna eta garapena:
 - Testuaren xedea kontuan hartu den ala ez.
 - Egoerarekiko hizkuntza-erregistro egokia erabili den ala ez.
 - Aditz-pertsonari eutsi dion.
- Testuaren koherentzia eta kohesioa:



- Informazioaren aurrerapenari eutsi dion (ordena azalpenean, errepikapenak, inkoherentziak...)
 - Eskatutako testuaren egitura errespetatzen den eta alderdiak ondo bereizita ageri diren.
 - Eskatutako testuaren hizkuntza-baliabideak eta hizkuntzarenak ez diren baliabideak erabiltzen dituen.
- Lexikoa, gramatika eta ortografia:
 - Erabilitako lexikoa (errepikapenak, sinonimoak erabiltzea).
 - Erabilitako esaldi motak.
 - Ortografia-akats larriak eta puntuazio-akatsak.

Hauek dira ebaluatu ez diren dimentsioak:

- Mintzamena.
- Ahozko elkarrekintza.

b) Emaitza orokorrak

EAEko DBHko 2. mailako ikasleen batez besteko emaitza *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* 254 puntutan finkatu da. Ondoko taulan konpetentzia honetan kontuan hartu diren ikasleen kopurua azaltzen da, lortutako gehieneko eta gutxieneko puntuazioekin batera.

	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Desb. tip.
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</i>	16.640	112	402	254	46

c) Errendimendu mailen deskribapena eta ikasleen banaketa

Jarraian, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* errendimendu mailen deskribapen-taula ageri da.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<p>Maila honetan dagoen ikaslearen diskurtso-trebetasunek adinari dagozkion komunikazio-ekintzak osatu gabe bakarrik gauzatzea ahalbidetzen diote, batzuetan ekintzak behar bezala gauzatzeko laguntza behar duelarik.</p> <p>Erabilera eremu ezberdinetako ahozko zein idatzizko testu hurbiletan zentzu orokorra edo xedea antzemateko gai da kasu gehienetan. Konplexutasun gutxiako testuetan ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu.</p>	<p>Maila honetan dagoen ikaslearen diskurtso-trebetasunek adinari dagozkion komunikazio-ekintzak osotasunez eta egoki gauzatzeko ahalbidetzen diote.</p> <p>Hasierako mailan deskribatutakoez gain, erabilera eremu ezberdinetako ahozko zein idatzizko testu hurbiletako pasarteak laburtzeko gai da. Zeharka iradokitako inferentzia sinpleak egiten ditu testuko pasarte bateko edukiari buruz. Eskatutako zereginerako zein informazio den</p>	<p>Maila honetan dagoen ikaslearen diskurtso-trebetasunek adinari dagozkion komunikazio-ekintzak eraginkortasun handiaz gauzatzea ahalbidetzen diote.</p> <p>Hasierako eta erdi-mailan deskribatutakoez gain, erabilera eremu ezberdinetako ahozko zein idatzizko testu ez-hurbiletan, gainera apur bat konplexuak, ideia ezberdinen arteko loturak egiteko gai da. Informazio inplizitua edo ambiguoak identifikatzen eta interpretatzen du. Testuko ideia</p>



Informazio esplizitua identifikatzen du, eta testuaren pasarte bateko edukiari buruzko inferentzia zuzenen bat egiten du. Gai da testuko informazioaren eta ezagupen pertsonalaren arteko lotura sinpleak egiteko.

Testu idatzien ekoizpenari dagokionez, testu sinpleak idazteko gai da; hala ere, zailtasunak ditu proposatutako komunikazio-egoerari dagokion hizkuntza-erregistro egokia erabiltzeko. Testu mota ezberdinen ezaugarriren bat ezagutzen du, baina ez ditu erabiltzen xedea lortzeko behar den besteko osotasunaz eta eraginkortasunaz. Ideien antolamenduan eta garapenean gabeziak erakusten ditu eta baita testuaren kohesioan ere. Hizkuntza-baliabideak neurri batean bakarrik menperatzen ditu eta zenbait akats egiten ditu hiztegiaren, gramatikaren eta ortografiaren aldetik.

garrantzitsua antzematen du. Informazioa eta iritzia bereizten ditu.

Testu idatzien ekoizpenari dagokionez, testu landuak proposatutako komunikazio-egoerari dagokion erregistroa erabilirik idazteko gai da. Testu mota ezberdinen ezaugarriren bat egoki erabiltzen du. Ideiak nolabaiteko koherentziarekin aurkezten ditu testuaren xedea lortzeko. Testu-kohesioari laguntzen dioten hizkuntza-baliabide batzuk erabiltzen ditu. Gramatikaren, hiztegiaren eta ortografiaren ikuspuntutik hizkuntza-baliabideak nolabait menperatzen ditu


ezberdinak laburtzen eta erlazionatzen ditu. Testuko informazioaren eta ezagupen pertsonalaren arteko loturak egiten ditu.

Testu idatzien ekoizpenari dagokionez, ongi garatutako testuak idazteko gai da, testu mota eta genero ezberdinetako testuen ezaugarriei egokituak. Ideiak koherentziarekin aurkezten eta garatzen ditu testuaren xedea lortzeko. Hizkuntza-baliabideak ongi erabiltzen ditu, eta ideiak etorriaz, zuzentasun ortografikoaz eta gramatikaz adierazteko gai da.

36. grafikoa, ikasleen banaketa ageri da ebaluazio honetan definitu diren hiru kompetentzia mailetako bakoitzean.

2011ko edizio honetan, EAEko DBHko 2. mailako ikasleen % 12 inguruk hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen dituela ikus daiteke. Ikasleen % 58,6 kompetentziako erdi-mailan dago, eta % 29,5ek kompetentziako maila aurreratuari dagozkion lan konplexuagoak gauzatzea lortzen du. Beraz, esan daiteke DBHko 2. mailako euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ikasleen % 88 inguruk *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako* hasierako maila gainditzen duela.

36. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako* errendimendu maila bakoitzean dimentsioen arabera.





d) Emaitzak kompetenziako dimentsioetan

Ondoko taulan *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia* kontuan izan diren ikasleen kopurua ikus daiteke, kompetentzia honetan ebaluatutako hiru dimentsioetako (Entzumena, Irakurmena eta Idazmena) gehieneko eta gutxieneko puntuazioekin batera.

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetenziako dimentsioak	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Desb. tip.
Entzumena	16.640	46	400	258	53
Irakurmena		99	403	252	50
Idazmena*		105	361	250	50

*Idazmena dimentsioko emaitzak ezin dira Ebaluazio diagnostikoko beste bi edizioetan lortutakoekin alderatu.

EAEko DBHko 2. mailako ikasleen batez besteko emaitza kompetentzia honetan ebaluatutako hiru dimentsioetan 254 puntutan finkatu da. Dimentsioei dagokienez, *Idazmenean* lortu da batez besteko puntuaziorik baxuena (250 puntu). *Entzumenak*, 258 puntuko batez besteko punturekin, lortu du puntuaziorik altuena eta horrek du sakabanaketa gehien.

Ondoko taulak ikaslea deskribatzen du ikasleak errendimendu-maila bakoitzean zer egiteko gai diren kompetentzia honetako hiru dimentsioetan.

Mailen deskribapena *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetenziako dimentsioetan*

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
Entzumena		
Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testuan informazio esplizitua aurkitu (datuak). ✓ Testuaren xedea identifikatu. ✓ Testuaren edukiari buruzko inferentzia zuzenak egin. ✓ Testuko ideia nagusia antzeman. ✓ Testuko ideia orokorra laburtu. ✓ Testuaren edukiari buruzko zeharkako inferentzia sinpleak egin. 	Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Informazio esplizitua identifikatu (ideiak). ✓ Testurako izenburu egokia aukeratu. ✓ Testuaren edukiari buruzko zeharkako inferentziak egin. ✓ Mota bereko informazioen artean informazio zehatza antzeman (datuak). 	Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testuaren pasarte ezberdinen edukia interpretatu. ✓ Bere irakasmilan ohikoa ez den hiztegia antzeman. ✓ Testuaren edukia eta ezagupen pertsonala erlazionatu.
Irakurmena		
Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Bere irakasmilan maiz erabiltzen den hiztegiak baliatu. ✓ Testuaren gaia antzeman. ✓ Testuaren xedea identifikatu. ✓ Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizi. 	Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Informazioa eta iritzia bereizi. ✓ Nolabaiteko anbiguotasuna duten esaldiak egoki interpretatu. ✓ Informazio inplizitua identifikatu eta interpretatu. 	Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testuaren edukia ezagupen pertsonalarekin erlazionatu. ✓ Testuko ideiak laburtu eta erlazionatu. ✓ Testuan informazio anbigua edo osatu gabea ondorioztatuz



<ul style="list-style-type: none"> ✓ Testuaren hartzailea igarri. ✓ Informazio esplizitua aurkitu (datuak eta ideiak). ✓ Testuaren xedea antzeman. ✓ Testuaren pasarteetan esanahia ondorioztatu. 		<ul style="list-style-type: none"> eta interpretatu. ✓ Testuaren osagai ez-linguistikoen esanahia interpretatzen du.
---	--	--

Idazmena

Maila honetako ikasleak idazten dituen testuen bereizgarriak:	Maila honetako ikasleak idazten dituen testuen bereizgarriak:	Maila honetako ikasleak idazten dituen testuen bereizgarriak:
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Landu gabeko informazioa ematen du, batzuetan proposatutako helbururako garrantzitsua ez dena. ✓ Komunikazio-egoerarako egokia ez den hizkuntza-erregistroa erabiltzen du. ✓ Testuaren xedea nekez antzematen du. ✓ Informazioa nolabaiteko ordena faltarekin aurkezten du, ulergarritasuna oztopatzen duela. ✓ Nekez betetzen ditu argudiozko testuaren ezaugarriak. ✓ Testuaren koherentzia eta kohesioan gabezia nabariak ditu. ✓ Hiztegi, gramatika eta ortografia akatsak ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Proposatutako helbururako informazio nahikoa eta garrantzitsua ematen du. ✓ Oro har komunikazio-egoerarako egokia den hizkuntza-erregistroa erabiltzen du. ✓ Testuaren xedea antzematen du. ✓ Informazioa era logikoan antolatzen du ulermena errazteko. ✓ Kasu gehienetan betetzen ditu argudiozko testuaren ezaugarriak. ✓ Testua kohesionatzeko hizkuntza-baliabide batzuk erabiltzen ditu. ✓ Oro har ortografia eta gramatika arauak betetzen ditu. ✓ Hiztegi egokia erabiltzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Proposatutako helbururako informazio ugaria eta garrantzitsua ematen du. ✓ Komunikazio-egoerarako egokia den hizkuntza-erregistroa erabiltzen eta mantentzen du. ✓ Informazioa era koherentean antolatzen eta egituratzen du. ✓ Argudiozko testuaren ezaugarriak betetzen ditu. ✓ Testua kohesionatzeko hizkuntza-baliabide ezberdinak erabiltzen ditu. ✓ Ortografia eta gramatika arauak betetzen ditu. ✓ Hiztegi zehatza erabiltzen du.


Hauek dira *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* dimentsioak ebaluatzeko erabili diren testuak:

- *Entzumena*: testu zientifikoa, dibulgazio-testua eta erreportajea.
- *Irakurmena*: Informazio-testua, dibulgazio-testua, testu zientifikoa eta literatura-testua.
- *Idazmena*: tokiko egunkarirako albisteak.

37. *grafikoan*, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* ebaluatu diren hiru dimentsioen errendimendu mailen arabera ikasleen banaketa adierazten da:



37. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendu maila bakoitzean dimentsioen arabera.*



Irakurmena dimentsioak biltzen du ikasle ehunekorik altuena hasierako mailan (% 15,1). Maila aurreratuan kokatutako ikasleen kopuru handiena *Entzumena* dimentsioan (% 33,6) lortzen da. *Idazmena* dimentsioan biltzen da maila aurreratuko ikasle ehunekorik baxuena.

e) Emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)

Ondoko taulan eta grafikoan ebaluazioan kontuan izan diren geruzetako bakoitzean (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua) lortutako puntuazioak aurkezten dira. Ondoan geruza bakoitzean puntuazioan sartu diren ikasleen kopurua ageri da:


Geruza	Kopurua	Batez bestekoa	AT
A publikoa	627	220	1,81
B publikoa	796	246	1,70
D publikoa	6.115	250	0,58
Itunpeko A	1.459	264	1,27
Itunpeko B	3.897	262	0,74
Itunpeko D	3.746	257	0,72
Guztira:	16.640		

Datuen adierazgarritasuna aztertu ostean, 37. grafikoa, honako hau esan daiteke:

- Konpetentzia honetan, sare publikoko geruzek itundutako sarekoek baino emaitza nabarmen baxuagoak dituzte.
- Itunpeko A eta B geruzen arteko batez besteko aldeak ez dira adierazgarriak estatistikoki.
- Itunpeko A eta B geruzetako ikasleen puntuazioak dira nabarmen altuenak.
- D geruza publikoak gainerako bi geruzek baino batez besteko nabarmen altuagoa du; hala eta guztiz ere, ez dira konpetentzia honen batez bestekora iristen (254 puntu)
- A geruza publikoak gainerako geruzek baino emaitza baxuagoak ditu.




38. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetenziako emaitzak geruzen arabera.



Koadroan dauden geruzen batez besteko puntuazioen aldea ez da adierazgarria.

Ondoko grafikoa, geruzak bakoitzean *Matematikarako konpetentzia* finkatutako hiru mailatan dauden ikasleen ehunekoak ageri dira (hasierakoa, erdikoa eta aurreratua).

39. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendu maila bakoitzean geruzen arabera.



Errendimendu mailen arabeko geruzak desberdinetako ikasleen banaketaren azterketak honako hau erakusten du:


- A geruzak publikoko ikasleen % 34,6 inguru konpetentzia honetako hasierako mailatan dago eta % 11,2k soilik lortu du maila aurreratura iristea.
- Gainerako geruzetan (publikoak eta itunpekoak), ikasleen % 83,6 - % 91,1k gainditzen du hasierako maila.
- Geruzak guztietako ikasleen % 51-% 60,5 inguru konpetentzia honen erdi-mailan kokatzen da.



f) Emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera

Geruza bakoitzeko ikasleek dimentsio bakoitzean izan dituzten emaitzak ageri dira 40. grafikoan.

40. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako dimentsioen errendimendua geruzen arabera.



Irakurmenena eta Idazmenean itunpeko A eta B geruzen arteko aldeak ez dira adierazgarriak.


Hau ondoriozta daiteke:

- Dimentsio bakoitzean geruza desberdinen arteko batez besteko puntuazioen alde guztiak estatistikoki adierazgarriak dira, *Irakurmena* eta *Idazmena* dimentsioetan itunpeko A eta B geruzen artekoak izan ezik.
- Geruza publikoek itunpeko geruzek baino batez besteko puntuazio baxuagoak lortzen dituzte *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* dimentsio guztietan. Aipatutako aldeak estatistikoki adierazgarriak dira.
- Itunpeko A eta B geruzek lortzen dituzte batez besteko puntuaziorik altuenak dimentsio guztietan.
- A geruza publikoak lortzen ditu emaitzarik baxuenak dimentsio guztietan.

Informazioa osatzeko, hizkuntza-eredu bakoitzaren barneko portaera aztertu da *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* ebaluatu diren dimentsioetako emaitzen orekari dagokionez.



41. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako geruzen emaitzak dimentsioen arabera.



Oro har, konpetentzia honen dimentsioetan geruza bakoitzak lortutako emaitzetan nolabaiteko homogeneotasuna gertatzen da.

Idazmena da zailtasun gehien dituen dimentsioa; izan ere, geruza guztietan, balio baxueneko puntuazioa duena da. *Entzumena* dimentsioan lortzen dituzte ikasleek puntuaziorik onenak, A geruza publikoan izan ezik.

g) Emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera

Hurrengo taulan *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* ebaluazioan kontuan hartu den DBHko 2. mailako ikasleak daude adierazita, baita horien etxeko hizkuntza ere.


Maila honetan, ikasleen % 20 ingururen etxeko hizkuntza euskara da eta % 80k baino zertxobait gehiagoren etxeko hizkuntza da gaztelania edo besteren bat.

	Euskara		Euskara ez dena	
	Kopurua	%	Kopurua	%
GUZTIRA: 16.640	3.317	% 19,93	13.323	% 80,06

Ikasleen emaitzak aztertzean, etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat duten ikasleek konpetentzia honetan 255 puntu lortu dituztela egiaztatzen da, eta etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den besteren bat dutenek 252 puntuko errendimendua lortu dute. 3 puntuko aldea estatistikoki adierazgarria da.




42. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetenziaren emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera.



Jarraian, etxeko hizkuntzaren araberako ikasleen ehunekoen banaketa ageri da etxeko Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendu mailetan.

43. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian errendimendu mailetan dagoen ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera.



Etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den hizkuntza bat duten ikasleen ehunekorik altuena hasierako mailan (% 12,1) biltzen da. % 12,1 horien artetik gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleen emaitzak aztertzen baldin badira, konturatuko gara ikasle horiek, gaztelania ikasgaien ez ezik, ebaluatutako gainerako konpetentzietan ere emaitza txarrak dituztela. Maila aurreratuan, etxeko hizkuntza euskara ez duten ikasleei (% 30,2) dagokie ehunekorik altuena. Bestalde, erdi-mailan dagoen ikasleen ehunekorik altuena (% 62) etxeko hizkuntza euskara duten ikasleei dagokie.


h) Emaitzak Indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako populazio osoa ISEKeko 4 mailatan banatu da (baxua, ertain-baxua, ertain-altua eta altua) eta haietako bakoitzean populazioaren % 25 kokatu da, ISEK indizearen balioaren arabera, hau da, baxuagoa edo altuagoa den kontuan hartuta.



Ondoko grafikoan *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* lortu den batez besteko errendimendua ageri da ezarritako lau ISEK mailen arabera:

44. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendua ISEK mailaren arabera.




ISEK maila guztien arteko puntuazioen aldeak adierazgarriak dira.

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, hizkuntza-ereduen arabera aztertzen denean, lotura handia dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean; ISEK altuenari errendimendu handiagoa dagokio, eta alde horiek adierazgarriak dira kasu guztietan.

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako hiru errendimendu mailetan ikaslea nola dagoen banatuta ageri da grafiko honetan, ISEKeko lau tarteen arabera:

45. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendua ISEK mailaren arabera.



Honako egoera hau nabari da:

- ISEK maila baxuak eta ertain-baxuak biltzen dute konpetentziaren hasierako mailako ikasle ehunekorik altuena (% 19,8 maila baxuan eta % 14,4 maila ertain-baxuan) Era berean, ISEK maila baxuak eta ertain-baxuak biltzen dituzte ikasle gutxien maila aurreratuan (% 18,9 maila baxuan eta % 23,7 maila ertain-baxuan)




- Bestalde, ISEK maila altuak biltzen du hasierako mailan dauden ikasleen ehunekorik txikiena (% 6) eta maila aurreratuko ehunekorik altuena (% 39,8).
- ISEK maila altuko ikasleen ia % 94k gainditzen du hasierako maila ISEK maila baxuko ikasleen kasuan, % 80k baino zertxobait gehiagok gainditzen du.

i) Lortutako emaitzen eta ISEK indizearen arabera espero zitezkeen emaitzen arteko alderaketa

46. grafikoan, geruza bakoitzak konpetentzia honetan lortutako batez besteko puntuazioa (kolore argiko zutabea) eta Indize sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) efektua kontrolatuko balitz, maila horietako bakoitzak lortuko lukeen (kolore iluneko zutabea) batez besteko puntuazioa ageri da; hau da, ikasle guztiak ISEK berbera izango balute abiapuntu gisa ⁴.

46. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Batez besteko puntuazioa eta ISEK kontrolatu osteko puntuazioa Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, geruzaren arabera.



■ EDIIko batez besteko puntuazioa ■ Batez besteko puntuazioa ISEK kontrolatua

Grafikoan ikusten denaren arabera, A eta D geruza publikoek batez besteko puntuazioa nabarmen hobetzen dutela ISEK-en efektua kontrolatzen denean, baina B geruza publikoan iagoera estatistikoki ez da adierazgarria. Bestalde, itunpeko ikastetxeetan ISEK kontrolatzean egoera desberdinak gertatzen dira: itunpeko A eta B geruzetan jaitsiera gertatzen da estatistikoki adierazgarria den batez besteko puntuazioan; hala eta guztiz ere, itunpeko D geruzako iagoera estatistikoki ez da hain adierazgarria.

Ondorioz, A eta D geruza publikoetako ikasleen kasuan ISEK-en emaitzetan eragina duela ondorioztatu bada ere, B publikoa eta itunpeko D geruzetako ikasleekin ez da gauza bera gertatzen; izan ere, ISEK kontrolatzean, horien puntuazioa ez da nabarmen aldatzen.

A eta D geruza publikoek ISEK-en arabera esperotakoa baino puntuazio baxuagoak dituzten arren, itunpeko A eta B geruzek ISEK mailaren arabera esperotakoak baino emaitza altuagoak dituzte. Bestalde, B geruza publikoak eta itunpeko D geruzak ISEK-en arabera esperotako batez besteko puntuazioak lortu dituzte.

⁴ ISEK indizeak emaitzetan izan duen eragina galdera-sortan indize honekin lortutako galderari erantzun dieten ikasleekin soilik kalkulatu da; ikasle batzuei buruz ez dugu informazio hori eta ikasle horiek ez daude kalkulu honetan sartuta.



ISEK kontrolatutako (kolore iluneko zutabeak) batez besteko puntuazioei dagozkien zutabeak aztertzen baldin baditugu, honako hau ondoriozta dezakegu:

- Geruza publikoen puntuazioen (ISEK kontrolatuta) arteko aldeak estatistikoki adierazgarriak dira.
- ISEK kontrolatuta izatean, D geruza publikoko ikasleek dute puntuaziorik altuena geruza publikoen artean, eta A publikokoek baxuena.
- Itunpeko A eta D geruzen batez besteko puntuazioen aldeak (ISEK kontrolatuta) ez dira adierazgarriak, gainerakoak bai.
- ISEK kontrolatu ostean, itunpeko B geruzako ikasleek lortzen dute itunpeko geruzen batez bestekorik baxuena.

Itunpeko geruzen puntuazioak, bai hasierakoak, bai ISEK kontrolatu ostean lortutakoak, geruza publikoetako gainetik daude. Alde horiek estatistikoki adierazgarriak dira.


j) **Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren errendimenduan izandako bilakaera (ED09-ED10 eta ED11)**

Jarraian, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* lortutako emaitzak alderatu dira orain arte egindako hiru ebaluazioetan.

• **Emaitza orokorren bilakaera**

Lehen aipatu dugun moduan, Ebaluazio diagnostikoaren 2009 edizioan 250 puntuko batez bestekoa ezarri zen kompetentzia guztietarako. 2011ko aplikazioan, ikasleko lortutako batez bestekoa 254 puntukoa da *Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren* kasuan, 2010eko aplikazioan lortutakoa baino bi puntu altuagoa. 2010 eta 2011 edizioen arteko bi puntuko igoera estatistikoki adierazgarria da; ED09 eta ED10 artean bi puntuko igoera ere adierazgarria izan zen.

47. grafikoa*: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11. *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako* batez besteko puntuazioaren bilakaera.



*47. grafikoan, ED11 irekiko alderaketak erakusten dira; hau da, ED09-ED11 eta ED10-ED11.




- **Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera**

2011ko Ebaluazio diagnostikoan, 2010ekoarekin alderatuta, hasierako mailan (% 0,2) kokatutako ikasleetan jaitsiera txikia gertatu da eta maila aurreratuan kokatutakoen artean % 0,9ko igoera. Ondorioz, erdi-mailan kokatutako ikasleen ehunekoak behera egin du (% 0,7).

Azken edizio honetako emaitzak 2009an egindako lehenengoekin alderatuz gero, hasierako mailan, bilakaera oso positiboa da, izan ere, % 4,1 murriztu da ikasleen ehunekoa. Hain zuzen ere, hasierako mailan kokatutako ikasleen ehunekoak behera egin du ebaluazioko hiru edizioetan zehar. Hala eta guztiz ere, maila aurreratuko ehunekoak askoz ere egonkorrago mantentzen dira; izan ere, ED09 ediziotik ED10era behera egin zuen arren, 2011n gora egin du, lehen edizioan lortutako ehunekoa baino zertxobait altuagoa izanik (ED09).

Erdi-mailan, 2009. urtetik 2010. urtera igoera gertatu zen ikasleen ehunekoan, baina 2011n zertxobait murriztu egin da, ED09ko ehunekoa baino altuagoa izaten jarraitzen duen arren (% 3,9).

48. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako batez besteko puntuazioaren bilakaera.




- **Emaitzen bilakaera geruzen arabera**

49. grafikoa, geruza bakoitzak Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian orain arte egindako hiru ebaluazioetan lortutako emaitzak islatzen dira.



49. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen bilakaera geruzen arabera.



ED11n sei geruzetan lortutako emaitzak aurreko bi edizioetakoekin alderatzen baldin baditugu, honako hau ikusiko dugu:

- ED10-ED11. 2011ko Ebaluazio diagnostikoan, konpetentzia honetan, geruza guztiek puntuaren bat igo dute batez bestekoa, A geruza publikoan izan ezik; horren puntuazioak hiru puntu egin du behera; hala ere, jaitsiera hori ez da adierazgarria. Puntuazio-igoera adierazgarria da D geruza publikoan eta itunpeko sareko A eta D geruzetan; emaitzetako gainerako aldeak ez dira adierazgarriak.
- ED09-ED11. Ebaluazio diagnostikoko bi edizioak (ED09 eta ED11) alderatzen baldin baditugu, geruza guztietan batez bestekoak nabarmen egin du gora, sare publikoko B ereduan izan ezik. Itunpeko A da batez bestekoan nabarmen gora egin duen geruza (8 puntu).





k) *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako azterketaren ondorioak.*

- **Ikasleen banaketa errendimendu mailetan.**

2011ko edizio honetan, EAEko DBHko 2. mailako ikasleen % 12 inguruk hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen dituela ikus daiteke. Ikasleen % 58,6 kompetentziako erdi-mailan dago, eta % 29,5ek kompetentziako maila aurreratuari dagozkion lan konplexuagoak gauzatzea lortzen du. Beraz, esan daiteke DBHko 2. mailako euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ikasleen % 88 inguruk *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako* hasierako maila gainditzen duela.

Irakurmena dimentsioak biltzen du ikasle ehunekorik altuena hasierako mailan (% 15,1). Maila aurreratuan kokatutako ikasleen kopuru handiena *Entzumena* dimentsioan (% 33,6) lortzen da. *Idazmena* dimentsioan biltzen da maila aurreratuko ikasle ehunekorik baxuena.

Errendimendu mailen arabera geruza desberdinetako ikasleen banaketaren azterketak honako hau erakusten du:

- A geruza publikoko ikasleen % 34,6 inguru kompetentzia honetako hasierako mailetan dago eta % 11,2k soilik lortu du maila aurreratura iristea.
- Gainerako geruzetan (publikoak eta itunpekoak), ikasleen % 83,6 - % 91,1k gainditzen du hasierako maila.
- Geruza guztietako ikasleen % 51-% 60,5 inguru kompetentzia honen errendimenduko erdi-mailan kokatzen da.

- **Emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)**

Emaitzen adierazgarritasuna aztertu ostean, honako hau esan daiteke:

- Kompetentzia honetan, sare publikoko geruzek itundutako sarekoek baino emaitza nabarmen baxuagoak dituzte.
- Itunpeko A eta B geruzetako puntuazio nabarmen altuagoak dituzte.
- D geruza publikoak gainerako bi geruzek baino batez besteko nabarmen altuagoa du; hala eta guztiz ere, geruza publikoak ez dira kompetentzia honen batez bestekora iristen (254 puntu).
- A geruza publikoak gainerako geruzek baino emaitza baxuagoak ditu.

- **Emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera**

Geruza publikoek itunpeko geruzek baino batez besteko puntuazio baxuagoak lortzen dituzte *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren* dimentsio guztietan. Aipatutako aldeak estatistikoki adierazgarriak dira.

Itunpeko A eta B geruzek lortzen dituzte batez besteko puntuaziorik altuenak dimentsio



guztietan. A geruza publikoak lortzen ditu emaitzarik baxuenak dimentsio guztietan.

Idazmena da zailtasun gehien dituen dimentsioa; izan ere, geruza guztietan, balio baxueneko puntuazioa duena da. *Entzumena* dimentsioan lortzen dituzte ikasleek puntuaziorik onenak, A geruza publikoan izan ezik.

- **Emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera**

Ikasleen emaitzak aztertzean, etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat duten ikasleek konpetentzia honetan 255 puntu lortu dituztela egiaztatzen da, eta etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den besteren bat dutenek 252 puntuko errendimendua lortu dute. 3 puntuko aldea estatistikoki adierazgarria da.

- **Emaitzak ISEKen arabera**

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, hizkuntza-ereduen arabera aztertzen denean, lotura handia dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean; ISEK altuenari errendimendu handiagoa dagokio, eta alde horiek adierazgarriak dira kasu guztietan.

ISEK maila baxuak eta ertain-baxuak biltzen dute konpetentziaren hasierako mailako ikasle ehunekorik altuena (% 19,8 maila baxuan eta % 14,4 maila ertain-baxuan). Era berean, ISEK maila baxuak eta ertain-baxuak biltzen dituzte ikasle gutxien maila aurreratuan (% 18,9 maila baxuan eta % 23,7 maila ertain-baxuan.) Bestalde, ISEK maila altuak biltzen du hasierako mailan dauden ikasleen ehunekorik txikiena (% 6) eta maila aurreratuko ehunekorik altuena (% 39,8).

A eta D geruza publikoek ISEKen arabera esperotakoa baino puntuazio baxuagoak dituzten arren, itunpeko A eta B geruzek ISEK mailaren arabera esperotakoak baino emaitza altuagoak dituzte. Bestalde, B geruza publikoak eta itunpeko D geruzak ISEKen arabera esperotako batez besteko puntuazioak lortu dituzte.

Itunpeko geruzen puntuazioak, bai hasierakoak, bai ISEK kontrolatu ostean lortutakoak, geruza publikoetakoen gainetik daude. Alde horiek estatistikoki adierazgarriak dira. Aipatutako aldeak estatistikoki adierazgarriak dira.

- **Errendimenduaren bilakaera (ED09-ED10-ED11)**

- **Emaitza orokorren bilakaera**

Lehen aipatu dugun moduan, Ebaluazio diagnostikoaren 2009 edizioan 250 puntuko batez bestekoa ezarri zen konpetentzia guztietarako. 2011ko aplikazioan, ikasleko lortutako batez bestekoa 254 puntukoa izan da *Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* kasuan, 2010eko aplikazioan lortutakoa baino bi puntu altuagoa. 2010 eta 2011 edizioen arteko bi puntuko igoera estatistikoki adierazgarria da; ED09 eta ED10 artean bi puntuko igoera ere adierazgarria izan zen.



▪ **Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera**

2011ko Ebaluazio diagnostikoan, 2010ekoarekin alderatuta, hasierako mailan (% 0,2) kokatutako ikasleetan jaitsiera txikia gertatu da eta maila aurreratuan kokatutakoen artean % 0,9ko igoera. Ondorioz, erdi-mailan kokatutako ikasleen ehunekoak behera egin du (% 0,7).

Azken edizio honetako emaitzak 2009an egindako lehenengoekin alderatuz gero, hasierako mailan, bilakaera oso positiboa da; izan ere, % 4,1 murriztu da ikasleen ehunekoa. Hain zuzen ere, hasierako mailan kokatutako ikasleen ehunekoak behera egin du ebaluazioko hiru edizioetan zehar. Hala eta guztiz ere, maila aurreratuko ehunekoak askoz ere egonkorrago mantentzen dira; izan ere, ED09 ediziotik ED10era behera egin zuen arren, 2011n gora egin du, lehen edizioan lortutako ehunekoa baino altuagoa izanik (ED09).

Erdi-mailan, 2009. urtetik 2010. urtera igoera gertatu zen ikasleen ehunekoan, baina 2011n zertxobait murriztu egin da, ED09ko ehunekoa baino altuagoa izaten jarraitzen duen arren (% 3,9).

▪ **Emaitzen bilakaera geruzen arabera**

2011ko Ebaluazio diagnostikoan, konpetentzia honetan, geruza guztiek punturen bat igo dute batez bestekoa, A geruza publikoan izan ezik; horren puntuazioak hiru puntu egin du behera; hala ere, jaitsiera hori ez da adierazgarria. ED10ekin alderatuta, puntuazio-igoera adierazgarria da D geruza publikoan, A geruzan eta itunpeko sareko D geruzan; emaitzetako gainerako aldeak ez dira adierazgarriak.

Ebaluazio diagnostikoko bi edizioak (ED09 eta ED11) alderatzen baldin baditugu, geruza guztietan batez bestekoak nabarmen egin du gora, sare publikoko B ereduan izan ezik. Itunpeko A da batez bestekoan nabarmen gora egin duen geruza (8 puntu).





3. Matematikarako kompetentzia

a) Definizioa eta dimentsioak

Matematikarako kompetentzia zenbakiak, haien oinarrizko eragiketak, sinboloak eta adierazpen eta arrazoitze matematikoko formak erabiltzeko eta lotzeko gaitasuna da, bai informazio mota ugariak sortzeko eta interpretatzeko, bai errealitateko arlo kuantitatibo eta espazialei buruzko ezagutza zabaltzeko, baita eguneroko bizitzarekin eta laneko munduarekin lotutako arazoak konpontzeko ere.

Matematikarako kompetentzia 4 bloke edo dimentsio handitan egituratu da:

- **Kantitatea**

Alderdi hauen inguruan oinarritzen da: zenbakia, horren errepresentazioa, eragiketen esanahia, magnitude numerikoak, kalkulu matematikoak eta estimazioak. Horrez gain, hauek biltzen ditu: aljebra-hizkuntzaren oinarrizko elementuak, neurri erlatiboa ulertzea, urrats numerikoak ezagutzea eta errealitateko objektuen neurria aitortzearen moduko gaiak; era berean, objektu horien ezaugarriak modu numerikoan kuantifikatzeko eta ordezkatzeko lanak jasotzen ditu.

- **Espazio eta forma**

Eremu geometrikoei buruzko alorrak sartzen ditu, baina modu integratzailean eta aplikaziokoan ulertuta, hau da: objektuen kokapen erlatiboa ulertzea; espazioaren, eta eraikuntzen eta formen bidez mugitzen ikastea; formen eta irudien edo errepresentazio bisualen arteko loturak ulertzea, etab.

- **Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna**

Lotura errazen bidez deskriba daitezkeen eta kasuren batean oinarrizko matematika-funtzioen bidez adieraz daitezkeen elementuak hartzen ditu. Ziurgabetasunarekin lotutako osagaiak lotura du datuekin eta zoriarekin. Bi elementu horiek, datuak eta zoria, ikerketa matematikoaren baitan daude, eta estatistikatik eta probabilitate arlotik erantzun ohi zaie, hurrenez hurren.

- **Problemen ebazpena**

Problemen ebazpenarekin zuzenean lotutako alorretan oinarritzen da, hau da: egoera errealak eskemetara edo matematika-ereduetara itzultzea; problema mota desberdinak (matematika alorrekoak, aplikatuak, erantzun irekikoak, itxiak eta abar) planteatu, adierazi eta definitzea; problema mota desberdinak ebaztea, estrategia egokiak aukeratuz eta lortutako irtenbideak egiaztatuz.

Kompetentzia hau oro har ebaluatu ohi da eta, gainera, dimentsio bakoitza ebaluatzen da eta horietako bakoitzarentzat puntuazio berezia eskaintzen da.



b) Emaitza orokorra

EAEko DBHko 2. mailako ikasleen batez besteko emaitza *Matematikarako konpetentzian* 250,7 puntutan finkatu da Ondoko taulan konpetentzia honetan kontuan hartu diren ikasleen kopurua azaltzen da, lortutako gehieneko eta gutxieneko puntuazioekin batera.

	Kantitatea	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Desb. tip.
<i>Matematikarako konpetentzia</i>	16.690	96	387	250,7	51,45

c) Errendimendu mailen deskribapena eta ikasleen banaketa

Hurrengo taulan ikus daiteke ikasleak zer egiteko gai diren ebaluazio honetan zehaztutako konpetentziako maila bakoitzean: hasierako maila, erdi-maila eta maila aurreratua. Hori abiapuntutzat hartuta, ikasle bakoitza zer egoeratan dagoen eta maila bakoitzean zer egiteko gai den ondoriozta dezakegu.


Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<p><i>Hasierako mailan</i> dauden ikasleek ohiko prozedura algoritmikoak erabiltzen dituzte, eta ikasmailari dagozkion ariketak zailtasunekin planteatzen eta ebazten dituzte.</p> <p>Oro har, hainbat testuingurutan dauden matematikari buruzko informazio sinpleak ulertzeko, interpretatzeko eta komunikatzeko gai dira. Kasu gehienetan, zenbakizko kalkulu sinpleak egin ditzakete, eta horrekin batera, aljebra-hizkuntza lehen mailako ekuazio oso sinpleak ebazteko erabili, formen eta erlazio geometrikoen ezagupena eguneroko egoerei irtenbidea emateko erabili, eta datuen interpretazioari eta antolamenduari lotutako problema sinpleak ebatzi. Ausazko esperimentu sinpleetan iragarpenak egin ditzakete ausazko gertakari baten probabilitatearen balioaz duten esperientzian oinarrituta. Egoera esplizitueta eta argibide zuzenak jarraituz informazioa identifikatzeko eta ohiturazko prozedurak gauzatzeko gai dira.</p> <p>Normalean erreproduktzio-teknika deitutakoak erabiltzen dituzte. Hala ere, kasu gehienetan, aplikatzeko arazoak eta erabiltzeko akatsak izaten dituzte.</p>	<p><i>Erdi-mailan</i> dauden ikasleek matematika-hizkuntza egokia erabiltzen dute. Gainera, matematika-gai ezberdinak elkarrekin erlazionatzeko gai dira, eta ikasmailari dagozkion ariketa klasikoak segurtasunaz ebazten dituzte.</p> <p>Hasierako mailan deskribatutako gaitasunaz gain, erdi-mailako ikasleak normalean mota desberdinetako zenbakiak erabiltzea eskatzen duten kalkuluak segurtasunaz egiteko gai dira, ehunekoan kalkulari lortutako problemak ebazteko, formatu desberdinetan aurkeztutako funtzio-erlazio sinpleak interpretatzeko eta ausazko esperimentu sinpleetan ausazko gertakari baten probabilitatearen balioari buruzko iragarpen zentzuzkoak egiteko. Zenbakizko eta geometriazko proportzionaltasun-erlazioak identifika ditzakete, eta eguneroko egoera desberdinetan probabilitateari lotutako problemak ebazteko erabil ditzakete.</p> <p>Datuen interpretazioari eta antolamenduari lotutako problemak ebaztean, ikasleak gai dira aztertutako datuetatik eta grafikoetatik ondorio zentzuzkoak</p>	<p>Maila aurreratuan dauden ikasleek, matematikaren arlo desberdinak erlazionatzeaz gain, arrazoiketa landuak ere erabiltzen dituzte, gogoetatsuak dira, logikaz argudiatzen dute, eta problema originalak ebazteko gai dira.</p> <p>Aurreko mailetan deskribatutako gaitasunaz gain, maila aurreratuko ikasleek zenbakiak, neurriak eta magnitudeei buruzko ezagupenak erabil ditzakete era desberdinetako magnitudeak erlazionatzea eskatzen duten egoerei irtenbidea emateko. Geometriako nozioak eta espazioaren adierazpen-sistemak sormenak erabiltzea eskatzen duten espazioaren pertzepzio- eta diskriminazio-problemak ebatz ditzakete. Ikasle horiek, oro har, estrategia heuristikoa desberdinak ezagutzen eta erabiltzen dituzte eta problemak ebazteari dagokionez badakite zein diren garrantzitsuenak; aukera desberdinak aztertzen eta ebaluatzen dituzte, eta egokienak antzematen dituzte; emaitza egiaztatzen dute, eta jarraitutako prozesuari buruz hausnartzen dute; emandako problemaren emaitza hobetzeko edo beste problema batzuen ebazpenerako erabilgarriak izan daitezkeen ondorioak ateratzen dituzte. Gainera,</p>



	<p>ateratzeko eta portaerak iragartzeko. Informazio-iturri desberdinetako adierazpenak interpretatu eta erabil ditzakete eta haietatik ondorio zuzenak atera. Bere interpretazioak, emaitzak eta arrazoiketak idazki laburretan adierazteko gai dira.</p> <p>Oro har, problemak ebazteko estrategia heuristiko desberdinak ezagutzen eta erabiltzen dituzte, nolabaiteko konplexutasuna duten problemak ebazteko gai dira eta zereginak gauzatzeko segurtasun handi samarra dute.</p> <p>Normalean lotura-teknikak deitutakoak erabiltzen dituzte, hau da, nolabaiteko zailtasuna duten problemak ebazteko, baina oraindik egoera ezagun samarretan.</p>	<p>interpretazioak eta arrazoiketak jariozunez eta segurtasunez adierazteko gai izaten dira eta matematika-hizkuntza egokia erabiltzen dute.</p> <p>Normalean hausnarketa-teknikak erabiltzen dituzte, eta horrek emandako egoerak sakonago ezagutzea eskatzen du, baita sormen handiagoa ere problema baten matematika-elementuak identifikatzean eta elkarren arteko erlazioak finkatzean.</p>
--	--	--

50. grafikoa, ikasleen banaketa ageri da ebaluazio honetan definitu diren hiru kompetentzia mailetako bakoitzean:

50. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa Matematikarako konpetentziako errendimendu mailaren arabera.



EAEko DBHko 2. mailako ikasleen % 16k hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen ditu. Ikasleen erdia baino gehiago (% 57,5) konpetentziako erdi-mailan dago, eta ikasleen % 26,4k Matematikarako konpetentziako maila aurreratuari dagozkion trebezia konplexuagoak menderatzen ditu. Ikasleen ia % 84 dago Matematikarako konpetentziako erdi-mailan eta maila aurreratuan.

d) Emaitzak konpetentziako dimentsioen arabera

Jarraian, Matematikarako komunikaziorako konpetentzian kontuan hartu diren ikasleen kopurua ageri da, baita konpetentzia honetan ebaluatutako lau dimentsioetan lortutako gehieneko eta gutxieneko puntuazioak ere: *Kantitatea; Espazioa eta forma; Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna, eta Problemen ebazpena.*



<i>Matematikarako kompetentziako dimentsioak*</i>	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Desb. tip.
Kantitatea	16.681	122	331	250	50,00
Espazioa eta forma	16.684	129	332	250	50,00
Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna	16.551	153	334	250	50,00
Problemen ebazpena	16.621	173	361	250	50,00

*Dimentsioen emaitzak ez dira Ebaluazio diagnostikoko beste edizio batzuetakoarekin alderagarriak, haietako bakoitza neurtzeko erabiltzen den item kopurua txikia baita.

Ebaluazio diagnostikoko edizio bakoitzean, DBHko 2. mailako ikasleek konpetentzia honetan ebaluatutako lau dimentsioetan lortutako batez besteko emaitza 250 puntukoa izan da eta Ebaluazio diagnostikoko edizio bakoitzeko desbideratze tipikoa 50 puntukoa izan da, haietako bakoitza neurtzeko erabiltzen den item kopurua txikia delako. Horregatik, beste behin azpimarratu nahi dugu *Matematikarako konpetentziako* dimentsioetan ED11 lortutako emaitzak ez direla konparagarriak ED09 eta ED10 edizioetan lortutakoekin.

Taula honetan ikus daitezke *Matematikarako konpetentziako* errendimendu mailetako adierazleak:


Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<p>Oro har, maila honetako ikasleek:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Ezagutza numerikoak sartu eta nolabaiteko zailtasunarekin erabiltzen dituzte problemak eta ariketak ebazteko garaian. ✓ Neurketarekin lotutako problemak ebazten dituzte, prozedura informalak erabiliz. ✓ Hurbileko testuinguruan espazio-pertzepzioko jarduerak ebazten dituzte. ✓ Funtzio bat ordezkatzeko modu desberdinak erlazionatzen dituzte (modu grafikoa, taula, ahozkoa eta aljebraikoa). ✓ Emandako datuetatik abiatuta, ondorio errazak eta arrazoigarriak lortzen dituzte. 	<p>Maila honetan kokatzen dira hasierako mailan deskribatutako trebeziez gain, beste hauek ere egiten dituzten ikasleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Neurketarekin lotutako problemak ebazten dituzte, prozedura informalak eta akademikoak erabiliz. ✓ Ehunekoak zenbaki hamartarrekin eta zatikiekin lotzen dituzte. ✓ Problema ehunekoekin lotutako testuinguru desberdinetan ebazten dituzte. ✓ Ezagutza aljebraikoa problemen ebazpenarekin lotutako testuinguru errazetan txertatzen dute. ✓ Krokisa, planoak eta maketak hainbat objektu eta lekutako eskaletan interpretatzen dituzte. ✓ Arrazonamendu eta espazio-orientabideko problemak adierazi eta ebazten dituzte. ✓ Proporzionaltasun geometrikoarekin lotutako problemak ebazten dituzte. ✓ Nahasketen, aleazioen eta abarren motako problemak ebazten dituzte, prozedura estandarizatuak erabiliz. ✓ Emandako datuetatik eta grafikoetatik abiatuta, arrazoizko ondorioak ateratzen dituzte eta jokaerak iragartzeko 	<p>Maila honetan kokatzen dira hasierako eta erdi-mailan deskribatutako trebeziez gain, beste hauek ere egiten dituzten ikasleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Neurketarekin lotutako problemak modu kreatiboan ebazten dituzte, baita hain ezagunak ez diren testuinguruetan ere, prozedura informalak eta akademikoak erabiliz. ✓ Hainbat testuingurutan eta metodo originalak eta kreatiboak erabiliz, espazioaren pertzepzio- eta diskriminazio-ariketak ebazten dituzte. ✓ Problema enuntziatuaren irakurketa ulergarria egiten dute, helburu bakoitzerako elementu garrantzitsuenak aukeratu eta enuntziatuaren idazketa alternatiboak proposatuz. ✓ Estrategia heuristikoa anitzak ezagutu eta aplikatzen dituzte, problema ebaztera begira egokienak zein diren jakinez.



	<p>gai dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Esperimentu sinpleetan ausazko gertaera baten probabilitate-balioari dagokion arrazoizko iragarpenak egiten dituzte. ✓ Problema ebaztean lortutako irtenbideak eta jarraitutako prozesua modu argian eta ordenatuan aurkezten dute. ✓ Problemaren enuntziatuaren irakurketa ulergarria egiten dute, elementu garrantzitsuenak aukeratuz. ✓ Problema ebazteko hainbat estrategia heuristiko ezagutu eta aplikatzen dituzte. 	
--	--	--

51. grafikoan, Matematikarako kompetentzian ebaluatutako lau dimentsioetako ikasleen banaketa ikus daiteke errendimendu mailen arabera:

51. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Matematikarako kompetentziako errendimendu maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa dimentsioen arabera.



Dimentsio guztiek jokaera antzekoa erakusten dute errendimendu mailen arabera banaketari dagokionez. Lau dimentsioetan, ikasleen % 50 baino zertxobait gehiago dago erdi-mailan. Portaerarik onena izan duen dimentsioa *Espazioa eta forma* izenekoa da. Bertan dago hasierako mailan ikasleen ehunekorik txikiena (% 12,4), eta handiena, maila aurreratuan (% 36,3).


e) Emaitzak geruzen arabera (hezkontza-sarea eta hizkuntza-eredua)

Hurrengo taulan eta grafikoan ikus daitezke ebaluazio honetan geruza bakoitzak lortutako puntuazioak. Horrez gain, geruza bakoitzeko puntuazioan sartutako ikasle kopurua ere azaltzen da:



Geruza	Kopurua	Batez bestekoa	AT
A publikoa	639	200	1,79
B publikoa	804	235	1,86
D publikoa	6.110	248	0,64
Itunpeko A	1.472	254	1,38
Itunpeko B	3.915	254	0,79
Itunpeko D	3.750	262	0,82
Guztira:	16.690		

52. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Matematikarako konpetentziaren emaitzak geruzen arabera.



Itunpeko A eta B geruzen artean izan ezik, beste geruza guztien arteko aldeak adierazgarriak dira.

Matematikarako konpetentzian, geruza desberdinetako batez bestekoetan dauden aldeak estatistikoki adierazgarriak dira, itunpeko A geruzaren eta itunpeko B geruzaren artean izan ezik.


A geruza publikoa gainerako geruzen azpitik kokatzen da nabarmen, eta itunpeko D geruza gainerako geruzen gainetik.

Geruza publikoek itunpekoek baino nabarmen baxuagoak diren emaitzak lortu dituzte eta haien batez besteko puntuazioa EAEko batez bestekoaren (250,7) azpitik daude.

Ondoko grafikoan finkatutako hiru errendimendu mailetan dauden ikasleen ehunekoak ageri dira geruza bakoitzean (hasierakoa, erdiko eta aurreratua):



53. grafikoa: ED I I-DBHko 2. maila. Matematikarako konpetentziako errendimendu maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa geruzen arabera.



Errendimendu mailen arabera geruza ugarietan dauden ikasleen banaketa aztertuz gero, hau ondoriozta dezakegu:

- A geruza publikoko ikasleen % 55,1 inguru konpetentzia honetako hasierako mailetan dago, eta % 5,2 soilik maila aurreratuan.
- Gainerako geruzetan (publikoetan eta itunpekoetan), ikasleen % 73 - % 89,5ek gainditzen du hasierako maila.
- Geruza guztietako ikasleen % 50 baino gehiago dago konpetentziako erdi-mailan, A publikoaren kasuan izan ezik (% 39,7).
- Itunpeko hiru geruzek, hasierako mailan, batez bestekoak baino ikasleen ehuneko baxuagoa dute (% 16,1). Baina geruza publikoetan aurkakoa gertatzen da.
- Itunpeko hiru geruzek, maila aurreratuan, batez bestekoak baino ikasleen ehuneko handiagoa dute (% 26,4). Geruza publikoek, ordea, batez bestekoa baino ikasleen ehuneko txikiagoa biltzen dute errendimendu maila honetan.

f) Emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera

54. grafikoa geruza bakoitzeko ikasleek Matematikarako konpetentziako dimentsio bakoitzean lortutako emaitzak ikus daitezke.

Dimentsioetan geruzek lortutako batez besteko puntuazioetan dauden aldean adierazgarritasunarekin lotuta, honako hau ikus dezakegu:

- *Kantitatea*: itunpeko A eta B geruzetako batez besteko puntuazioen artean lortutako aldeak ez dira adierazgarriak. Gainerakoak bai.
- *Espazioa eta forma*: ez dira adierazgarriak B geruza publikoaren-itunpeko A geruzaren, D publikoaren-itunpeko B geruzaren eta D publikoaren-itunpeko D geruzaren batez besteko puntuazioen artean dauden aldeak. Gainerakoak bai.
- *Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna*: D geruza publikoa-itunpeko A geruza eta itunpeko A geruza-itunpeko B geruzetako batez besteko puntuazioen artean lortutako aldeak ez dira adierazgarriak. Gainerakoak bai.




- *Problemen ebazpena*: itunpeko A eta itunpeko D geruzetako batez besteko puntuazioen artean lortutako aldeak ez dira adierazgarriak. Gainerakoak bai.

Gainera, hau ere ikus dezakegu:

- Geruza publikoek itunpeko geruzek baino batez besteko puntuazio txikiagoak izan dituzte dimentsio hauetan: *Kantitatea* eta *Problemen ebazpena*. Aipatutako aldeak estatistikoki adierazgarriak dira.
- Itunpeko D geruza da dimentsio gehienetan puntuazio altuenak izan dituen *Espazioa eta forma* izenekoan eta *Problemen ebazpena* dimentsioaren kasuan izan ezik. Lehenengoaren kasuan, ez dago alde adierazgarririk D geruza publikoarekin alderatuta eta bigarrenean, aldiz, ez dago alde adierazgarririk itunpeko A geruzarekin alderatuta.
- A geruza publikoa da dimentsio guztietan emaitza baxuenak lortu dituen.

54. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Matematikarako konpetentzien dimentsioen emaitzak geruzen arabera.




Informazioa osatzeko, geruza bakoitzaren barneko portaera aztertu da *Matematikarako konpetentzian* ebaluatu diren dimentsioetako emaitzen orekari dagokionez.

A eta B geruza publikoak dira *Matematikarako konpetentziako* dimentsio guztietan puntuazio baxuenak lortu dituztenak. Itunpeko D geruzak, aldiz, konpetentzia honetako dimentsio guztietan lortu ditu puntuazio altuenak.

Geruza publikoetako batez besteko puntuazioak EAEko batez bestekoaren azpitik (250) daude dimentsio guztietan, D geruza publikoaren *Espazioa eta forma* dimentsioko puntuazioak izan ezik. Aldiz, itunpeko geruzek batez bestekoa baino puntuazio hobekak lortu dituzte kasu batzuetan izan ezik. Hauetan, adibidez: itunpeko A geruzak *Espazioa eta forma* dimentsioan (haren puntuazioa batez bestekoaren azpitik dago); itunpeko A geruzak *Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna* dimentsioan, eta itunpeko B geruzak *Espazioa eta forma* dimentsioan (biek 250 puntuko batez bestekoa lortu dute).



55. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Matematikarako kompetentzietako dimentsioetako geruzen emaitzak.



g) Emaitzak probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera

Ikastetxeek ikasleek proba egin zezaten hizkuntza hautatzeko bi aukera izan dituzte: euskara eta gaztelania. Konpetentzia honetan, A ereduiko ikastetxe gehienek aukeratu dute gaztelania, eta D ereduok, aldiz, euskara. Aldiz, B ereduetan, ikastetxeen zati txiki batek bakarrik aukeratu du euskaraz egitea; izan ere, gehienek, gaztelania aukeratu dute.

- **Proba egiteko erabilitako hizkuntzaren arabera**

Hurrengo taulan, *Matematikarako kompetentzian* sartutako DBHko 2. mailako ikasleen kopurua eta proba zein hizkuntzatan egin zuten ikus dezakegu:

	Euskara		Gaztelania	
	Kopurua	%	Kopurua	%
GUZTIRA: 16.690	10.221	% 61,24	6.469	% 38,76

Ikasmila honetan, ikasleen % 61ek (gutxi gorabehera) proba euskaraz egin zuen, eta % 39 inguruk gaztelaniaz.


Hurrengo taulan eta grafikoan ikus dezakegun moduan, proba euskaraz egin zuten ikasleek 253 puntu lortu zituzten; hau da, proba gaztelaniaz egin zutenek baino 6 puntu gehiago (haien batez besteko puntuazioa 247koa izan da). Aldea adierazgarria da.

Datu honek berez ez du informazio adierazgarririk eskaintzen, eta, beraz, analisi sakonagoa egin ahal izateko beste aldagai batzuekin alderatu beharko da.

	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	AT	Desb. tip.
Euskara	10.221	106	387	253	0,50	50,51
Gaztelania	6.469	96	387	247	0,65	52,67




56. grafkoa: ED I I-DBHko 2. maila. Matematikarako konpetentziako emaitzak probako hizkuntzaren arabera.



Jarraian, probako hizkuntzaren araberako ikasleen ehunekoen banaketa ageri da Matematikarako konpetentziako errendimendu mailetan:

57. grafkoa: ED I I-DBHko 2. maila. Matematikarako konpetentziako errendimendu mailetan dauden ikasleen ehunkoa probako hizkuntzaren arabera.



Ikasleen ehunekorik handiena erdi-mailan ikus dezakegu, bai proba euskaraz egin dutenen kasuan, bai gaztelaniaz egin dutenen kasuan ere (% 56,5 eta % 58 baino zertxobait gehiago). Proba euskaraz egin zuten ikasleek gaztelaniaz egin zutenek baino emaitza hobekak lortu dituzte errendimendu mailetan; izan ere, hasierako mailan % 4,7 gutxiagoko populazioaren ehunkoa biltzen du, eta ia % 3 handiagoa maila aurreratuan.

Geruza bakoitzean proba euskaraz eta gaztelaniaz egin zuten ikasleen ehunkoa erakusten du taula honek.



Geruza	Euskara		Gaztelania	
	Kop.	%	Kop.	%
A publikoa	0	% 0,00	639	% 100,00
B publikoa	107	% 13,31	697	% 86,69
D publikoa	6.108	% 99,97	2	% 0,03
Itunpeko A	0	% 0,00	1.472	% 100,00
Itunpeko B	259	% 6,62	3.656	% 93,38
Itunpeko D	3.747	% 99,92	3	% 0,08
GUZTIRA: 16.690	10.221	% 61,24	6.469	% 38,76

Ikasleen % 61ek baino zertxobait gehiagok egin zuen proba euskaraz eta ia % 39k gaztelaniaz egin zuen. D geruza publikoak eta itunpeko D geruzak (ikasleen ia % 100) biltzen ditu proba euskaraz egin zuten ikasleen ehunekorik altuenak. Bestalde, A geruza publikoko eta itunpeko A geruzako ikasleen % 100ek proba gaztelaniaz egin zuen.

- **Etxeko hizkuntzaren arabera**

Hurrengo taulan *Matematikarako konpetenziaren* ebaluazioan kontuan hartu den DBHko 2. mailako ikasleak daude adierazita, baita horien etxeko hizkuntza ere.

Maila honetan, ikasleen % 20 ingururen etxeko hizkuntza euskara da eta % 80 baino zertxobait gehiagoren etxeko hizkuntza da gaztelania edo besteren bat.


	Euskara		Euskara ez dena	
	Kopurua	%	Kopurua	%
GUZTIRA: 16.690	3.320	% 19,89	13.370	% 80,10

Hurrengo taulan eta grafikoan ikus daitekeen moduan, etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek 267 puntuko batez bestekoa lortu dute *Matematikarako konpetenzian*, etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat dutenak baino 20 puntu gehiago. Kasu honetan, batez besteko puntuazioa 247koa izan da. Aldea adierazgarria da.

	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	AT	Des. tip.
Euskara	3.320	108	387	267	0,86	49,34
Euskara ez dena	13.370	96	387	247	0,44	51,21




58. grafikoa: EDI I-DBHko 2. maila. Matematikarako konpetentziako emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera.



Jarraian, etxeko hizkuntzaren arabera ikasleen ehunekoen banaketa ageri da etxeko *Matematikarako konpetentziako* errendimendu mailetan.

59. grafikoa: EDI I-DBHko 2. maila. Errendimendu mailetako ikasleen ehunekoak etxeko hizkuntzaren arabera.



Ikasleen ehunekorik altuena erdi-mailan biltzen da, bai etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen kasuan, bai etxeko hizkuntza euskara ez dutenen kasuan (% 55,5 - % 58). Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek, errendimendu mailetan, etxeko hizkuntza euskara ez duten ikasleek baino jokoera hobea dute; izan ere, populazioaren % 10 gutxiago biltzen dute hasierako mailan eta ia % 13 gehiago maila aurreratuan.

Hurrengo taulan, ikasleen ehunekoak ageri da, geruza bakoitzean etxeko hizkuntzaren arabera (euskara edo beste bat):



Geruza	Euskara		Euskara ez dena	
	Kopurua	%	Kopurua	%
A publikoa	1	% 0,2	638	% 99,8
B publikoa	17	% 2,1	787	% 97,9
D publikoa	1.708	% 28,0	4.402	% 72,0
Itunpeko A	5	% 0,3	1.467	% 99,7
Itunpeko B	199	% 5,1	3.716	% 94,9
Itunpeko D	1.390	% 37,1	2.360	% 62,9
GUZTIRA:	3.320	% 19,9	13.370	% 80,1

Ikasleen % 19,9ren etxeko hizkuntza euskara da, eta gehienek, % 80ren baino zertxobait gehiagoren, etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat da. Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen ehunekorik altuena D geruza publikoan (% 28) eta itunpeko D geruzan (% 37,1) biltzen da. Hala eta guztiz ere, A eta B geruza publikoetan eta itunpekoetan biltzen da etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleen ehunekorik altuena (% 95 eta % 100 artean).

Jarraian, emaitzak proban erabilitako hizkuntzaren arabera aztertzen dira (etxeko hizkuntzarekin edo irakas-hizkuntzarekin bat ote datorren), bai B ereduan, Matematikarako irakas-hizkuntza nagusia, oro har, gaztelania baita, bai D ereduan, arlo horretarako irakas-hizkuntza nagusia euskara baita.

▪ B eredua

B ereduan, oro har, matematika arloko irakaskuntza gaztelaniaz egiten da. Sare publikoko ikasleen % 13,3k eta itunpeko sarekoen % 6,6k euskaraz egin zuen konpetentzia honetako proba. Beraz, ikasle gehienek (% 90,2) proba gaztelaniaz egin zuten, eta gainera, euskara ez den beste hizkuntza bat dute etxeko hizkuntza. Proba euskaraz egiten duten 246 ikasleren etxeko hizkuntza ez da euskara (B ereduko ikasleen guztizkoaren % 5,2).

B ereduko ikasleak


Probako hizkuntza	Etxeko hizkuntza	Kopurua	Batez bestekoa	AT
Gaztelania	Euskara ez dena	4.257	251	0,77
Euskara	Euskara ez dena	246	238	3,42
Ikasleak, guztira: 4.719				

Gainerako hizkuntza-egoeretan ikasle kopurua ez da nahikoa emaitzen fidagarritasuna bermatzeko. Adibidez, B ereduan etxeko hizkuntza euskara ez duten 96 ikaslek soilik egin zuten *Matematikarako konpetentziako* proba euskaraz eta etxeko hizkuntza euskara duten 120 ikaslek egin zuten proba hizkuntza horretan. Ondorioz, ondorengo analisietan ez dira talde horien emaitzak kontuan hartuko.

Hurrengo grafikoan, probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera B ereduko emaitzak aurkezten dira. Bertan ikusten denez, probako hizkuntza eta etxeko hizkuntza bat datozenean, *Matematikarako konpetentziaren* emaitza hizkuntza-aldaketa dagoenean baino nabarmen altuagoa da.



60. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Matematikarako konpetentziako B ereduko emaitzak probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera.



B ereduaren kasuan, probako hizkuntza gaztelania denean eta etxeko hizkuntza euskara ez den besteren bat denean (gehienetan gaztelania), ikasleek 251 puntuko batez bestekoa lortzen dute. Hala eta guztiz ere, etxeko hizkuntza euskara ez den besteren bat izan arren proba euskaraz egiten duten B ereduko ikasleek 238 puntuko batez bestekoa lortu dute. Bi batez bestekoen arteko 13 puntuko aldea estatistikoki adierazgarria da.

▪ D eredua

D ereduan, matematika arloko irakaskuntza euskaraz egiten da. Sare publikoko D ereduko ikasleen % 100ek eta itunpeko sareko % 99,9k konpetentzia honetako proba euskaraz egin zuten. D ereduko ikasle gehienek (% 68,5) etxeko hizkuntza euskara ez den beste hizkuntza bat da.

D ereduko ikasleak


Probako hizkuntza	Etxeko hizkuntza	Kopurua	Batez bestekoa	AT
Euskara	Euskara	3.098	267	0,88
Euskara	Euskara ez dena	6.757	247	0,60
Ikasleak, guztira: 9.860				

Gainerako hizkuntza-egoeretan ikasle kopurua ez da nahikoa emaitzen fidagarritasuna bermatzeko. Adibidez, B ereduan etxeko hizkuntza euskara ez duten bost ikasleek soilik egin zuten *Matematikarako konpetentziako* proba gaztelaniaz, eta etxeko hizkuntza euskara duten ikasle bakar batek ere ez zuen proba gaztelaniaz egin. Ondorioz, ondorengo analisietan ez dira talde horien emaitzak kontuan hartuko.

Hurrengo grafikoan, probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera D ereduko emaitzak aurkezten dira. Bertan ikusten denez, probako hizkuntza eta etxeko hizkuntza bat datozenean, *Matematikarako konpetentziaren* emaitza hizkuntza-aldaketa dagoenean baino nabarmen altuagoa da.



61. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Matematikarako konpetentziako D ereduko emaitzak probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera.




D ereduaren kasuan, probako hizkuntza eta etxeko hizkuntza euskara denean, ikasleek 267 puntuko batez bestekoa lortzen dute. Hala eta guztiz ere, etxeko hizkuntza euskara ez den besteren bat izan arren, proba euskaraz egiten duten D ereduko ikasleek 247 puntuko batez bestekoa lortu dute. Bi batez bestekoen arteko 20 puntuko aldea estatistikoki adierazgarria da.

h) Emaitzak Indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako populazio osoa ISEKeko lau mailatan banatu da (baxua, ertain-baxua, ertain-altua eta altua) eta haietako bakoitzean populazioaren % 25 kokatu da, ISEK indizearen balioaren arabera, hau da, baxuagoa edo altuagoa den kontuan hartuta.

Ondoko grafikoak ezarritako ISEK lau mailetakoko bakoitzean *Matematikarako konpetentzian* lortu den batez besteko puntuazioa erakusten du:

62. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Matematikarako konpetentziako errendimendua ISEK mailaren arabera.




ISEK maila guztien arteko puntuazioen aldeak adierazgarriak dira.



Matematikarako konpetentzian lotura adierazgarria dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean: ISEK maila zenbat eta altuagoa izan, errendimendua ere hobea izango da, eta aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan.

Matematikarako konpetentziako hiru errendimendu mailetan ikaslea nola dagoen banatuta ageri da grafiko honetan, ISEKeko lau tarteen arabera:

63. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Matematikarako konpetentziako errendimendu mailetan dauden ikasleen ehunekoa ISEK mailen arabera.



Honako egoera hau nabari da:

- ISEK maila baxuak eta ertain-baxuak biltzen dute konpetentziaren hasierako mailako ikasle ehunekorik altuena (% 32,1 maila baxuan eta % 17,7 maila ertain-baxuan) Era berean, ISEK maila baxuak eta ertain-baxuak biltzen dituzte ikasle gutxien maila aurreratuan (% 14,1 maila baxuan eta % 21 maila ertain-baxuan)
- Bestalde, ISEK maila altuak biltzen du hasierako mailan dauden ikasleen ehunekorik txikiena (% 7,9) eta maila aurreratuko ehunekorik altuena (% 36,3).
- ISEK maila altuko ikasleen % 92k gainditzen du hasierako maila eta ISEK maila baxuko ikasleen kasuan, ia % 68k gainditzen du.


i) Lortutako emaitzen eta ISEK indizearen arabera espero zitezkeen emaitzen arteko alderaketa

64. grafikoan, geruza bakoitzak konpetentzia honetan lortutako batez besteko puntuazioa (kolore argiko zutabea) eta Indize sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) efektua kontrolatuko balitz, maila horietako bakoitzak lortuko lukeen (kolore iluneko zutabea) batez besteko puntuazioa ageri da; hau da, ikasle guztiek ISEK berbera izango balute abiapuntu gisa ⁵.

⁵ ISEK indizeak emaitzetan izan duen eragina galdera-sortan indize honekin lotutako galderari erantzun dieten ikasleekin soilik kalkulatu da; ikasle batzuei buruz ez dugu informazio hori eta ikasle horiek ez daude kalkulu honetan sartuta.



64. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Batez besteko puntuazioa eta ISEK kontrolatu osteko puntuazioa Matematikarako kompetentzian.



Ikus daitekeen moduan, geruza publiko guztiek batez besteko puntuazioa hobetzen dute ISEKen efektua kontrolatzen denean, eta igoera hori estatistikoki adierazgarria da. Bestalde, itundutako geruzetan egoera desberdinak gertatzen dira: itunpeko A eta B geruzetan puntuazioa mantendu egin da eta itunpeko D erudian jaitsi; jaitsiera hori estatistikoki adierazgarria da.

Horrek honako hau adierazten du:

- Geruza publikoetako ikasleen kasuan, ISEKek eragina du emaitzetan. ISEK maila kontrolatzean batez besteko puntuazioak gora egin duela antzematen da. Beraz, geruza publikoetako ikasleek ISEK indizearen arabera esperotakoaren azpitik (kolore iluneko zutabea) dagoen hasierako batez besteko puntuazioa (kolore argiko zutabea) lortu dute.
- Itunpeko A eta B geruzetako ikasleek ISEK indizearen arabera esperotako batez besteko puntuazioa lortu dute; izan ere, kontrolatzean ez da aldatzen (kolore iluneko zutabea).
- Itunpeko D geruzako ikasleek ISEKen arabera esperotakoa baino batez besteko puntuazio altuagoa lortu dute; izan ere, kontrolatzean, puntuazioa jaitsi egiten da (kolore iluneko zutabea).

Geruza bakoitzeko ISEK mailaren arabera esperotakoekin alderatuta lortutako batez besteko emaitzen azterketari esker, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ikastetxe bakoitzak ikaslearen ezagutzari egindako ekarpena balioetsi daiteke.

Batez besteko puntuazioak ISEK kontrolatuta (zutabe ilunak) aztertzen baldin badira, honako hau ondoriozta dezakegu:

- Geruza publikoen puntuazioen (ISEK kontrolatuta) arteko aldeak estatistikoki adierazgarriak dira.
- ISEK kontrolatuta izatean, D geruza publikoko ikasleek dute puntuaziorik altuena geruza publikoen artean, eta A publikokoek baxuena.
- Itunpeko A eta D geruzen batez besteko puntuazioen aldeak (ISEK kontrolatuta) ez dira adierazgarriak, gainerakoak bai.



- ISEK kontrolatu ostean, itunpeko B geruzako ikasleek lortzen dute itunpeko geruzen batez bestekorik baxuena.

Itunpeko geruzen puntuazioak, bai hasierakoak, bai ISEK kontrolatu ostean lortutakoak, geruza publikoetakoen gainetik daude. Alde horiek estatistikoki adierazgarriak dira.

64. grafikoa eta horren antzeko grafiko guztietan (46. eta 77. grafikoak) ikus daitekeen moduan, hezkuntza etapa honetan, emaitzetan ISEKen eragina bertan behera geratu ostean, geruza publikoek beren artean eta itunpekoekin alde adierazgarriak izaten jarraitzen dute. Itunpeko geruzek, ISEK kontrolatu arren, geruza publikoek baino emaitza altuagoak izaten jarraituko lukete.


j) *Matematikarako kompetentzian errendimenduan izan den bilakaera (ED09-ED10 eta ED11)*

Jarraian, egindako hiru Ebaluazio diagnostikoetan *Matematikarako kompetentzian* lortutako emaitzak alderatzen dira.

• **Emaitza orokorren bilakaera**

Hurrengo grafikoa, *Matematikarako kompetentzian* batez besteko puntuazioen bilakaera ageri da orain arte egindako Ebaluazio diagnostikoko hiru edizioetan (ED09, ED10 eta ED11):

65. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11. *Matematikarako kompetentziako batez besteko puntuazioaren bilakaera.*



Batez besteko puntuazioen arteko aldeak estatistikoki ez dira adierazgarriak.

Lehen aipatu dugun moduan, Ebaluazio diagnostikoaren 2009 edizioan 250 puntuko batez bestekoa ezarri zen kompetentzia guztietarako. 2011ko aplikazioan, ikasleko lortutako batez bestekoa 250,7 puntukoa izan da *Matematikarako kompetentziaren* kasuan (2010eko aplikazioan lortutakoa baino 0,4 puntu altuagoa). 2010 eta 2011 edizioen arteko % 0,4ko igoera estatistikoki ez da adierazgarria; ED09 eta ED10 artean 0,3 puntuko igoera ere ez zen adierazgarria.




- Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera

2011ko Ebaluazio diagnostikoan, 2010ekoarekin alderatuta, hasierako mailan eta maila aurreratuan (% 0,3) kokatutako ikasleen artean igoera txiki bat gertatu da. Ondorioz, erdi-mailan kokatutako ikasleen ehunekoak behera egin du (% 0,6).

Azken edizio honetako eta 2009an egindako probaren emaitzak alderatzen baldin baditugu, hasierako mailan (% 1) eta maila aurreratuan (% 1,5) ikasleen ehunekoak gora egin du eta % 2,5 egin du behera erdi-mailan kokatutako ehunekoak.

Hasierako mailan eta maila aurreratuan kokatutako ikasleen ehunekoak gora egin du ebaluazioko hiru edizioetan zehar. Hala eta guztiz ere, emaitzen arabera erdi-mailan dagoen ikasleen ehunekoak behera egin du.


66. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11. Matematikarako konpetentziako errendimendu mailtako ikasleen ehunekoaren bilakaera.



- Emaitzen bilakaera geruzen arabera

67. grafikoa, geruza bakoitzak Matematikarako konpetentzian orain arte egindako hiru ebaluazioetan lortutako emaitzak islatzen dira:

67. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11. Matematikarako konpetentziako emaitzen bilakaera geruzen arabera.





EDIn sei geruzetan lortutako emaitzak aurreko bi edizioetakoekin alderatzen baldin baditugu, honako hau ikusiko dugu:

- ED10-ED11. 2011ko Ebaluazio diagnostikoan, A geruza publikoan, batez besteko puntuazioan sei puntuko jaitsiera adierazgarria gertatu da. Gainerako geruzen artean dauden batez besteko puntuazioen aldeak ez dira adierazgarriak.
- ED 09-ED11. Ondoriozta daiteke ED09 eta ED11ko batez besteko puntuazioak alderatzean, A eredu publikoaren hamabi puntuko beherakada, B eredu publikoaren sei puntuko beherakada eta itunpeko D ereduaren hiru puntuko igoera adierazgarriak direla; hala ere, gainerako geruzen batez besteko puntuazioetako aldakuntzak ez dira adierazgarriak.



k) *Matematikarako kompetenziaren azterketaren ondorioak.*

- **Ikasleen banaketa errendimendu mailetan.**

2011ko edizio honetan, EAEko DBHko 2. mailako ikasleen % 16,1ek hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen dituela ikus daiteke. Ikasleen % 57,5 kompetenziako erdi-mailan dago, eta ikasleen % 26,4k kompetenziako maila aurreratuari dagozkion lan konplexuagoak gauzatzea lortzen du. Beraz, esan daiteke DBHko 2. mailako ikasleen % 84 inguruk *Matematikarako kompetenziako* hasierako maila gainditzen duela.

Dimentsio guztiek jokaera antzekoa erakusten dute errendimendu mailen arabera banaketari dagokionez. Lau dimentsioetan, erdi-mailan biltzen da ikasleen % 50 baino zertxobait gehiago. Jokaerarik onena duen dimentsioa *Espazioa eta forma* da; izan ere, hor biltzen da ikasleen ehunekorik baxuena hasierako mailan (% 12,4) eta ehunekorik altuena maila aurreratuan (% 36,3).

Errendimendu mailen arabera geruza desberdinetako ikasleen banaketaren azterketak honako hau erakusten du:

A geruza publikoko ikasleen % 55,1 kompetentzia honetako hasierako mailan dago eta % 5,2 soilik kokatzen da maila aurreratuan. Gainerako geruzetan (publikoak eta itunpekoak), ikasleen % 73- % 89,5ek gainditzen du hasierako maila.

Geruza guztietako ikasleen % 50 baino gehiago, A geruza publikoak izan ezik (% 39,7), kompetentzia honetako erdi-mailan kokatzen dira.

- **Emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)**

Matematikarako kompetentzian, geruza desberdinetako batez bestekoetan dauden aldeak estatistikoki adierazgarriak dira, Itunpeko A ereduaren eta itunpeko B ereduaren artean izan ezik.

A geruza publikoa gainerako geruzen azpitik kokatzen da nabarmen, itunpeko D geruza gainerako geruzen gainetik.

Geruza publikoek itunpekoek baino emaitza nabarmen baxuagoak lortu dituzte eta batez besteko puntuazioa EAEko batez bestekoaren azpitik kokatzen da (250,7).

- **Emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera**

A eta B geruza publikoek lortu dituzte puntuaziorik baxuenak *Matematikarako kompetenziako* dimentsio guztietan. Hala eta guztiz ere, itunpeko D geruzak lortu dituzte puntuaziorik altuenak kompetentzia honetako dimentsio guztietan.

Geruza publikoetako dimentsio guztietan, batez besteko puntuazioak EAEko batez bestekoaren (250) azpitik daude kokatuta, *Espazioa eta forma* dimentsioan, D geruza publikoa izan ezik. Bestalde, itunpeko geruzek batez bestekoaren gainetik dauden puntuazioak lortzen



dituzte, kasu batzuetan izan ezik, hauetan adibidez: itunpeko A geruza *Espazioa eta forma* dimentsioan; horren puntuazioa batez bestekoaren azpitik kokatzen da; itunpeko A geruzak *Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna* dimentsioan, eta itunpeko B geruzak *Espazioa eta forma* dimentsioan, biek 250 puntuko batez bestekoa baitute.

- **Emaitzak probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera**

Ikasleen emaitzak aztertzean, etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek konpetentzia honetan 267 puntu lortu dituztela egiaztatzen da, eta etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den besteren bat dutenek 247 puntuko errendimendua lortu dute. 20 puntuko aldea estatistikoki adierazgarria da.

Hipotesi hau egiaztatzen da: emaitzak hobeak izaten dira proban etxeko hizkuntzan erantzuten denean.

B ereduaren kasuan, probako hizkuntza gaztelania denean eta etxeko hizkuntza euskara ez den besteren bat denean (gehienetan gaztelania), ikasleek 251 puntuko batez bestekoa lortzen dute. Hala eta guztiz ere, etxeko hizkuntza euskara ez den besteren bat izan arren proba euskaraz egiten duten B ereduko ikasleek 238 puntuko batez bestekoa lortu dute. Bi batez bestekoen arteko 13 puntuko aldea estatistikoki adierazgarria da.

D ereduaren kasuan, probako hizkuntza eta etxeko hizkuntza euskara denean, ikasleek 267 puntuko batez bestekoa lortzen dute. Hala eta guztiz ere, etxeko hizkuntza euskara ez den besteren bat izan arren, proba euskaraz egiten duten D ereduko ikasleek 247 puntuko batez bestekoa lortu dute. Bi batez bestekoen arteko 20 puntuko aldea estatistikoki adierazgarria da.

- **Emaitzak ISEK-en arabera**

Matematikarako konpetentzian lotura adierazgarria dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean: ISEK maila zenbat eta altuagoa izan, errendimendua ere hobe izango da, eta aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan.

ISEK maila baxuak eta ertain-baxuak biltzen dute konpetentziaren hasierako mailako ikasle ehunekorik altuena (% 32,1 maila baxuan eta % 17,7 maila ertain-baxuan). Era berean, ISEK maila baxuak eta ertain-baxuak biltzen dituzte ikasle gutxien maila aurreratuan (% 14,1 maila baxuan eta % 21 maila ertain-baxuan). Bestalde, ISEK maila altuak biltzen du hasierako mailan dauden ikasleen ehunekorik txikiena (% 7,9) eta maila aurreratuko ehunekorik altuena (% 36,3).

Geruza publikoetako ikasleek ISEK indizearen arabera esperotakoa baino baxuagoko hasierako batez besteko puntuazioa lortu dute. Aldiz, itunpeko A eta B geruzetako ikasleek ISEK indizearen arabera esperotako batez besteko puntuazioa lortu dute eta itunpeko D geruzetako ikasleek ISEK-en arabera esperotakoa baino batez besteko puntuazio altuagoa lortu dute.

Itunpeko geruzen puntuazioak, bai hasierakoak, bai ISEK kontrolatu ostean lortutakoak, geruza publikoetako gainetik daude. Alde horiek estatistikoki adierazgarriak dira.



- **Errendimenduaren bilakaera (ED09-ED10-ED11)**

- **Emaitza orokorren bilakaera**

Dagoeneko aipatu dugun moduan, Ebaluazio diagnostikoko 2009ko edizioan 250 puntuko batez bestekoa ezarri zen konpetentzia guztietarako. 2011ko aplikazioan, ikasleek *Matematikarako konpetentzian* lortutako batez bestekoa 250,7 puntukoa izan da, hau da, 2010eko aplikaziokoa baino 0,3 puntu altuagoa. Ebaluazio diagnostikoko hiru edizioetan batez besteko puntuazioen arteko aldeak estatistikoki ez dira adierazgarriak.

- **Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera**

2011ko Ebaluazio diagnostikoan, 2010ekoarekin alderatuta, hasierako mailan eta maila aurreratuan (% 0,3 maila bakoitzean) kokatutako ikasleen artean igoera txiki bat gertatu da. Ondorioz, erdi-mailan kokatutako ikasleen ehunekoak behera egin du (% 0,6).

Azken edizio honetako eta 2009an egindako probaren emaitzak alderatzen baldin baditugu, hasierako mailan (% 1) eta maila aurreratuan (% 1,5) ikasleen ehunekoak gora egin du, eta % 2,5 egin du behera erdi-mailan kokatutako ehunekoak.

Hasierako mailan eta maila aurreratuan kokatutako ikasleen ehunekoak gora egin du ebaluazioko hiru edizioetan zehar. Hala eta guztiz ere, emaitzen arabera erdi-mailan dagoen ikasleen ehunekoak behera egin du.





4. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia

a) Definizioa eta dimentsioak

Ingeles-hizkuntza erabiltzeko gaitasuna da, hau da, kontzeptuak, pentsamenduak, sentimenduak, gertaerak eta iritziak adierazteko eta interpretatzeko gaitasuna, ahozko eta idatzizko diskurtsoen bidez, eta izan daitezkeen testuinguru sozial eta kultural guztietan hizkuntza mailan elkarreragiteko.

Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia bost dimentsiotan dago egituratuta (entzumena, irakurmena, mintzamena, idazmena eta ahozko elkarrekintza), eta bost horietatik honako hiru hauek ebaluatu dira:

- **Irakurmena ingelesez**

Ezaugarri eta luzera desberdinetako testuen bidez ebaluatzen da. Horien gainean, ideia garrantzitsuenak ezagutzeko, testuaren helburua eta generoa ezagutzeko eta informazio zehatzak identifikatzeko gaitasuna neurtzen duten aukera anitzeko hainbat galdera egiten dira.

- **Entzumena ingelesez**

Mota desberdinetako testuen bidez ebaluatzen da; horien gainean, aukera anitzeko galdera multzo bat egiten da, eta horiek, beste hainbat alorren artean, hauetarako gaitasuna neurtzen dute: testuen esanahi orokorra identifikatzeko, helburua ezagutzeko, informazio zehatza identifikatu edo aukeratzeko eta berezko ezagutzetatik testua interpretatzeko gaitasuna.

- **Idazmena ingelesez**

60-70 hitzeko testu bat idatzi dute ebaluatzeko; testua komunikazio-egoera zehatz batera egokituta dago. Idatzizko testu bakoitza baloratzean, egokitzapena, koherentzia eta erabilitako kohesioa, gramatika, ortografia eta lexikoa hartzen dira kontuan.

- Gaiaren egokitasuna eta garapena:
 - Testuaren xedea kontuan hartu den ala ez.
 - Egoerarekiko hizkuntza-erregistro egokia erabili den ala ez.
 - Aditz-pertsonari eutsi dion.
- Testuaren koherentzia eta kohesioa:
 - Informazioaren aurrerapenari eutsi dion (ordena azalpenean, errepikapenak, inkoherentziak...).
 - Eskatutako testuaren egitura errespetatzen den eta alderdiak ondo bereizita ageri diren.
 - Eskatutako testuaren hizkuntza-baliabideak eta hizkuntzarenak ez diren baliabideak erabiltzen dituen.



- Lexikoa, gramatika eta ortografia:
 - Erabilitako lexikoa (errepikapenak, sinonimoak erabiltzea).
 - Erabilitako esaldi motak.
 - Ortografia-akats larriak eta puntuazio-akatsak.

Hauek dira ebaluatu ez diren dimentsioak:

- Mintzamina.
- Ahozko elkarrekintza.

b) Emaitza orokorrak

Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia lehen aldiz ebaluatu denez, DBHko 2. mailako ikasleen batez besteko emaitza 250 puntutan ezarri da, 50 puntuko desbideratze tipikoarekin. Ondoko taulan konpetentzia honen ebaluazioa egitean kontuan hartu diren ikasleen kopurua ageri da, lortutako gehieneko puntuazioarekin (380 puntu) eta gutxieneko puntuazioekin batera (104 puntu):

	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Desb. tip.
<i>Ingeleseko hizkuntza-komunikazioa</i>	16.659	104	380	250	50,00

c) Errendimendu mailen deskribapena eta ikasleen banaketa

Jarraian, *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia* errendimendu mailen deskribapen-taula ageri da.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<p>Maila honetako ikasleek komunikazio-zeregin errazak eta testuinguruan kokatutakoak modu autonomoan gauzatzeko diskurtso-trebezia mugatuak dituzte. Eskatutako komunikazio-helburua lortzeko zailtasunak dituzte gehienek. Oso maiz erabiltzen diren hizkuntza-baliabideak erabiltzen dituzte ikasgelan behin eta berriz eta proposatutako ariketak egiteko laguntza behar dute. Komunikatzeko mugak dituzte.</p> <p>Entzumenean eta irakurmenean, oro har, testu ezagunen zentzu orokorra eta helburua ulertzen dute. Oinarriko hiztegia ezagutzen dute. Era berean, informazio espezifikoak identifikatzen dute eta proposatutako helbururako</p>	<p>Maila honetako ikasleek komunikazio-lan errazak gauzatzeko gaitasuna ematen dien diskurtso-gaitasunak erakusten dituzte. Gehienetan proposatutako komunikazio-helburua lortzen dute. Ikasmilara egokitutako hizkuntza-baliabideak modu autonomoan erabiltzen dituzte.</p> <p>Entzumenean eta irakurmenean, hasierako mailako konpetentziez gain, testuen zentzu orokorra eta helburua zailtasunik gabe ulertzen dute. Testu ezagunen edukia interpretatzen dute, informazio zehatza eta garrantzitsua ezagutzen dute eta informazio berria bereizteko gai dira. Gainera, ahozko testuetan hizkuntzalaritzakoak ez diren elementuak interpretatzeko gai</p>	<p>Maila honetako ikasleek komunikazio-lanak eraginkortasunez egiteko aukera ematen dien diskurtso-trebeziak dituzte. Proposatutako komunikazio-helburua arrakastaz lortzen dute. Hizkuntza-sorta zabala erabiltzen dute modu autonomoan, ikasmila kontuan hartuta.</p> <p>Entzumenean eta irakurmenean, aurreko mailetak konpetentziez gain, ikasle hauek testuaren gaia ondorioztatzeko, hiztegia zailtasunik gabe ezagutzeko, jarritako helbururako informazio garrantzitsua identifikatzeko eta testuaren edukiari buruzko ondorioak ateratzeko gai dira.</p> <p>ldatziko ekoizpenean,</p>



elementuak aukeratzen dituzte, betiere, testuak esperientziatik hurbilekoak baldin badira. Idatzizko testu errazetan elementu ez-linguistikoak interpretatzeko gai dira.

Idatzizko ekoizpenean, modu osatugabea adierazten dira eta ez dute eskatutako komunikazio-helburua lortzen. Oro har, ez dute oso testu ulerkorra egiten, jatorriko testuaren zatiak kopiatzen dituzte edo bertako datuak bere datu pertsonalekin ordezkatzen dituzte. Ekoizpena originala denean, ideien garapena ez da koherentea, desordenatuta ageri dira eta erabilitako hizkuntza-baliabideak urriak dira eta gaizki erabilia daude.


dira.

Idatzizko ekoizpenean komunikazio-helburua lortzen dute. Oro har, testua originala da; hala ere, abiapuntuko testuaren informazioaren zati bat modu koherentean ordezka dezakete. Ikasmilarako egokiak diren hizkuntza-baliabideak eta lexikoa erabiltzen dituzte, lehen irakurraldian ulertzen den idatzi bat eginez. Akats gramatikalak eta ortografikoak egiten dituzte, baina ez dute ulermena zailtzen.

komunikazio-helburua eraginkortasunez lortzen dute. Ikasle hauen testua erraz ulertzen da. Informazio ugari ematen dute eta idatzia aberasten duten ideia originalak txertatzen dituzte. Zuzenak diren hizkuntza-egitura ugari erabiltzen dituzte, lexiko aberatsa dute eta bere hezkuntza-mailarako ia ortografia-akatsik ere ez dute egiten.

68. grafikoa, ikasleen banaketa ageri da ebaluazio honetan definitu diren hiru kompetentzia mailetak bakoitzean.

68. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendu maila bakoitzean.



2011ko edizio honetan, EAEko DBHko 2. mailako ikasleen % 17 inguruk hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen dituela ikus daiteke. Ikasleen % 58,5 kompetentziako erdi-mailan dago, eta % 25 inguruk kompetentziako maila aurreratuari dagozkion lan konplexuagoak gauzatea lortzen du. Beraz, esan daiteke DBHko 2. Mailako ikasleen % 83 inguruk Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako hasierako maila gainditzen duela.

d) Emaitzak kompetentziako dimentsioetan

Ondoko taulan Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian kontuan izan diren ikasleen kopurua ikus daiteke, kompetentzia honetan ebaluatutako hiru dimentsioetako (Entzumena, Irakurmena eta Idazmena), gehieneko eta gutxieneko puntuazioekin batera:



<i>Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetenziako dimentsioak</i>	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Desb. tip.
Entzumena	16.659	111	370	250	50,00
Irakurmena		116	371	250	
Idazmena		139	363	250	

Ondoko taulak ikaslea errendimendu-maila bakoitzean zer egiteko gai den deskribatzen du kompetentzia honetako hiru dimentsioetan.

Mailen deskribapena Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetenziako dimentsioetan

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
Entzumena		
<p>Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testuaren zentzu orokorra gutxi gorabehera identifikatzen dute. ✓ Testuaren gaia ezagutzen dute. ✓ Testu ezagunen helburua identifikatzen dute, baita testu horien generoa ere. ✓ Eskatutako informazio zehatz batzuk kokatzen dituzte. ✓ Harreman pertsonalen alorreko testuetan informazio berria bereizten dute. 	<p>Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testuaren zentzu orokorra identifikatzen dute. ✓ Testuko atalen artean testu-generoa eta harreman logikoak ezagutzen dituzte. ✓ Eskatutako informazio zehatz gehienak ezagutzen eta kokatzen dituzte. ✓ Testuaren edukia interpretatzen dute beren ezagutzetatik abiatuta. ✓ Testuaren edukiaren gainean inferentziak egiten dituzte. ✓ Testuko linguistikoak ez diren elementuen esanahia interpretatzen dute. 	<p>Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testu-generoa eta testuko hitz garrantzitsuak erraz ezagutzen dituzte. ✓ Testuaren helburua ezagutzeko testuko ezagutzak eta ezagutza linguistikoak erabiltzen dituzte. ✓ Eskatutako informazio zehatza kokatzen dute. ✓ Lortu nahi den helbururako bildutako informazioa modu eraginkorrean erabiltzen dute. ✓ Beren ideiekin testuaren informazioa interpretatu eta osatzen dute. ✓ Testuko linguistikoak ez diren elementuen esanahia interpretatzen dute.
Irakurmena		
<p>Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testu ezagunak ulertzeko oinarrizko hiztegia ezagutzen dute. ✓ Irudien laguntzarekin testu-generoa eta igorlearen asmoa ezagutzen dute. ✓ Informazio zehatzen bat ezagutu eta identifikatzen dute. ✓ Testuko linguistikoak ez diren elementuen esanahia interpretatzen dute. 	<p>Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testua ulertzeko hiztegi gehiena ezagutzen dute. ✓ Igorlearen asmoa eta testu-generoa ezagutzen dute. ✓ Eskatutako informazio zehatz gehienak kokatzen dituzte. ✓ Testua beren ezagutzetatik abiatuta interpretatzen dute. ✓ Testuko linguistikoak diren eta ez diren elementuen esanahia lotzen dute. ✓ Testuaren edukiaren gainean inferentziak egiten dituzte. 	<p>Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testua ulertzeko hiztegia ezagutzen dute. ✓ Testuaren gaia ondorioztatzen dute. ✓ Eskatutako informazio zehatza kokatzen dute. ✓ Lortu nahi den helbururako informazio garrantzitsua identifikatzen dute. ✓ Beren ideiekin testuaren informazioa interpretatu eta osatzen dute. ✓ Testuaren edukiaren gainean inferentziak egiten dituzte.
Idazmena		
<p>Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:</p>	<p>Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:</p>	<p>Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:</p>



- ✓ Testuaren **helburua** bete ere ez dute egiten ia-ia: Emandako informazioa eskasa da. Ideiak adierazten dituzte, baina zailtasun handiz ulertzen dira eta abiapuntuko testua errepikatze joera dute, oso koherenteak ez diren datuekin ordezkatuz.
- ✓ Testu-generoaren egitura partzialki errespetatzen dute. Ideiak inkoherenteak izan daitezke eta desordenatuta egon daitezke. Batzuetan ez dituzte paragrafoak erabiltzen. Informazioaren zati bat ez da oso garrantzitsua eta ez da hainbeste errepikatzen.
- ✓ Akats gramatikalak eta ortografikoak ugariak dira. Hiztegia ez da oso egokia eta errepikakorra da. Hitzak beste hizkuntza batean ere idatz ditzakete, baliabide lexikoak falta dituztelako.

- ✓ Testuaren komunikazio-helburua betetzen dute: oro har, lanean eskatutako informazioa ematen dute. Elementu gehienak originalak dira, baina abiapuntuko testuaren informazioa datu egokiekin eta gehienetan testuinguruarekin koherenteak diren datuekin ordezka ditzakete.
- ✓ Oro har, testu-generoaren egitura errespetatzen dute. Ideiak modu logikoan ordenatzen dituzte eta ereduko paragrafoetan ordena mantentzen dute. Informazio garrantzitsua eta berria eskaintzen dute ia beti. Juntagailuren bat edo testu-markagailuren erabil lezake informazioa elkartzeko.
- ✓ Akats gramatikalek eta ortografikoek ez dute ulermena zailtzen. Hiztegi egokia erabiltzen dute. Batzuetan, beste hizkuntza batean idazten dute oso maiz erabiltzen ez den hitzen bat komunikazioa bermatze aldera.

- ✓ Komunikazio-helburua eraginkortasunez lortzen dute. Eskatutako informazioa eskaintzen dute eta lanari egokitutako ideiak gehitzen dituzte. Abiapuntuko testua erabiltzen dute ideia berriekin idatzi original bat egiteko.
- ✓ Testu-generoaren berezko ezaugarriak errespetatzen dituzte eta hizkuntza-egitura anitzak erabiltzen dituzte. Ideiak modu logikoan eta ordenatuan antolatzen dituzte, paragrafotan banatuta. Helburua egokitutako informazio berria eta garrantzitsua eskaintzen dute. Hainbat juntagailu eta testu-markagailu erabiltzen dituzte informazioa elkartzeko.
- ✓ Testua oro har egokia da gramatikaren eta ortografiaren erabilerari dagokionez, hala ere, akatsen bat ere izan dezake. Hiztegi egokia eta aberatsa erabiltzen dute.

Entzumena dimentsioa baloratzeko testu hauek erabili dira: narrazio-testua (egunkaria), informazio-testuak (jakinarazpenak) eta azalpen-testua.

Irakurmena dimentsioaren kasuan, hauek izan dira erabilitako testuak: narrazio-testua (komikia), azalpen-testua (aldizkariaren aurkibidea), testu irakasgarri bat eta publizitate-testu bat (iragarkia).


Idazmena dimentsioa balioesteko posta elektronikoa erabili da testu gisa.

69. grafikoan, Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ebaluatu diren hiru dimentsioen errendimendu mailen arabera ikasleen banaketa adierazten da.

Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren hiru dimentsioek, errendimenduko hiru mailetan, antzeko jokaera erakusten dute ikasleen ehunekoari dagokionez. *Idazmena* dimentsioak biltzen du ikasleen ehunekorik txikiena hasierako mailan (% 15,2) eta ehunekorik altuena erdi-mailan (% 60,5). Bestalde, *Entzumena* dimentsioak biltzen du ikasleen ehunekorik altuena maila aurreratuan (% 24,6).



69. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendu maila bakoitzean dimentsioen arabera.



e) Emaitzak geruzen arabera (hezkontza-sarea eta hizkuntza-eredua)

Ondoko taulan eta grafikoan ebaluazioan kontuan izan diren geruzetako bakoitzean (hezkontza-sarea eta hizkuntza-eredua) lortutako puntuazioak aurkezten dira. Ondoa geruza bakoitzean puntuazioan sartu diren ikasleen kopurua ageri da:


Geruza	Kopurua	Batez bestekoa	AT
A publikoa	642	198	1,52
B publikoa	801	226	1,66
D publikoa	6.091	244	0,59
Itunpeko A	1.452	260	1,56
Itunpeko B	3.917	256	0,78
Itunpeko D	3.756	264	0,75
Guztira:	16.659		

Emaitzen adierazgarritasuna aztertu ostean, 70. grafikoa, honako hau esan daiteke:

- Geruzen batez besteko puntuazioen arteko alde guztiak adierazgarriak dira.
- Konpetentzia honetan, sare publikoko geruzek itundutako sarekoek baino emaitza nabarmen baxuagoak dituzte.
- Itunpeko geruzetako batez besteko puntuazioak EAEko puntuazioen gainetik (250 puntu) kokatzen dira. Hala eta guztiz ere, geruza publikoen kasuan ez da hori gertatzen.
- A geruza publikoak du emaitzarik baxuena eta itunpeko D geruzak altuena.




70. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak geruzen arabera.



Batez besteko puntuazioen artean dauden aldeak adierazgarriak dira.

Ondoko grafikoa, geruza bakoitzean Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian finkatutako hiru mailetan dauden ikasleen ehunekoak ageri dira (hasierakoa, erdikoa eta aurreratua):

71. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ikasleen banaketa Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako errendimendu mailetan geruzen arabera.



Errendimendu mailen arabera geruza desberdinetako ikasleen banaketaren azterketak honako hau erakusten du:

- A geruza publikoko ikasleen % 61,7 kompetentzia honetako hasierako mailan dago eta % 3,7 soilik kokatzen da maila aurreratuan.
- A geruza publikoko ikasleen % 38,3k eta B geruza publikoko ikasleen % 67,3k gainditu dute kompetentzia honetako hasierako maila eta gainerako geruzetan ikasleen % 81-% 92k gainditu dute.




- Itunpeko A geruzak bildu du maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekorik altuena (% 37,8) eta hasierako mailan itunpeko gainerako bi geruzetan eta D geruza publikoan baino ikasle ehuneko altuagoa biltzen da.

f) Emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera

Ondoko grafikoa, Euskadiko hezkuntza-sistema osatzen duten 6 geruzetan *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* dimentsio bakoitzean lortutako emaitzak ikus daitezke.

72. grafikoa: ED11-DBHko 2.maila. Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako geruzen emaitzak dimentsioen arabera.




Grafikoa honako hau ikusten da:

- Dimentsio bakoitzean geruza desberdinen arteko batez besteko puntuazioen alde guztiak estatistikoki adierazgarriak dira, *Irakurmena* dimentsioan itunpeko A eta B geruzen artekoak eta *Idazmena* dimentsioan D geruza publikoan eta itunpeko A geruzan izan ezik.
- Geruza publikoek itunpeko geruzek baino batez besteko puntuazio nabarmen baxuagoak lortu dituzte *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* dimentsio guztietan; *Idazmenean* D geruza publikoaren eta itunpeko A geruzaren artean izan ezik; *Idazmenean* biek puntuazio berbera lortu dute (249 puntu).
- Itunpeko D geruzak lortu ditu batez besteko puntuaziorik altuenak dimentsio guztietan.
- A geruza publikoak lortzen ditu emaitzarik baxuenak dimentsio guztietan.

Informazioa osatzeko, geruza bakoitzaren barneko portaera aztertu da *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* ebaluatu diren dimentsioetako emaitzen orekari dagokionez:



73. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako geruzen emaitzak dimentsioen arabera.




Oro har, konpetentzia honen dimentsioetan geruza bakoitzak lortutako emaitzetan nolabaiteko homogeneotasuna gertatzen da.

g) Emaitzak hizkuntza-ereduen arabera

Euskal hezkuntza sistema osatzen duten hizkuntza-eredu bakoitzean lortutako batez besteko emaitzak aztertuz, eta grafikoa erakusten den moduan, A ereduak puntuazio nabarmen baxuagoa lortu du:

74. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak ereduen arabera.



B eta D ereduetako puntuazioen arteko aldea estatistikoki ez da adierazgarria.


h) Emaitzak Indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako populazio osoa ISEKeko 4 mailatan banatu da (baxua, ertain-baxua, ertain-altua eta altua) eta haietako bakoitzean populazioaren % 25 kokatu da, ISEK indizearen balioaren arabera, hau da, baxuagoa edo altuagoa den kontuan hartuta.



Ondoko grafikoan Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian lortu den batez besteko errendimendua ageri da ezarritako lau ISEK mailen arabera:

75. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendua ISEK mailaren arabera.




ISEK maila guztien arteko puntuazioen aldeak adierazgarriak dira.

Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, hizkuntza-ereduen arabera aztertzen denean, lotura handia dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean; ISEK altuenari errendimendu handiagoa dagokio eta alde horiek adierazgarriak dira kasu guztietan.

Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako hiru errendimendu mailetan ikaslea nola dagoen banatuta ageri da grafiko honetan, ISEKeko lau tarteen arabera:

76. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendu maila bakoitzean ISEK-en arabera.



Honako egoera hau nabari da:

- ISEK maila baxuak eta ertain-baxuak biltzen dute konpetentziaren hasierako mailako ikasle ehunekorik altuena (% 37,3 maila baxuan eta % 18,2 maila ertain-baxuan), Era berean, ISEK maila baxuak eta ertain-baxuak biltzen dituzte ikasle gutxien maila aurreratuan (% 7,8 maila baxuan eta % 16,1 maila ertain-baxuan)



- Bestalde, ISEK maila altuak biltzen du hasierako mailan dauden ikasleen ehunekorik txikiena (% 6,4) eta maila aurreratuko ehunekorik altuena (% 41,5).
- ISEK maila altuko ikasleen % 93,6k gainditzen du hasierako maila, eta ISEK maila baxuko ikasleen kasuan, ia % 63k gainditzen du.

i) Lortutako emaitzen eta ISEK indizearen arabera espero zitezkeen emaitzen arteko alderaketa

Jarraian, 77. grafikoan, geruza bakoitzak konpetentzia honetan lortutako batez besteko puntuazioa (kolore argiko zutabea) eta Indize sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) efektua kontrolatuko balitz, maila horietako bakoitzak lortuko lukeen (kolore iluneko zutabea) batez besteko puntuazioa ageri da; hau da, ikasle guztiek antzeko ISEK izango balute abiapuntu gisa ⁶.

Grafikoan ikus daiteke ISEK-en efektua kontrolatzean geruza publiko guztiek nabarmen hobetu dutela batez besteko puntuazioa. Hala eta guztiz ere, itundutako geruzetan, ISEK kontrolatzean, batez besteko puntuazioa murriztu egiten da. Beherakada hori estatistikoki adierazgarria da. Horrek honako hau adierazten du: geruza publikoko ikasleen kasuan, ISEK-en emaitzetan eragina duen arren, itundutako geruzetako ikasleen kasuan ez da horrela gertatzen.

Geruza publikoek ISEK-en arabera esperotakoa baino puntuazio baxuagoak dituzten arren, itundutako geruzek ISEK mailaren arabera esperotakoen gainetik dauden emaitzak lortu dituztela ondoriozta dezakegu.

ISEK kontrolatuta (kolore iluneko zutabeak) batez besteko puntuazioei dagozkien zutabeak aztertzen baldin baditugu, honako hau ondoriozta dezakegu:


- Geruza publikoen puntuazioen (ISEK kontrolatuta) arteko aldeak estatistikoki adierazgarriak dira.
- ISEK kontrolatuta izatean, D geruza publikoko ikasleek dute puntuaziorik altuena geruza publikoen artean, eta A publikokoek baxuena.
- Itunpeko A geruzaren eta itunpeko D geruzaren batez besteko puntuazioen aldeak (ISEK kontrolatuta) ez dira adierazgarriak; gainerakoak (itunpeko A eta itunpeko B, itunpeko B eta itunpeko D) adierazgarriak dira.
- ISEK kontrolatu ostean, itunpeko B geruzako ikasleek lortzen dute itunpeko geruzen batez bestekorik baxuena.

Itunpeko geruzen puntuazioak, bai hasierakoak, bai ISEK kontrolatu ostean lortutakoak, geruza publikoetakoen gainetik daude. Alde horiek estatistikoki adierazgarriak dira.

⁶ ISEK indizeak emaitzetan izan duen eragina galdera-sortan indize honekin lortutako galderari erantzun dieten ikasleekin soilik kalkulatu da; ikasle batzuei buruz ez dugu informazio hori eta ikasle horiek ez daude kalkulu honetan sartuta.



77. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Batez besteko puntuazioa eta ISEK kontrolatu osteko puntuazioa Ingeleseko komunikaziorako kompetentzian.



j) Emaitzak eta ingelesezko eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzea

Ebaluatutako ikasleen % 43,6k ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan hartzen du parte. 78. grafikoan ikus daiteke ingelesezko eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen duten ikasleek ekintza horietan parte hartzen ez dutenek baino 32 puntuko batez besteko puntuazio altuagoa lortzen dutela. Alde hori estatistikoki adierazgarria da.


78. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetenziaren emaitzak eta ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea.



Hurrengo grafikoan ikus daiteke ingelesezko eskolaz kanpoko ekintzetara joaten diren ikasleen artetik, % 7,7 errendimenduko hasierako mailan kokatzen dela eta ekintza horietara joaten ez direnen artetik % 24 dago hasierako mailan (% 16,3 gehiago). Era berean, ingelesezko eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen duen eta maila aurreratuan kokatzen den ikasleen ehunekoa % 35,7koa da eta ekintza horietara joaten ez diren ikasleak baino % 19,7 gehiago dira.



79. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Errendimendu mailetako ikasleen banaketa ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan joaten diren edo ez kontuan hartuta.




k) Ingelesezko eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzea eta ikasleek konpetentzia desberdinetan lortutako emaitzak

Oro har, eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea konpetentzietako emaitza negatiboekin lotzen da; izan ere, ekintza horietara, batez ere, eskatutako mailak erdiesteko ahalegina behar duten ikasleak joaten direla uste izaten da. Ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen duen ikasleak ezagutzak hobetzeko egiten duela aintzat hartuta, eta ez eskatutako gutxienekoak erdiesteko, jarraian, ingelesezko eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen duten eta parte hartzen ez duten ikasleen ebaluatutako beste curriculum konpetentzietako emaitzak erakusten dira.

Hurrengo grafikoan ikus daiteke ingelesezko eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen duten ikasleek batez besteko puntuazio altuagoak lortzen dituztela, eta ez *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* (78. grafikoa) bakarrik, baita gainerako konpetentzietan ere. Aldeak estatistikoki adierazgarriak dira.

80. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ikasleen batez besteko puntuazioa konpetentzietan ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretara joaten diren edo ez kontuan hartuta.





Ondorioz, oro har, eskolaz kanpoko jarduera mota hauetan parte hartzen duten ikasleek ikasketetan emaitza onak lortzen dituzte; eskolaz kanpoko beste jarduera mota batzuetan ez da hori gertatzen.


l) Ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea eta ISEKa

Azterketa honen helburua ingelesezko eskolaz kanpoko eskoletan parte hartzen duten ikasleak, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan arazoak ez izateaz gain, maila sozioekonomiko eta kultural jakin bati lotuta dauden jakitea da. *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren* puntuazioan sartu den ikasleen ikastetxeko ISEKen gainean egiten da kalkulua.

81. grafikoan ikus daitekeen moduan, ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen duen maila sozioekonomiko eta kultural baxuko ikasleen ehunekoa (% 23,8) maila altuko ehunekoa (% 52,5) baino ia 30 puntu baxuagoa da.

Maila ertain-altuaren eta altuaren artean, jarduera hauetan parte hartzearen edo ez hartzearen arteko aldea % 2,9koa da. Maila ertain-baxuan, % 40k baino zertxobait gehiago hartzen du parte ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan eta % 60k ez du parte hartzen.

81 grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa eta ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea ISEK mailaren arabera.




m) Ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea eta geruzak

Jarraian, 82. grafikoan, ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzearen eta ikasleak eskolatuta dauden geruzen arteko lotura aztertzen da.

Itunpeko D geruzako ikasleak dira ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan gehien parte hartzen dutenak (% 55,4), A geruza publikoko ikasleak baino ia zazpi aldiz gehiago (% 8,1). D geruza publikoko eta itunpeko B geruzako ikasleen % 42,4 eta % 46,9 arteko kopuruak ingelesezko eskolaz kanpoko eskoletan hartzen du parte, eta B geruza publikoko eta itunpeko A geruzako ikasleen % 24,8 eta % 28,2 arteko kopurua joaten da ingelesezko eskolaz kanpoko jarduera horietara.



82. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa eta eskolaz ingelesezko kanpoko jarduerak geruza bakoitzean.







n) Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako azterketaren ondorioak

• Ikasleen banaketa errendimendu mailetan

2011ko edizio honetan, EAEko DBHko 2. mailako ikasleen % 17 inguruk hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen dituela ikus daiteke. Ikasleen % 58,5 konpetentziako erdi-mailan dago, eta % 25 inguruk konpetentziako maila aurreratuari dagozkion lan konplexuagoak gauzatzea lortzen du. Beraz, esan daiteke DBHko 2. mailako *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* ikasleen % 83k baino zertxobait gehiagok *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* hasierako maila gainditzen duela.

Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren hiru dimentsioek, errendimenduko hiru mailetan, antzeko jokoera erakusten dute ikasleen ehunekoari dagokionez. *Idazmena* dimentsioak biltzen du ikasleen ehunekorik txikiena hasierako mailan (% 15,2) eta ehunekorik altuena erdi-mailan (% 60,5).

Errendimendu mailen arabera geruza desberdinetako ikasleen banaketaren azterketak honako hau erakusten du:

- A geruza publikoko ikasleen % 61,7 konpetentzia honetako hasierako mailetan dago eta % 3,7k soilik lortu du maila aurreratura iristea.
- A geruza publikoko ikasleen % 38,3k eta B geruza publikoko ikasleen % 67,3k gainditu dute konpetentzia honetako hasierako maila, eta gainerako geruzetan ikasleen % 81- % 92 gainditu dute.
- Itunpeko A geruzak bildu du maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekorik altuena (% 37,8) eta hasierako mailan itunpeko gainerako bi geruzetan eta D geruza publikoan baino ikasle ehuneko altuagoa biltzen da.

• Emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)

Emaitzen adierazgarritasuna aztertu ostean, honako hau esan daiteke:

- Geruzen batez besteko puntuazioen arteko alde guztiak adierazgarriak dira.
- Konpetentzia honetan, sare publikoko geruzek itundutako sarekoek baino emaitza nabarmen baxuagoak dituzte.
- Itunpeko geruzetako batez besteko puntuazioak EAEko puntuazioen gainetik (250 puntu) kokatzen dira. Hala eta guztiz ere, geruza publikoen kasuan ez da hori gertatzen.
- A geruza publikoak du emaitzarik baxuena eta itunpeko D geruzak altuena.

• Emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera

Geruza publikoek itunpeko geruzek baino batez besteko puntuazio nabarmen baxuagoak lortu dituzte *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* dimentsio guztietan, *Idazmenean* D geruza publikoaren eta itunpeko A geruzaren artean izan ezik; *Idazmenean* biek puntuazio berbera lortu dute (249 puntu).



Itunpeko D geruzak lortu ditu batez besteko puntuaziorik altuenak dimentsio guztietan. A geruza publikoak lortzen ditu emaitzarik baxuenak dimentsio guztietan.

- **Emaitzak ISEKen arabera**

Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, hizkuntza-ereduen arabera aztertzen denean, lotura handia dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean; ISEK altuenari errendimendu handiagoa dagokio eta alde horiek adierazgarriak dira kasu guztietan.

ISEK maila altuak biltzen du hasierako mailan dauden ikasleen ehunekorik txikiena (% 6,4) eta maila aurreratuko ehunekorik altuena (% 41,5). ISEK maila baxuak eta ertain-baxuak biltzen dute konpetentziaren hasierako mailako ikasle ehunekorik altuena (% 37,3 maila baxuan eta % 18,2 maila ertain-baxuan).

Geruza publikoek ISEKen arabera esperotakoa baino puntuazio baxuagoak dituzten arren, itunpeko geruzek ISEK mailaren arabera esperotakoen gaitetik dauden emaitzak lortu dituztela ondoriozta dezakegu. Itunpeko geruzen puntuazioak, bai hasierakoak, bai ISEK kontrolatu ostean lortutakoak, geruza publikoetako gaitetik daude. Alde horiek estatistikoki adierazgarriak dira.

- **Emaitzak ingelesezko eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzearen arabera**

Ebaluatutako ikasleen % 43,6k ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan hartzen du parte eta jarduera horietan parte hartzen ez dutenek baino 32 puntu altuagoko batez besteko puntuazioa lortzen du. Alde hori estatistikoki adierazgarria da.

Oro har, beste arloetan eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeak modu negatiboan egiten du bat lortutako emaitzekin; hori dela eta, eskatutako gutxienekoak lortzera zuzendutako finkatze-eskolak izan ohi direla ondorioztatzen da. Baina ez da hori gertatzen ingelesezko eskolaz kanpoko jardueren kasuan; izan ere, horietan parte hartzen duten ikasleek ebaluatutako gainerako konpetentzian ere batez bestekoaren gaitetik dauden puntuazioak lortzen dituzte.

Ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen duen maila sozioekonomiko eta kultural baxuko ikasleen (% 23,8) ehunekoa maila altuko ehunekoa (% 52,5) baino ia 30 puntu baxuagoa da.

Bestalde, itunpeko D geruzako ikasleak dira ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan gehien parte hartzen dutenak (% 55,4), A geruza publikoko ikasleak baino ia zazpi aldiz gehiago (% 8,1).



3.2. Geruzen ezaugarriak ISEKen arabera





I. Geruzen emaitzak eta ezaugarriak ISEKen arabera

Lehen aipatu dugun moduan, ebaluazio honetan ikasleak zein ikastetxeak lortutako emaitzaren eta haien maila sozioekonomiko eta kulturalaren arteko erlazio argia dago; hori dela eta, oro har, zenbat eta ISEK altuagoa izan, orduan eta emaitza hobekiago lortzen direla ondoriozta dezakegu. Dena den, txosten honetako A atalean ikusi dugun moduan, ezaugarri horrek ez ditu geruzen arteko alde guztiak balioz gabetzen; izan ere, azaltzeko gaitasuna handia izan arren, mugatua da.

Emaitzetan eragin argia duten beste faktore eta aldagai batzuk ere badaude. Horien artean, "balio erantsia" izeneko aipatu behar dugu ikastetxeak duen hezkuntza-ekintza dela eta. Balio horrek benetan lortutako emaitzen eta ezaugarri sozialen, ekonomikoen eta kulturalen arabera, talde edo ikastetxe jakin baterako aurrez ikusitako lorpenaren arteko aldea erakusten du. Ikastetxeak emaitzetan duen eraginaren azterketa sakonagoa 2009an eta 2010ean egindako Ebaluazio diagnostikoei dagokien errendimenduari lotutako faktoreen eta aldagaien gaineko txostenean erakutsi zen⁷. Galdera honen erantzuna lortu nahi da: ikastetxe batek eskolatuta dagoen ikaslearen maila sozioekonomiko eta kulturalaren arabera esperotaketatik haragoko emaitzak lor ditzake?

Balio horrek ikastetxeen zenbait gaitasun adierazten ditu, besteak beste, ikasleei beren ingurua kontuan izanik espero baino garapen-aukera handiagoak eskaintzeko gaitasuna, edo ikastetxea ikasle guztiek garapen-aukera berdina edukitzeari begira antolatzeko gaitasuna.

Ondoren, barriadura-grafiko bat ageri da. Grafikoan datoz, alde batetik, ikastetxeetako maila sozioekonomiko eta kulturala, ardatz horizontalean adierazitakoa, eta bestetik *Matematikarako konpetentziako* puntuazioa⁸, ardatz bertikalean adierazita. 83. grafikoan bi aldagai horien gurutzatzea erakusten da, bi lerro etenekin batera: bata *Matematikarako konpetentziako* batez besteko puntuazioa adierazten du, eta besteak etapa horretan ebaluatutako populazio osoaren batez besteko Indize sozioekonomiko eta kulturala adierazten du. Grafikoan ageri den lerro diagonalak bi aldagaien arteko erlazioa adierazten du. Ikastetxe edo ikastalde bat bere ezaugarri sozioekonomiko eta kulturalaren arabera dagokion puntuaren gainetik edo azpitik dagoen adieraziko luke.


Hurrengo grafikoan, 2011ko aplikazioan parte hartu duten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako 330 ikastetxe daude islatuta. Puntu bakoitzak ikastetxe bat ordezkatzen du. Puntuaren kolorea ikastetxe batez besteko ISEKi dagokiona da -baxua, ertain-baxua, ertain-altua edo altua-. Horrela, ikastetxe bereberek ebaluatutako talde guztiek hizkuntza-eredu berbera izan ez arren, ikastetxe hori puntu bakar batek ordezkatuko du eta ikastetxe batez besteko ISEKen kolorea izango du. Ikastetxe bakoitza ordezkatzen duen puntuaren tamainak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan eskolatutako eta *Matematikarako konpetentziako* proba egin duten ikasleen kopuruarekin du lotura.

⁷ Faktoreen eta aldagaien azterketa 2009. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. 2010eko uztaila. ISEI-IVEI. 2010eko emaitzen eta aldagaien txosten orokorra. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila. 2011ko urtarrila. www.isei.ivei.net.

⁸ Matematikarako konpetentzia erabiltzen da; izan ere, egindako analisisen arabera, konpetentzia horretako emaitzek gainerako konpetentzietako emaitzekiko korrelazio mailarik altuena erakusten dute. Gainera, konpetentzia ez-linguistikoa denez, hizkuntza-eredua, etxeko hizkuntza edo antzeko alderdiek hein txikiagoan eragiten diote. Gogoan izan behar da, lehen adierazi dugun moduan (ikus 6. zenbakiko ondorioa), indize sozioekonomiko eta kulturala eta emaitzen artean harreman zuzena dagoela.



83. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Indize sozioekonomiko eta kulturalaren (ISEK) eta Matematikarako konpetenziaren emaitzen arteko harremana.



Grafikoa aztertu ondoren, hiru ondorio nagusi atera daitezke:

1. ISEK mailaren eta emaitzen arteko lotura baieztatu egiten da. Grafikoak argi erakusten du joera hori, eta diagonalaren inklinazioan edo erregresio-zuzenean ikus daiteke: zenbat eta inklinazio handiagoa, orduan eta lotura handiagoa emaitzen eta ISEK-en artean.
2. Ikastetxe gehienak ISEK mailaren arabera espero zitezkeen emaitzetatik hurbil daude. Diagonaletik gora dauden ikastetxeek espero baino emaitza hobekiak lortu dituzte. Alderantziz gertatzen da diagonaletik behera dauden ikastetxeekin.

Ikastetxe gehienak, % 66,3, erregresio-zuzenaren inguruan daude (ISEK-en arabera esperotako puntuazioa). Ehuneko hori esperotako puntuazioaren gainetik edo azpitik 15 puntu inguru dituzten ikastetxeekin kalkulatu da, eta ondorioz, zuzenaren inguruan kokatzen dira.

Ebaluatutako ikastetxe guztien % 6,4k ikasleen ezaugarri sozioekonomikoak eta kulturalak kontuan hartuta espero zitezkeen emaitzak 25 punturekin edo gehiagorekin gainditzen dituzten batez besteko emaitzak lortu dituzte, eta % 5,2 erregresio-zuzenaren azpitik kokatzen da; izan ere, esperotakoa baino gutxienez 25 puntu gutxiago lortu ditu.



Ikastetxeen % 10ek ISEKen arabera esperotakoa baino 15-25 puntu gehiagoko puntuazioa lortu dute, eta % 12,2k esperotakoa baino 15-25 puntu gutxiagoko puntuazioa.

ISEKen arabera lortutako eta esperotako puntuazioaren arteko aldea	Ikastetxe kopurua	Ikastetxeen ehunekoak
Esperotakoak baino 25 puntu edo gehiago lortu dituzte	21	% 6,4
Esperotakoa baino 15-25 puntu gehiago lortu dituzte	33	% 10,0
Esperotako puntuak lortu dituzte (aldea +/- 15 puntu)	218	% 66,3
Esperotakoa baino 15-25 puntu gutxiago lortu dituzte	40	% 12,2
25 puntu edo gehiago lortu dituzte esperotakoaren azpitik	17	% 5,2
Guztira*	329	% 100,0

* Ikastetxe bateko ISEKi buruzko informazioa falta da; izan ere, ez zuen ikasleen galdera-sorta bete

- Ikastetxeek ikasleen maila sozioekonomiko eta kulturalaren ezaugarriak gainditzea lor dezakete. Grafikoan ikus daiteke zenbait ikastetxek ISEK maila berbera izan arren oso emaitza desberdinak lortu dituztela. Horrek adierazten du ikastetxearen irakaslan eta antolamendua giltzarria dela ikasleen ISEK mailak ikastetxearekiko izan ditzakeen mugak gainditzeko ala ez gainditzeko. Gainera, hori ISEK maila guztietan gertatzen da: ikastetxea edonolakoa izanik ere, bere esku hartzeak onerako ala okerrerako eragina izan dezake.
- ISEKen mailak gora egin ahala, ikastetxearen tamaina, ikasle kopurua kontuan hartuta, handiagoa da.






2. A geruza publikoa

a) Geruzaren ezaugarriak


A geruza publikoko ikastetxeek ebaluatutako populazio guztiaren % 5,4 eta sare publikoari dagozkien ikastetxeen % 11,5 biltzen dute. Sexuen arabera, % 48,2 neskak ziren eta % 51,8 mutilak. Ikasleen oso zati txiki baten (% 0,1) etxeko hizkuntza euskara da, % 99,9ren etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat da.

84. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. A geruza publikoko ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera.




Geruza hau da dagokien ikasmilan (% 68,1) adin-egokitasun egoeran ez dauden ikasleen ehunetik altuena duen geruza, eskolatzean atzerapena izan dutelako edo ikasmilaren bat errepikatu dutelako.

85. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. A geruza publikoko ikasleen ehunekoa adin-egokitasunaren arabera.






86. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Geruza A publikoko ISEK ehunekoak mailen arabera.



Ikasleen % 87 maila baxuko Indize sozioekonomiko eta kulturala duten familietatik dator eta % 2,7k soilik du maila altuko ISEK.

87. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. A geruza publikoaren Indize sozioekonomiko eta kulturalaren (ISEK) eta Matematikarako konpetentziako emaitzen arteko harremana.

Geruza: A publikoa






87. grafikoa ikus daitekeen moduan, geruza honetako ikastetxe edo talde gehienak ISEKeko maila baxuan kokatzen dira eta *Matematikarako kompetentziako* puntuazioak matematikako batez bestekoaren azpitik daude. Ikastetxe eta talde gehienak aplikazio guztiko emaitzarik okerrenak dituztenen artean kokatzen dira. Hala eta guztiz ere, ikastetxe batzuek, horien ISEK maila kontuan hartuta esperotakoaren gainetik dauden emaitzak lortu dituzte, eta beste ikastetxe batzuen puntuazioak esperotakoa baino baxuagoak dira. Geruza honetako sakabanaketa denen artean baxuenetakoa da. Emaitzarik okerrera eta onena duten ikastetxeen artean 73 puntuko aldea dago.

b) Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa

Hurrengo grafikoa, ebaluatutako oinarritzko konpetentzia bakoitzeko errendimendu mailetan ikasleen ehunekoak ageri dira.



A geruza publikoko populazioaren ehunekorik altuenak, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia* izan ezik, hasierako mailan biltzen dira. Maila aurreratuko emaitzak lortu dituzten ikasleen ehunekoa oso baxua da ebaluatutako konpetentzia guztietan (% 0,3 eta % 11,2 artean).






3. B geruza publikoa

a) Geruzaren ezaugarriak


A geruza publikoko ikastetxeek ebaluatutako populazio guztiaren % 5 eta sare publikoari dagozkien ikastetxeen % 10,9 ordezkatu dute. Sexuen arabera, % 48 neskak ziren eta % 52 mutilak. Ikasleen oso zati txiki baten (% 1,8) etxeko hizkuntza euskara da, % 98,2ren etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat da.

89. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. B geruza publikoko ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera.



Dagokien ikasmilan adin-egokitasun egoeran ez dauden ikasleen ehunekoa % 40,2koa da eta 2011ko aplikazioko ikastetxeen batez bestekoa gainditzen du (% 19,5).


90. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. B geruza publikoko ikasleen ehunekoa adin-egokitasunaren arabera.




B geruza publikoko ikasle gehienak ISEK maila baxuko (% 50,4) familietatik datoz. Geruza honetako ikasleen % 20,3k Indize sozioekonomiko eta kultural altua dute.



91. grafikoa: ED I I-DBHko 2. maila. Geruza B publikoko ISEK ehunekoak mailen arabera.



92. grafikoa: ED I I-DBHko 2. maila. B geruza publikoaren Indize sozioekonomiko eta kulturalaren (ISEK) eta Matematikarako kompetentziako emaitzen arteko harremana.



A geruza publikoan bezala, geruza honetako ikastetxe gehienek ISEK maila baxua dute. Matematikarako kompetentzian, ikastetxe batzuen emaitzak batez bestekoaren gaineratik daude eta beste ikastetxe batzuen emaitzak azpitik daude. Erregresio-lerroa kontuan hartuz, ikus daiteke ikastetxe batzuek ISEK mailaren arabera esperotakoaren gaineratik dauden puntuazioak lortu dituztela, eta beste batzuen emaitzak esperotakoaren azpitik daudela. Sakabanaketa A geruza




publikokoa baino zertxobait altuagoa da. Emaitza onenak eta okerrenak dituzten ikastetxeen artean 98 puntuko aldea dago.

b) Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa

Hurrengo grafikoan, ebaluatutako oinarrizko konpetentziatako bakoitzeko errendimendu mailetan ikasleen ehunekoak ageri dira.

93. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. B geruza publikoa. Ikasleen banaketa konpetentziako errendimendu mailen arabera.



B geruza publikoko populazioaren ehuneko altuenak erdi-mailan biltzen dira, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia* izan ezik; konpetentzia horretan biltzen da ehunekorik altuena hasierako mailan. Maila aurreratuko emaitzak lortu dituzten ikasleen ehunekoa % 10,2 eta % 24,7 artean kokatzen da. Geruza honetako ikasleen % 47,1ek *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia*ren hasierako maila gainditzen du eta % 83,6k *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia*ren hasierako maila gainditzen du.






4. D geruza publikoa

a) Geruzaren ezaugarriak


D geruza publikoko ikastetxeek ebaluatutako populazio guztiaren % 36 eta sare publikoari dagozkien ikastetxeen % 77,6 ordezkatu dute. Sexuen arabera, % 48,5 neskak ziren eta % 51,5 mutilak. Ikasleen % 26,7ren etxeko hizkuntza euskara da eta % 73,3ren etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat da.

94. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. D geruza publikoko ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera.




Dagokien ikasmilan adin-egokitasun egoeran ez dauden ikasleen ehunekoa % 21,8koa da; eskolatzearen hasieran izandako atzerapenarengatik edo eskolatzean ikasmilaren bat errepikatzeagatik izan liteke hori.

95. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. D geruza publikoko ikasleen ehunekoa egokitasunaren arabera.






96. grafikoa: ED I I-DBHko 2. maila. Geruza D publikoko ehunekoa ISEK mailen arabera.



D geruza publikoko ikasleen ehuneko altuena ISEK ertain-baxua (% 31,4) eta ertain-altua (% 40,7) duten familietatik datoz.

97. grafikoa: ED I I-DBHko 2. maila. D geruza publikoaren Indize sozioekonomiko eta kulturalaren (ISEK) eta *Matematikarako konpetentziako* emaitzen arteko harremana.



Geruza honetan ISEKeko maila guztiei dagozkien ikastetxeak daude. 97. grafikoa ikus daitekeen moduan, ikastetxe batzuetan, *Matematikarako konpetentziako* emaitza batez bestekoaren gainera daude, eta beste batzuetan, azpitik. Era berean, ikastetxe batzuek ISEK-en arabera esperotakoaren gainera dauden emaitzak lortzen dituzte, eta beste ikastetxe




batzuetan, emaitzak azpitik daude. Geruza honetako ikastetxeen arteko emaitzen aldea 96 puntukoa da.

b) Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoaren

Hurrengo grafikoan, ebaluatutako oinarrizko konpetentziatako bakoitzeko errendimendu mailetako ikasleen ehunekoak ageri dira:

98. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. D geruza publikoa. Ikasleen banaketa konpetentziako errendimendu mailen arabera.



D geruza publikoko populazioaren ehunekorik altuenak erdi-mailan biltzen dira (% 47,7 eta % 64,5 artean). Maila aurreratuko emaitzak lortzen dituzten ikasleen ehunekoa % 18,2 eta % 26,1 artekoa da. Hasierako mailan kokatutako ikasleen ehunekorik baxuena *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* (% 13,2) biltzen da, eta altuena *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* (% 28,2).






5. Itunpeko A geruza

a) Geruzaren ezaugarriak


Itunpeko A geruzako ikastetxeek ebaluatutako populazio guztiaren % 9 eta itunpeko sareko ikastetxeen % 16,8 biltzen dute. Sexuen arabera, % 46,9 neskak ziren eta % 53,1 mutilak. Ikasleen % 0,4ren etxeko hizkuntza euskara da eta % 99,6ren etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat da.

99. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Itunpeko A geruzako ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera.




DBHko 2. mailako itunpeko A geruzako ikasleen % 71,6 adinaren arabera dagokion ikasmailan dago eskolatuta.

100. grafikoa: ED11-DBHko. 2. maila. Itunpeko A geruzako ikasleen ehunekoa adin-egokitasunaren arabera.






101. grafikoa: ED I I-DBHko 2. maila. Itunpeko A geruzako ehunekoa ISEK mailen arabera.



Itunpeko A geruzako ikasle gehienak ISEK maila altuko (% 59,5) familietatik datoz. Geruza honetako ikasleen % 22,3k Indize sozioekonomiko eta kultural baxua dute.

102. grafikoa: ED I I-DBHko 2. maila. Itunpeko A geruza Indize sozioekonomiko eta kulturalaren (ISEK) eta Matematikarako kompetentziako emaitzen arteko harremana.






Emaitzetan eta ISEKen sakabanatzerik handiena duen geruzetako bat da. Ikastetxe batzuek ISEK maila altua eta emaitza ezin hobekak dituzte, eta zenbaitetan, esperotako mailaren gainetik, gainera; hala ere, badaude maila baxuko eta emaitza baxuko ikastetxeak ere. Puntuaziorik baxueneko ikastetxeen eta puntuaziorik altuenak lortzen dituztenen artean, zenbaitetan, 123 puntuko aldea izan ohi da.

b) Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa

Hurrengo grafikoa, ebaluatutako oinarritzko konpetentzia bakoitzeko errendimendu mailetan ikasleen ehunekoak ageri dira:

103. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. A ereduko itunpeko geruza. Ikasleen banaketa konpetentziako errendimendu mailen arabera.



Itunpeko A geruzako ikasleek, ebaluatutako konpetentzietan, errendimendu mailetan nolabaiteko egonkortasuna erakusten dute *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*. Ikasleen % 82,4k ez du hasierako maila gaitzen eta % 2,8 soilik kokatzen da maila aurreratuan. Ebaluatu diren beste hiru konpetentzietan, ikasle gehienek erdi-mailako emaitzak lortu dituzte (% 43,4 eta % 54,5 artean).






6. Itunpeko B geruza

a) Geruzaren ezaugarriak


Itunpeko B geruzako ikastetxeek ebaluatutako populazio guztiaren % 23 eta itunpeko sareko ikastetxeen % 43 biltzen dute. Sexuen arabera, % 50 neskak ziren eta % 50 mutilak. Ikasleen % 4,7ren etxeko hizkuntza euskara da eta % 95,3ren etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat da.

104. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Itunpeko B geruzako ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera.



DBHko 2. mailako itunpeko B geruzako ikasleen % 79,1 adinaren arabera dagokion ikasmailan dago eskolatuta.


105. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Itunpeko B geruzako ikasleen ehunekoa adin-egokitasunaren arabera.



Itunpeko B geruzako ikasle gehienak ISEK maila altuko (% 41,2) familietatik datoz. Geruza honetako ikasleen ehunekorik baxuenak (% 16,8) Indize sozioekonomiko eta kultural baxua du.




106. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Itunpeko B geruzako ikasleen ehunekoa ISEK mailen arabera.



107. Grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Itunpeko B geruzaren Indize sozioekonomiko eta kulturalaren (ISEK) eta Matematikarako kompetentziako emaitzen arteko harremana.

Geruza: itunpeko B




Itunpeko A geruzaren kasuan bezalaxe, geruza hau ere oso sakabanatuta dago emaitzei dagokienez. Emaitza baxuenak dituzten ikastetxeen edo taldeen eta emaitza onenak lortzen dituztenen artean 106 puntuko aldea dago. Ikus daitekeenez, ISEKeko maila guztietako ikastetxeak daude eta emaitzak askotarikoak dira (batez bestekoaren gainetik eta azpitik, baita ISEK-en arabera esperotakoak baino altuagoak eta baxuagoak ere).



b) Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa

Hurrengo grafikoan, ebaluatutako oinarrizko konpetentziatako bakoitzeko errendimendu mailetan ikasleen ehunekoak ageri dira:

108. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. B ereduko itunpeko geruzak. Ikasleen banaketa konpetentzietako errendimendu mailen arabera.



Itunpeko B geruzako ikasleek, ebaluatutako konpetentzietan, errendimendu mailetan nolabaiteko egonkortasuna erakusten dute *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*. Ikasleen % 39,5ek ez du hasierako maila gainditzen eta % 16 maila aurreratuan kokatzen da. Ebaluatu diren beste hiru konpetentzietan, ikasle gehienek erdi-mailako emaitzak lortu dituzte (% 56,8 eta % 59,7 artean).






7. Itunpeko D geruza

a) Geruzaren ezaugarriak


Itunpeko D geruzako ikastetxeek ebaluatutako populazio guztiaren % 21,5 eta itunpeko sareko ikastetxeen % 40,2 biltzen dute. Sexuen arabera, % 46,9 neskak ziren eta % 53,1 mutilak. Ikasleen % 35,8ren etxeko hizkuntza euskara da eta % 64,2ren etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat da.

109. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Itunpeko D geruzako ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera.



DBHko 2. mailako itunpeko D geruzako ikasleen % 89,4 adinaren arabera dagokion ikasmailan dago eskolatuta. Ehuneko hori geruza publiko eta itunpeko geruza guztien artetik altuena da.


110. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Itunpeko D geruzako ikasleen ehunekoa adin-egokitasunaren arabera.




Itunpeko D geruzako ikasle gehienak ISEK maila altuko (% 48,1) familietatik datoz. Geruza honetako ikasleen ehunekorik baxuenak (% 3,9) Indize sozioekonomiko eta kultural baxua du.



111. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Itunpeko D geruzako ehunekoa ISEK mailen arabera.



112. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Itunpeko D geruzaren Indize sozioekonomiko eta kulturalaren (ISEK) eta Matematikarako kompetentziako arteko harremana.



Geruza honetan ez da oso sakabanaketa handia nabari; 89 puntuko aldea dago Matematikarako kompetentzian puntuaziorik altuenak lortzen dituzten ikastetxeen eta puntuaziorik baxuenak lortzen dituztenen artean. Oso ikastetxe gutxi dute ISEKeko maila baxua; gehienek maila ertain-altua eta maila altua dute. Ikastetxe gehienek batez bestekoaren




gainetik dauden emaitzak lortu dituzte *Matematikarako konpetentzian*, eta beste ikastetxe batzuen puntuazioak ISEKen arabera esperotakoaren gainetik eta azpitik daude.

b) Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa

Hurrengo grafikoan, ebaluatutako oinarrizko konpetentzia bakoitzeko errendimendu mailetako ikasleen ehunekoak ageri dira:

113. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila.D ereduko itunpeko geruza. Ikasleen banaketa konpetentzietako errendimendu mailen arabera.



Itunpeko D geruzako ikasleek errendimendu mailetan nolabaiteko egonkortasuna adierazten dute ebaluatutako konpetentzietan. Ikasleen ehunekorik altuena errendimenduko erdi-mailan (% 48,1 eta % 60,5 artean) biltzen da. *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia* da hasierako mailako ikasleen ehunekorik altuena biltzen duen konpetentzia (% 19,1).





4. IKASLEEN EMAITZETAN ERAGINA DUTEN ALDAGAIEN AZTERKETA





Ebaluatutako oinarrizko konpetentzietako ikasleen errendimenduan hainbat faktorek eragiten dute: ez ikasgelako prozesu didaktikoek edo ikastetxeko eta heziketa-sistemaren kudeaketa-ezaugarriek soilik, baita ikasle bakoitzaren ezaugarri pertsonal eta familiartekoek ere.

Familiarekin eta ikaslearen ezaugarri pertsonalekin lotutako faktoreak ikastetxearen kanpoko eraginak dira eta hezkuntza-prozesuak baldintzatzen dituzten *input* gisa hartu behar dira. Hala eta guztiz ere, ez da erraza parte hartzen duten faktore guztiak ezagutzea, ezta benetan zenbaterainoko eragina duten jakitea ere; gainera, askotan, zaila izaten da aldagaiaren eta errendimenduaren arteko kausa-efektua harremana egiaztatzea.

Ikasle bakoitzak familia bat du eta maila sozioekonomiko eta kultural jakina du, jatorri bat eta egitura- eta hizkuntza-ezaugarri espezifikoak ditu, baliabide material eta ondasun kultural jakinekin. Ikasleen galdera-sortaren bidez, txosten honen helburua den azterketa egiteko informazio egokia bildu nahi da honako alderdiei buruz: eskolaz kanpoko alorrak, familiartekoak, ikasleen aurreikuspenak eta abar, baita ikaslearen sexuaren arabera ezaugarriak, adinaren eta ikasmilaren arteko egokitzapena, eskolatzearen hasierako adina eta abar ere.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan garrantzitsuak izan daitezkeen alorrak aztertzeke, banaka hartutako aldagai jakin batzuen eragina aztertzeaz gain, indizeak sortu dira balio estandarizatuekin, eta horiek ikasleek galdera-sortan erantzun dituzten zenbait galdera biltzen dituzte. Indize horien bidez, banakako edo testuinguruko egoera jakin batzuen deskribapenez eta emaitzetan duen eraginaren azterketaz gain, errendimenduaren eta elkartutako aldagaien artean egon daitekeen loturaren analisisa ere eskaintzen da, baita elkartutako aldagai horiek aldatzeko ahalmena duten eta zer neurritan egiten duten ere.

Faktore sozioekonomikoen eta kulturalen eragina neurtzeko Indize sozioekonomiko eta kulturala (ISEK) sortu da. Indize horrek aldagai jarraituaren forma hartzen du, eta bertan, balio guztiak dira posible, eta tipifikatuta daude (batez bestekoa 0 da, eta desbideratze tipikoa, 1ekoa).

Azterketa aldagaien eta konpetentzietan errendimenduarekin duten loturaren arabera egiteko, dagokion konpetentziako proba egin eta bere puntuazioa errendimendu orokorrerako hartu den ikasleak soilik hartu dira kontuan; gainera, ikasle horiek ikasleari aurkeztutako galdera-sortan kasu bakoitzean egokiak diren galderari erantzun diete.

Ebaluazio honetan, aldagairik adierazgarrienak eta Ebaluazio diagnostikoaren aurreko edizioekin (ED09 eta ED10) alderaketa ezartzea ahalbidetzen dutenak aukeratu dira azterketarako.



Hauek dira txosten honetan aztertu diren aldagaiak:

Familiako eta norbanakoaren aldagaiak	Ikastetxearen aldagaiak
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ikasleen sexua. ✓ Adinaren eta ikasmilaren arteko egokitasuna. ✓ Etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza. ✓ Aitaren eta amaren ikasketa maila. ✓ Familiaren jatorria. ✓ ikasleen aurreikuspen akademikoak. ✓ Laneko ohiturak eskolatik kanpo. ✓ Norberaren ezaugarriak (HPB⁹ eta HBSP¹⁰). ✓ Indize sozioekonomiko eta kulturala: <ul style="list-style-type: none"> – Indize sozioekonomiko eta laborala. – Familiako ikasketak. – Liburuak izatea. – Etxean ordenagailua eta Internet izatea. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Geruza: hizkuntza-eredua eta heziketa-sarea. ✓ Ikasgelako kalifikazioen eta Ebaluazio diagnostikoko emaitzen arteko korrelazioa. ✓ Ikastetxeen eraginkortasuna emaitzen arabera. ✓ Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuei dagokienez zuzendaritza-taldeek duten pertzepzioa. ✓ Zuzendaritza-taldeek elkarbizitza eta ikaskuntza alorren gainean duten pertzepzioa.

2011ko ebaluazio hau aztertzeko aukeratu den aldagai bakoitzean analisi-metodologia hau jarraitu da:

1. Aldagaiaren zentzua eta garrantzia definitzen da, baita beste ebaluazio batzuetan – baldin badago- azterketarekin duen lotura eta datuak lortzeko erabili den iturria ere.
2. Lortutako erantzunen zuzeneko maiztasunak aztertzen dira, eta, ondoren, ikuspegi estatistikotik zentzua izango duten taldeetan kategorizatzen dira.
3. Aldagaien definitutako kategoriekin ebaluatutako oinarrizko lau konpetentzietako errendimendu mailak batzen dira eta aldeak adierazgarriak diren ikusten da.
4. Ahal den kasuetan, aurreko urteetako ebaluazioan lortutako emaitzekin alderatzen da.
5. Azkenik, egindako azterketatik abiatuta, zenbait ondorio eskaintzen dira.

Konpetentzia bakoitzeko emaitzen analisia egiteko, konpetentzia horretan proba egin duten eta puntuazio hori probako emaitza orokorretan kontuan hartu zaien ikasle kopurua hartu da kontuan.

Familia arloko aldagai, aldagai pertsonal eta bestelako aldagaiekin lotutako datuak kalkulatzeko, ikaslearen galdera-sortan kasu bakoitzean egoki den informazioari dagokion itemak erantzun dituzten ikasleak hartu dira erreferentzia gisa.

⁹ HPB: Hezkuntza Premia Bereziak.

¹⁰ HBSP: Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programa.



I. Ikasleen sexua

Nesken errendimendu maila mutilena baino altuagoa da ebaluatu diren hiru Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietan. Matematikarako konpetentzian mutilek neskek baino puntuazio nabarmen altuagoak lortu dituzte.

a) Emaidza orokorrak

Ikasleen sexuaren araberrako emaitzek berretsi egiten dituzte beste ebaluazioetako aldeak: neskek mutilek baino emaitza nabarmen altuagoak lortu dituzte *Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietan*, eta mutilek errendimendu maila altuagoa dute *Matematikarako konpetentzian*.

Hurrengo taulak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako neska-mutilek ebaluatutako konpetentzia bakoitzean lortutako puntuazioa erakusten du, baita emaitzen adierazgarritasuna ere.

ED11. DBHko 2. maila. Ikaslearen sexuaren araberrako ebaluatutako konpetentzietan lortutako puntuazioak.				
Konpetentziak	Nesakak	Mutalak	Aldea	Adierazgarritasuna
<i>Matematikarako konpetentzia</i>	249	253	-4	BAI
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia</i>	256	253	3	BAI
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia</i>	263	249	14	BAI
<i>Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.</i>	255	246	9	BAI


BAI: % 95eko alde adierazgarria

Aurreko datuetan ikusten den moduan, alderik handiena *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziari* dagozkion puntuazioetan gertatzen da; hain zuzen ere, neskek 14 punturekin gaintzen dituzte mutilak. *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* neskek mutilek baino hiru puntu gehiago lortu dituzte. *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, neskek mutilek baino bederatzi puntu gehiago lortu dituzte. *Matematikarako konpetentzian*, mutilen taldeak neskenak baino lau puntu gehiago lortu ditu. Kasu guztietan, aldeak adierazgarriak dira.

114. grafikoan bi taldeek ebaluatutako bi konpetentzietan lortutako batez besteko puntuazioak erakusten dira; gezi baten bidez adierazten da zein taldek dituen puntuazio altuenak:




114. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Ebaluatutako kompetentziaketako errendimendua ikasleen sexuaren arabera.




b) Ikasleen banaketa errendimendu mailen arabera

Jarraian, grafikoki adierazten da ebaluatutako lau kompetentzien errendimendu mailaketako bakoitzean mutil eta neska taldearen banaketa:


115. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaketako errendimendu mailen arabera.




116. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaketako errendimendu mailen arabera.



117. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa Matematikarako kompetentziaketako errendimendu mailaren arabera.



118. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaketako errendimendu maila bakoitzean.



Oro har, hasierako mailetan, nesken ehunekoak mutilenak baino baxuagoak dira, *Matematikarako kompetentzian* izan ezik; ikasgai horretan kontrakoa gertatzen da (% 0,8 gehiago nesken kasuan). Maila aurreratuetan, neskek mutilek baino puntuazio altuagoak lortzen dituzte, *Matematikarako kompetentzian* izan ezik (% 3,6 gehiago mutilen kasuan).




c) ED09-ED10 eta ED11 ebaluazioetan emaitzek sexuen arabera izan duten bilakaera

119. grafikoan ageri da mutilen eta nesken taldeak izandako emaitzen bilakaera. Bertan, honako hau nabarmentzen da:

- ED11n hiru konpetentzietan lortutako batez bestekoak ED09an lortutakoekin alderatzen baldin badira, ikusten da nesken eta mutilen puntuazio guztiek gora egin dutela, *Matematikarako konpetentzian* nesken taldeak izan ezik; talde horrek ED09an izan zuen puntuazio berbera izan du ED11n.
- Mutilek, ED10ekin alderatua, ED11n, batez besteko puntuazioa mantendu dute; aldiz, neskek puntu bat igo dute puntuazioa eta ED09an lortutako puntuazio berbera erdietsi dute.
- Ebaluazio diagnostikoaren hiru edizioetan, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, neskek eta mutilek batez besteko puntuazioa hobetu dute.
- *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, bai nesken, bai mutilen kasuan, ED10koarekin alderatuta, beherakada gertatu da ED11ko batez besteko puntuazioan.

119. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11. Emaitzen bilakaera konpetentzien eta ikasleen sexuaren arabera.



* Grafikoaren eskala 200ean hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezten.





2. Dagokion ikasmilan egotea

Adin-egokitasun egoeran dauden ikasleek (1997. urtean jaiotakoak) kompetentzia guztietan errendimendu nabarmen altuagoa lortu dute adinarekiko urtebeteko edo bi urteko atzerapenen bat duten ikasleekin alderatuta. Era berean, urtebeteko atzerapena duten ikasleek bi urteko atzerapena duten ikasleek baino emaitza nabarmen altuagoak lortu dituzte.

a) Emaitza orokorrak

Ebaluazio honetan parte hartu duten DBHko 2. mailako ikasleen % 19 inguru 1995, eta 1996, urteetan jaio da, eta, beraz, ikasmila hau egiteko adin egokiarekiko (1997an jaiotakoak) urte bateko edo biko atzerapena du. Atzerapena ikasmila bat edo bi errepikatu izanaren ondorioa izan daiteke, edo ikaslea urte bat edo bi beranduago eskolatu delako. Ikasle multzo horrek adin-egokiko ikasleek baino emaitza nabarmen baxuagoak lortu ditu kompetentzia guztietan.

Hurrengo taulan ageri dira kompetentzia bakoitzean lortutako batez besteko puntuazioak, ikaslea adin-egokitasun egoeran dagoen edo ez kontuan hartuta; bestalde, gutxienez proba bati erantzun dion ikasleen ehunekoa ere ageri da, jaiotza-urtearen arabera (egokia, ikasmila bat edo biko atzerapena).

Jaiotza-urtea	Ikasleen ehunekoa	Matematikarako kompetentzia	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	Ingelesezko hizkuntza-komunikazioa
1995	% 5,3	202	219	209	200
1996	% 14,0	215	228	221	213
1997 (adin-egokitasuna)	% 80,5	260	261	263	259

120. grafikoak jaiotza-urtearen araberako ikasleen errendimendua erakusten du.


Emaitzen arteko aldeak adierazgarriak dira kompetentzia guztietan; hau da, adin-egokitasun egoeran dauden ikasleek, 1997an jaiotakoek, 1996an jaiotakoek baino (urtebeteko atzerapena dute) emaitza nabarmen altuagoak dituzte; azken horiek, era berean, bi urteko atzerapena dutenek baino emaitza altuagoak lortu dituzte.

Alderik handienak Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian eta Matematikarako kompetentzian gertatu dira; kasu horietan, 13 puntu baino gehiagoko jautzia dago adin egokiko ikasleen (1997an jaiotakoak) eta 1996an jaiotako ikasleen artean. Kompetentzia horietan, 1995ean jaiotako ikasleek dagokien ikasmilan dauden ikasleek baino 59 puntu gutxiago lortu dituzte.



Ondorio hori 2009an eta 2010ean egindako Ebaluazio diagnostikoarekin bat dator, baita ondorio hori biltzen duten beste ebaluazio batzuekin ere: PISA 2003, PISA 2006, Lehen Hezkuntzaren Ebaluazioa 2004 eta TIMSS 2007. 2009-2010 aurreko txostenetan aipatu zen moduan, gertaera hori “Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasmaita errepikatzeak duen eragina” ikerlanaren sorburua izan zen¹¹.


120. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Ikasleen jaiotza-urtearen arabera ebaluatutako kompetentziaketako errendimendua.




b) Ikasleen banaketa errendimendu mailen arabera

Jarraian, grafikoki adierazten da ebaluatutako lau kompetentzien errendimendu maila bakoitzean ikasleek jaiotza-urtearen arabera duten banaketa.

121. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendu mailen arabera eta jaiotza-urteren arabera.




122. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendu mailen arabera eta jaiotza-urtearen arabera.




¹¹ www.isei-ivei.net Argitalpenak atala: PISA 2003, PISA 2006, Lehen Hezkuntzaren Ebaluazioa 2004, TIMSS 2007. Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasmaita errepikatzeak duen eragina.



123. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa Matematikarako konpetentziako errendimendu mailetan jaiotza-urtearen arabera.



124. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendu mailen arabera eta jaiotza-urtearen arabera.




Ikus daitekeenez, adinaren arabera dagokion ikasmailan eskolatuta dagoen ikasleak (egokia) biltzen du ehunekorik baxuena hasierako errendimendu mailan eta altuena errendimendu aurreratuko mailan (konpetentzia guztietan), adin-egokitasun egoeran ez dagoen ikasleekin alderatzen baldin badugu (urtebete edo bi lehenago jaiotakoa). 1995ean jaiotako ikasleek (bi urteko atzerapena) lortu dituzte ehunekorik altuenak hasierako errendimenduko mailan eta baxuenak errendimenduko maila aurreratuan konpetentzia guztietan.

c) ED09-ED10 eta ED11 ebaluazioetako emaitzen bilakaera

Konpetentzietako emaitzak ikus daitezke, jaiotza-urtearen arabera, honako grafikoa:

125. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11. Emaitzen bilakaera konpetentzien eta ikasleen jaiotza-urtearen arabera.



* Grafikoa eskala 180an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezke.

2009, 2010 eta 2011n egindako Ebaluazio-diagnostikoei dagokienez, honako hau ondorioztatzen da:

- Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, Ebaluazio diagnostikoaren hiru edizioetan, ikasle guztiek hobetu dute puntuazioa, adin-egokitasun egoeran dauden ikasleek izan ezik, ED10ekin alderatuta, ED11n 4 puntuko jaitsiera izan baitute.



- *Matematikarako konpetentzian*, adin-egokitasun egoeran dauden ikasleek eta adin-egokitasun egoeran ez dauden ikasleek (urtebeteko atzerapena) puntu bat egin dute gora ED11n (ED10ekoekin alderatuta). Bi urteko atzerapena daramaten ikasleek batez besteko puntuazioa jaitsi dute Ebaluazio diagnostikoko hiru edizioetan.
- Ebaluazio diagnostikoaren hiru edizioetan (ED09-ED10-ED11), *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, ikasleen batez besteko puntuazioan gorakada nabaritu da, adin-egokitasun egoeran ez dauden ikasleetan izan ezik (bi urteko atzerapena); horien batez bestekoa mantendu egin da ED11n.



3. Etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza

Proba etxeko hizkuntzan egin ez duten ikasleek proba etxeko hizkuntzan egin dutenek baino emaitza nabarmen baxuagoak lortu dituzte hizkuntza-komunikaziotik aparteko konpetentzian (Matematikarako konpetentzia).

Orain arte egin diren hainbat ebaluaziok eta ikerlanek adierazi duten bezala, bigarren hizkuntzaren ikaste-prozesuan dauden ikasleek ez dute jaiotzetiko hiztunen maila bera hizkuntza horretan, eta horrek eragin handia du bigarren hizkuntzan egiten dituzten probetako emaitzetan.

2011ko Ebaluazio diagnostikoan hizkuntzaren aldetiko alderdiak aztertzean bi elementu hartu dira kontutan:

- Batetik, proba aplikatzeko erabilitako hizkuntza. Ikastetxeek aukeratu ahal izan zuten ikasleek zer hizkuntzatan erantzungo zuten konpetentzia ez-linguistikoaren proba (*Matematikarako konpetentzia*). Erabaki horren datuek hau adierazten dute:
 - A ereduko ikasle gehienek *Matematikarako konpetentziako* proba gaztelaniaz erantzun zuten.
 - D ereduko ikasle gehienek euskaraz egin zuten (% 99,95ek baino gehiagok).
 - Hala eta guztiz ere, B ereduko ikasleen kasuan, *Matematikarako konpetentzian*, % 7,76k soilik erantzun zuen euskaraz (B eredu publikoko % 13,3k eta itundutako B ereduko % 6,6k).
 - *Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* probak bakoitzari zegokion hizkuntzan egin ziren (euskara, gaztelania eta ingelesa).
- Beste aldetik, ikasle *bakoitzaren etxeko hizkuntza nagusia*: beste ebaluazio batzuetako ondorioetatik (PISA, TIMSS, Euskara B2...) badakigu etxeko hizkuntzak zer nolako eragina izaten duen emaitzetan, etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza bat ez datozenean.

Emaitzak ondo azaldu ahal izateko, bi aldagaiak -probako hizkuntza eta etxeko hizkuntza-erlazionatu behar dira proba euskaraz edo gaztelaniaz egin zuten ikasleen hizkuntza-ereduetako bakoitzean, hau da, B eta D ereduetan.

Ondorengo tauletan *Matematikarako konpetentziako* emaitza orokorrak aurkezten dira, ebaluazio honetan B eta D ereduetan parte hartu duten ikasle guztien probako hizkuntza eta etxeko hizkuntzaren arabera¹².

¹² Gainerako egoera posibleetan ez dago ikasle kopuru nahikorik emaitzen fidagarritasuna bermatu ahal izateko. Adibidez, familia euskalduneko 120 ikaslek bakarrik egin zuten *Matematikarako konpetentziako* proba euskaraz B ereduan; edo etxean gaztelaniaz hitz egiten duten 5 ikaslek bakarrik egin zuten konpetentzia horretako proba gaztelaniaz D ereduan.



B EREDUA		<i>Matematikarako konpetentzia</i>	
Probako hizkuntza	Etxeko hizkuntza	Kopurua	Batez bestekoa
Gaztelania	Euskara ez dena	4.257	251
Euskara	Euskara ez dena	246	238


D EREDUA		<i>Matematikarako konpetentzia</i>	
Probako hizkuntza	Etxeko hizkuntza	Kopurua	Batez bestekoa
Euskara	Euskara	3.098	267
Euskara	Euskara ez dena	6.757	247

Aurreko emaitzetatik, ondorio hau ateratzen da:

- Bi hizkuntza-ereduetan, ikasleek proba egiteko erabilitako hizkuntzak eragin nabarmena du emaitzetan. Aplikazioko hizkuntza eta etxeko hizkuntza bat ez datozenean, emaitzak nabarmen baxuagoak dira (ikus 126 eta 127. grafikoak).
- Egoera hori berbera gertatu zen 2009 eta 2010ean egindako Ebaluazio diagnostikoetan ere.


Bi hizkuntza-ereduetako *Matematikarako konpetentziako* emaitzak alderatuz (126 eta 127 grafikoak), ikusten da aldeak nabarmenak direla hizkuntza aldatu ez duten B ereduko (gaztelania) ikasleen eta hizkuntza aldatu ez duten D ereduko (euskara) ikasleen artean, D eredukoena 16 puntu altuagoa da. Era berean, D ereduan eta B ereduan hizkuntza aldatu duten ikasleek (euskara/ez euskara) lortutako batez besteko puntuazioen arteko aldeak ere adierazgarriak dira, D ereduan lortutako batez bestekoa bederatzi puntu altuagoa da.

126. grafikoa: ED II-DBHko 2. maila. B ereduko ikasleen Matematikarako konpetentziako emaitzak etxeko hizkuntzaren eta probako hizkuntzaren arabera.





127: EDII-DBHko 2. maila. D ereduko ikasleen Matematikarako kompetentziako emaitzak etxeko hizkuntzaren eta probako hizkuntzaren arabera.




- **Matematikarako kompetentzian B eta D ereduaren emaitzen bilakaera probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera**

- **B eredia**

- **ED10-ED11**

128. grafikoan ikus daitekeen moduan, ED10 eta ED11n, etxeko hizkuntzan proba egiten duten ikasleek etxeko hizkuntza ez den beste batean egiten dutenek baino batez besteko altuagoa lortu dute. Bestalde, etxeko hizkuntza euskara ez duten eta *Matematikarako kompetentziako* proba gaztelaniaz egin duen ikaslearen batez besteko puntuazioa alderatzean, ikusten da ED10 eta ED11ren artean ez dagoela alde adierazgarririk; gauza bera gertatzen da etxeko hizkuntza nagusia gaztelania izan eta proba euskaraz egiten duten ikasleen kasuan ere; hala ere, ED11n puntuazioak lau puntu behera egin du ED10ekin alderatuta eta alde hori estatistikoki ez da adierazgarria.

128. grafikoa: DBHko 2. maila. ED10-ED11. B ereduko batez besteko bilakaera Matematikarako kompetentzian probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera.




- **ED09-11**

129. grafikoan ikus daitekeen moduan, ED09 eta ED11n, etxeko hizkuntzan proba egiten duten ikasleek etxeko hizkuntza ez den beste batean egiten dutenek baino batez besteko



altuagoa lortu dute; hala eta guztiz ere, aldea murriztu egin da (ED09rekin alderatuta, EDI In sei puntu gutxiago). Bestalde, etxeko hizkuntza euskara ez duten eta *Matematikarako kompetentziako* proba gaztelaniaz egin duen ikaslearen batez besteko puntuazioa alderatzean, ikusten da ED09 eta EDI Iren artean ez dagoela alde adierazgarririk; gauza bera gertatzen da etxeko hizkuntza nagusia gaztelania izan eta proba euskaraz egiten duten ikasleen kasuan ere.

129. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-EDI I. B ereduko batez besteko bilakera Matematikarako kompetentzian probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera.




o **D eredua**

– **EDI0-EDI I**

EDI0ean eta EDI In D ereduko ikasleek *Matematikarako kompetentzian* lortutako batez bestekoak (130. grafikoa) alderatzen baldin baditugu, etxeko hizkuntza euskara izan eta proba euskaraz egiten duten ikasleen batez bestekoan igoera adierazgarria gertatzen dela ikusten da; hala eta guztiz ere, etxeko hizkuntza euskara ez den, baina proba euskaraz egiten duten ikasleen puntuazioaren jaitsiera estatistikoki ez da adierazgarria. Beste behin ere, proba etxeko hizkuntzan egiten duten ikasleen batez bestekoa proba etxeko hizkuntza ez den beste batean egiten dutenena baino altuagoa da; EDI In, aldea 20 puntutara irits daiteke.

130 grafikoa: DBHko 2. maila. EDI0-EDI I. D ereduko batez besteko bilakera Matematikarako kompetentzian probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera.






– ED09-ED11

131. grafikoan, ED09 eta ED11n etxeko hizkuntzaren eta probako hizkuntzaren arabera, *Matematikarako kompetentziako* batez bestekoaren alderaketa egin da. Etxeko hizkuntza Euskara izan eta proba euskaraz egiten duten ikasleen *Matematikarako kompetentzian* batez bestekoaren igoera adierazgarria gertatu da; bestalde, etxeko hizkuntza euskara ez den beste bat duten eta proba euskaraz egiten duen ikasleetan, batez bestekoak nabarmen egin du behera. Bistakoa da proba etxeko hizkuntzan egiten duten ikasleen batez bestekoak nabarmen altuagoak direla bi ebaluazioetan, proba etxeko hizkuntzatik desberdina den beste hizkuntza batean egiten dutenekin alderatuta. ED11n, proba etxeko hizkuntzan egin dutenek proba etxeko hizkuntzatik desberdina den beste hizkuntza batean egiten duten ikasleek baino 20 puntu altuagoko batez bestekoa dute.

131. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED11. D ereduko batez besteko bilakaera *Matematikarako kompetentzian* probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera.







4. Aitaren eta amaren ikasketa maila

Aitaren eta amaren ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan, ebaluatutako konpetentzia guztietako emaitzak orduan eta hobek izango dira. Gurasoek oinarrizko ikasketak dituzten ikasleen eta unibertsitateko ikasketak dituztenen ikasleen artean, zenbait konpetentzian, 36 eta 53 puntu arteko aldea dago. DBHko 2. mailako ikasleen aiten % 64k eta amen % 67k Batxilergoko, Lanbide Heziketako edo maila altuagoko ikasketak dituzte.

Orain arte egindako azterketetan¹³ argi geratu da gurasoen ikasketa mailak eragin argia duela ikaslearen ebaluazioen eta kalifikazioen emaitzetan.

Lortutako ikasketa maila 4 taldetan sailkatu da: oinarrizko ikasketak soilik egin dituen, DBHrekin baliokideak diren ikasketak amaitu dituen, Batxilergoa edo maila ertaineko Lanbide Heziketako heziketa-zikloak amaitu dituen eta unibertsitateko ikasketak amaitu dituztenak.

Gurasoek kategoria bakoitzean zer ikasketa maila lortu duten (ehunekoetan) erakusten du taulak:

Ikasleen ehunekoa aitaren eta amaren ikasketen gehieneko mailaren arabera.

	Oinarrizkoak		DBH		Batxilergoa, LH		Unibertsitatea	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Aita	1.481	% 9,10	4.379	% 26,91	5.788	% 35,57	4.622	% 28,41
Ama	1.156	% 6,95	4.351	% 26,15	5.646	% 33,94	5.483	% 32,96

DBHko 2. mailako aiten % 64 eta amen % 67k diote Batxilergoko ikasketak, Lanbide Heziketako heziketa-ziklo bat edo unibertsitateko ikasketak dituztela. Aiten % 27 inguruk eta amen % 26k baino zertxobait gehiagok DBHren baliokideak diren derrigorrezko ikasketak amaitu dituzte. Aiten % 9 eta amen % 7 inguruk oinarrizko ikasketak soilik dituzte..

a) Aitaren ikasketa maila eta ebaluatutako konpetentzietako puntuazioa

Jarraian ageri den taulak eta grafikoak DBHko 2. mailako ikasleen gurasoen gehieneko ikasketa mailaren eta 2011ko Ebaluazio Diagnostikoan ebaluatutako konpetentzia bakoitzean lortutako puntuazioen arteko lotura erakusten du:

¹³ PISA 2003 Ebaluazioaren bigarren txostena. Emaitzak Euskadin. www.isei-ivei.net

Lehen Hezkuntzako Ebaluazioa 2004. Laburpen exekutiboa. Ondorioak eta hobekuntza-proposamenak. 2006ko apirila. www.isei-ivei.net


Aitaren gehieneko ikasketa maila eta DBHko 2. mailako ikasleen emaitzak


	Oinarrizkoak	DBH	Batxilergoa, LH	Unibertsitatea
Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	232	248	261	267
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	232	245	257	270
Matematikarako konpetentzia	224	240	254	269
Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.	220	236	252	274

Aiten ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan, DBHko 2. mailako ikasleek lortzen dituzten puntuazioek ere gora egiten dute nabarmen ebaluatutako konpetentzia guztietan.

Ikasleen puntuazioetako alderik handienak gurasoek oinarrizko ikasketak soilik eta unibertsitateko ikasketak egin dituztenen artean gertatzen dira. Bi talde horien artean 54 puntu arteko aldeak egon dira *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*; 45 puntukoa, *Matematikarako konpetentzian*; 38 puntukoa, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioaren konpetentzian*, eta 35 puntukoa, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*. Konpetentzia honetan, gurasoen ikasketa mailaren arabera puntuazioetako aldeak estatistikoki nabarmenak dira.

Aitek oinarrizko eta DBHko ikasketak dituzten ikasleak, ebaluatutako konpetentzietan, ez dira EAEko batez besteko puntuaziora iristen. Hala eta guztiz ere, gurasoek Batxilergoko, LHko edo unibertsitateko ikasketak dituzten ikasleek EAEko batez bestekoa gainditzen dute lau konpetentzietan.

132. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Aitaren ikasketa maila eta ikasleek konpetentzien arabera izandako emaitza.



* Grafikoa eskala 200ean hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezten.



b) Amaren ikasketa maila eta ebaluatutako konpetentzietako puntuazioa

DBHko 2. mailako amek lotutako mailarekin aurreko azterketa berbera egin da. Hurrengo taulan eta dagokion grafikoan ikusten den moduan, amen ikasketa maila seme-alabek lortutako emaitzekin lotzen da. Konpetentzia guztietan, ikasleen amek lortutako ikasketen gehieneko mailak gora egiten duen heinean, ikasleek lortutako emaitzek ere gora egiten dute.

Amaren gehieneko ikasketa maila eta DBHko 2. mailako ikasleen emaitzak

	Oinarrizkoak	DBH	Batxilergoa, LH	Unibertsitatea
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia</i>	222	246	258	269
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia</i>	225	243	256	269
<i>Matematikarako konpetentzia</i>	217	237	253	269
<i>Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.</i>	216	233	251	272

Ikus daitekeen moduan, amek oinarrizko ikasketak soilik dituzten ikasleek lortzen dituzte puntuaziorik baxuenak konpetentzia guztietan.


Aiten kasuan gertatzen den moduan, ikasleen puntuazioetako alderik handienak amek oinarrizko ikasketak soilik eta unibertsitateko ikasketak egin dituztenen artean gertatzen dira. Bi talde horien artean 56 puntu arteko aldea nabarmendu da *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*; 52 puntukoa, *Matematikarako konpetentzian*; 44 puntukoa, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioaren konpetentzian*, eta 47 puntukoa, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*. Konpetentzia bakoitzean amen ikasketa mailaren araberrako puntuazio-aldeak estatistikoki nabarmenak dira.

Aitekin gertatzen den moduan, amek oinarrizko eta DBHko ikasketak dituzten ikasleak, ebaluatutako konpetentzietan, ez dira EAEko batez besteko puntuaziora iristen. Aldiz, amek Batxilergoko, LHko edo unibertsitateko ikasketak dituzten ikasleek EAEko batez bestekoa gainditzen dute lau konpetentzietan.

Hurrengo grafikoan, amen ikasketak mailaren arabera lau konpetentzietan ikasleek lortu dituzten emaitzak ikus daitezke:



133. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Amaren ikasketa maila eta ikasleek kompetentzien arabera izandako emaitza.



* Grafikoa eskala 200ean hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezten.

Gurasoen ikasketa maila kontuan hartuz, ikasleen puntuazioei dagokienez, honako hau nabarmendu behar da:

- Amek oinarrizko ikasketak soilik dituzten ikasleek lortu dituzte ebaluazioko puntuaziorik baxuenak konpetentzia guztietan, eta aitek ikasketa maila berbera duten ikasleek lortutako emaitzak baino nabarmen baxuagoak dira.
- DBHren baliokideak diren ikasketak egin dituzten amen kasuetan, seme-alaben emaitzak konpetentzia guztietan nabarmen baxuagoak dira ikasketa maila hori bera aitek duten kasuekin alderatuta. *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* kasuan ez da hori gertatzen; izan ere, ikasketa maila hori aitak edo amak izatearekin lotuta, ikasleen batez besteko puntuazioen arteko aldeak ez dira adierazgarriak.
- Biek, aitak eta amak, Batxilergoko, LHko edo unibertsitateko ikasketak egin dituztenean, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, seme-alaben puntuazioen arteko aldeak adierazgarriak dira estatistikoki. Aipatutako konpetentzian, amek unibertsitateko ikasketak dituztenean, ikasketa horiek aitek dituztenean baino emaitza hobek lortzen dituzte ikasleek. Ebaluatutako beste hiru konpetentzietan, aiten eta amen ikasketa mailetan, batez besteko puntuazioen arteko aldeak estatistikoki ez dira adierazgarriak.



5. Matematika arloko ikasgelako kalifikazioen eta Ebaluazio diagnostikoko emaitzen arteko korrelazioak

Ikasgelako kalifikazioen eta Matematikarako konpetentziako ebaluazioko errendimenduaren artean lotura positiboa dago. Ikasgelako kalifikazio altuari, ebaluazioan ere puntuazio altua dagokio.

Atal honetan, DBHko 2. mailako ikasleek 2011ko Ebaluazio Diagnostikoan lortutako emaitzak ikasle horiek berak joan den ikasturtean lortu zituzten azken kalifikazioekin erlazionatu nahi dira.

Ikastetxeetan egiten diren ohiko ebaluazioetako ikasleen errendimenduak kanpo ebaluazioan lortutakoarekin loturarik baduen jakitea da helburua. EDII edizio honetan, Matematika arloa aukeratu da berriz, hizkuntza-ereduek eraginik txikiena egin dielako eta aurreko ebaluazioarekin alderaketak ezartzea ahalbidetzen duelako.

Azterketa egiteko, ikasleek Matematika arloan izan dituzten kalifikazioak eta ikasleek aipatutako konpetentzian izan dituzten emaitzak hartu dira kontuan. DBHko 2. mailako ikasleen kasuan, ikasgaiak 0tik 10era arteko notarekin kalifikatzen dira. Azterketa errazte aldera, eta era berean Lehen Hezkuntzako emaitzekin alderaketa egin ahal izateko, kalifikazio horiek talde hauetan banatu dira:

Kalifikazio numerikoa	Kalifikazio orokorra
Puntuazioa 0tik 4ra	Gutxiegia
Puntuazioa: 5	Nahikoa
Puntuazioa: 6	Ongi
Puntuazioa: 7 eta 8	Oso ongi
Puntuazioa: 9 eta 10	Bikain

Hurrengo taulan, ikasleen ehunekoetan, Matematika arloan joan den ikasturtean izan zituzten ikasgelako azken kalifikazioak ageri dira:


Ikasleen ehunekoa eta ikasgelako kalifikazioak Matematikan

Kalifikazioa	%
Gutxiegia	% 10,4
Nahikoa	% 19,3
Ongi	% 18,1
Oso ongi	% 34,4
Bikain	% 17,8

Ikasmila honetako ikasleen ia erdien (% 52,2) arabera, oso ongi eta bikain kalifikazioak atera dituzte Matematikan. % 10,4k dio gutxiegia kalifikazioa lortu duela eta % 18 - % 19 inguruk ongi edo nahikoa, hurrenez hurren.



134. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa Matematikarako kompetentzian lortutako ikasgelako kalifikazioaren arabera.



a) Matematikako ikasgelako kalifikazioak geruzen arabera (ikastetxearen titulartasuna eta hizkuntza-eredua)

Hurrengo taulan geruza bakoitzeko ikasleek Matematika arloan izan zuten azken kalifikazioaren azterketa zehatza ageri da.

DBHko 2. mailako ikasleek Matematika arloan lortutako kalifikazioa. Ehunekoa geruzen arabera

	A publikoa	B publikoa	D publikoa	Itunpeko A	Itunpeko B	Itunpeko D
Gutxiegi	% 28,8	% 17,8	% 11,1	% 13,5	% 9,8	% 5,9
Nahikoa	% 20,8	% 21,7	% 18,7	% 20,1	% 21,5	% 17,5
Ongi	% 13,7	% 15,4	% 17,8	% 18,1	% 18,6	% 18,9
Oso ongi	% 20,5	% 27,7	% 33,3	% 31,3	% 33,7	% 39,5
Bikain	% 16,2	% 17,5	% 19,2	% 17,1	% 16,4	% 18,2

*ED/EE erantzun duten ikasleen ehunekorik ez da txertatu.

Geruzetako ikasleen ehunekoak eta kalifikazio bakoitzaren batez besteko ehunekoak alderatzen baldin badira, honako hau ondorioztatzen da:


- Geruza publiko guztiek eta itunpeko A geruzan *gutxiegi* kalifikazioa duten ikasleen ehunekoak batez besteko ehunekoa gainditzen du. Zehazki, A geruza publikoak 18,4 puntutan gainditzen du batez besteko puntuazioa. Itunpeko B eta D geruzek dute ikasgai hau gainditu ez duten ikasleen ehunekorik baxuena.
- Geruza guztiek, D eredu publikoak eta itunduak izan ezik, *gutxiegi* kalifikazioa lortu duten ikasleen ehunekoa zertxobait gainditu dute.
- *Ongi* kalifikazioa lortzen duen geruza publikoetako ikasleen ehunekoa kalifikazio hori duen ikaslearen batez besteko ehunekoaren azpitik dago.
- Matematikan *oso ongi* kalifikazioa lortu duten itunpeko D ereduko ikasleek % 5,4 puntutan gainditu dute batez besteko ehunekoa. Kalifikazio hori lortu duten gainerako geruzetako ikasleen ehunekoa batez besteko ehuneko puntuazioaren azpitik kokatzen



da eta A eta B geruza publikoak dira batez besteko ehunekotik gehien aldentzen direnak (% 13,9 eta % 6,7 hurrenez hurren).

- D geruza publikoak eta itunpeko D geruzak % 1,4 eta 0,4 puntutan gainditu dute (hurrenez hurren) Matematika ikasgaien *bikain* kalifikazioa lortu duten ikasleen batez besteko ehunekoa.

135. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Matematikan ikasgelako sailkapenaren arabera ikasleen ehunekoa, mailen arabera.



b) Ikasgelako kalifikazioen eta Ebaluazio diagnostikoko emaitzen arteko lotura

Matematika arloan oso ongi eta bikain kalifikazioak lortu zituzten ikasleak soilik iritsi dira -ikasleen % 52,2 inguru- konpetentzia honetako batez besteko puntuazioa gainditzera (250,7 puntu).

Ikasleak hainbat geruzari buruz emandako informaziotik abiatuta, 2011ko ebaluazioaren aurreko ikasturtean Matematika arloan lortutako kalifikazioaren eta bertan lortutako puntuazioen artean loturarik badagoen aztertzen da.

Hurrengo taulan, konpetentzia honetan ikasleek Matematikan lortu zuten ikasgelako kalifikazioaren arabera erdietsitako batez besteko puntuazioak ageri dira.

Ikasgelako kalifikazioa	Matematika-konpetentziako puntuazioa
Gutxiegi	209
Nahikoa	225
Ongi	240
Oso ongi	264
Bikain	290

Aurreko ikasturtean *oso ongi* eta *bikain* kalifikazioak lortu zituzten ikasleek soilik (% 52,2) gainditu dute konpetentzia honetako batez besteko puntuazioa (250,7 puntu). Aurreko ikasturtean Matematika arloan *ongi* kalifikazioa lortu zuten ikasleek 240 puntuko batez besteko puntuazioa lortu zuten Ebaluazio diagnostikoan. Puntuazio hori *nahikoa* kalifikazioa lortu zutela



esan zuten ikasleek lortutako 225 puntuak baino altuagoa da, baita *gutxiegia* lortu dutela diotenen lortutako 209 puntuak baino altuagoa ere.

Hurrengo taulan, Matematika arloan lortutako ikasgelako kalifikazioaren arabera *Matematikarako konpetentzian* geruza bakoitzeko ikasleek lortutako batez besteko puntuazioa ageri da:


Kalifikazioak Matematika arloan eta geruzen arabera emaitzak *Matematikarako konpetentzian*.

	A publikoa	B publikoa	D publikoa	Itunpeko A	Itunpeko B	Itunpeko D
Gutxiegia	182	199	211	213	216	217
Nahikoa	193	218	221	230	231	231
Ongi	192	227	236	247	247	248
Oso ongi	216	253	261	270	266	272
Bikain	246	271	288	298	291	299

Geruza bakoitza aztertu ondoren, ikasgelan lortutako kalifikazioen eta *Matematikarako konpetentziaren* ebaluazioan lortutako puntuazioen arteko erlazio positiboa nabari da. Horien guztien artean, honako hau ondorioztatzen da: ikasgelan zenbat eta kalifikazio altuagoa izan, Ebaluazio diagnostikoan orduan eta puntuazio altuagoa lortuko da.

Geruza guztietan, oso ongi eta bikain kalifikazioak lortzen dituztenak 250,7 puntuko batez bestekoaren gainera kokatzen dira, A geruza publikoan izan ezik; geruza horretan, bikain nota duten ikasleek ere ez dute batez bestekoa lortzen.

136. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Matematikako ikasgelako kalifikazioaren eta EDI In lortutako puntuazioen arteko harremana, geruzen arabera.



* Grafikokoaren eskala 160an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezten.



c) Ikasleen banaketa ikasleen kalifikazioaren eta *Matematikarako kompetentzian* lortutako kalifikazioaren arabera

Ikasgelako kalifikazioen eta Ebaluazio diagnostikoan lortutako batez bestekoen arteko korrelazioa positiboa da. Hala eta guztiz ere, ikasleen sakabanaketa ere ezagutu behar da bi aldagai kontuan hartuta: Matematika arloan duten ikasgelako kalifikazioa eta ebaluazioan lortutako puntuazioa.


Hurrengo taulak 5 pertzentilari eta 95 pertzentilari dagozkion puntuazioak erakusten ditu ikasgelako kalifikazio bakoitzean, baita batez besteko puntuazioa ere ikasgelako kalifikazioaren arabera:

	Batez bestekoa	5 pertzentila	95 pertzentila	p95-p5 tartea
Gutxiegia	208	145	286	141
Nahikoa	224	158	296	138
Ongi	240	169	311	142
Oso ongi	264	187	334	147
Bikain	289	192	362	170

Egiazta daiteke ikasgelako kalifikazio berbera duten ikasleen artean alde handiak daudela ebaluazioan lortutako puntuazioetan; horiek 170 puntu gainditzen dituzte. Esate baterako, Matematikan *gutxiegia* nota atera zuen ikasleen artean, 5 pertzentilean dagoen taldeak 145 puntuko batez besteko puntuazioa lortzen du eta 95 pertzentileko taldeak nabarmen gainditzen du batez bestekoa, 286 puntura iritsiz.

95 pertzentilaren eta 5 pertzentilaren arteko puntuazio-tarteak 137 gainditzen ditu kasu guztietan, eta 170 puntura iristen da *bikain* kalifikazioan. Alde horiek emaitzetan hedapen handia egotearen adierazleak dira, jarraian ageri den grafikoan adierazten den moduan:

137. grafikoa : ED11-DBHko 2. maila. Ikasgelako sailkapenen arabera, matematika-gaitasunean ikaslearen puntuazioen sakabanatzea.



* *Grafikoaren eskala 100ean hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezten.*

Grafikoak erakusten du ikasgelako kalifikazio berberaren baitan oso sakabanaketa zabala gertatzen dela ikasleen artean. Esate baterako, *nahikoa* ikasgelako kalifikazioa lortu duen taldearen artean 138 puntuko aldea dago ebaluazioan; hau da, ikasgelako kalifikazio hori duen ikasle batek 224 puntuko batez besteko puntuazioa lortu du ebaluazioan, beste bat 296 puntura



iritsi da, 250,7 puntuko batez besteko orokorra nabarmen gaituz, eta beste batzuek 158 puntu soilik lortu dituzte; puntuazio hori batez bestekoaren azpitik dago nabarmen.

Ondorioz, ikasgelako kalifikazioen eta *Matematikarako konpetenziaren* ebaluazioko errendimenduari artean lotura positiboa egon ohi den arren, ikasgelako kalifikazioa ez du beti ondo bereizten; izan ere, zenbait ikasleren puntuazioak ez datoz bat. Bat baino gehiago dira sakabanaketa hori azal dezaketen hipotesiak; kalifikazio berbera lortzeko ikastetxeen eskakizunak desberdinak izateagatik izan liteke, edo bestela, ikasle bakoitzari dagokion ikasgelako taldearen ezaugarriak kalifikazio jakin bat lortzeko garaian eragina izan dezakeelako.

d) Ikasgelako kalifikazioaren eta ikasleak eskolatuta dauden taldearen arteko lotura

Ikaslea eskolatuta dagoen taldearen maila akademikoak ikasleak ikasgelan lortutako kalifikazioak baldintzatzen ditu; izan ere, irakasleek ikasgelan ikasleen artean egon ohi den sakabanaketa egokitzeko joera izan ohi dute eta beren ebaluazio-irizpideak taldeari egotzen zaion erdi-mailara egokitzen ditu.

Ikasmaita errepikatzearen gainean egindako azterketak¹⁴ agerian jarri zuen ikasgela batekoa edo bestekoa izateak emaitzetan duen eragina. Azterketa honek Matematikako ikasgelako kalifikazioak DBHko 2. mailako ikasleek TIMSS 2007an lortutakoekin lotzen zituen. Egoera hori bera nabarmendu zen aurreko Ebaluazio diagnostikoetan (ED09 eta ED10) egindako azterketan ere.

Azterketa hori egiteko eta ikasle bakoitzaren taldeak ikasgelako kalifikazioetan zer eragin duen jakiteko, DBHko 2. mailako ikasgela edo talde guztiak kuartiletan banatu dira, 2011ko Ebaluazio diagnostikoan lortutako puntuazioen arabera. Hori dela eta, 1. kuartilean egon ohi da taldeen % 25 eta bertako ikasleek lortu dituzte emaitzarik baxuenak; 2. eta 3. kuartiletan daude ikasleen % 50 (% 25 bakoitzean), eta ebaluazioan emaitza altuagoak lortu dituzte; azkenik, 4. kuartilean daude taldeen % 25; *Matematikarako konpetenziako* ebaluazioan azken horien emaitzak dira altuenak.


Kuartiletan bildutako puntuazioak joan den ikasturtean Matematikan lortutako ikasgelako kalifikazioekin alderatzen dira, jarraian modu grafikoan ageri den moduan.

1. kuartileko (ebaluazioan errendimendurik baxuena lortzen duen % 25) ikasleei dagokien lerro urdinari (beheko lerroa) arretaz begiratu gero, antzemango dugu *bikain* kalifikazioa lortzen dutenek ere ez dutela 250,7 puntuko batez besteko puntuazioa lortzen. Kuartil guztietan kokatutako eta *gutxiegi* edo *nahikoa* kalifikazioa lortu duten ikasleak ez dira iristen batez besteko puntuazio orokorra lortzera. Ongi kalifikazioko batez bestekoarekin batez besteko orokorra gaituzten duten ikasle bakarrak 4. kuartilari dagozkion taldekoak dira. Oso ongi eta bikain kalifikazioak lortu dituzten 2., 3., eta 4. kuartileko taldeek, kasu batzuetan neurri handi batean, *Matematikarako konpetenziako* batez besteko orokorra gaituztu du.

¹⁴ Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasturtea errepikatzeak duen eragina. 2009. ISEI-IVEI. www.isei-ivei.net



138. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Matematikarako kompetentziako emaitzak ikasgelako kalifikazioen arabera.



* Grafikoa eskala 180an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezela.

Datu horiek badirudi ostera ere berretsi egiten dituztela TIMMSetan parte hartu zuen populazioarekin ikasmaita errepikatzeari buruz egindako azterketaren emaitzak¹⁵. Grisayren ikerketen tesia¹⁶ ere berretsi dute; horren arabera, ikaslea eskolatuta dagoen taldearen mailak ikasleak ikasgelan lortzen dituen kalifikazioak baldintzatzen ditu; izan ere, irakasleak ikasgelaren baitan dagoen sakabanaketa egokitzeko joera izan ohi du eta ebaluazio-irizpideak ikasgelako taldeari esleitzen dizkion mailara egokitzen ditu. Hori dela eta, Ebaluazio diagnostikoko emaitza berberak ikasgelako kalifikazio desberdinak izan ditzake, ikaslearen taldeari ematen zaion esleipenaren arabera, maila altukotzat hartzearen edo maila baxuagokotzat hartzearen arabera.

¹⁵ Op. Cit.

¹⁶ Grisay Aletta. 1984. "Les mirages de l'évaluation scolaire (I) - Rendement en français, notes et échecs à l'école primaire". Revue de la Direction de l'Organisation des Études, XIX





6. Familiaren jatorria: jatorri atzerritarra duten ikasleak

Jatorriz atzerritarra diren ikasleak (ebaluatutako ikasle guztien % 8,3) batez bestekoa baino puntuazio baxuagoak lortzen dituzte konpetentzia guztietan, batez ere Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren kasuan. Jatorriz atzerritarra diren ikasleen % 57 inguru ikasle etorkinen bat duten 269 ikastetxeetatik 50etan dago eskolatuta.

Ikasle etorkinen pilaketa handiagoak edo txikiagoak ez du eraginik bertako ikasleen eta ikasle etorkinen Matematikarako konpetentziaren emaitzetan. ISEK da bi populazioen puntuazioetan eragin gehien duen aldagaia eta eragin handiagoa du bertako populazioarengan etorkinen kasuan baino.

Etorkinen populazioaren ehuneko handiena ISEKeko maila baxuetan dago.

Aipatu dugun moduan, 2011ko Ebaluazio diagnostikoan Euskadiko ikastetxe guztietako DBHko 2. mailako ikasle guztiek hartu dute parte. Hala eta guztiz ere, oso egoera berezietan, horien artean betebeharrak jakin batzuk betetzen ez zituen hezkuntza-sisteman sartu berri den ikasle etorkinarekin lotutakoetan, salbuespenak egin dira parte-hartzearen baldintzetan.

Ikasle etorkinaren kategorizazioa ikasleak galdera-sorta betetzean eskaintzen zuen informaziotik abiatuta egin da. Hala eta guztiz ere, ikastetxeak aurretik eskaini zituen hezkuntza-sistema horretan eskolatuta urtebete baino gutxiago zeramaten eta bi hizkuntza ofizialetako bat ezagutzen ez zuten ikasle etorkinei buruzko datuak. Informazioa ez da beti bat etorri ikaslearen galdera-sortan bildutakoarekin. Desadostasuna egonez gero, ikastetxeak eskainitako informazioa hartu da erreferentzia gisa.

Ikasle etorkinari buruzko datuak aztertzeko, ebaluazio honetan, irizpide hauek hartu dira kontuan:

- Jatorriz atzerritarra izanik, hezkuntza-sisteman sartu berri den (urtebete baino gutxiago) eta probaren aplikazioko hizkuntza (euskara edo gaztelania) ezagutzen ez dituen ikaslea. Kasu horietan, probak ikastetxe bakoitzaren irizpidearen arabera egin ahal izan ditu, baina emaitzak ez dira taldearen eta ikastetxearen batez bestekoan sartu.
- Jatorriz atzerritarra izanik, hezkuntza-sisteman sartu berri den (urtebete baino gutxiago) ikaslea; horren etxeko hizkuntza gaztelania da. Kasu horietan, emaitzak taldearen eta ikastetxearen batez bestekoan sartu dira, probako hizkuntza gaztelania izanez gero, betiere.
- Jatorriz atzerritarra den ikaslea, gurasoetako bat edo biak jatorri bereberkoak izanik. Ikasleak urtebete baino gehiago baldin badarama eskolatuta, horren puntuazioak taldearen eta ikastetxearen batez bestekoan sartu dira.

Beraz, atal honetan deskribatzen diren datuak ebaluazioa egin zen unean DBHko 2. maila egiten ari ziren eta gutxienez proba batean parte hartu duten etorkin guztiak kontuan hartuta eman dira. Hala ere, zenbaitetan, proban parte hartu arren, emaitzak ez dira puntuazio orokorrean sartu.



a) Emaitza orokorrak aldagai batzuen arabera

Ikasmila honetan (DBHko 2. maila), ikasle etorkinen guztizko kopurua **1.515** ikaslekoa da, hau da, populazio osoaren % 8,3koa. Horien artetik, 882, hau da % 58,2, titulartasun publikoko ikastetxeetan daude eskolatuta, eta 633, hau da, % 41,8, itunpeko ikastetxeetan.

Geruzen arabera, DBHko 2. mailako ikasle etorkinak honela banatzen dira:

Ikasle etorkinak geruzen arabera. DBHko 2. maila											
A publikoa		B publikoa		D publikoa		Itunpeko A		Itunpeko B		Itunpeko D	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
467	% 47,7	142	% 15,4	273	% 4,1	229	% 13,9	288	% 6,8	116	% 2,9
Sare publikoan dauden ikasle etorkinak, guztira: 882						Itunpeko sarean dauden ikasle etorkinak, guztira: 633					
Ikasle etorkinak, guztira: 1.515											

Hizkuntza-ereduak aztertzean, ondoriozta daiteke ikasle etorkinen erdia baino gehiago (% 45,9) A eremuan eskolatuta dagoela; % 28,4 B eremuan, eta % 25,7 D eremuan eskolatuta dago.

Ikasle etorkinak eta eskolatzere-ereduak					
A eredia		B eredia		D eredia	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
696	% 45,9	430	% 28,4	389	% 25,7
Ikasle etorkinak, guztira: 1.515					

Ikasle etorkinen artean, mutilen eta nesken ehunekoa oso antzekoa da:

Neskek		Mutilak	
Kopurua	%	Kopurua	%
752	% 49,6	763	% 50,4

Ikasleen jaiotza-urtearen arabera, ikaslea adin-egokitasun egoeran dagoen ondorioztatu ahal izango da; hau da, adinaren arabera dagokion ikasmilan dagoen edo ikasmila akademikoren bat errepikatu duen. Ikasle etorkinen kasuan, adinari dagokion atzerapena eskolatzere berantiarrengatik, hezkuntza-sistemen arteko egokitzapenean izandako zailtasunengatik edo ikasmilaren bat errepikatu izanagatik gerta zitekeen:

Ikasle etorkinen jaiotza-urtea		
Jaiotze-urtea	Kopurua	%
1997 (adin-egokitasuna)	673	% 44,4
1996	570	% 37,6
1995	265	% 17,5

Adin-egokitasun egoeran, hau da, beren adinari dagokion ikasmilan dauden ikasle etorkinak ez dira erdira ere iristen (% 44,4); Horien artetik % 37,6k ikasmila akademikoko errepikatu du edo ikasmila bat geroago hasi zen eskolan. % 17,5 inguruk bi ikasmila akademikoko atzerapena darama bere adinarekiko.



Zehazki etorkinen populazioan oinarritutako azterketaz gain, beste azterketa batek ere talde honen emaitzak eta ezaugarriak 2011ko Ebaluazio diagnostikoan parte hartu duen DBHko 2. mailako eskola-populazio osoarekin alderatu nahi ditu.

Jakinarazi den moduan, 1.515 ikasle etorkin daude, eta ikasmila hau osatzen duen populazio osoaren % 8,3 dira. Etorkinen populazioa eta bertakoa honela banatuta daude geruza desberdinetan:

Etorkinen populazioaren eta bertakoenen ehunekoak geruzen arabera

	Bertako populazioa		Etorkinak	
	Kopurua	%	Kopurua	%
A publikoa	512	% 52,3	467	% 47,7
B publikoa	781	% 84,6	142	% 15,4
D publikoa	6.313	% 95,9	273	% 4,1
Itunpeko A	1.414	% 86,1	229	% 13,9
Itunpeko B	3.923	% 93,2	288	% 6,8
Itunpeko D	3.821	% 97,1	116	% 2,9
Guztira:	16.764	% 91,7	1.515	% 8,3

Geruzak aztertzean, nabarmendu behar da jatorri etorkineko populazio handiena duten ikastetxeak A eta B geruza publikoetakoak (% 47,7 eta % 15,4 hurrenez hurren), eta itunpeko A geruzakoak (% 13,9) direla. D geruza publikoa eta itunpekoa dira maila honetan etorkinen populazio txikiena eskolatzen dutenak (% 4,1 eta % 2,9 hurrenez hurren).

Hezkuntza-sistemako ikastetxe desberdinetan ikasmila honetako ikasle etorkinen banaketari dagokionez, nabarmendu behar da hiru lurraldeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskaintzen duten 330 ikastetxeen artetik, ikasle etorkinak 269 zentrotan daudela eskolatuta. 61 ikastetxek ez dute ikasle etorkinik. Ikastetxeetan, ikasle horien ehunekoak, askotan, familia-etorkinen bizilekua ikastetxeetatik urrunago edo hurbilago egoteak eragin dezake.

Hala eta guztiz ere, datu orokor horiek ez dute ikasle etorkinak eskolatzeari buruzko errealitatearen irudi osoa eskaintzen. Errealitate hau hobeto ulertzeko, ikasleek ikastetxeetan duten banaketa kontuan hartuta aztertu behar da errealitatea: modu orekatuan banatzen diren, edo alderantziz, ikastetxe kopuru jakin batean pilaketa handia dagoen.

Etorkinen populazio osoa ikastetxeetan banatzea.

Ikasle etorkinak eskolatzen dituzten ikastetxe kopurua	Ikasle etorkinen guztizko ehunekoak
10	% 23,10
23	% 37,95
50	% 56,83
95	% 74,59

Aurreko taulako datuak metagarriak dira, hau da, bi muturrak erreferentzia gisa hartuta, ikus daiteke ikasle etorkinak dituzten 269 ikastetxeen artetik 23tan ikasle horien % 38 inguru eskolatzen direla; horien ia % 57 50 ikastetxetan biltzen da eta 95 ikastetxetan (horietan, aurrekoak daude sartuta) banatzen da DBHko 2. mailako ikasle etorkinen % 74,6.



Era berean, eskolatan diren ikastetxeetako ikasle-proporzioa aztertuz, ondoriozta daiteke bakoitzean dagoen ehunekoak ez dela homogenea; nabarmen aldatzen da, taula honetan datuek erakusten duten moduan:

Ikastetxe kopurua, eskolatutako ikasle etorkinen ehunekoaren arabera

Ikastetxeen kopurua, ikasle etorkinen eskolatzaren ehunekoaren arabera	Ikasle etorkinen ehunekoa ikastetxeetan
239	% 10 baino gutxiago
49	% 10 eta % 20 artean
16	% 20 eta % 30 artean
11	% 30 eta % 40 artean
4	% 40 eta % 50 artean
8	% 50 eta % 60 artean
3	% 60 baino gehiago

Ikasle etorkinen ehuneko handieneko DBHko ikastetxeen artean ikus dezakegunez, haietako hirutan, ikasleen % 60 baino gehiago da etorkina; eta 8 ikastetxetan, aldiz, ikasleen % 50-% 60k du jatorri hori.

- **Ikasle etorkinen eta bertakoen emaitzen arteko alderaketa**

Ebaluatutako konpetentzia guztietako probetan parte hartu zuten ikasle etorkinen puntuazioak kasu guztietan ez ziren ikasleen batez besteko orokorrean sartu. 1.515 ikaste etorkinetatik 788k 4 konpetentzien ebaluazioa egin zuten.

Hurrengo taulan, proba bakoitzean parte hartu zuten eta konpetentzia bakoitzeko batez besteko orokorrean sartu ziren ikasle etorkinak eta bertakoak ageri dira. Horrez gain, bakoitzean etorkinek eta bertako ikasleek lortutako batez besteko puntuazioa ere ikus daiteke.

Ikasle etorkinen eta bertakoen konpetentzia bakoitzeko emaitzak.

	Etorkinak		Bertako populazioa	
	Kopurua	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Kopurua
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia</i>	839	207	258	15.160
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia</i>	1.283	229	257	15.357
<i>Matematikarako konpetentzia</i>	1.289	212	254	15.401
<i>Ingeleseazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.</i>	1.287	214	253	15.372

Ikus dezakegunez, ebaluatutako konpetentzia guztietan, ikasle etorkinek bertakoek baino emaitza okerragoak izan dituzte eta aldeak adierazgarriak dira.




- **Errendimendua ikastetxeko ikasle etorkinen ehunekoaren arabera**

Hau da zenbait ikerketatan eta ebaluazio-txostenetan mahai gainean jartzen den gaia: ikastetxe batean etorkin asko biltzeak emaitzetan eragina duen eta atalase batetik aurrera ikastetxeko emaitzak okertu egiten diren. Horrenbestez, azterketa honekin, ikasle etorkinen pilaketak banako mailan eta ikastetxe mailan duen eragina eman nahi dugu ezagutzera.

Hurrengo grafikoan, ikastetxeen ehunekoa ikus dezakegu bertan eskolatutako ikasleen ehunekoaren arabera:

139. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ikastetxe kopurua, bertan eskolatutako ikasle etorkinen ehunekoaren arabera.




Grafikoan ikus dezakegenez, ikastetxeen % 72,4k ikasle etorkinen % 10 baino gutxiago du eskolatuta (ehuneko horretan sartuta daude ikasle etorkinik ez duten ikastetxeak) eta ikastetxeen % 12,6an ikasle etorkinen % 20 baino gehiago dago eskolatuta.

Informazio hori osatzeko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskaintzen duten eta 2011ko Ebaluazio diagnostikoan parte hartu duten 330 ikastetxeetako ikasle etorkinen populazioa ikus dezakegu:




140. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ikastetxe eta bertan eskolatutako ikasle etorkinen ehunekoa.



Ikus dezakegenez, EDII n parte hartu duten 330 ikastetxeen artean, 61ek ez du maila horretan ikasle etorkinik; 227 ikastetxetan, ikasleen populazioaren % 20 arte da etorkina; 42 ikastetxetan, ikasleen % 20 baino gehiago da etorkina; eta, haietatik, 15 ikastetxetan, ikasleen % 40k baino gehiagok du jatorri atzerritarra.

Jarraian, Ebaluazio diagnostikoaren edizio honetan, *Matematikarako konpetentzian*, ikastetxeko errendimenduko erdi-mailan eskolatutako jatorri etorkineko ikasleen ehuneko altuagoak edo baxuagoak duen eragina aztertzen da.

141. grafikoa: EDII-DBHko. 2. maila. Ikastetxearen *Matematikarako konpetentziako* batez besteko emaitzak populazio etorkinen ehunekoaren arabera.




* Grafikoa eskala 180an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezten

Grafikoan ikus daitekeen moduan, *Matematikarako konpetentziako* batez besteko puntuazioak murriztu egiten dira ikasle etorkinen ehunekoak gora egiten duen heinean. Ikasle etorkinen % 0 eta % 10 artean eskolatuta duten ikastetxeen eta ikasleen % 40 baino gehiago eskolatuta duten ikastetxeen batez bestekoen artean, 55 puntuko aldea dago.

Hurrengo grafikoan, *Matematikarako konpetentzian* bertako ikasleek eta ikasle etorkinek lortutako emaitzak ageri dira ikastetxean eskolatuta dagoen ikasle etorkinen ehunekoaren arabera:



142. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Matematikarako kompetentziako emaitza ikastetxeko ikasle etorkinen ehunekoaren arabera.



* Grafikoa eskala 180an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezzen

Ikus dezakegunez, oro har, ikasle etorkinen ehunekoak gora egiten duen neurrian, bertako ikasleen eta ikasle etorkinen puntuazioak behera egiten du *Matematikarako kompetentzian*. Zenbat eta handiagoa izan ikastetxeetako ikasle etorkinen kontzentrazioa, orduan eta txikiagoak dira bertako ikasleen eta ikasle etorkinen arteko puntuazioetan dauden aldeak.

- **Ikasle etorkinen ehunekoak eta ISEKek Matematikarako kompetentziako emaitzetan duen eraginari buruzko azterketa**

Lehen aipatu dugun moduan, zenbait ikerketatan (Calero 2010, 28)¹⁷ eta ebaluazio-txostenetan mahai gainean jartzen diren galderak hauexek dira: ikastetxe batean etorkin asko biltzeak emaitzetan eragina duen eta atalase batetik aurrera (ikerketa batzuek % 20an kokatzen dute) ikastetxeko emaitzak okertu egiten diren.

Orain arte ikusi dugu ikasle etorkinek bertako ikasleek baino emaitza nabarmen baxuagoak lortzen dituztela eta ikastetxe batean etorkinen ehunekoak gora egin ahala, bi populazioen emaitzek okerrera egiten dutela.

Jarraian, ikasle etorkinen pilaketa handiak ikasleen emaitzetan eraginik izango duen aztertzen da ("ikaskidearen efektua" deitzen zaiona) edo gorabehera hori duten ikastetxeetako emaitza baxuak beste aldagai batzuekin lotuta dauden.


Hurrengo grafikoan, ikasle guztien emaitzak ageri dira eta ikasle etorkinek lortutako (puntu berdeak) eta bertako ikasleek (puntu laranja) lortutako artean bereizten dira; horrez gain, ikasle bakoitzaren banakako ISEKekin duten lotura ere ageri da.

Erregresio-zuzena adierazten duten lerro diagonal etenek, *Matematikarako kompetentzian*, esperotako emaitzak erakusten dituzte bi taldeetarako, ISEK maila kontuan hartuta.

¹⁷ Calero, Jorge (2010). El rendimiento educativo del alumnado inmigrante analizado a través de PISA 2010. Colección Creade nº 5. Ministerio de Educación, Madrid.




143. grafikoa: ED II-DBHko 2. maila. Banakako ISEK eta ikasleen emaitzen arteko lotura Matematikarako kompetentzian.



Grafikoan ikus dezakegunez, ikasle etorkinen pilaketa handiena batez bestekoa baino baxuagoa ISEK mailetan gertatzen da (beheko ezkerreko koadrantea). Bertako ikasleek edo ikasle etorkinek lortutako emaitzei dagokienez, ondoriozta daiteke ISEK maila zenbat eta baxuagoa izan, emaitzak orduan eta baxuagoak direla, baina bi taldeetan, ISEKeko maila baxua duten ikasleak eta emaitza onak ere badaudela ikus dezakegu. Horrez gain, emaitza onak eta txarrak lortu dituzten eta batez bestekoaren gainetik dauden ISEKeko mailak dituzten ikasle etorkinak eta bertakoak daudela ikus dezakegu. Horrenbestez, ISEK berberaren baitan, ikasle etorkinen eta bertakoen kasuan, puntuazioen sakabanatze handia dagoela ondoriozta dezakegu.

Jarraian azaltzen den grafikoan, ikastetxeko batez besteko emaitzen eta ikasle etorkinen ehunekoaren (% 20 baino gutxiago eta % 20 baino gehiago) arteko erlazioa ikus dezakegu. Ardatz horizontalean, ikastetxeko ikasle etorkinen ehunekoa ageri da, eta bertikalean, ikastetxeko batez besteko puntuazioak *Matematikarako kompetentzian*.

144. grafikoa: EDII - DBHko 2. maila. Ikasle etorkinen ehunekoaren eta ikastetxeko batez besteko puntuazioaren arteko lotura *Matematikarako konpetentzian*.



Ikus daitekeen moduan, ikastetxeen pilaketa handiena ikasle etorkinen % 20 baino gutxiago dutenen artean gertatzen da. Lerro gorri jarraituaren (erregresio-zuzena) inklinazioak adierazten du esperotako emaitzek behera egiten dutela ikastetxeetako ikasle etorkinen ehunekoak gora egin ahala. Etorkinak % 20 baino gehiago diren ikastetxeen kasuan, nahiz eta batzuk esperotako emaitzen gaitetik dauden, haietako 5 bakarririk daude EAEko ikastetxeen batez bestekoaren gaitetik.


145. grafikoa, bertako ikasleen ikastetxeko puntuazioaren eta kolektibo horren ikastetxeko batez besteko ISEKaren arteko erlazioa azaltzen da *Matematikarako konpetentzian*. Hau da, emaitza horietatik ikasle etorkinek lortutakoak eta haien ISEK kendu dute eta bertako ikasleek lortutako emaitzak eta haien ISEKeko batez bestekoa soilik utzi dute.

Laranja koloreko puntuek guztizko ikasleen % 20 baino gutxiagoko ikasle etorkinen ehunekoa eskolatzen duten ikastetxeek ordezkatzten dute. Biribil berdeek % 20 baino ikasle etorkin gehiago dituzten ikastetxeak ordezkatzten dituzte. Lerro inklinatu gorriak *Matematikarako konpetentzian* bertako ikaslearentzat esperotako emaitzak erakusten ditu, ikasle horien ISEK-en batez besteko mailaren arabera.

Ikasleak erregresio-zuzenaren inguruan pilotzeak (esperotako emaitzak) esan nahi du ikastetxeetan etorkin jatorriko ikasleak pilotzeak ez diela itxuraz bertako gelakideen emaitzari eragiten; izan ere, puntuazioak haien maila sozioekonomikoari eta kulturalari lotuta daude.




145. grafikoa: ED11- DBHko 2. maila. ISEK eta bertako ikasleen Matematikarako konpetentziako emaitzen arteko harremana ikastetxeko etorkinen ehunekoaren arabera.



Jarriaian, azterketa berbera egin da ikasle etorkinen pilaketak *Matematikarako konpetentziako* haien emaitzetan eraginik baduen jakiteko. Kasu honetan, aurreko grafikoa ez bezala, bertako ikasleen puntuazioak eta ISEK kendu dituzte ikasle etorkinen egoera modu eksklusiboan aztertu ahal izateko.

146. grafikoa: ED11- DBHko 2. maila. ISEK eta ikasle etorkinen Matematikarako konpetentziako emaitzen arteko erlazioa, ikastetxeko ikasle etorkinen ehunekoaren arabera.





Ikus dezakegunez, etorkinen kontzentrazio handiagoko ikastetxeetako ISEKaren arabera esperotako puntuazioak (lerro diagonal eten berdea) eta ikasle horien kontzentrazio txikiagoa duten ikastetxeenak (lerro inklinatu eten laranja) antzekoak dira; izan ere, bi lerroak asko gerturatu dira eta erregresio-zuzenarekin ere gainezarrira daude (ISEKaren arabera, ikasle guztietarako esperotako puntuazioak adierazten dituen lerro gorria). Horrek agerian uzten duenez, ikasle etorkinen pilaketa ez da populazioaren emaitzetan eragina izan duen aldagaia; izan ere, kontuan hartu behar da lehen aztertu dugun bertako ikasleen kasuan bezalaxe, ISEKek ere eragina duela. Dena den, kasu honetan, bi aldagaien arteko erlazioa (emaitzak eta ISEK) ahulagoa da.


Horrenbestez, 145. eta 146. grafikoetan ikus daitezkeen moduan, ikasle etorkinen ikastetxeko pilaketaren aldagaiak ez dirudi bertako ikasleek eta etorkinek *Matematikarako kompetentzia* lortutako emaitzetan eragina duenik; izan ere, eragina duena ISEK dela dirudi, baina hori nabarmenagoa da bertako ikasleen kasuan etorkinenean baino; izan ere, lehen kasuan, erregresio-zuzenak bigarrenarenak baino askoz ere okerragoak dira.

Portaera hori ez dator erabat bat Lehen Hezkuntzan gertatzen denarekin eta F. Lunak¹⁸ emandako hitzaldian adierazitakoarekin; izan ere, bi horietan ondoriozta dezakegunez, ikasle etorkinen pilaketak ez dirudi eragina duenik bertako ikasleen *Matematikarako kompetentziako* emaitzetan, itxuraz, eragin handiagoa baitu ISEK mailak. Aldiz, ikasle etorkinen kasuan, egoera ezberdina da eta ikasle etorkinen emaitzek ez dute loturarik haien ISEK mailarekin.

b) Ikasle etorkinen emaitzen bilakaera

Ebaluazio diagnostikoak hirugarren urtez egingo dira, eta beste datu batzuekin egin den moduan, litekeena da atzeritar jatorriko ikasleen errendimenduak zer bilakaera duen ikustea.

147. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11 bilakaera. Ikasle etorkinen kompetentziako emaitzak.



* Grafikoaren eskala 160an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezzen

¹⁸ Deustuko Unibertsitatea (2011). Rendimiento educativo del alumnado inmigrante en las evaluaciones del Sistema Educativo Vasco (87-107. orrialdeak). Hizkuntzak, Curriculum eta Ikasle Etorkinei buruzko III. Jardunaldietan aurkeztutako hitzaldien baitan. Deustuko Unibertsitatean Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin batera egindakoak.




Oro har, *Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietako* emaitzetan hobekuntza adierazgarria izan da, bai euskaraz, bai gaztelaniaz. Aldiz, *Matematikarako konpetentziako* batez besteko puntuazioa bere horretan mantendu da ED10eko emaitzekin alderatuta, eta 3 puntu gutxitu da ED09arekiko. Dena den, jaitsiera hori ez da estatistikoki adierazgarria.

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren kasuan, talde horren bilakaera populazio osoan gertatu denarekin bat dator; hobekuntza nabarmena izan da. *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* kasuan, populazio horren puntuazioa handitu egin da hiru Ebaluazio diagnostikoetan, baina gainerako populazioaren kasuan, aldiz, ED10etik ED11ra bitarteko batez besteko puntuazioan jaitsiera adierazgarria gertatu da. *Matematikarako konpetentzian*, bertako populazioaren batez bestekoa bere horretan mantendu da egindako hiru Ebaluazio diagnostikoetan, eta populazio etorkinaren kasuan, aldiz, konpetentzia horretako batez besteko puntuazioan gertatu diren aldaketak ez dira estatistikoki adierazgarriak.

Hurrengo grafikoan, populazio etorkinak eta bertakoak lortutako batez besteko emaitzetan gertatu diren aldeak bilakaera ikus dezakegu hiru Ebaluazio diagnostikoetako emaitzak aztertuta (ED09, ED10 eta ED11):

148. grafikoa: DBHko 2. maila. ED09-ED10-ED11. Etorkinen eta bertakoen emaitzen arteko puntuazioen aldeak bilakaera.



Ikus dezakegunez, *Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, bertako populazioak eta populazio etorkinak lortutako emaitzetan dauden aldeak gutxitu egin dira Ebaluazio diagnostikoaren hiru edizioetan. Dena den, *Matematikarako konpetentzian*, alde hori handitu egin zen ED09ko eta ED10eko emaitzak alderatzen baditugu, baina igoera oso txikia izan da ED10aren eta ED11ren artean. Hamartarrak aintzat hartzen baditugu, aldearen igoera 0,6 puntukoa izan da.

c) Ikasle etorkinei emandako hezkuntza-erantzunari buruz ikastetxeek duten pertzepzioa

Zuzendaritza-taldeei galdera-sorta honetan proposatutako alderdietako bat DBHko etapan haien ikastetxean ikasle etorkinei eman ohi zaien erantzunari buruz duten iritzia ingurukoa izan da. Galdera horiei erantzun dieten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe kopurua 329koa izan da. Zuzendaritza-taldeen % 76,2ren ustez, ikasle etorkinek dituzten



hezkuntza-beharrekin lotuta haien ikastetxeetan eskaintzen duten hezkuntza-trataera nahiko egokia edo oso egokia da.

Ikasle etorkinen hezkuntza-beharrei ematen zaien trataera

Ez da egokia	Ez da oso egokia	Nahikoa egokia	Oso egokia	EE/ED
% 1,8	% 10,9	% 57,4	% 18,8	% 10,9

Hurrengo taulan ikasle etorkinei emandako hezkuntza-erantzunarekin lotuta irakasleen prestakuntza mailaren inguruan zuzendaritza-taldeek duten iritziaren ehunekoak ikus ditzakegu. % 51ren ustez, prestakuntza maila ona edo oso ona da; aldiz, % 37k baino zertxobait gehiagok uste du oso txarra edo txarra dela:

Irakasleen prestakuntza maila

Oso txarra	Txarra	Ona	Oso ona	EE/ED
% 4,0	% 33,1	% 45,9	% 5,2	% 11,9

Hurrengo taulan, ikastetxeetako ikasle etorkinen egokitzapenarekin lotuta zuzendaritza-taldeek dituzten iritziaren ehunekoak ikus ditzakegu. Zuzendaritza-taldeek % 84k baino zertxobait gehiagok uste du ikasle etorkinak ondo edo oso ondo egokitu direla.

Ikasle etorkinen egokitzapena

Oso gaizki	Gaizki	Ongi	Oso ongi	EE/ED
% 0,6	% 5,5	% 62,9	% 21,3	% 9,7

Jarraian, ikasle etorkinen eskolako integrazioan eraginik handiena duten alderdietako batzuk zein diren azaltzeko zuzendaritza-taldeek emandako iritzia ikusiko dugu.

Ikasle etorkinen integrazioan eragin handiena duten aldeak

	Batere ez	Gutxi	Nahikoa	Asko	EE/ED
Aldeak hizkuntzan	% 4,3	% 14,3	% 26,1	% 47,7	% 7,6
Alde kulturalak	% 6,1	% 33,7	% 33,4	% 18,8	% 7,9
Beren herrialdeko ikasketa mailan aldeak	% 3,3	% 12,5	% 37,4	% 38,9	% 7,9
Alde erlijiosoak	% 35,3	% 41,9	% 9,4	% 1,5	% 11,9

Zuzendaritza-taldeek ustez, ikasle etorkinen integrazioan eragin handiena duten aldeak hizkuntzarekin eta beren herrialdeko ikasketa mailarekin lotutakoak dira. Aldiz, eragin txikiak erlijiosoak dira.





7. Ikasleen aurreikuspen akademikoak

Ikasleek haientzat dituzten ikasketa-aurreikuspenen eta Ebaluazio diagnostikoan dituzten emaitzen arteko harremana positiboa da, zenbat eta aurreikuspen gehiago, emaitzak orduan eta altuagoak izango dira. 2009ko ebaluazioan aldagai honekin egindako egiaztapena berretsi da.

Orain arte egindako hainbat azterketak berresten dute ikasleen emaitzen eta ikasketen aurreikuspenen (bai ikasleak berak, bai bere familiak lortzea espero duten maila akademikoa) artean dagoen harreman positiboa:

DBH amaitzea		LHko heziketa-zikloa amaitzea		Batxilergoa amaitzea		Unibertsitatea amaitzea	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
1.491	% 8,7	2.142	% 12,5	1.857	% 10,8	11.365	% 66,1

**329 ikaslek, % 1,9k, ez daki edo ez du erantzuten*

DBHko 2. mailako ikasleen % 66 inguruk unibertsitateko ikasketak egiteko asmoa du; ehuneko hori ED09koaren antzekoa da. Ia % 11k Batxilergoa amaitzea pentsatzen du eta % 12,5ek Lanbide Heziketako heziketa-ziklo bat amaitzea. % 9k uste du derrigorrezko hezkuntza amaituko duela.

a) Ikasketa-aurreikuspenak eta ebaluazioan lortutako emaitzak

Amitzea espero duten ikasketen eta ebaluatutako konpetentzia bakoitzean lortutako puntuazioen arteko harremana hurrengo taulan eta grafikoan islatzen da:

Azterketa-aurreikuspenak eta ebaluazioan lortutako emaitzak

	DBH amaitzea	LHko heziketa-zikloa amaitzea	Batxilergoa amaitzea	Unibertsitatea amaitzea
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa</i>	225	237	245	265
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</i>	223	239	238	264
<i>Matematikarako konpetentzia</i>	216	232	237	261
<i>Ingeleseko hizkuntza-komunikazioa</i>	215	227	234	262


Ikus daiteke bateragarritasuna dagoela konpetentzia desberdinetan lortutako puntuazioen eta ikasleek lortu nahi dituzten ikasketa mailen artean. Ikasketa-aurreikuspenak zenbat eta altuagoak izan, orduan eta altuagoak izango dira konpetentzia guztietan lortutako batez besteko puntuazioak, gaztelanian izan ezik. Ikasgai horretan, puntu bateko alde dago LHko ziklo bat amaitzeko edo Batxilergoa ikasteko aurreikuspenak dituzten ikasleen artean, baina alde hori ez da adierazgarria.

Unibertsitateko ikasketak egin nahi dituen ikaslea batez bestekoaren gainetik kokatzen da konpetentzia guztietan.



Ikasleek ikasketa maila bat edo beste bat amaituko dutela esatearen arabera puntuazioen arteko alde guztiak adierazgarriak dira, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* izan ezik (LH edo Batxilergoa ikasteko aurreikuspenak).

149. grafikoa: EDII-DBHko 2. maila. Ikasketa-aurreikuspenak eta Ebaluazio diagnostikoan konpetentzien arabera izandako emaitzak.



*Ardatz bertikala 200ean hasten da, puntuazioetako aldeak nabariak izan daitezzen

b) ED09-EDII arteko alderaketa, ikasketa-aurreikuspenei eta emaitzei dagokienez

Hurrengo taulan, aldagai hau aztertu den bi ebaluazioetan lortutako emaitzak erakusten dira; egindako lehen ebaluazioari (ED09) eta edizio honetakoari (EDII) dagozkie:

Ikasketa-aurreikuspenak eta ebaluazioan lortutako emaitzak

	DBH amaitzea		LHko heziketa-zikloa amaitzea		Batxilergoa amaitzea		Unibertsitatea amaitzea	
	ED09	EDII	ED09	EDII	ED09	EDII	ED09	EDII
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa</i>	209	225	238	237	230	245	262	265
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</i>	210	223	238	239	225	238	263	264
<i>Matematikarako konpetentzia</i>	209	216	236	232	227	237	264	261
<i>Ingeleseko hizkuntza-komunikazioa</i>		215		227		234		262
<i>Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako</i>	206		239		226		264	

Ikus daitekeen moduan, Ebaluazio diagnostikoko bi edizioetan, unibertsitateko ikasketak amaitzea espero duten ikasleak soilik kokatzen dira batez bestekoaren gainetik. Bestalde, LHko ikasketak edo Batxilergoko ikasketak egitea espero duten ikasleen arteko batez bestekoaren jokaera desberdina izan da bi edizioetan. ED09an, oro har, LH ikastea espero zuten ikasleek



Batxilergoa amaitzeko aurreikuspenak zituztenek baino emaitza hobek lortzen zituzten, baina EDII n alderantzizkoa gertatu da.

Hurrengo taulan ikasmaita bat edo beste bat amaitzea espero duten ikasleen ehunekoak bilakaera adierazten da:

DBH amaitzea		LHko heziketa-zikloa amaitzea		Batxilergoa amaitzea		Unibertsitatea amaitzea	
ED09	ED11	ED09	ED11	ED09	ED11	ED09	ED11
% 9,9	% 8,7	% 11,8	% 12,5	% 11,5	% 10,8	% 66,8	% 66,1

Ikasleen ehunekoak zertxobait aldatu egiten dira bi Ebaluazio diagnostikoetan; ondorioz, esan genezake ikasleen aurreikuspenak antzekoak direla bi edizioetan (ED09 eta ED11).





8. Laneko ohiturak ikastetxetik kanpo

Egunero, ordubetez edo zertxobait gutxiagoz edo ordu bat eta bi ordu artean egiten dituzten ikasleek lortzen dituzte emaitzarik onenak konpetentzia guztietan. Bi ordu baino gehiago behar dituztela diotenak azpitik kokatzen dira berehala, Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian izan ezik. 2009ko Ebaluazio diagnostikoan gertatzen zen moduan, ez dituztela egiten dioten ikasleek lortzen dituzte puntuaziorik okerrenak.

Ikasketetan laguntzarik behar ez duten ikasleek lortzen dituzte puntuaziorik onenak ebaluazioan; jarraian, aitak edo amak laguntzen diotenak datoz jarraian.

Aldagai honen azterketarako informazioa ikasleek bete beharreko galdera-sortan bildutakotik dator. Hurrengo taulan ikasleen ehunekoak ageri dira, eskolaz kanpo etxerako lanak egiten pasatzen duten denboraren arabera:

Ez du etxerako lanik		Ez du etxerako lanik egiten		1 ordu edo gutxiago		1 eta 2 ordu artean		2 ordu baino gehiago	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
300	% 1,7	530	% 3,1	5.876	% 34,2	8.145	% 47,4	2.008	% 11,7

**325 ikaslek, % 1,9k, ez daki edo ez du erantzuten.*

DBHko 2. mailako ikasleen % 47,4k ordu bat eta bi ordu artean pasatzen du etxerako lanak egiten. % 1,7k dio ez duela etxerako lanik eta % 3,1k dio ez dituela egiten. ED09an, ehunekoak antzekoak ziren; hala ere, ED11koekin alderatuta, alderik handienak ikasketei ordu bat edo gutxiago (% 37,3) eskaintzen diela eta etxerako lanak bi orduz baino gehiagoz (% 10,5) egiten dituztela dioten ikasleen ehunekoan gertatzen da.

a) Etxerako lanak egiteari egunero eskaintako denbora eta ebaluazioan lortutako emaitzak

Orain arte egindako hainbat azterketa eta ebaluaziotan biltzen den moduan¹⁹, eskolaz kanpo etxerako lanak egiteari egunero eskaintako ordu kopuruak eragina du emaitzetan eta koefizientea negatiboa du. Hau da, egiaztatu da etxerako lanei egunero denbora jakin batetik aurrera eskaintzarekin emaitzak ez direla hobetzen. Gainera, oro har, etxerako lanak egiteari denbora gehiegi eskaintzen dioten ikasleek egunero arrazoizko denbora (ordu erdi, ordu bat edo bi ordu gehienez) eskaintzen diotenen baino puntuazio okerragoa lortzen dute.

Jarraian ageri diren grafikoan eta taulan biltzen den moduan, aipatutako azterketa eta txostenetatik ateratako ondorioak berresten dira Ebaluazio diagnostikoan.

Konpetentzia guztietan, etxerako lanak ez dituela egiten dioten ikasleek lortu dituzte puntuaziorik baxuenak. Etxerako lanak ez dituela dioten edo bi ordu baino gehiago eskaintzen dizkieten ikasleek ordubete edo gutxiago eta gehienez bi ordu eskaintzen dituztela diotenen baino puntuazioa baxuagoak lortzen dituzte. Azken kasu honetan, bada salbuespen bat, *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* kasua; izan ere, etxerako lanei bi ordu baino gehiago eskaintzen dizkien ikasleek ordu bat eta bi ordu artean eskaintzen dizkietenen

¹⁹ ISEI-IVEI. PISA 2003 Ebaluazioaren bigarren txostena. Emaitzak Euskadin. www.isei-ivei.net helbidean eskuragarri.

ISEI-IVEI. 2009ko Ebaluazio Diagnostikoa. Faktoreen azterketa eta Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako aldagaiak. Hemen eskuragarri: www.isei-ivei.net.




puntuazio berbera lortu dute. Dagoeneko aztertu dugun moduan, azken konpetentzia honetan, ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen duten ikasleek eta ondorioz konpetentzia honi denbora gehiago eskaintzen dienek alderantziz egiten dutenek baino puntuazio nabarmen altuagoak lortu dituzte, beste konpetentzietan eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen dutenek ez bezala.

Eskolaz kanpo etxerako lanei ordubate edo gutxiago eskaintzen dien ikasleek batez bestekoa baino altuagoko puntuazioak lortu dituzte *Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* eta *Matematikarako konpetentzian*. Bestalde, etxerako lanei 1 eta 2 ordu artean eskaintzen dizkien ikasleek batez bestekoak baino emaitza altuagoak lortu dituzte *Euskarazko eta ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*. Horiek guztiak estatistikoki adierazgarriak dira.

Emaitzak eta etxerako lanei egunero eskaintzen zaien denbora

	Ez du etxerako lanik	Ez ditu etxerako lanak egiten	1 ordu edo gutxiago	1 eta 2 ordu artean	2 ordu baino gehiago
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa</i>	251	227	258	258	251
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</i>	253	244	257	255	251
<i>Matematikarako konpetentzia</i>	256	232	253	252	247
<i>Ingelesezko hizkuntza-komunikazioa</i>	240	222	250	253	253

150. grafikoa: EDI I-DBHko 2. maila. Emaitzak eta eskolako lanei egunero eskaintzen zaien denbora.



***Ardatz bertikala 210ean hasten da, puntuazioetako aldeak nabariak izan daitezten.**

Etxerako lanei ordubate edo gutxiago edo ordubate eta bi ordu artean eskaintzen dien ikasleek konpetentzia guztietan EAEko batez bestekoaren gainetik kokatzen diren emaitzak lortzen dituzte. *Matematikarako konpetentziaren* kasuan, etxerako lanik ez duela dioten ikasleak emaitza altuagoak (256 puntu) lortu ditu, baina EAEko batez bestekoarekin alderatzean, puntuaren aldea estatistikoki ez da adierazgarria. Hori dela eta, etxerako lanak ordubatez edo gutxiagoz egiten dituela edo ordubate edo bi ordu eskaintzen dizkiola dioten ikasleak lortzen duen batez bestekoaren aldea estatistikoki ez da adierazgarria. Konpetentzia honetan etxerako



lanei ordubete edo gutxiago eta ordubete eta bi ordu artean eskaintzen dizkien ikasleen batez bestekoaren artean ez dago alde adierazgarriarik.

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, etxerako lanik ez dutela dioten ikasleen eta ordubete edo gutxiago, ordubete eta bi ordu artean edo bi ordu baino gehiago eskaintzen dioten ikasleen emaitzen aldeak estatistikoki ez dira adierazgarriak.

Ikasleek etxerako lanik ez dutela diotenean, ikastetxean eskolaz kanpo egiteko lanik emateko ohiturarik ez dutelako izan ohi da. Ikastetxe horietako ikasleek EAEko batez bestekoa baino emaitza baxuagoak lortzen dituzte konpetentzia guztietan, lehen aipatu den moduan, *Matematikarako konpetentzian* izan ezik.

b) Autonomia etxerako lanak egitean

Ikasleen galdera-sortan galdetu zaie ikastetxetik kanpo etxerako lanak egiteko norbaiten laguntzarik jasotzen duten, eta baiezko kasuan, nork laguntzen dien:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleen ehunekoa ikasketako autonomiaren arabera²⁰

Laguntzarik gabe		Irakasle partikularra		Akademia batera joan		Aita/amaren laguntza		Anai/arrebaren laguntza		Beste pertsona batek	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
10.320	% 60,1	2.363	% 13,8	1.460	% 8,5	3.244	1% 8,9	1.190	% 6,9	198	% 1,2

Ikasleen ehunekorik altuenak (% 60,1) erantzun du ez duela etxerako lanak egiteko laguntzarik jasotzen. Etxerako lanak laguntzarekin egiten dituztenen artetik ehunekorik altuenak dio irakasle partikular baten (% 13,8) edo aitaren edo amaren (% 18,9) laguntza jasotzen duela.

Jarraian ageri diren taulan eta grafikoan ebaluatutako konpetentzietako ikasleen emaitzak ikus daitezke, betiere, ikastetxetik kanpo etxerako lanak egiteko garaian jasotzen duten laguntza motaren arabera.

	Laguntzarik gabe	Irakasle partikularra	Akademia batera joaten da	Aita/amaren laguntza	Anai/arrebaren laguntza	Beste pertsona batek
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa</i>	263	234	240	258	255	218
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</i>	262	232	242	255	248	222
<i>Matematikarako konpetentzia</i>	260	227	233	250	245	207
<i>Ingeleseko hizkuntza-komunikazioa</i>	257	230	237	252	244	214


Etxerako lanak laguntzarik gabe egiten dituzten ikasleak dira ebaluatutako konpetentzia guztietan emaitzarik onenak lortzen dituztenak; horiek guztiak EAEko batez bestekoaren gainetik daude. Aitaren edo amaren laguntza jasotzen duten ikasleek batez besteko orokorra baino emaitza altuagoak lortzen dituzte lau konpetentzietatik bitan (*Euskarazko eta ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia*).

²⁰ Ehunekoa 100 baino altuagoa da; izan ere, erantzunak ez dira baztertzailak eta bat baino gehiago aukeratu ahal izan ditu; izan ere, laguntzak pertsona batenak baino gehiagorenak izan daitezke.



Beste pertsona baten laguntza jasotzen duela dioten ikaslea da ebaluatutako konpetentzia guztietan emaitzarik baxuenak lortu dituenak. Beste pertsona bat esandakoan, tutoreak edo gizarte zerbitzuetako langileak hartzen dira kontuan eta seguruenik desegituratutako familietatik datozen ikasleak izango dira.

151. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Etxerako lanak egiteko laguntza eta konpetentzietan izandako emaitzak.



*Ardatz bertikala 200ean hasten da, puntuazioetako aldeak nabariak izan daitezten.

c) ED09 eta ED11 arteko alderaketa etxerako lanak egiteari eta lortutako emaitzei dagokienez

"Laneko ohiturak ikastetxetik kanpo" (ED09 eta ED11) aldagaia aztertu den bi Ebaluazio diagnostikoetan batez besteko puntuazioetan lortutako emaitzak erakusten dira hurrengo taulatan.

Etxerako lanak egitea eta emaitzak Ebaluazio diagnostikoetan (ED09 eta ED11)

	Ez du etxerako lanik		Ez ditu etxerako lanak egiten		1 ordu edo gutxiago		1 eta 2 ordu artean		3 ordu baino gehiago	
	ED09	ED11	ED09	ED11	ED09	ED11	ED09	ED11	ED09	ED11
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	229	251	213	227	253	258	254	258	247	251
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	244	253	228	244	253	257	252	255	249	251
Matematikarako konpetentzia	243	256	228	232	253	253	252	252	249	247
Ingeleseko hizkuntza-komunikazioa		240		222		250		253		253
Zientzia-, teknologia- eta osasun-kultura	241		224		251		253		251	

Ikus daitekeen moduan, ED11n puntuazio gehienek gora egin duten arren, bi edizioetako jokaera berbera da, hau da, oro har, konpetentzia guztietan batez bestekoaren gainetik kokatzen dira etxerako lanak ordubete baino gutxiagoan eta bi ordu artean egiten dituzten ikasleak, eta etxerako lanak laguntzarik gabe egiten dituzten ikasleak. Era berean, bi edizioetan, ebaluatutako konpetentzietan, beste pertsona batek laguntzen dien ikasleek lortzen dituzte emaitzarik baxuenak.


Etxerako lanak egiten laguntzea eta emaitzak Ebaluazio diagnostikoetan (ED09 eta ED11)

	Laguntzarik gabe		Irakasle partikularra		Akademia batera joaten da		Aitak edo amak laguntzen dio		Anaiak/ arrebak laguntzen dio		Beste pertsona batek	
	ED09	ED11	ED09	ED11	ED09	ED11	ED09	ED11	ED09	ED11	ED09	ED11
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa</i>	259	263	229	234	238	240	250	258	244	255	220	218
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</i>	258	262	227	232	241	242	252	255	243	248	223	222
<i>Matematikarako konpetentzia</i>	260	260	226	227	239	233	250	250	244	245	225	207
<i>Ingeleseko hizkuntza-komunikazioa</i>		257		230		237		252		244		214
<i>Zientzia-, teknologia- eta osasun-kultura</i>	258		228		240		253		244		225	





9. Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programa egiten duten DBHko 2. mailako ikasleak

DBHko 2. mailan eskolatutako ikasleen artean, 1.318 ikaslek Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programa (HBSP) bati jarraitzen diote. Horien artean, 1.173k 2011ko Ebaluazio diagnostikoko probaren batean hartu dute parte.

Ebaluatutako kompetentzia guztietan lortutako puntuazioak Euskadin lortutako batez bestekoa baino askoz ere baxuagoak dira.

Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programak (HBSP) egoera txarrean dauden ingurune soziokulturetan kokatutako ikastetxeetan garatutako arreta indibidualizatutako programak dira. Horren helburua ikastetxeko proiektu bat garatzea da, eskola-atzerapen handia edota jarrerarazazko larriak dituzten DBHko lehen zikloan eskolatutako 16 urte baino gutxiagoko ikasleei arreta ematera zuzenduta. Programa horiek 2 ikasmilako indarraldia dute, eta horietarako, ikastetxeak hezkuntza-proiektu bat egin behar du; bertan, ikasgelako, ikastetxeko eta curriculumaren antolaketari eragiten dioten beste neurri batzuk hartzen dira.

DBHko 2. mailan eskolatutako ikasleen artean, 1.318 ikaslek Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programa (HBSP) bati jarraitzen diote.

Hauk dira ikasle talde honen zenbait ezaugarri:

- Eskolatzea HBSP programa baten bidez egiten duten ikasleak DBHko 2. mailako ikasle guztien % 7,2 dira.
- Ikasle horien % 2,7 (299 ikasle) etorkinak dira.
- % 11,5 (151 ikasle) euskara ikasgaia ikasteaz salbuetsita dago.
- HBSP programa baten bidez ikasketak jarraitzen dituzten mutilen ehunekoa neskena baino altuagoa da: % 60,5 mutilak dira, eta % 39,5, neskak.

Jarraian ageri den tauletan zehazten da ikasleen banaketa hezkuntza-eredu eta geruzen arabera:

Ebaluazioan parte hartu duten eta HBSP programa egiten ari diren ikasleak					
Publikoa			Itunpekoa		
Kop.	Ikasleen % sarearen arabera	Ikasleen % HBSPekin, sare publikoan	Kop.	Ikasleen % sarearen arabera	Ikasleen % HBSPekin, itunpeko sarean
570	% 43,2	% 3,1	748	% 56,8	% 4,1
Guztira: 1.318					

Sare bakoitzean aipatutako programa motari jarraitzen dioten ikasleen ehunekoa desberdina dela egiaztatzen da: zertxobait altuagoa da itunpeko sarean, % 4 inguru, eta zertxobait baxuagoa sare publikoan, % 3 inguru. Emaidza hauk aurreko Ebaluazio diagnostikoko emaitzekin alderatzen baldin baditugu, egoerak desberdinak dira; ED09an, orduko HBSPn eskolatutako ikasleen ehunekoa antzekoa zen bi sareetan eta ED10ean sare publikoaren ehunekoa itunpeko sarekoa baino altuagoa izan zen.



Hala eta guztiz ere, ikasleen banaketa ereduaren eta geruzen arabera aztertzen denean, datuek alde handiagoak erakusten dituzte, jarraian ageri den moduan:

HBSP programa egiten ari diren ikasleak, hizkuntza-ereduen arabera

	Kopurua	HBSP ikasleen % ereduaren arabera	HBSP % ereduaren arabera, DBHko 2. mailako populazioari dagokionez
A eredia	326	% 24,7	% 12,4
B eredia	471	% 35,7	% 9,2
D eredia	521	% 39,5	% 5,0

Datuek adierazten dutenaren arabera, D ereduaren ikasle kopuru handiagoa (521) dagoen arren, bakoitzaren garrantzia edo ordezkapena desberdina da guztizko populazioarekin alderatzen denean. Hori dela eta, D ereduaren dago egoera horretako ikasle ehunekorik baxuena (% 5 inguru); A ereduaren berriz, ikasleen % 12,4rekin, programa mota horiek jarraitzen dituzten ikasle ehunekorik altuena dago.

HBSP programa bat egiten duten ikasleak, geruzaren arabera

	Kopurua	% geruza bakoitzean
A publikoa	162	% 16,5
B publikoa	74	% 8,0
D publikoa	334	% 5,1
Itunpeko A	164	% 10,0
Itunpeko B	397	% 9,4
Itunpeko D	187	% 4,7

A geruza publikoak biltzen du aipatutako programa motarekin ikasketak egin dituzten ikasleen ehunekorik altuena, % 16,5, hain zuzen. Itunpeko A geruzak jarraitzen dio; bertan, 100 ikasletik ia 10 HBSP programarekin dago eskolatuta. Itundutako D geruzak eta D geruza publikoak dituzte programa mota horiek erabiltzen dituzten ikasle kopuru baxuenak.

a) HBSP programa egiten duten ikasleen jaiotza-urtea

Dagoeneko egiaztatu da jaiotza-urteak emaitzetan eragin handia duela; beraz, ikasle talde honetan egoera hori aztertzen da. Hurrengo taulak ehunekoak jaiotza-urtearen arabera erakusten ditu; ehuneko horiek adierazten dute adinaren arabera dagokien ikasmilan dauden edo urtebeteko edo bi urteko atzerapena daramaten, bai ikasmila errepikatu dutelako, bai eskolatzeko berantiarra izan dutelako.

HBSP programa egiten duten ikasleen jaiotza-urtea

	Kopurua	%
Jaiotza-urtea: 1997 (adin-egokitasuna)	343	% 26,0
Jaiotza-urtea: 1996	615	% 46,7
Jaiotza-urtea: 1995	350	% 26,6

Ikus daitekeenez, ikasleen % 26 baino zertxobait gehiago eskolatzeko da adinaren arabera dagokion ikasmilan. Ikasle horien erdiak baino gehiagok maila errepikatu dute (% 46,7), eta gainerako % 26,6k bi urteko atzerapena daramate beren adinari dagokionez.



b) HBSP programa egiten ari diren ikasleak eta lortutako emaitzak


Hurrengo taulak eta grafikoak ebaluatutako konpetentzia bakoitzean Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programaren (HBSP) bidez eskolatutako ikasleek lortutako emaitzak erakusten ditu. Dagoeneko adierazi den moduan, HBSPrekin eskolatutako 1.318 ikasle daude eta horien artetik 1.209k gutxienez probaren batean parte hartu dute 2011ko Ebaluazio Diagnostikoan; horien puntuazioa konpetentzia bakoitzeko batez besteko orokorrean txertatu da. Ondorioz, talde horrek lortutako puntuazioei dagokien azterketa konpetentzien batez besteko puntuazioan sartutako ikasle horien (1.173 ikasle) gainean soilik egin da.

Ebaluatutako konpetentzietan HBSP duten ikastetxeetan eskolatutako ikasleen emaitzak

	Kopurua Konpetentzia bakoitzeko puntuazioan sartutako ikasle kopurua	Batez bestekoa	AT
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia</i>	964	213	1,4
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia</i>	1.082	222	1,3
<i>Matematikarako konpetentzia</i>	1.105	208	1,3
<i>Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia</i>	1.108	207	1,2

Ebaluatutako konpetentzia guztietan lortzen diren puntuazioak batez besteko orokorra baino askoz ere baxuagoak direla egiaztatzen da. Konpetentzia bakoitzaren batez bestekoarekiko 32 eta 43 puntu arteko aldea dago: 43 puntu *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*; 32 puntu, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*; 42,7 puntu, *Matematikarako konpetentzian*, eta 43, *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*.

152. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. HBSP ikasleen emaitzak eta Euskadiko batez bestekoa ebaluatutako konpetentzietan.



* Grafikoaren eskala 160an hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezen.

Hala eta guztiz ere, emaitza hauek aurreko ebaluazioetako emaitzekin (ED09 eta ED10) alderatuta, aldeak zertxobait murriztu egin dira. ED09an, HBSPko ikasleek lortutako



konpetenzietako batez besteko puntuazioen arteko aldeak, EAEko batez bestekoarekin alderatuta, 43 eta 50 puntu artekoak ziren, eta ED10ean, 35 eta 50 puntu artekoak.

Emaitzak horiek diren arren, programa horiek gazteen artean dagoen eskola-absentismoa saihestera begira betetzen dituzten funtzioak aintzat hartu behar dira; izan ere, programa horiek gabe eskola-sistematik kanpo egon litezke eta beren prestakuntza alde batera utz dezakete. Programa mota horien garrantzia ISEI-IVEIn DBHko bigarren zikloan eskola-porrotaren gainean egindako azterketaren ondorioetan ere bildu zen²¹.

²¹ Eskola-porrota. DBHko 2. zikloa. (2007ko apirila). Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea. (ISEI-IVEI). www.isei-ivei.net



10. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen deskribapen-azterketa

DBHko 2. mailan, ebaluazio honetan, sartzeko edo arloko CEI duten ikasleen guztizko kopurua 209 ikaslekoa (% 1,1) izan da. Horien artetik, % 60,8 sare publikoko ikastetxeetan dago eskolatuta eta % 39,2 itunpeko sarean. Mutilen ehunekoa (% 57,9) neskena baino nabarmen altuagoa da (% 42,1).

Ebaluazio Diagnostikoa bi ikasmailetan eskolatutako ikasle guztiek parte hartzen duten zentsu-izaerako proba gisa hartzen da; Lehen Hezkuntzako 4. maila eta DBHko 2. maila hartzen dira oinarri. Azken hamarkadetan garatutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza-sisteman txertatzeko planak direla eta, ohiko ingurunean oso hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskolatu dira. 2009ko Ebaluazio Diagnostikoan zehar, ahalik eta ikasle gehienek baldintzarik onenetan parte har zezaten ahalegina egin zen. Hori dela eta, 2010 eta 2011ko Ebaluazio Diagnostikoetan, planeamendu berberarekin jarraitu da, ikasleen datuak sartzeko irizpideak eta parte hartzeko baldintzak hobetzeko ahaleginean.

Aztertu dugun moduko ebaluazio estandarizatuaren ezaugarriekin ezin da ikaskuntza curriculumaren egokitzapen esanguratsuen (CEI) bidez egiten duen ikasle bakoitzarentzat proba desberdina egin. Hala eta guztiz ere, hezkuntzan egiten diren egokitzapen ugariak oinarri hartuta eta ahal den neurrian hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek ebaluazioetan parte hartzeko aukera normalizatze aldera, parte hartzea posible den zenbait egoera hartu dira aintzat.

Hezkuntza-premia desberdinetatik abiatuta, horien sailkapena egin da, baldintzen eta baliabideen arabera, Ebaluazio diagnostikoan curriculumera iristeko behar direnen antzeko baldintzetan parte hartzea errazteko.

a) Hezkuntza-premia bereziko egoerak

Egoera hauek definitu dira:

1. Curriculumera sartzeko-premiak dituzten ikasleak

Ikasle hauek (ikusmen-, entzumen- eta motore-urritasunak... izan ditzakete.) Lehen Hezkuntzako 4. mailarako eta DBHko 2. mailarako tipifikatutako proba berberak egin ditzakete, baina ebaluazio horietarako sarbidea izateko dagozkien egokitzapenekin.

- *Ikusmen-urritasuna duten ikasleak*; ikusmen mailaren arabera (ikusmen urria edo itsutasuna), hauek behar izan ditzake:
 - Ebaluazio-koadernotxoak brailera itzultzea.
 - Hizkiaren tamaina handitzea.
- *Entzumen-urritasuna duten ikasleak*; erabilitako komunikazio-sistemaren arabera, hauek behar izan ditzake:



- Zeinu-hizkuntzako interpretea.
- Frekuentzia modulatu.
- *Mugimendu-urritasuna duten ikasleak*; kaltetutako mugimendu-funtzioen arabera, hauek behar izan ditzakete:
 - Probei erantzuna emateko ordenagailua edo beste baliabide tekniko bat euskarri moduan.

Irizpide orokor gisa, proban parte hartu duen eta horrelako beharrak dituzten ikasleak ez dira taldearen batez besteko puntuazioan sartu; izan ere, egindako egokitzapenek parte-hartzea erraztu badute ere, ez da ziurtatzen baldintzak gainerakoekin alderagarriak direnik eta ez du emaitzen alderaketa ahalbidetzen.

2. Arloko curriculum egokitzapen indibidualdu (CEI) esanguratsuak dituzten ikasleak

Ikasle hauek bere mailari dagokion proba gainerako ikasgelaren baldintza berberetan egin ahal izan dute. Parte hartzeko erabakia ikastetxearena izan da; hala eta guztiz ere, CEI bat duten arloarekin lotutako konpetentzietako puntuazioa ez da kontuan hartu taldearen batez besteko puntuaziorako.

3. Ikasgela arruntean eskolatutako CEI orokor esanguratsuak dituzten ikasleak

Curriculum CEI orokor batekin garatzen duten ikasleak, hau da, arlo guztiak hezkuntza-behar bereziak dituen ikaslearen mailara egokituta baldin badaude, ez du ebaluazioa egin, ikastetxeak kontrakoa erabaki ez badu behintzat. Proba estandarizatua ez da talde honen ikaskuntzak ebaluatzeko ondo egokitu ahal izateko testuingurutzat hartzen. Iritzi berbera izan da CEI orokor esanguratsua duten eta ikasgela egonkor batean eskolatuta dagoen ikasleen kasuan ere.

CEI orokorrarekin eskolatutako ikasleek ikastetxeko irakasleek (ikasle bakoitza modu partikularrean ezagutzen du) hartutako erabakiaren arabera egin ahal izan dituzte probak. Irizpide orokor gisa, taldeko eta ikastetxeko puntuazio orokorretik kanporatu dituzte.

b) Prestatu diren baliabideak

Hauek izan dira egokitzapen motaren bat duten ikasleek parte hartzeko edo antolatzeko erabilitako giza baliabideak edo antolaketa-baliabideak:

- Gorreria duten ikasleen lurralde mailako aholkularitzak.
- Ikaslea eskolatuta dagoen ikastetxeetako giza baliabideak edota baliabide materialak: hezkuntza-laguntzarako espezialistak, aholkulariak, Pedagogia Terapeutikoko irakasleak, frekuentzia modulatu, zeinu-hizkuntzako irakasleak...

Ondorioz, deskribapena hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleena da eta haien curriculumera sartzeko edo arloko (curriculum arlo batean edo gehiagotan) curriculum egokitzapen indibidualdua (CEI) biltzen da; gainera, beharrezko baliabideekin, ikastetxeak erabaki du ebaluazioan zein ikaslek parte hartuko duten. Datu hauetan, ikasleen curriculum CEI orokorrarekin garatzen da.



Populazio honen deskribapenean (lehen adierazitako egokitzapen motaren batekin ikasketak egiten dituen ikaslea), 2011ko Ebaluazio diagnostikoan parte hartu duten DBHko 2. mailako ikasleei dagozkien datuak ageri dira.

c) Ebaluazio diagnostikoan egokitzapen motaren bat duten ikasleen datuak

Ebaluazio diagnostikoko edizio honetako CEI orokorra duten ikasleen kopurua 239koa da, DBHko 2. mailako populazio guztiaren % 1,31. Lehen aipatu den moduan, ikasle hauen puntuazioa ez da txertatu; hala ere, proban egoteko aukera izan zuten, ikastetxeak hala erabaki izan balu.

DBHko 2. mailan, sartzeko edo arloko CEIrekin eskolatutako ikasleak 209 izan dira orotara; horiek maila honetako ikasleen guztizkoaren % 1 inguru dira. Horien artetik, % 61 (127 ikasle) inguru sare publikoko ikastetxeetan dago eskolatuta, eta % 39 baino zertxobait gehiago (82) itunpeko sareko ikastetxeetan. Horien artetik, 153k ebaluazioko probaren batean parte hartu dute, nahiz eta puntuazioa ez den CEI eginda zuten kompetentzietako batez besteko orokorrean sartu.

Hurrengo taulan, eskola curriculumaren garapenerako egokitzapenen bat behar duten ikasleen kopurua ageri da. Egiazta daitekeen moduan, ehunekorik altuenak egokitzapen orokorreari eta arlokoari dagozkien (% 53,35 eta % 41,96, hurrenez hurren).

Sartzeko egokitzapena		Arloko CEI		Sartzeko egokitzapena + Arloko CEI		CEI orokorra	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
19	% 4,24	188	% 41,96	2	% 0,45	239	% 53,35
Ikasleak egokitzapenekin, guztira: 448 (DBHko 2. mailako ikasle guztien % 2,45)							

d) Sartzeko egokitzapena edota arloko CEI duten ikasleen banaketa, geruzen eta ereduaren arabera

Hainbat geruzatan sartzeko egokitzapena edo arloko CEI duten ikasleen banaketa ageri da taula honetan:

Sartzeko egokitzapena edota arloko CEI duten ikasleen eskolatzea, geruzen arabera.											
A publikoa		B publikoa		D publikoa		Itunpeko A		Itunpeko B		Itunpeko D	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
31	% 14,8	30	% 14,4	66	% 31,6	28	% 13,4	30	% 14,4	24	% 11,5
Itunpeko ikastetxeak guztira: 127						Itunpeko ikastetxeak guztira: 82					
Sartzeko egokitzapena edo arloko CEI duten ikasleak, guztira: 209											



Geruza bakoitzeko DBHko 2. mailako ikasleen guztizko populazioari dagokionez, sartzeko egokitzapena edo CEI duten ikasleak honela banatzen dira:

Ebaluazioan parte hartu duten geruza bakoitzeko sartzeko egokitzapena edota arloko CEI duten ikasleen ehunekoa

	Ikasleak, guztira, geruzen arabera	Sartzeko egokitzapena edo arloko CEI duten ikasleak	Sartzeko egok. edo arloko CEI duten ikasleen ehunekoa geruza bakoitzean
	Kopurua	Kopurua	%
A publikoa	979	31	% 3,2
B publikoa	923	30	% 3,3
D publikoa	6.586	66	% 1,0
Itunpeko A	1.643	28	% 1,7
Itunpeko B	4.211	30	% 0,7
Itunpeko D	3.937	24	% 0,6
Guztira:	18.279	209*	% 1,1

**Bi ikaslek sartzeko egokitzapena eta arloko CEI dute aldi berean.*

Datuetatik ondorioztatzen den moduan, A eta B geruza publikoetan, CEI edota sartzeko egokitzapena duten ikasleen ehunekoa % 3 baino zertxobait altuagoa da D geruza publikoan eta % 1 eta % 1,7 artekoa itunpeko A geruzan hurrenez hurren, eta % 0,5 baino zertxobait altuagoa itunpeko B eta D geruzetan. Kontuan izan behar da ehunekoak ezin direla beren artean alderatu; izan ere, geruza bakoitzean eskolatutako ikasleen ehunekoa aldatu egiten da eta beren artean alde handiak daude (esate baterako, D geruza publikoan 6.586 ikasle daude eskolatuta eta B geruza publikoan 923).

Hurrengo taulan, sartzeko edota arloko egokitzapena behar duten 209 ikasleren (populazioaren % 1,1) banaketa ageri da ereduaren arabera:

A eredia		B eredia		D eredia	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
59	% 28,2	60	% 28,7	90	% 43,1

Sartzeko egokitzapena edo arloko CEI duten ikasleen ehunekorik altuena D ereduaren biltzen da (% 43,1). A ereduaren % 28,2 eskolatzen da eta B ereduaren % 28,7.

e) Sartzeko egokitzapena edota arloko CEI duten ikasleen sexua eta jaiotza-urtea

2011ko Ebaluazio diagnostikoan parte hartu duten sartzeko egokitzapena edota arloko CEI duten ikasleen artean, mutilen ehunekoa neskena baino zertxobait altuagoa dela ondorioztatzen da. % 15,8ko aldea dago.

Neskek		Mutilak	
Kopurua	%	Kopurua	%
88	% 42,1	121	% 57,9



Ikasleen jaiotza-urtearen azterketaren bidez, ondorio hauek atera daitezke: ikaslea bere adinarekiko adin-egokitasun egoeran dagoen, ikasmilaren bat errepikatu duen, edo kasuren batean eskolatze berantiarra gertatu den. Sartzeko egokitzapena edota arloko CEI duten ikasleen jaiotza-adinari buruzko datuak hurrengo taulan ageri dira:

Sartzeko egokitzapena edota arloko CEI duten ikasleen jaiotza-urtea		
Jaiotza-urtea	Kopurua	%
1997 (adin-egokitasuna)	96	% 45,9
1996	88	% 42,1
1995	21	% 10,0

Egokitzapen motaren bat duten ikasleen % 45,9 adinaren arabera dagokion ikasmilan ari da ikasketak egiten. % 52,1ek ikasmila akademiko bateko edo biko atzerapena du bere ibilbidean zehar.

f) Proba egin duten ikasleak, sartzeko egokitzapena edota arloko CEI dutenak, eta kompetentzien arabera batez besteko orokorrean sartu direnak

Jarraian, ebaluatutako kompetentzia bakoitzean parte hartu zuen sartzeko egokitzapena edota arloko CEI duten ikasleen kopurua eta ehunekoa ageri da.

	Sartuta		Sartu gabe	
	Kopurua	%	Kopurua	%
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia</i>	73	% 34,9	136	% 65,1
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia</i>	76	% 36,4	133	% 63,6
<i>Matematikarako kompetentzia</i>	81	% 38,8	128	% 61,2
<i>Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.</i>	122	% 58,4	87	% 41,6

DBHko 2. mailako ikasleei dagozkien datuek hau adierazten dute:

- Sartzeko egokitzapena edota CEI duten ikasleen % 58,4 *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren* puntuazioetan txertatuta dago.
- Egokitzapen motaren bat duten ikasleen % 35-% 39 ebaluatutako beste hiru kompetentzien puntuazioetan txertatuta dago.

Hurrengo taulan, 2011ko Ebaluazio diagnostikoan egokitzapen motaren bat duten ikasleak batez besteko orokorrean zer kompetentzia kopurutan sartuta dauden erakusten da:

Sartzeko egokitzapena edota arloko CEI duen ikaslea, puntuazioan, zenbat kompetentzian sartuta dagoen

Sartu gabe		1tan sartuta		2tan sartuta		3tan sartuta		4retan sartuta	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
56	% 26,8	29	% 13,9	51	% 24,4	71	% 34,0	2	% 1,0



HPB dituzten ikasleen % 27 inguru ez dago Ebaluazio diagnostikoko puntuazioan txertatuta. % 14 inguru kompetentzia baten puntuazioan soilik dago sartuta. Ikasleen % 59 baino gehiago 2 kompetentzia edo gehiagoren puntuazioan dago sartuta.



**5. IKASTETXEEN AZTERKETA LORTUTAKO EMAITZEN
ETA ERAGINKORTASUNAREN ARABERA**





Txosten exekutiboan²² eta txosten honetako 3.2 atalean (121. or), ikastetxe bakoitzaren egoera aipatzen da, batetik, maila sozioekonomiko eta kulturalaren arabera ebaluatuta eta bestetik *Matematikarako konpetentzian* lortutako puntuazioaren arabera ebaluatuta. Egiaztatutakoaren arabera, zenbait ikastetxek haien hezkuntza-ekintza dela eta ezaugarri sozial, ekonomiko eta kulturalaren arabera espero beharko litzatekeenaren gainerik dauden batez besteko puntuazioak lortzen dituzte. Horiei ikastetxe eraginkor deituko litzaieke, edo gauza bera dena, "balio erantsia" eskaintzen duten ikastetxeak.

Atal honen helburua irakaskuntzaren bidez, ikasleen garapenari dagokionez, zenbait ikastetxek gure sisteman egiten duten ekarpena azaltzea da, ingurunearen arabera eta familiako ezaugarrien arabera espero zitezkeenak baino emaitza hobeak lortuz.

Helburu horretarako, egoera hauek aztertu dira:

- Emaitza altuenak eta baxuenak dituzten ikastetxeak, zuzeneko puntuazioak kontuan hartuz, egoera sozioekonomikoa edozein izanda ere. Azterketa honen helburua honetan oinarritzen da: ikastetxe baten egoera edozein izanda ere, emaitza altuak lortzea oso zeregin konplexua da; izan ere, bertan, irakaskuntza-zeregina lantzeko moduarekin lot daitezkeen hainbat aldagaik hartzen dute parte. Bestalde, emaitza baxuak izateak jakinarazten digu ikastetxe horietan esku hartu beharra dagoela hobekuntza ahalbidetuko duten erabakiak hartu ahal izateko.
- Ikastetxe eraginkorrak edo hain eraginkorrak ez direnak; hau da, Indize sozioekonomikoaren eta kulturalaren arabera esperotako emaitzei dagokionez alderik handienak (positiboak eta negatiboak) lortzen dituzten ikastetxeak.

Emaitza altuak edo baxuak izatea ez da eraginkortasun-irizpidea. Ikastetxe bat eraginkorra dela esateko, emaitzak, batez besteko orokorraren azpitik egonda ere, esperotakoa baino altuagoak izan beharko dira, Indize sozioekonomikoa eta kulturala kontuan hartuta. Gauza bera gertatuko litzateke kontrako egoeran ere, hau da, ikastetxe batek batez bestekoa baino puntuazio altuagoak izan ditzake, baina litekeena da eraginkorra ez izatea ISEK kontuan hartuta esperotakoaren azpitik dagoelako.

Aipatu berri ditugun egoerak aztertzeke, *Matematikarako konpetentziako* puntuazioak hartu dira; izan ere, egiaztatu ahal izan den moduan, gainerako emaitzekin korrelazio maila handiena duen konpetentzietako bat da; gainera, ez da hizkuntza-konpetentzia, eta hori dela eta, hizkuntza-ereduak edo etxeko hizkuntzak ez dute hainbesteko zerikusirik.

Hain zuzen ere, ikastetxeak deskribatutako ezaugarrien arabera sailkatu ostean, egiaztatu da horien jokaera antzekoa dela ebaluatutako gainerako konpetentzietan.

Azkenik, egindako azterketak egungo egoera islatu nahi du eta ED09 eta ED10 aurreko ebaluazioetan lortutako emaitzekin alderatu nahi du. Ikastetxe batzuek jatorriko egoerak konpentsatzea zergatik lortzen duten eta beste ikastetxe batzuek zergatik ez duten lortzen xehetasun gehiagorekin sakontzeko, gai horri buruzko ikerketa garatu behar da; hori etorkizun hurbilean egitea dago aurrez ikusita.

²² ISEI-IVEI. 2011ko Ebaluazio diagnostikoa. DBHko 2. mailako Txosten exekutiboa. (2011ko abendua) www.isei-ivei.net



a) Emaitza altuenak eta baxuenak dituzten ikastetxeak

Azterketa hau egiteko, emaitza altuenak lortu dituzten 30 ikastetxe eta emaitza baxuenak lortu dituzten beste 30 ikastetxe aukeratu dira. Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, emaitza baxuen taldean sartutako ikastetxeek 162 eta 213 puntu arteko batez besteko puntuazioa lortu dute *Matematikarako konpetentzian*. Emaitza altuak dituzten ikastetxeek 279 puntu lortu dituzte gutxienez eta 300era arte iritsi dira (hori da batez besteko puntuaziorik altuena).

DBHko 2. mailako ikastetxeen sailkapena *Matematikarako konpetentziako* puntuazioen arabera

Ikastetxeko emaitzak	Ikastetxe kopurua	Kopuruaren %	Gutxieneko puntuazioa	Gehieneko puntuazioa	Batez bestekoa
Batez bestekoaren inguruan	270	% 81,8	214	279	249
Baxuak	30	% 9,1	162	213	201
Altuak	30	% 9,1	279	300	286
Guztira	330	% 100,0	162	300	248

Hurrengo taulak erakusten du *Matematikarako konpetentzian* emaitza onak dituzten ikastetxe hauek ebaluatutako gainerako konpetentzietan ere emaitza onak dituztela (nahiz eta beti bikaintasun maila berbera ez lortu). Era berean, konpetentzia horretan emaitza baxuak lortu dituztenek gainerakoan ere emaitza baxuak eskuratu dituzte.

DBHko 2. mailako ikastetxeen batez besteko emaitzak ebaluatutako konpetentzia guztietan

Ikastetxeko emaitzak	Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	Matematikarako konpetentzia	Ingeleseko hizkuntza-komunikazioa
Batez bestekoaren inguruan	255	253	249	246
Baxuak	198	222	201	202
Altuak	266	271	286	281

153. grafikoan, koloreztatutako goiko eremua puntuaziorik altueneko 30 ikastetxeri dagokio. Obaloaren barnean dauden biribil berdeek lortu dituzte emaitzarik onenak eta ikastetxeen batez bestekoaren gainetik daude *Matematikarako konpetentzian* (248 puntu). Egoera berbera, baina alderantziz gertatzen da puntuaziorik baxuenak dituzten ikastetxeekin, biribil urdinak obaloaren barnean, koloreztatutako behealdean.


Bi talde horietako bakoitzaren baitan, emaitzen banaketa oso desberdina da ikastetxe bakoitzaren batez besteko ISEK maila kontuan hartzen bada; hori dela eta, emaitza altuak dituzten ia ikastetxe guztiek ikastetxe guztien artetik ISEKeko batez bestekoa baino ISEK altuagoa dute (lerro bertikal etenaren eskuinera kokatzen dira). Emaitza baxuagoak dituzten ikastetxeetan alderantzizkoa ikusten da; guztiek batez bestekoa baino ISEK baxuagoa dute eta adierazten duen lerro bertikal etenaren ezkerretara kokatzen dira.

Hala eta guztiz ere, talde bakoitzean ez daude ISEK altuenak edo baxuenak dituzten ikastetxe guztiak. Hau da, ISEKeko erdi-maila duten ikastetxe batzuk emaitza altuenak dituzten 30en artean daude, eta beste batzuk, berriz, emaitza baxuenak dituztenen artean.



Emaitza altuenak eta baxuenak dituzten ikastetxeen artean, batez bestekoaren inguruan ISEK maila antzekoak dituzten zenbait ikastetxe dauden arren, emaitza altuenak eta baxuenak dituztenen artean, emaitza baxuko ikastetxe gehienak batez besteko ISEK mailaren azpitik daude, eta emaitza altuko ikastetxe gehienak batez besteko ISEK mailaren gainetik daude. Hau da, emaitzetan baldintza sozioekonomiko eta kulturalen eragin argia nabari da.

153. grafikoa: ED11-DBHko 2. maila. Emaitzak Matematikarako kompetentzian eta ISEK.



b) Eraginkortasun maila handienak eta txikienak dituzten ikastetxeak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikastetxeetako emaitzak eraginkortasunaren ikuspegitik ere azter daitezke.

F.J Murillo²³ irakaslearen arabera, gaur egun, hau hartu behar da oinarri: "ikastetxea eraginkorra izateko, ikasle guztiek espero dena baino garapen integral handiagoa lortu beharko dute, aurretiazko errendimendua eta familien egoera soziala, ekonomikoa eta kulturala kontuan hartuta". Azterketa honetan, ezaugarrietako bat bakarrik aztertuko da, balio erantsia; hau da, ikastetxeak ikasleei eskaintzen diena.

Horretarako, lortutako emaitzen eta ISEKen arabera esperotakoen artean alde positibo handiena duten 30 ikastetxeak aukeratu dira, baita Matematikarako kompetentzian alde negatibo handiena duten 30ak ere. Positiboenak, "ekarpen gehien egiten duten ikastetxeak" izenekoak, eta alde negatibo gehienak dituztenak "ekarpen gutxien egiten duten ikastetxeak".

²³ Ikus www.ice.deusto/rinace/reice/vol.1n.1/Murillo.



DBHko 2. mailako ikastetxeen batez besteko puntuazioa eraginkortasun mailaren arabera

Ikastetxeko emaitzak	Ikastetxe kopurua	Kopuruaren %	Gutxieneko puntuazioa	Gehieneko puntuazioa	Batez bestekoa
Batez bestekoa	270	% 81,8	162	295	248
Ekarpn txikiena egiten dutenak	30	% 9,1	183	259	220
Ekarpn handiena egiten dutenak	30	% 9,1	236	300	276
Guztira	330	% 100	162	300	248

Ekarpn gutxien egiten duten taldean txertatutako ikastetxeen artean, batez besteko oso desberdinak dituzten ikastetxeak daude; batzuek oso puntuazio baxuak dituzte (183 puntu) eta beste batzuek ikastetxeetako batez bestekoaren gaineratik dauden puntuazioak dituzte *Matematikarako konpetentzian* (259 puntu, eta ikastetxeetako batez bestekoa 248koa da). Antzeko zerbait gertatzen da ekarpn gehien duten ikastetxeekin ere: emaitzak 236 puntu (ikastetxeen batez bestekoaren azpitik konpetentzia honetan) eta 300 puntu artekoak dira.

ISEKen arabera ikastetxeen eraginkortasun kontzeptua hobeto jaso dadin, hurrengo grafikoan, obaloaren barnean, batez bestekoaren inguruan ISEK partekatzen duten ikastetxeen emaitzen alde handia erakusten dute.

154. grafikoak: ED11-DBHko 2. maila. Ikastetxe eraginkorrak eta eraginkorrak ez direnak *Matematikarako konpetentzian* (aldea ISEKen arabera esperotatik)



Grafikoan ikus daiteke antzeko ISEK maila duten ikastetxe batzuek, batez bestekoaren inguruan (-0,09), oso emaitza desberdinak lortzen dituztela. Batzuk esperotako puntuazioaren gaineratik (lerro jarraitua) kokatzen dira eta beste batzuk esperotako puntuazioaren azpitik.



Txosten honetan, ikastetxeen eraginkortasun gisa hartzen da ikaslearen jatorri sozioekonomiko eta kulturalarekin lotutako egoera pertsonalak hobetzeko ikastetxeek egiten duten esku-hartze positiboa, eta hori islatzen da ISEKen arabera esperotakoaren gainera dauden (erregresio-zuzenean islatuta – lerro jarraitua -) emaitzak lortzean.

Obaloaren baitan kokatzen dira ISEK batez bestekoaren inguruan duten ikastetxeak:

- Erregresio-zuzenaren gainean (ISEKen arabera esperotako puntuazioa) kokatzen diren biribil berde guztiek eta gorri batzuek islatzen dituzte ikastetxe eraginkorrak. Ikastetxe batzuek (bi biribil berde eta gorri batzuk), *Matematikarako konpetentzian*, ez dute ikastetxeetako batez bestekoa (248 puntu) erdiestea lortzen, baina eraginkorrak dira; izan ere, esperotakoak baino puntuazio altuagoak lortzen dituzte (erregresio-zuzenaren gainera kokatzen dira).
- Obaloaren baitan kokatzen dira esperotakoa baino emaitza baxuagoak dituzten ikastetxeak ere, ikaslearen maila sozioekonomikoa eta kulturala kontuan hartuta. Beheko biribil urdinak eta gorri batzuk, kasu askotan, beste ikastetxeen ISEK berbera duten (biribil berdeetan edo gorrietan islatuta) ikastetxeak dira, eta hala eta guztiz ere, horietatik espero diren emaitzak lortzeko garaian ez dira eraginkorrak eta erregresio-zuzenaren azpitik kokatzen dira.

Beraz, beren maila sozioekonomikoari eta kulturalari dagokionez antzeko abiapuntuarekin, obaloaren baitan dauden zenbait ikastetxe esperotako puntuazioaren gainera kokatzen dira; hori dela eta, ikastetxe horiek ikaslearen jatorriko egoera hobetzeko gaitasuna izan dutela uste da. Ikastetxe horiei ikastetxe eraginkorrak esango diegu.


Taulan erakusten da konpetentzia batean ekarpen gehien egiten duten ikastetxeek (eraginkorrak) gainerako guztietan ere egiten dutela, nahiz eta beti bikaintasun maila berebera ez izan.

DBHko 2. mailako ikastetxeen batez besteko emaitzak, konpetentzia guztietako eraginkortasun mailaren arabera

Ikastetxeko emaitzak	Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	Matematikarako konpetentzia	Ingelesezko hizkuntza-komunikazioa
Batez bestekoak	252	253	248	246
Ekarpen txikiena egiten dutenak	226	237	220	228
Ekarpen handiena egiten dutenak	268	258	276	254

Gaia sakonduz, 155. grafikoan, ISEKen arabera esperotakoari dagokionez alde positibo edo negatibo handiagoa duten ikastetxeak ageri dira. Lerro etenek ikastetxe eraginkorrenen (esperotako puntuazioaren gainera 22,76 puntu) edo ez hain eraginkorren (esperotako puntuazioaren azpitik 20,1 puntu) artean egoteko eskatutako gehieneko eta gutxieneko aldeak islatzen dituzte.

155. grafikoa: ED I I-DBHko 2. maila. Emaitzak Matematikarako konpetentzian eta ISEK (ISEKen arabera esperotakoari dagokionez alde handiagoa duten ikastetxeak (+ eta-)).



Emaitzak onak eta txarrak lortu dituzten, eta ekarpen gehiago edo gutxiago egiten duten ikastetxeak aztertuz gero, honako hau ondoriozta dezakegu:

- ISEKek oso eragin handia du emaitzetan.
- Ekarpen gehien eta gutxien egiten duten (oso eraginkorrek eta hain eraginkorrek ez direnak) ikastetxeen artean, ISEK maila desberdinak dituzten ikastetxeak daude.

Azken horrek adierazten du ikastetxe bakoitzaren bereizgarriak diren hezkuntza-faktoreek (metodologiak, antolaketa, eskola-giroa...) modu eraginkorrean eragiten dutela ikasleen emaitzetan. Horrekin lotuta, ISEK maila berberarekin, zenbait ikastetxe ikasleen errendimendu hobe lortzeko gai dira, eta beste batzuek berriz, ez dute lortzen.

Atal hau ikastetxe batzuek ikasleei eman nahi dieten balio erantsiaren analisirako hurbilketa da, bertako jatorriko ezaugarri sozialak, ekonomikoak eta kulturalak neurri handiagoan edo txikiagoan konpentsatuz. Esku hartzen duten kausa posible eta aldagarri guztien azalpen zehatzerako, ikerketa egin behar da.

c) Emaitzen bilakaera (ED09, ED10 y ED11)

Egonkortasun handia edo txikia izan den zehazteko faktore hau hartzen da kontuan: egin diren hiru ebaluazioetan konpetentzia bakoitzean batez besteko emaitzak mantendu dituen ikastetxe kopurua, batez besteko puntuazioak jaitsi dituen ikastetxe kopurua edo ikasleen errendimendua hobetzea lortu duen ikastetxe kopurua. Datu horiek hurrengo taulan ageri dira.


ED09-ED10-ED11 alderaketa. Ikastetxeen ehunekoa emaitzen arabera

Ikastetxeetako puntuazioa	Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia		Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia		Matematikarako kompetentzia	
	Ikastetxeak %		Ikastetxeak %		Ikastetxeak %	
	ED10-ED11	ED09-ED11	ED10-ED11	ED09-ED11	ED10-ED11	ED09-ED11
Jaitsiera nabarmena	% 11,7	% 6,1	% 4,6	% 5,8	% 8,6	% 9,2
Aldaketarik gabe	% 82,4	% 74,2	% 85,2	% 80,4	% 80,9	% 78,8
Igoera nabarmena	% 5,9	% 19,6	% 10,2	% 13,8	% 10,5	% 12,0

DBHko 2. mailan ebaluatutako ikasleen % 74-% 85,2k, aurreko ebaluazioekin alderatuta, aldaketa adierazgarririk gabe mantentzen ditu kompetentzia guztietan lortutako puntuazioak. Ikastetxe gehienetan, puntuazioetan egonkortasun handia nabari da.

Matematikarako kompetentzian zuzeneko emaitza baxuenak eta altuenak lortu zituzten eta eraginkorrenak izandako eta eraginkortasun maila baxueneko 30 ikastetxeak aurkeztu dira eta hiru ebaluazioetan, aztertutako talde bakoitzean bat egin zuten ikastetxeak adierazten dira.

Ikastetxe kopurua eraginkortasunaren eta Matematikarako kompetentziako emaitzen arabera ED09, ED10 eta ED11 ebaluazioetan.

Ikastetxe kopurua	ED09	ED10	ED11	ED10-ED11	ED09-ED11	ED09-ED10-ED11
Emaitza altuagoekin	30	30	30	16	11	9
Emaitza baxuagoekin	30	30	30	16	15	13
Ikastetxe eraginkorrenak	30	30	30	10	8	0
Eraginkortasun baxuena duten ikastetxeak	30	30	30	10	7	7

Ikus daitekeen moduan, emaitzak onenak eta txarrenak dituzten 30 ikastetxeko taldean, ED10 eta ED11 alderatzen baldin baditugu, emaitza altuak dituzten eta emaitza baxuak dituzten 16 ikastetxek bat egiten dute. Bi ebaluazioetan, aztertu diren 30 ikastetxeren artetik, 10 ikastetxek eraginkor izaten jarraitzen dute eta beste 10 ikastetxe ez dira hain eraginkorrak. ED09 eta ED11 alderatzen baldin baditugu, bi ebaluazioetan emaitza altuak (11) eta baxuak (15) dituzten ikastetxeen kopuruak behera egin du; bestalde, bi edizioetan eraginkorrenak diren (8) eta hain eraginkorrenak ez diren (7) ikastetxeen kopuruak ere behera egin du. Era berean, ikus daiteke 9 ikastetxek emaitza altuak dituztela, 13 ikastetxek emaitza baxuagoak; eraginkorrenak direnen artetik batere ez dago horien artean, eta aldiz, eraginkortasun maila txikiena dutenen artetik 7 daude Ebaluazio diagnostikoko hiru edizioetan (ED09, ED10 eta ED11).





d) Ikastetxeetako emaitzen azterketatik abiatutako ondorioak

- **ISEKen eragina**

ISEK aldagaiak emaitzetan eragin nabarmena duela eta modu batean edo bestean ikasleen errendimenduan eragiten duela frogatu da. Ondorio horrek 2009ko eta 2010eko Ebaluazio diagnostikoan gai horri buruz egindako azterketa berresten du.

- **Balio erantsiaren garrantzia**

Ekarpen handiena eta txikiena egiten duten ikastetxeen artean (eraginkorrak direnak eta hain eraginkorrak ez direnak), hainbat ikastetxe ISEKeko maila guztietan daude kokatuta, eraginkorrenetakoren batek ebaluazioko ikastetxe guztien batez besteko ISEK baino ISEK maila baxuagoa du. Horrek esan nahi du ikastetxeak eskaintzen dituen hezkuntza-faktoreek (metodologiak, antolaketak, eskolako giroak...) modu eraginkorrean eragiten dutela emaitzetan, ISEK edozein izanda ere.

- **Emaitzen egonkortasuna**

DBHko 2. mailan ebaluatutako ikasleen % 74-% 85,2k, aurreko ebaluazioekin alderatuta, aldaketa adierazgarririk gabe mantentzen ditu kompetentzia guztietan lortutako puntuazioak. Ikastetxe gehienetan, puntuazioetan egonkortasun handia nabari da.





6. EMAITZETAN IZANDAKO ALDEAK AZALTZEKO EREDUA





a) Eraitzen aldakortasunaren azterketa: ikastetxeen arteko bariantza

Matematikarako kompetentzia, errendimenduan izan ohi diren aldeak ikasleen banakako aldeek, familiarakoek eta sozialek azaltzen dituzte kasuen % 83,lean. Ikastetxeen arteko bariantzak errendimenduaren % 16,9 soilik azaltzen du Matematikarako kompetentzia. 2009ko Ebaluazio diagnostikoaren oso antzeko ehunekoak dira.

Eraitzen aldagarritasunaren azterketaren helburua hezkuntza-prozesuan dauden aldagai bakoitzak zein eragin maila duen bilatzea da. Azterketa hori egiteko, garrantzitsua da eraitzan bakoitzaren eragin maila zehaztu ahal izateko nahikoa informazio izatea.

Ikasle batek eraitza jakin bat lortzeko eragiten duten faktoreak zein diren jakiteko, batetik, banakako aldagaiekin lan egiten da; hau da, ikaslearen ezaugarri pertsonalekin eta familiarrekin zerikusia dutenekin. Bestalde, ikastetxeko aldagaiak aztertzen dira, hau da, ikastetxe batek besteen aurrean eskaintzen dituen ezaugarriak; ikasleek ezaugarri horiek gehiago edo gutxiago aprobetxa ditzakete.

Azterketa hau egin ahal izateko, *Matematikarako kompetentzia* aukeratu da, batez ere, *hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren* ezagutzek hainbeste ez dutelako eragiten, eta gainera, luzetarako alderaketak ezartzeko aukera ematen du, aurretik egindako beste ebaluazio batzuen datuak ditugulako²⁴.

2009 eta 2011ko Ebaluazio diagnostikoko probetan, *Matematikarako kompetentzia, bariantza osoa* izeneko eraitzen aldagarritasuna osagarriak diren bi alderditan aztertzen da; batetik, ikastetxeen arteko bariantza eta bestetik ikasleei dagokien bariantza. Alor bakoitzean hau aztertzen da:

- Ikastetxeen arteko bariantza: bakoitzaren ezaugarriek eraitzetan duten eraginari egiten die erreferentzia (programak, ikasleen osaera, funtzionamendu-estrategiak eta abar). Ikastetxeei dagokien bariantzaren ehuneko oso altua denean; ikastetxe bakoitzak eskaintzen duena oso desberdina dela ulertzen da. Ildo horretatik, ustean arabera, ikastetxe bat edo beste bat aukeratzeak garrantzi handia du ikaslearen hezkuntza-etorkizunean.
- Ikasleei dagokien bariantza: banakako ezaugarriek ikasleak lortzen dituen eraitzetan duten eraginari egiten dio erreferentzia (gaitasuna, interesa, familiarako laguntza, aurreikuspen akademikoak eta abar). Ikastetxeak irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ikaslearen ezaugarrietara egokitzeko aintzat hartu beharreko aldagaiak dira.

Bi alderdi horiek bateratu egiten dira. Banakako ikuspegi batetik familiarren maila sozioekonomikoa adibide gisa hartzen baldin badugu, ikaslearen egoera akademikoak bakoitzaren bariantzan eragina du. Hala eta guztiz ere, ikastetxeko edo taldeko ikasle guztien baldintza sozioekonomikoen batez bestekoak eragin desberdina du ikastetxe bakoitzean, eta beraz, ikastetxeen bariantzari eragiten dio.

²⁴ ISEI-IVEI. PISA 2003 ebaluazioaren bigarren txostena. Eraitzak Euskadin. Errendimenduaren aldagarritasuna ikaslearen eta ikastetxearen arabera. Hemen eskuragarri: www.isei-ivei.net

ISEI-IVEI. 2009ko Ebaluazio Diagnostikoa. Faktoreen eta aldagaien azterketa. DBHko 2. maila.



2011ko Ebaluazio diagnostikoan, *Matematikarako konpetentziako* emaitzen arabera, hau da bariantza.

	Bariantza osoa		Ikastetxeen arteko bariantza %	Ikasleen arteko bariantza %
	Guztira	%		
Ikasleak, orotara	2.695	% 100	16,9	% 83,1

Ikus daitekeen moduan, ikastetxeen arteko bariantza askoz ere baxuagoa da ikasleari dagokion bariantzarekin alderatuta. Azken horrek guztizko bariantzaren % 83 baino zertxobait gehiago azaltzen du eta ikastetxeen arteko bariantzak % 17 inguru azaltzen du. Hau da, *Matematikarako konpetentzian*, errendimenduko aldeak ikasleen banakako aldeengatik, familiarrengatik eta sozialengatik azaltzen dira kasuen % 83an.

Jarraian, datu horiek Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleek egindako 2009ko Ebaluazio diagnostikoko datuekin alderatzen dira, baita PISA ebaluazioko datuekin ere (15 urteko ikasleek eginda), Matematika arloan oinarritu zen PISA 2003²⁵ azterketako datuekin soilik, hala ere.

	Bariantza osoa %	Ikastetxeen arteko bariantza %	Ikasleen arteko bariantza %
ED 11-4. LH	% 100	% 12,3	% 87,7
ED09-4. LH	% 100	% 11	% 89
ED 11-2. DBH.	% 100	% 16,9	% 83,1
ED 10-2. DBH	% 100	% 16,5	% 83,5
PISA 2003. Euskadi	% 100	% 15	% 85
PISA* 2003 ELGA	% 100	% 33	% 67,6

**15 urteko ikasleak*

Ebaluazio diagnostikoa egindakoetatik ikastetxe desberdinak eta adin desberdineko ikasleak diren arren, taulan ikus daiteke bariantzak ia-ia ez direla aldatu 2003 eta 2011. urteen artean eta 2003. urteko ELGAko herrialdeen batez bestekoa baino nabarmen baxuagoak direla²⁶; urte hartan, ikastetxeek azaldutako bariantza % 33koa zen, hau da, ikastetxeak emaitzetan duen eragina bikoitza baino handiagoa da. Ikastetxeen arteko bariantzaren ehunekoaren zenbat eta altuagoa izan, ikaslea eskolatzeko ikastetxe bat edo beste bat aukeratzeko orduan eta garrantzi handiagoa du.

Euskadiko datuen arabera, ikastetxeek eragin handia dute ikasleen ikaskuntzan.

²⁵ 2006 eta 2009 urteetako edizioetan, ebaluatu ziren arloak Zientziak eta Irakurketa izan ziren, hurrenez hurren.

²⁶ ELGA: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea.



b) Emaitzetako alde azalpen-eredua

Matematikarako konpetenziaren emaitzetan aldagaiak duten garrantzia eta eragina ezagutzeko, bi mailatako azterketa hierarkikoa egin da; horren arabera da ikasleak lortutako emaitzari emandako ekarpena:

Aldagaien banakako azterketan eta horien guztien azterketa bateratuan, ikasmailerako adin egokian eskolatuta egotea eta ISEK-en balioa (banakakoa eta ikastetxeetako) dira gehien eragiten duten aldagaiak. Egoera hori bera gertatzen zen 2009ko ebaluazioan ere.

Hauek dira Matematikarako konpetentzian emaitzak azaltzeko eragina duten aldagaiak:

Banakako aldagaiak

Aldagaia	Deskribapena	Aukerak
Jaiotza-urtea ²⁷	1995=-2; 1996=-1; 1997=0;	-2; -1; 0
Etorkina	Etorkina ez dena=0; etorkina= 1	0; 1
ISEK	Banakako Indize sozioekonomikoa eta kulturala: (-2,42 eta 1,21 artean)	-2,42 eta 1,21 artean
Sexua	Neska= 0; mutila= 1	0; 1
Etxeko hizkuntza	Euskara ez dena= 0; euskara= 1	0; 1
Probako hizkuntza	Gaztelania= 0; euskara= 1	0; 1

Ikastetxearen aldagaiak

Aldagaia	Deskribapena	Aukerak
Etxeko hizkuntza (ikastetxea) ²⁸	Ikastetxe guztian euskararik ez= 0 Ikastetxe guztian euskara= 1	0 eta 1 artean
Ikastetxeko batez besteko ISEK	Ikastetxearen batez besteko maila sozioekonomiko eta kulturala	-3,68 eta 5,41 artean

- **Modu independentean aztertutako aldagaien efektua**


156. grafikoak banaka aintzat hartutako aldagai bakoitzak egiten dituen ekarpenak biltzen ditu. Horiek adierazteko, kontuan izan behar da azterketa honek kontuan hartutakoaren arabera, emaitzei eragiten dien aldagai bakarrik aztertzen den hura dela. Hori dela eta, koefizienteak adierazten du ikaslearentzat zer puntuazio espero den aldagai horren balioa 0 denean. Balio horri eskolatuta dagoen ikastetxeko ikaslearentzako bere balioaren arabera aztertutako aldagaiaren efektu espezifikoak kendu edo gehitu beharko litzaioke.

²⁷ Errepublikapenarekin lotutako aldagaia da, baina ez da zehazki berbera.

²⁸ 0 eta 1 arteko balioa da eta euskara etxeko hizkuntza aldagaiaren balioen batez bestekoa kalkulatuaz lortzen da. 1ek adierazten du ikasle guztien etxeko hizkuntza euskara dela eta 0k adierazten du ikasleek euskara ez den beste etxeko hizkuntza bat dutela.



156. grafikoa: ED I I-DBHko 2. maila. Modu independentean aztertutako aldagaien efektua.



Hurrengo taulak aldagai bakoitzaren koefizientea eta bakoitzaren puntuazioa islatzen ditu.

Aldagaia	Koefizientea (Puntuazioa)	Aldagaiaren ekarpena
Jaiotza-urtea	256	29,2
Etorkina	251	28,9
Banakako ISEK	251	16,4
Sexua	246	4,3
Etxeko hizkuntza: euskara ez dena	245	17,3
Probako hizkuntza: gaztelania	241	12,9
Etxeko hizkuntza: euskara ez dena (ikastetxea)	243	30,0
Batez besteko ISEK (ikastetxea)	248	30,8

Esate baterako, 1997an jaio direnek, hau da, DBHko 2. mailarako adin egokian daudenek, 256 puntuko esperotako puntuazioa dute *Matematikarako konpetentzian*. Aldagai honek 29,2 puntu kentzen ditu hezkuntza-sisteman izandako atzerapen-urte bakoitzeko; hori dela eta, adina izango balitz emaitzei eragiten dien aldagai bakarra, 1996an jaiotakoek 227 puntuko esperotako puntuazioa izango lukete, eta 1995ean jaiotakoek, 198 puntukoa.

Etorkinak ez diren ikasleen kasuan, *Matematikarako konpetentzian* esperotako puntuazioa 251 puntukoa da eta ikasle etorkinen kasuan, esperotako puntuazioa 222 puntukoa da.

Euskadiko batez bestekoaren berdina den ISEK (0) duen ikasleak 251 puntu lortuko lituzke *Matematikarako konpetentzian*. Aldagai honek ISEK maila bakoitzeko 16,4 puntuko ekarpena egiten du; ondorioz, ikaslearen banakako ISEK -I denean, 235 puntuko puntuazioa espero da eta 267 puntukoa ISEK I en berdina baldin bada.

Neskek 246 puntuko esperotako puntuazioa dute *Matematikarako konpetentzian* eta mutilek 250 puntukoa.



Ikaslearen etxeko hizkuntza ez baldin bada euskara (gaztelania edo beste bat) 245 puntuko puntuazioa espero da; aldiz, euskara baldin bada, *Matematikarako konpetentzian* esperotako puntuazioa 262 puntukoa da.

Ikastetxean *Matematikarako konpetentziako* probarako erabilitako hizkuntzak eta ikastetxean nagusi den etxeko hizkuntzak eragina dute emaitzetan. Esate baterako:

- Probako hizkuntza gaztelania denean, esperotako puntuazioa 241 puntukoa da eta ikasleek proba euskaraz egiten duten ikastetxeek 254 puntuko puntuazioa izango lukete.
- Ikastetxeko edo taldeko batez besteko etxeko hizkuntza egoera hauen artekoa da: ikastetxeko edo taldeko ikasle bakar batek ere ez du euskara etxeko hizkuntza (kasu honetan, esperotako puntuazioa 243 puntukoa da); beste egoera batean, talde osoa euskal hiztuna da; kasu horretan, 273 puntuko puntuazioa izango luke. Aldagai honek eskaintzen du baliorik altuena (30 puntu).

Ikastetxeko batez besteko ISEKek banakako ISEK-en moduan funtzionatzen du, nahiz eta aldagai horrek egin ekarpenik handiena (30,8 puntu ISEK maila bakoitzeko). Hori dela eta, Euskadiko batez bestekoaren berdina den ISEK (0) duen ikastetxe batean, ikasleek 248 puntu izango lituzkete *Matematikarako konpetentzian*; ISEK baxuagoa duen ikastetxe batean egonez gero, puntuazioak behera egingo du (esate baterako, ISEK -1 izanez gero, esperotako puntuazioa, emaitzei eragiten dien aldagai bakarria hori dela suposatuz, 217 puntukoa izango litzateke); aldiz, ISEK positiboa duen ikastetxe batean egonez gero, esperotako puntuazioa koefizientearena baino altuagoa izango da (esate baterako, ISEK 1ekoa izanez gero, 279 puntukoa puntuazioa esperoko da).

Informazio hau garrantzitsua da aldagaien efektua ulertzeko, baina aldagai horiek banaka eragingo balute, eredu modu bateratuan interpretatu beharko da; hau da, beren artean elkarreragiten dutenean aldagai guztien efektuak aztertuz. Jarraian zehazten den eredu bateratua bariantzaren zati garrantzitsu bat azaltzeko gai da.

• Aldagaien azterketa-eredu bateratua

Emaitzetan eragin handia dutenak izango balira bezala eta ekarpen adierazgarria dutenak ezarrita, banaka hartutako aldagaien funtzionamendua aztertu ostean, elkarreraginean ari diren aldagai guztiek *Matematikarako konpetentziako* emaitzetan modu bateratuan duten efektua aztertzen da.

Elkarreraginean dauden aldagaien azterketan, ikasmailerako egokia den adinean eskolatuta egoteak, banakako ISEKek eta ikastetxeoak, eredu bateratuak bermatutako bariantza osoaren % 22,6 azaltzen dute.

Eredu bateratua bariantzaren zati garrantzitsu bat azaltzeko gai da, taulan ikus daitekeen moduan:

ED 11-2. DBH. Bariantza. Matematikarako konpetentzia


	Guztira	Amaierakoa	Amaiera %	Azalduta %
Bariantza osoa	2.695	2.044	% 100	% 24,2
Ikastetxeen arteko bariantza	454	131	% 6,4	% 71,2
Ikasleen arteko bariantza	2.241	1.913	% 93,6	% 14,6



Aldagaien multzo hau emaitzen guztizko aldagarritasunaren % 24,2 azaltzeko gai da. Ikastetxeen arteko emaitzen bariantza nahikoa txikia da, % 6,4ra murriztuta geratzen da; aldiz, ikasleen arteko bariantza handiagoa da eta % 93,6ra iristen da.

Matematikarako konpetentzian, modu bateratuan jarduten dutenean, DBHko 2. mailako ikasleen emaitzetan azalpen-eredu hau osatzen duten aldagaien eragina erakusten du grafiko honek.

157. grafikoa: ED I I - DBHko 2. maila. Modu bateratuan aintzat hartutako aldagaien eragina.



Hurrengo taulak aldagai bakoitzaren koefizientea eta bakoitzaren puntuazioa islatzen ditu batera jarduten dutenean.

Modu bateratuan aintzat hartutako aldagaien emaitzetan duten eragina.

Aldagaia	Aldagaiaren ekarpena
Jaiotza-urtea (1 urteko atzerapena)	-23
Etorkina	-9
Banakako ISEK	11
Gizonezkoa	6
Etxeko hizkuntza: euskara	6
Probako hizkuntza (euskara)	-5
Ikastetxeko ikasle guztien edo eredu euskara dutenen etxeko hizkuntza	16
Batez besteko ISEK (ikastetxea)	11

Aurreko grafikotik eta tauletatik ondoriozta daitekeen moduan, aldagai horien eragina kontuan hartuta, 225,12 puntuko esperotako puntuazioa etorkina ez den neska bati dagokio,



1997an jaiotakoa (egokitasun-urtea), euskara hitz egiten ez duen familia batekoa da, proba gaztelaniaz egin du, ISEK maila 0ren berdina du (Euskadiko batez bestekoa), eskolatuta dagoen taldean ikasleen etxeko hizkuntza ez da euskara eta ikastetxeko batez besteko ISEK 0 da (Euskadiko batez bestekoaren berdina).

Bestalde, mutila izanez gero, 255,12 puntuko puntuazio konstanteari 6 puntu gehituko litzaizkioke, etorkina izanez gero, 9 puntu kenduko litzaizkioke, 1996an jaiotako izan balitz, 23 puntu kenduko litzaizkioke, familia euskaldun batekoa izango balitz 6 puntu batuko litzaizkioke, 1 puntuko ISEK izango balu 11 puntu batuko litzaizkioke, eta *Matematikarako konpetentziako* proba euskaraz egin izan balu, 16 puntu gehituko litzaizkioke.

Eredu bateratu honetan, aldagai bakoitzak eskaintzen duena modu independentean hartutako aldagai bakoitzaren analitiko ondorioztatu denetik oso desberdina da. Kasu honetan, aldagaien balioak egokitzen dira; izan ere, emaitzen aldagarritasuna azaltzen duten faktore desberdinen arteko elkarrekintza nabari da.

Hauek dira emaitzetan duten eraginarengatik aldagai nabarmenenak: taldearentzako adin egokian eskolatuta egotea eta banakako eta ikastetxeko ISEK-en balioa. Hain zuzen ere, hiru aldagai horiek soilik azaltzen duten guztizko bariantzaren % 22,6.

- **Aldagai bakoitzaren ekarpenetan izandako bilakaera azterketa bateratuaren eremuan. ED09-ED11**

Jarraian, aldagai jakin batzuen eragina aztertu den bi ebaluazioen taula alderagarria ikus daiteke; batera aztertu dira eta ikasleek *Matematikarako konpetentzian* lortutako puntuazioak hartu dira aintzat.

	ED09	ED11
Jaiotza-urtea (1 urteko atzerapena)	-25,4	-23
Etorkina	-8,4	-9
Banakako ISEK	9,84	11
Gizonezkoa	4	6
Etxeko hizkuntza: euskara	4	6
Probako hizkuntza (euskara)	-6,5	-5
Ikastetxeko ikasle guztien etxeko hizkuntza (euskara)	21,9	16
Batez besteko ISEK (ikastetxea)	9,07	11

Aldagaien eragina: jaiotza-urtea, probako hizkuntza, ikastetxeko edo ereduko ikasleen etxeko hizkuntzak behera egin du ebaluazio honetako edizioan (ED11) eta gainerako aldagaien eraginak gora egin du: etorkinak, banakako ISEK, sexua, etxeko hizkuntza eta ikastetxeko batez besteko ISEK.





7. IKASTETXEAREN GALDERA SORTA





Ikaslearen emaitzen azterketen osagarri gisa, horietan gehien eragiten duten aldagaiak eta ikastetxeen ezaugarriak aztertuz, jarraian, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan garrantzitsuak diren eta zuzendaritza-taldeek bete behar zituzten ikastetxeen galdera-sortan bildu diren arlo batzuei buruzko datuen deskribapena egiten da.

a) Zuzendaritza-taldeek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko arloei buruz duten pertzepzioa

Ebaluazio diagnostiko honetan, ikastetxeko galdera-sortako atal batek zuzendaritza-taldeek ikastetxeetan irakaskuntza-ikaskuntza prozesuarekin lotutako hainbat arlori buruz duten informazioa biltzen du. Jarraian, galdera-sortan mahai gainean jarritako gaietarako dagokienez iritzia adierazteko garaian aukeratu dituzten erantzunak biltzen dira taulan.

Prozesu jakin batzuk eta erabakiak elkarrekin hartzen diren edo ez aintzat hartuta, zuzendaritza-taldeek % 75en baino gehiagoren ustez, lan horiek guztiak edo ia guztiak taldean egiten dira.

Elkarrekin hartutako prozesuak eta erabakiak. Muturreko balioen esanahiak: 1. Erabakia ez dugu taldean hartu; 4. Erabakia erabat taldean adostuta hartu dugu.

	1	2	3	4	EE/EE
Ikastetxeko Curriculum Proiektuaren berrikusketa-eguneratzea	% 2,1	% 13,4	% 37,4	% 43,2	% 4,0
Arloko programazioaren (AP) diseinua eta garapena	% 1,5	% 12,2	% 38,3	% 47,1	% 0,9
AP ebaluatzeko irizpideen zehaztapena	% 0,9	% 8,5	% 40,1	% 49,8	% 0,6
AP garatzeko materialak eta baliabideak aukeratzea	% 1,8	% 9,4	% 40,7	% 47,4	% 0,6
DBHko Hizkuntza Proiektuak egitea-berrikustea	% 4,9	% 15,5	% 38,9	% 36,2	% 4,6

Taula honetan, hiru hizkuntzetan (euskara, gaztelania eta ingelesa) laneko irizpide komunen gaiari buruzko erantzunak eta horien lau dimentsioak ikus daitezke.

Hizkuntza lantzeko irizpide komunak

	Batere ez	Gutxi	Nahikoa	Asko	EE/EE
Entzumenaren garapena	% 2,7	% 22,2	% 50,5	% 22,8	% 1,8
Mintzamenaren garapena	% 2,7	% 23,7	% 46,8	% 24,9	% 1,8
Irakurmenaren garapena	% 3,0	% 20,7	% 45,6	% 28,9	% 1,8
Idazmenaren garapena	% 2,7	% 21,6	% 45,3	% 28,6	% 1,8

“Nahikoa” eta “asko” erantzunen ehunekoak batuz gero, ikastetxeen % 71n baino gehiagotan hiru hizkuntzen lau dimentsioak lantzeko irizpide komunak daudela ikus daiteke.



Hurrengo taulan ikus daiteke ikasgelan taldekatzeak egiteko garaian zer irizpide hartzen diren kontuan; % 56,2k nesken eta mutilen arteko oreka nabarmentzen du irizpide gisa; ikastetxeen % 55,6etan ikasleen heterogeneotasuna hartzen da kontuan eta % 37,4tan hizkuntza-arrazoiak.

Ikasgelako taldekatzeak egiteko garaian erabiltzen diren irizpideak

	%
Ordena alfabetikoaren arabera	% 11,2
Mutilen eta nesken oreka	% 56,2
Hizkuntza-arrazoiak	% 37,4
Eskola-errendimendua	% 21,3
Homogeneotasuna	% 13,7
Heterogeneotasuna	% 55,6
Lerro bakarra dago	% 17,6
Beste batzuk	% 24,9
ED/EE	% 0,9

Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan tutoretzak esleitzeko garaian, zuzendaritza-taldean % 77,5en ustez, ikasleekin denbora gehiago pasatzen duten irakasleak direla erabilitako irizpidea, ia % 61en ustez, zikloan jarraitzea, % 48,6k irakasleek zikloan esperientzia gehiago izatea aipatzen du irizpide gisa, eta % 44,4k irakasleak ikastetxean lanaldi osoz egotea.

Tutoretzak esleitzeko garaian erabiltzen diren irizpideak

	%
Irakasleen lehentasunak	% 18,2
Ikasleekin denbora gehiago ematen duten irakasleak	% 77,5
Zikloan esperientzia gehien duten irakasleak	% 48,6
Zikloan jarraitzea	% 60,8
Lanaldi osoko irakasleak	% 44,4
Antzinatasuna	% 2,7
Txandaka	% 22,5
Beste batzuk	% 28,0
ED/EE	% 0,0

Hurrengo taulan, ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek irakasleek ikasleen jarrerekin eta aurreikuspenekin lotuta eman duten erantzuna erakusten da.

Hauk dira adostasun gehien sortzen duten esaldiak: irakasleek ikasleak motibatzen dituzte (% 94,6), ikasle guztien banakako beharrei aurre egiten die (% 87,5), gaitasun maila desberdina duten ikasleei zuzendutako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak diseinatu eta garatzen ditu (% 84,8). Gainerako esaldietan % 74 baino zertxobait gehiago eta ia % 80 arteko adostasuna dago.



Irakasleen jarrerak eta aurreikuspenak

	Ez nago batere ados	Ez nago ados	Ados	Gutziz ados	ED/EE
Ikasleak beren gaitasun guztia garatzera motibatzen ditu.	% 0,3	% 3,0	% 65,7	% 28,9	% 2,1
Ikasleei dagokienez aurreikuspen handiak ditu.	% 0,3	% 17,0	% 67,8	% 10,9	% 4,0
Ikasle guztien banakako beharrei aurre egiten die.	% 0,3	% 10,3	% 62,0	% 25,5	% 1,8
Aldakuntzarako eta berrikuntzarako prest dago.	% 0,6	% 18,2	% 60,5	% 18,2	% 2,4
Gaitasun desberdineko mailak dituzten ikasleentzako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak diseinatu/garatu ditu.	% 0,3	% 13,1	% 66,3	% 18,5	% 1,8
Jatorri etniko, hizkuntzako, kultural... desberdineko ikasleentzako irakaskuntza-prozesu desberdinak garatu/deseinatzen ditu.	% 0,9	% 15,5	% 56,8	% 17,6	% 9,1

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen % 92,4tan irakasleen prestakuntza-plan bat dago 2010-2011 ikasturtean. Horien artetik % 62,6tan parte hartzen dute irakasleen % 90-% 100ek, eta % 10,3tan parte hartzen dute irakasleen % 80-% 89,99k.

Prestakuntza-planetan gehien lantzen diren gaiak taulan ageri dira. Ehunekoak % 50 gainditzen duen prestakuntza-gaiak soilik aipatzen dira:

Prestakuntza-gaiak

	% erantzunak
Eskola 2.0. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak	% 71,4
Alderdi metodologikoak	% 67,5
Hizkuntza arloko alderdiak	% 59,9
Curriculum arloko alderdiak	% 59,0
Elkarbizitza-plana	% 53,8

Ikastetxeei, prestakuntza-planetz gain, beste prestakuntza-jarduera batzuk garatuko dituzten galdetu zaie. Hurrengo taulan biltzen dira zuzendaritza-taldeek gai honi emandako erantzunak:

Prestakuntza-jarduerak

	Bai	Ez	ED/EE
Irakasteko gaitasuna hobetzera zuzendutako prestakuntza-jarduerak	% 77,2	% 19,5	% 3,3
Natur Zientzietan ikasleen errendimendua hobetzera zuzendutako prestakuntza-jarduerak	% 27,7	% 65,3	% 7,0
Zuzendaritza-taldearekin egindako prestakuntza-jarduerak lidergo- eta zuzendaritza-gaitasuna hobetzera zuzenduta	% 45,3	% 51,4	% 3,3
Ikasgela berebanean bi irakaslek parte hartzen duten irakaskuntza-prozesuak	% 45,9	% 51,1	% 3,0
Arlo bereberek irakasleen artean irakaskuntza-jardueraren berrikusketa-prozesuak	% 62,6	% 33,1	% 4,3
Ikastetxetik kanpo dauden langileen irakaskuntza-jardueraren behaketa-prozesuak	% 18,8	% 74,5	% 6,7



Jarraian, ikastetxeek prestakuntza-planak garatzen dituzten erakundeen gainean emandako informazioa biltzen da eta interpretatzeko garaian kontuan hartu behar da galdera hauei emandako erantzunak ez direla baztertzailak.

Prestakuntza-planak garatzen dituzten erakundeak

	Sare publikoa	Itunpeko sarea
Berritzegunea	% 87,6	% 86,0
Unibertsitatea	% 20,2	% 22,5
Prestakuntzako erakunde pribatuak	% 38,8	% 79,0
Hainbat zentroyen arteko prestakuntza	% 14,0	% 42,5
Modu autonomoan	% 65,1	% 50,5
Beste modu batean	% 10,1	% 22,0

Bi sareetako (publikoa eta itunpekoa) zuzendaritza-taldean ustez, ikastetxeetako prestakuntza taldeetan garrantzi gehien duen erakundea Berritzegunea da (% 87,6 eta % 86, hurrenez hurren). Itunpeko sareko zuzendaritza-taldeen diote prestakuntza-planak sare pribatuekin sare publikoekin baino gehiago garatzen dituztela (% 79 eta % 38,8 hurrenez hurren). Bi sareetan prestakuntza-planak modu autonomoan garatzen dira kasuen % 50ean baino gehiagotan.

b) Zuzendaritza-taldeen elkarbizitza eta ikaskuntza arlokoen gainean duten pertzepzioa

Zuzendaritza-taldeen betetako galdera-sortan elkarbizitzarekin lotutako egoeretan eragiten duten eta ikasleek ikaskuntzari eragin dien arlokoen buruzko informazioa biltzera zuzendutako hainbat gai daude.

Galdera-sortan aztertzen den lehen alorra irakasleek ikastetxean duten egonkortasuna da. Hurrengo taulan, azken urtean eta azken hiru ikasturteetan galdera-sorta erantzun duten ikastetxeen aldaketan ehunekoa islatzen da.

Ikastetxeetan irakasleen egonkortasunaren ehunekoa

	Azken ikasturtea	Azken 3 urteak
Ez da aldaketarik egon	% 35,1	% 14,9
Langile guztien % 25 aldatu da	% 47,3	% 61,3
Langile guztien % 26tik % 50era bitartean aldatu dira	% 12,2	% 14,0
Langile guztien % 51tik % 75era bitartean aldatu dira	% 1,5	% 3,7
Langile guztien % 75 baino gehiago aldatu da	% 0,3	% 1,5
Ez daki/Ez du erantzuten	% 3,7	% 4,6

Hurrengo taulan azterketa egin da ikastetxeen titulartasunaren arabera eta azken urtean egindako aldaketak soilik hartu dira kontuan:



Ikastetxeetan irakasleen egonkortasunaren ehunekoa titulartasunaren arabera

	Publikoa	Itunpekoa
Ez da aldaketarik egon	% 3,1	% 55,5
Langile guztien % 25 aldatu da	% 60,2	% 39,0
Langile guztien % 26tik % 50era bitartean aldatu dira	% 30,5	% 0,5
Langile guztien % 51tik % 75era bitartean aldatu dira	% 2,3	% 1,0
Langile guztien % 75 baino gehiago aldatu da	% 0,0	% 0,5
Ez daki/Ez du erantzuten	% 3,9	% 3,5

Irakasleen egonkortasunari dagokionez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikastetxe publikoen eta itunpekoen arteko aldea handia da. Itunpeko ikastetxeen % 55,5etan ez da irakasle-aldaketarik izan azken urteetan; aldiz, ikastetxe publikoetan, egoera hori ikastetxeen % 3,1etan soilik gertatzen da.

Ikasleen ikaskuntza zailtzen duten egoerei dagokienez, zuzendaritza-taldearen iritzia taula honetan biltzen da:

Ikasleen ikaskuntza zailtzen duten egoerak

	Batere ez/Gutxi	Nahikoa/Asko
Ikasleen absentismoa	% 81,7	% 18,0
Ikaslea modu jarraituan berandu iristen da	% 84,2	% 15,3
Irakasleei errespeturik ez	% 75,9	% 23,8
Jarrera disruptiboak	% 61,3	% 38,1
Ikasleen arteko tratu txarra	% 85,7	% 13,4
Irakasleen eta ikasleen arteko harreman urria	% 83,5	% 15,9
Irakasleak maiz falta dira	% 88,4	% 11,3
Taldean, irakasleak maiz ordezkutzen dira	% 81,4	% 18,3
Ikastetxean ordezkapen gehiegi egiten dira	% 79,3	% 20,1
Ikaslearen interesik eza	% 35,3	% 64,3
Familiaren parte hartzea falta da	% 49,7	% 50,3
Ikaslearen integrazio-arazoak	% 80,7	% 18,3
Ikasleek alkohola edo drogak kontsumitzea	% 85,9	% 9,8

*Ez dira ED/EEri dagozkion ehunekoak ageri.

Taulan ikus daitekeen moduan, ikastetxeetako zuzendaritza-taldeen % 64 baino gehiagoren ustez, interesik eza da ikasleen ikaskuntza gehien zailtzen duen egoeretako bat, % 50,3ren ustez, familien inplikazio gabezia eta % 38,1en ustez ikasleen jarrera disruptiboak.

Azken hiru urteetan ikasleen arteko arazoaren bilakaerari dagokionez, zuzendaritza-taldeen % 40,5en ustez, berdin mantendu da, % 33,5en ustez, behera egin du zertxobait eta % 12,2ren ustez nabarmen egin du behera.



Gatazken bilakaera azken hiru urteetan

	% erantzunak
Nabarmen murriztu dira	% 12,2
Zertxobait murriztu dira	% 33,5
Mantendu egin dira	% 40,5
Zertxobait gora egin dute	% 7,9
Nabarmen egin dute gora	% 0,9
Ez daki/Ez du erantzuten	% 4,9

Hurrengo taulan, zuzendaritza-taldeek ikastetxeen elkarbizitza hobetzeko eta arazoak saihesteko egiten diren jarduerekin lotutako erantzunak ikus ditzakegu:

Elkarbizitza hobetzeko jarduerak

	%
Irakasleak elkarbizitzari buruz prestatu eta koordinatzea	% 61,1
Elkarbizitzari buruzko hainbat programatan parte hartzea	% 51,1
Tutoretzetan, elkarbizitza-programetan, elkar ezagutzetan... lan egitea	% 90,3
Antolaketa eta Jarduera Araudia (AJA) eguneratzea	% 66,6
Metodologia parte hartzaileago baten alde egitea	% 50,8
Ikastetxearen antolaketan irakasleen inplikazioan parte hartzearen alde egitea	% 58,7
Beste batzuk	% 18,2

Hurrengo taulan, ikasleen arteko gatazkengatik esku-hartze jakin batzuk zenbat aldiz gauzatu diren galdetean zuzendaritza-taldeek emandako erantzunak ikus daitezke.

Ikasleen gatazkek eragindako jarduerak

	Inoiz ez	1-3 aldiz	4-6 artean	7-10 artean	10 baino gehiagotan
Hutsegite arinengatiko zigorrak	% 3,7	% 13,4	% 13,1	% 14,6	% 51,8
Hutsegite larriengatiko zigorrak	% 11,0	% 35,4	% 25,0	% 12,2	% 14,6
Hutsegite oso larriengatiko zigorrak	% 43,0	% 35,4	% 11,9	% 4,6	% 3,4
Eskola Kontseiluak eta OOGk ²⁹ izapidetutako aldi baterako kanporatzeak	% 56,7	% 28,7	% 6,4	% 1,8	% 3,0
Polizari egindako salaketak	% 89,3	% 8,5	% 0,3	% 0,0	% 0,0
Ikastetxearen aldaketa	% 87,2	% 11,0	% 0,3	% 0,0	% 0,0

*Ez dira ED/EEri dagozkion ehunekoak ageri.

²⁹ OOG: Ordezkaritza Organo Gorena.



Ikasleen gatazken aurrean hartutako esku-hartzeei dagokienez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zuzendaritza-taldeek ia % 52k dio hutsegite arinengatik zigorrak aplikatu behar izan dituztela 10 aldiz baino gehiagoz; % 35,4k batetik hirura arteko tartean jarri du zigorra hutsegite larriengatik edo oso larriengatik; ia % 29k Eskola Kontseiluak eta OOGk izapidetutako aldian behingo kaleratzeak 1 eta 3 artean aplikatu ditu. Beste mota bateko zigorren aplikazioaren gainerako ehunekoak % 12 baino gutxiago dira.

ISEI-IVEIk Bullyingaren inguruan egindako ikerketetan gai honi buruzko datu zehatzagoak kontsulta daitezke.





**8. 2011ko EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN ONDORIO
OROKORRAK**





a) Ebaluatutako konpetentzietako errendimenduari dagokionez

- *Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietan*, 2011ko Ebaluazio diagnostikoan DBHko 2. milako ikasleek lortutako emaitzak 2009ko Ebaluazio diagnostikoan lortutakoak baino nabarmen altuagoak dira eta ED10ean lortutakoak baino nabarmen baxuagoak.
- *Matematikarako konpetentzian* DBHko 2. mailako ikasleek lortutako emaitzak mantendu egiten dira Ebaluazio diagnostikoko hiru edizioetan (ED09, ED10 eta ED11).
- *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, itunpeko hiru geruzek 250ean ezarritako batez bestekoa gainditzen dute. Ingeleseko eskolaz kanpoko eskoletan parte hartzen duten ikasleek (% 43,6) eskola horietara joaten ez direnek baino 32 puntuko batez besteko altuagoa lortu dute.

b) Aldagai jakin batzuek ikasleen errendimenduan duten eraginari dagokionez

- *Matematikarako konpetentziaren, Gaztelaniazko eta Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* emaitzetan ISEKen efektua bertan behera gelditzen denean, geruza publikoen batez bestekoak itunpeko geruzetakoak baino nabarmen baxuagoak dira.
- Ebaluazio diagnostikoko aurreko bi edizioetan (ED09 eta ED10) gertatu zen moduan, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* emaitza hizkuntza-ereduak zehaztuta dago. Era berean, D ereduak da konpetentzia honen batez bestekoaren gainera kokatzen den bakarra. Hiru ereduaren artean, emaitzen aldea estatistikoki adierazgarria da.
- Nesken errendimendu maila mutilena baino altuagoa da ebaluatu diren hiru *hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietan*. *Matematikarako konpetentzian* mutilek neskek baino puntuazio nabarmen altuagoak lortu dituzte.
- DBHko 2. mailako ikasleen % 80,5 adinaren arabera dagokion mailan dago, eta adinaren arabera urtebeteko edo bi urteko atzerapena daraman ikasleak baino errendimendu nabarmen handiagoa lortu du ebaluatutako konpetentzia guztietan. Egoera hori bera gertatu zen aurretik egindako bi Ebaluazio diagnostikoetan (ED09 eta ED10) ere.
- *Matematikarako konpetentziako* proba etxeko hizkuntzan egiten duten ikasleek beste hizkuntza batean egiten dutenek baino emaitza nabarmen altuagoak lortu dituzte. Hori bera gertatu zen Ebaluazio diagnostikoaren aurreko edizioetan ere.
- Aitaren eta amaren ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan, ebaluatutako konpetentzia guztietako emaitzak orduan eta hobeak izango dira. Egoera hori Ebaluazio diagnostikoko aurreko edizioetan ere ikusi genuen. Gurasoek oinarrizko ikasketak dituzten ikasleen eta gurasoek unibertsitateko ikasketak dituztenen artean, ebaluatutako konpetentzietan, 36 eta 53 puntu arteko aldea



dago.

- Ikasgelako kalifikazioen eta *Matematikarako konpetentziako* ebaluazioko errendimenduaren artean lotura positiboa dago. Ikasgelako kalifikazio altuari Ebaluazio diagnostikoan ere puntuazio altua dagokio. Ebaluazio diagnostikoaren edizio guztietan gertatu da hori. Matematika arloan oso ongi eta bikain notak lortu zituzten ikasleek (ikasleen % 52,2) soilik lortu dute *Matematikarako konpetentzian* batez besteko puntuazioa (250,7 puntu) gainditzea.
- Ikaslea eskolatuta dagoen taldearen maila akademikoak ikasleak ikasgelan lortutako kalifikazioak baldintzatzen ditu; izan ere, irakasleek ikasgelan ikasleen artean egon ohi den sakabanaketa egokitzeko joera izan ohi dute eta beren ebaluazio-irizpideak taldeari egotzen zaion erdi-mailara egokitzen ditu. Egoera hori nabarmendu da Ebaluazio diagnostikoko edizio guztietan.
- Jatorriz atzeritarrak diren ikasleek (ebaluatutako ikasle guztien % 8,3) batez bestekoa baino puntuazio baxuagoak lortzen dituzte konpetentzia guztietan, batez ere *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* kasuan. Aurreko ebaluazioei dagokienez, *Matematikarako konpetentziako* emaitzak mantendu egin dira Ebaluazio diagnostikoko hiru edizioetan zehar; aldiz, *Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* emaitzak hobetu egin dira.
- Ikasle etorkinen pilaketa handiagoak edo txikiagoak ez du eraginik bertako ikasleen eta ikasle etorkinen *Matematikarako konpetentziaren* emaitzetan. ISEK da bi populazioen puntuazioetan eragin gehien duen aldagaia, baina hori indar handiagoz gertatzen da bertako biztanleengan etorkinengan baino.
- Atzerriko ikasleei dagokienez, zuzendaritza-taldean iritziari dagokionez, ia % 51en ustez, irakasleen prestakuntza ona edo oso ona da. % 84,5 ingururen ustez, ikasle etorkinek egokitzapen ona edo oso ona izan dute ikastetxeetan. Azkenik, zuzendaritza-taldean ustez, ikasle etorkinen txertaketari gehien eragiten dien aldeak hizkuntzarekin eta haien herrialdeko ikasketa mailarekin zerikusia dutenak dira.
- Ikasleek haientzat dituzten ikasketa-aurreikuspenen eta Ebaluazio diagnostikoan dituzten emaitzen arteko harremana positiboa da, zenbat eta aurreikuspen gehiago, emaitzak orduan eta altuagoak izango dira. 2009ko ebaluazioan aldagai honekin egindako egiaztapena berretsi da.
- Etxerako lanak egunero, gutxienez ordubetz eta gehienez bi orduz egiten dituzten ikasleek lortzen dituzte emaitzarik onenak konpetentzia guztietan. Bestalde, ikasketetan laguntzarik behar ez duten ikasleek lortzen dituzte puntuaziorik onenak.
- DBHko 2. mailan eskolatutako ikasleen artean, 1.318 ikaslek Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programa (HBSP) bati jarraitzen diote. Ebaluatutako konpetentzia guztietan lortutako puntuazioak Euskadin lortutako batez bestekoa baino askoz ere baxuagoak dira.



- DBHko 2. mailan, ebaluazio honetan, sartzeko edota arloko CEI duten ikasleen guztizko kopurua 209 ikaslekoa (% 1,1) izan da. Horien artetik, % 60,8 sare publikoko ikastetxeetan dago eskolatuta eta % 39,2 itunpeko sarean. Mutilen ehunekoak (% 57,9) neskena baino nabarmen altuagoa da (% 42,1).
- Aldagaien banakako azterketan eta horien guztien azterketa bateratuan, ikasmailarako adin egokian eskolatuta egotea eta ISEKen balioa (banakakoa eta ikastetxeetakoa) dira gehien eragiten duten aldagaiak. Egoera hori bera gertatzen zen 2009ko ebaluazioan ere.

• **Ikastetxeen lortutako emaitzen eta eraginkortasunaren inguruan**

- Ebaluazio diagnostikoaren aurreko bi edizioetan (ED09 eta ED10) agerian jarri zenez, ISEK aldagaiak ikasleen errendimenduan eragiten du modu batean edo bestean.
- Eraginkortasun handiena eta txikiena duten ikastetxeen artean, hainbat ikastetxe ISEKeko maila guztietan daude kokatuta. Horrek esan nahi du ikastetxeak eskaintzen dituen hezkuntza-faktoreek (metodologia, antolaketa, eskola-giroa, zuzendaritza-taldearen lidergoa...) modu eraginkorrean eragiten dutela emaitzetan, ISEK edozein izanda ere.
- DBHko 2. mailan ebaluatutako ikasleen % 74-% 85,2k, aurreko ebaluazioekin alderatuta, aldaketa adierazgarririk gabe mantentzen ditu konpetentzia guztietan lortutako puntuazioak. Ikastetxe gehienetan, puntuazioetan egonkortasun handia nabari da.

• **Ikastetxeko galdera-sortari dagokionez**

- **Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuei dagokienez zuzendaritza-taldeek duten pertzepzioa**
 - Prozesu batzuk eta erabakiak elkarrekin hartzea edo ez. Zuzendaritza-taldearen % 75 baino gehiagoren ustez, lan horiek taldean egiten dira guztiz.
 - Ikasgelako taldekatzeak egiteko garaian erabiltzen diren irizpideak. Ikastetxeen % 55,8etan ikasleen heterogenotasuna hartzen da kontuan; % 56,4k neska eta mutilen arteko oreka hartzen du irizpide gisa eta % 37,5ek hizkuntza-arrazoiak.
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan tutoretzak esleitzea. Zuzendaritza-taldearen % 79 baino zertxobait gehiagoren ustez, irakasleak zikloan jarraitzea da irizpidea; % 52ren ustez, ikasleekin ordu gehien pasatzea, eta % 35 baino zertxobait gehiagoren ustez, berriz, irakasleek lanaldi osoa izatea da irizpide nagusia.
 - Ikasleei dagokienez, irakasleek dituzten jarrerak eta aurreikuspenak. Hauek dira adostasun gehien sortzen duten baieztapenak: ikasleak motibatzen dituzten irakasleak (% 96,1) eta ikasle guztien banakako beharrei aurre egiten



dietenak (% 92,4). Gainerako baieztapenetan, % 78 eta % 89 arteko akordioa dago.

- **Zuzendaritza-taldeek elkarbizitza eta ikaskuntza arloen gainean duten pertzepzioa**
 - Irakasleen egonkortasuna. Azken urteetan, itunpeko ikastetxeen % 55,5etan ez da inolako aldaketarik izan; aldiz, ikastetxe publikoetan, egoera hori ikastetxeen % 3,1etan soilik gertatzen da.
 - Ikasleen ikaskuntza zailtzen duten egoerak. Ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek % 64ren baino gehiagoren ustez, ikasleen interesik eza dago tartean; % 50,3ren ustez, familien inplikazio gabezia, eta % 38,1en iritziz, ikasleen jarrera disruptiboak.
 - Arazoak saihesteko eta elkarbizitza hobetzeko egiten diren jarduerak dagokienez, % 39-41ek hau erantzuten dute: Irakasleen prestakuntzan eta koordinazioan parte hartzea, elkarbizitzako programetan eta gai honi buruzko tutoretza-programetan parte hartzea, antolaketa eta funtzionamenduaren araudia eguneratzea eta beste jarduerak batzuk.